



2023

# BILDUMA



# 31



# Errenteriako industrializazio garaiko etxebizitza auzoen azterketa eguneroko bizitza eta harreman komunitarioen ikuspegitik

Itsaso Larramendi Elexgaray  
Maddi Texeiro Tarazaga  
Ane Abarrategi Zaitegi

XV. Koldo Mitxelena Ikerketa Beka (2020)



**ERRETERIA**  
UDALA

**BILDUMA:**

Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzuaren aldizkaria. Errenteriako Udala.

**Argitaratzen du:**

Errenteriako Udala. Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzua.

**Idazlanak, harpidetzak eta administrazioa**

Errenteriako Udal Artxiboa. Errenteriako Udala.

Herriko plaza, z/g. 20100 Errenteria

Tfno: 943 44 96 10 - Fax: 943 44 96 60

E-mail: artxiboa@errenteria.eus

I.S.S.N: 0214-624X

BILDUMA (Errenteria).

**Maketazioa:**

Signos Publicidad & Comunicación, s.l.u.

**Inpresioa:**

Villena Artes Gráficas

**Azala / Atzeko azala:**

Paisajes Españoles (Copyright)

**Aldizkari honek Creative Commons lizentzia du (kontrakoa aipatzen ez den guztian):**

Creative Commons BY-NC-SA: Aitortza - Ez-komertziala

Partekatu berdin 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 ES)



## Aurkibidea

<b>0. Laburpena</b>	<b>7</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>9</b>
1.1 Hipotesia eta helburuak	9
1.2 Metodologia	10
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>25</b>
2.1 Mugimendu Modernoa eta Atenaseko Agiria	25
2.1.1 Mugimendu Modernoaren sorrera	25
2.1.2 Hirigintza berri baterako proposamena: hirigintza funtzionalista	26
2.1.3 Atenaseko Agiriak sustatutako hiri ereduaren inguruko eztabaida eta ezeztatzea	30
2.1.4 Mugimendu Modernoaren irizpideetan oinarrituta sortutako etxebizitza-bloke prototipoak	32
2.2 Hirigintza feminista	37
2.2.1 Nondik gatoz	38
2.2.2 Hirigintza feminista baterako proposamena	47
<b>3. Mugimendu Modernoaren eragina gure testuinguruan:     1950-1980 hiri-garapena</b>	<b>51</b>
3.1 Hiri eredu modernoaren gorpuztea Gipuzkoan eta Errenterian: 1950 eta 1980 urteen arteko garapen urbanistikoa	51
3.1.1 CIAMen eragina Gipuzkoako arkitekto eta hirigileengan	51
3.1.2 CIAMen ideien isla Gipuzkoako probintzia ordenazioan	53
3.1.3 Errenteriaren hiri garapena 1950 eta 1980 urteen artean	62
3.2 Auzoen sorrera eta irizpide arrazionalisten isla beren hiri-ezaugarrietan	74
3.2.1. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen sorrera prozesua	78
3.2.2. Lau auzoetako eraikin tipologia nagusiak	106
3.2.3. Mugimendu Modernoak sortutako etxebizitza prototipoen isla auzoetako etxebizitza tipologia nagusietan	127

<b>4. Auzoen azterketa hirigintza feministaren ikuspegitik</b>	<b>137</b>
4.1 Auzoen deskribapena: biztanleria, hiri-ezaugarriak eta eguneroko bizitza	137
4.1.1 Azterketa eremuaren definizioa	139
4.1.2 Lau auzoen ikuspegi orokorra: biztanleriaren datu konparatuak	140
4.1.3 Alaberga	144
4.1.4 Galtzaraborda	159
4.1.5 Beraun	177
4.1.6 Kaputxinoak	194
4.2 Auzoen hiri-ezaugarrien azterketa hirigintza feministaren ikuspegitik	212
4.2.1 Alaberga	219
4.2.2 Galtzaraborda	221
4.2.3 Beraun	224
4.2.4 Kaputxinoak	226
4.2.5 Lau auzoen azterketaren emaitzen laburpena	228
4.2.6 Sortutako adierazleen inguruko hausnarketa	238
<b>5. Auzoen hiri-ezaugarrien ebaluazioa eguneroko bizitzaren eta harreman komunitarioen ikuspegitik: ahulguneak eta indarguneak</b>	<b>239</b>
5.1 Alaberga	239
5.2 Galtzaraborda	244
5.3 Beraun	250
5.4 Kaputxinoak	256
5.5 Laburpena	261
<b>6. Eranskinak</b>	<b>263</b>
6.1 Parte-hartu duten auzokideen zerrenda	263
6.2 Lau auzoen hiri-ezaugarrien azterketa-taulak hirigintza feministaren ikuspegitik	264
6.2.1 Alaberga	264
6.2.2 Galtzaraborda	266
6.2.3 Beraun	269
6.2.4 Kaputxinoak	272
6.3 Bibliografia	275
6.4 Resumen / Résumé / Summary	279

## 0. Laburpena

XX. mende hasieran Mugimendu Modernoa deritzon korrante berritzailea sortu zen arkitektura eta hirigintzaren esparruan. Hiri industrialak eragindako hiri-osasun baldintza eskasen aurrean, higienismoan oinarritutako arkitektura berria proposatu zuten arkitekto modernoek. 1933an, hirien diseinurako jarraitu beharreko hainbat irizpide jaso zituzten Atenaseko Agirian, eta Hirigintza Funtzionalistaren oinarriak ezarri zituzten. Ideia horiek izugarritzko eragina izan zuten ondorengo hamarkadetan eraiki ziren hiriguneen formalizazioan, eta ondorioz, baita Errenterian Frankismo garaian eraiki ziren auzoen ezaugarrietan ere.

Garaiko auzoak, funtsean, etxebizitza poligonoak ziren, eskualdeko industria guneetako langileen bizitegi bezala sortuak. Urte horietan Errenterian sortu ziren lau auzo aztertu ditugu lan honetan, auzokideen eguneroko bizitza errazteko eta harreman komunitarioak eragiteko dituzten indargune eta ahulguneak identifikatzeko. Udallerriaren mendebaldeko eremua hartzen duten auzoetan zentratu dugu azterketa: Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetan. 50eko eta 80ko hamarkaden artean sortutako lau auzo horiek hirigintza feministaren begiradatik aztertu ditugu, eguneroko bizitzaren esfera ugalkorra eta auzo-harremanak garatzeko orduan, inguru eraikiak ezartzen dituen baldintzak ezagutzeko.

Lan honen bitartez, gure testuinguruko herri eta hirietako auzune askoren hiri-morfologian Mugimendu Modernoak izan zuen eragina azaldu nahi izan dugu, ondoren, auzokideen egunerokoaren begiradatik aztertu eta dituzten hiri-ezaugarrietatik ikaspenak eratoritzeko. Gure inguruan asko baitira hamarkada horietan sortutako auzoak, sarri gutxietsiak eta balioan jarri gabeak, eta egun egiten ari garen hirigintzarako ikaspen interesgarriak eman diezazkigutenak.

### Hitz gakoak

Hirigintza funtzionalista, hirigintza feminista, Errenteria, garapenkeria, eguneroko bizitza.





# 1. Sarrera

## 1.1 Hipotesia eta helburuak

XX. mende hasierako Mugimendu Modernoaren planteamenduek izugarri eragin zuten ondorengo hamarkadetan garatu zen hirigintzaren ikuspegian. Aldi berean, XX. mendearen bigarren erdian zehar Europako hiriguneek hazkunde handiak jasan zituzten. 2. Mundu Gerrak eragindako hondamendiak berreraiki beharrak, eta 50eko eta 60ko hamarkadetan eman zen *baby boom* fenomenoak, etxebizitza berrien eraikuntza beharra nabarmen hazi zuen. Gure testuinguruan ere hazkunde handia jasan zuten hiriek eta tarteko tamainako herriek. Kasu honetan, *baby boom* fenomenoak eragindako hazkunde demografikoari, Gerra Zibilaren ondorengo hirigune suntsituak berreraiki beharra gehitu zitzaion, eta baita bigarren industrializazioak landa-eremuetatik hirigune industrializatuenera eragin zuen migrazioa eta bere ondoriozko populazio hazkuntza ere. 40ko hamarkadatik aurrera eraikitako auzune berriek Mugimendu Modernoak planteatutako Hirigintza Funtzionalistaren planteamenduen eragin handia izan zuten, eta oinarri horien artean zonakatzearena gai gakoa da. Habitatzeari, lan egitea, aisialdiarantz gozatzeari eta zirkulatzearen arrazionalismoak hiriak planifikatzeko aintzat hartzen zituen bizi-funtzioak, eta premisa horri abiapuntutzat hartuz, hainbat funtzio bakarreko hirigune eraiki dira gure inguruan gaur arte. Horien artean daude gure hiri eta herri ia gehienetan topa ditzakegun etxebizitza poligonoak, ia etxebizitza hutsez osatutako auzuneak.

Egun sustatzen ari den hirigintza ereduak bestelakoa da. Gure garaiari berezko zaion konplexutasunak hirigintza ulertzeko moduari ere eragin dio. Faktore sozialek, linguistikoek, ekonomikoek edo inguruneari lotutakoek hirigintzarekin duten harremana gero eta modu esplizituagoan lantzen ari da, eta konplexutasun horren zentroan pertsonak jartzeko apustua egiten ari da, diskurtso biki bada ere. Funtzionalismoaren eta hazkunde amaigabearen paradigma kolokan dagoen honetan, feminismoak marko aberatsa ematen digu hirigintza humano eta barneratzaile bat sustatzeko, eta berezko zaigun konplexutasuna bistatik ez galtzeko. Eguneroko bizitza garatzen lagunduko digun hirigintza bat egiteko, zaintza lanak erraztuko dituen eta pertsonen arteko harremanak sustatu. Pertsonen aniztasuna aintzat hartuko duen hirigintza bat egiteko, egiturazkoak zaizkigun botere harremanak lausotuko dituen.

Bi paradigma horiek gurutzatu nahitik abiatzen da ikerketa. Nola garatzen dira zaintza lanak eta harremanak zonakatzearen paradigmapean eraikitako auzuneetan? Eta hori testuinguru konkretu batera eramanez, nola garatzen da eguneroko bizitza 1950 eta 1980. urteen artean Erreterian eraiki ziren Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoetan? Lanaren helburu nagusia beraz, hamarkada ezberdinetan eraiki ziren lau auzo horien hiri ezaugarriak aztertzea da, auzokideen arteko harremanak eta eguneroko bizitza bere konplexutasunean garatzeko ezartzen dituzten baldintzak ezagutzeko.

Hortik abiatuta, beste bost helburu planteatu ditugu Mugimendu Modernoaren postulatuek aztergai ditugun lau auzoetan izan zuten eragina ulertzeko; eta baita, auzoen egungo hiri ezaugarrien azterketa egiteko ere eguneroko bizitzaren begiradatik:

Lehenengoa, Mugimendu Modernoaren planteamenduen eragina aztertzea Erreteriak 1950 eta 1980 urteetan izan zuen hazkundean, eta bereziki Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoetan.

Bigarrena, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen sorrera prozesuaren irudi orokorra marraztea beren ezaugarritzea gidatu zuten tresna urbanistikoetan oinarrituta.

Hirugarrena, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen morfologiaren eta hiri ezaugarrien azterketa egitea hirigintza feministaren begirada eta parametroetatik.

Laugarrena, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen hiri-ezaugarriek eguneroko bizitza garatzeko eta auzokideen arteko harremanak errazteko dituzten indargune eta ahulguneak identifikatzea.

Azkenik, ikerketa-metodologia feministek eskaintzen duten marko epistemologikoetatik abiatuz, jakintzaren sorrera kolektibizatzeke eta ikerketa objektu-subjektu dikotomia lausotzeko saiakera egitea.

## 1.2 Metodologia

Ikerketan planteatutako helburuei heltzeko jarraitu dugun planteamendu metodologikoa azalduko dugu labur, baliatutako teknika ezberdinak eta bakoitzarekin bilatu duguna argitzeko. Lan hau garatzeko ikerketa-metodologia

feministek planteatzen duten ikuspuntu eta egiteko moduetatik abiatu gara. Erabiliko ditugun metodo eta teknikak epistemologia feministaren ikuspegian oinarrituko dira. Ulertzen dugu zientzia praktika instituzional eta profesionalen multzoa dela, teoriak hedatzen eta garatzen laguntzeaz gain, kultura- eta gizarte-balioak ere garatzen laguntzen duena, eta ezin dena egia absolutu gisa identifikatu. Zientziak harreman zuzena du garatzen den testuinguru sozial eta historikoarekin, eta baita ikertzaileen ezaugarriekin ere, eta, beraz, ezin da neutralizat jo. Honenbestez, hurrengoak funtsezkotzat hartu dira:

- Jakintzaren sorkuntza oro posizionamendu kokatu konkretuetatik egiten dela eta ez ustezko objektibitate eta unibertsaltasunetik.
- Teoria eta praxia interdependenteak direla.
- Jakintzaren produkzio kolektiboa lehenestea garrantzitsua dela, eta ondorioz, ikerketa eremuko pertsonen parte-hartzea ezinbestekoa dela ikerketa-objektu-subjektu dikotomia desegiteko.
- Ezagutzaren sorkuntzak berak inpaktua daukala ikerketaren parte diren pertsona eta testuinguruetan.

Jarraian azalduko ditugu marko horretatik abiatuta erabilitako ikerketa-teknikak.

## Dokumentazio azterketa

Mugimendu Modernoak proposatzen zuen hiri ereduaren oinarriak, eta feminismitik hirigintzari egindako ekarpen eta planteamenduak kontsulta bibliografikoan oinarritu dira.

Bide beretik, Mugimendu Modernoak Gipuzkoako lurralde planen garapean eta hiriguneen hazkunde-morfologian izan zuen eraginaren azterketa iturri bibliografikoen eta artxiboko dokumentazioaren bitartez garatu da. Bide horretan, Enrique Ponteren *La construcción de la ciudad de Gipuzkoa* liburua funtsezkoa izan da gai ezberdinak lotu eta genealogiaren bizkarrezurra osatzeko. Atal honetako informazioa, beraz, liburu horretan oinarritu da nagusiki. Ponteren errelatoa gaia landu duten bestelako artikulua eta tesiekin osatu dugu, eta baita Errenteriako Udal Artxiboko dokumentazioaren azterketarekin ere, Errenteriaren hiri-garapenaren ulermen sakonagoa bilatzeko asmoz. Aztergai ditugun lau auzoen sorrera prozesua azaltzeko ere, Errenteriako Udal Artxiboko, Errenteriako Hirigintza Artxiboko eta EAEko Artxibo Nagusiko dokumentazioaren azterketa izan dugu oinarri.

Auzoen sorreraren historia azaltzeaz gain, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoen egungo hiri-ezaugarriak aztertu ditugu hirigintza feministaren begiradatik. Horretarako, orain arte aipatutakoen oso bestelako teknikak baliatu ditugu.

Lehenengo hurbilketa egin eta auzoen inguruko begirada orokor bat edukitzeko, datu soziodemografiko eta urbanistikoak aztertu ditugu, udal dokumentazioa irakurri dugu, eta egon diren kasuetan, baita auzoen inguruko ikerlan eta artikuluak ere.

## Behaketak

Ondoren, behaketak egin ditugu auzoetan, eta baita sakoneko elkarrizketa egituratuak lau auzoetako bizilagunekin ere. Behaketen bitartez auzoen egoera urbanistikoan sakondu dugu, hala nola: komertzioaren egoera, topaleku espazioen baldintza eta erabilerak, espazio publikoaren ezaugarriak, inguruaren zaintza eta eragiten dituen pertzepzioak. Horretarako, lehenengo, esplorazio ibilbidea egin dugu erabilera eta espazio nagusiak identifikatuz eta bigarren mailako iturrietatik jasotako informazioa ziurtatzeko. Ondoren, auzo bakoitzaren azterketa xehatua egin ahal izateko aspektu konkretuak behatu ditugu. Aspektu konkretu horiek zeintzuk izan diren beherago azalduko dugu, azterketarako baliatu ditugun adierazleen aurkezpenarekin batera. Behaketetako informazio guztia eskuko planoetan jaso dugu.

## Sakoneko elkarrizketak

Behaketei paraleloan, sakoneko elkarrizketen lehen erronda bat egin dugu. Abiatzeko, bi elkarrizketa egin ditugu herriko bizitza komunitarioaren eta hirigintza feminismotik landu duten bi eragile erreferenterekin. Lehenengoa Herri Bizia dinamikaren sortzaile eta partaideetariko bat den Beñat Irasuegi Ibarrarekin; eta bigarrena, Jane Gamon hirigintza-talde feministako Gemma Mariezkurrena Ezkurra, Naiara Rodríguez Garayar eta Karmele Fernandez Bogarekin.

Bi elkarrizketa horiez gain, auzokako elkarrizketak ere egin ditugu gidoi egituratua izan dutenak. 9 elkarrizketa egin ditugu auzokideekin, eta batzuetan bi pertsonak hartu dute parte. Guztira, 12 bizilagunekin hitz egin dugu lehen elkarrizketa sorta honetan:

- Alaberga: 2 elkarrizketa, 3 pertsona.
- Galtzaraborda: 3 elkarrizketa, 4 pertsona.
- Beraun: 2 elkarrizketa, 2 pertsona.
- Kaputxinoak: 2 elkarrizketa, 3 pertsona.

Elkarrizketa hauen helburua auzoko espazioen erabilera ezagutzea, auzoko harreman sare egituratuen inguruko ikuspegi orokor bat jasotzea, eta etxebizitzaren ezaugarriak ezagutzea izan da, beti ere egunerokotasunaren begirada eta esperientziatik. Elkarrizketatuak hautatzerako orduan, auzo bakoitzaren ezaugarri soziodemografiakoetatik abiatu gara, baina horrez gain, hein handiago batean emakumeak elkarrizketatzeko saiakera egin dugu, emakumeak izan ohi direlako zaintza lanen arduradun nagusiak, eta baita prozesu urbanistikoetan presentzia txikiagoa izan ohi dutenak ere. Elkarrizketatuak definitzeko aintzat hartu ditugun aldagaiak hurrengoak izan dira:

- Generoa
- Adina
- Jatorria
- Zaintza lanen ardura
- Elkartegintzan murgildua ala norbanakoa

Auzoko bizilagunen, egunerokotasunaren eta hiri-ezaugarrien irudi orokor bat osatuta, auzo bakoitza modu sakonagoan aztertzea pasa gara. Horretarako, sakoneko elkarrizketa erdiegituratuak eta *photovoice* tailerrak egin ditugu bizilagunekin.

Sakoneko elkarrizketa erdiegituratuaren helburua auzo bakoitzaren bizitza komunitarioaren ezagutzan sakontzea izan da. Auzo harremanak, ekimen esanguratsuak eta komunitatearentzat erreferentzialak diren espazioak ezagutu nahi izan dira. Horregatik, elkarte, talde, edo auzoko proiektu kolektiboetan parte-hartzen duten pertsonekin bildu gara. Guztira, 9 elkarrizketa egin ditugu 11 bizilagunekin:

- Alaberga: 2 elkarrizketa, 2 pertsona. Ekinez-egin emakume elkarte eta Arditurri auzo elkarte.
- Galtzaraborda: 3 elkarrizketa, 3 pertsona. Gure Leku auzo elkarte, Gurutze Gorria, eta auzoen zinegotzia.
- Beraun: 2 elkarrizketa, 3 pertsona. Auzo elkarte eta Jai Batzordea.
- Kaputxinoak: 2 elkarrizketa, 3 pertsona. Auzo elkartean eta Alaitasuna aisialdi taldea.

Elkarrizketetatik jasotakoa anonimoki publikatzea erabaki dugu parte-hartzaileen iritzia ez mugatzeko asmoz. Ondorioz, egindako dataren arabera zenbakitu ditugu elkarrizketak, eta hala erreferentziatuko ditugu testuan zehar: 1. elkarrizketa (2022/05/11).

### **Photovoice tailerrak**

Elkarrizketez gain, tailerrak ere antolatu ditugu bizilagunekin ikerketaren helburuak eta garapena azaltzeko, eta beraiekin *photovoice* ariketa egiteko. Auzoak binaka bildu ditugu eta 2 momentutan bildu gara auzo bikote bakoitzarekin: Alaberga eta Kaputxinoetako auzokideekin 2 momentutan Kaputxinoetako auzo elkartearen lokalean, eta Galtzaraborda eta Beraungo auzokideekin 2 momentutan Beraungo auzo elkartearen lokalean.

*Photovoice* teknika datuak produzitu eta aztertze teknika da, non komunitate konkretu bateko pertsonekin bildu eta galdera bat edo batzuk planteatzen diren argazki bidez erantzuteko. Ondoren, talde-saio batean, ikuspegi indibidualak konpartitzen dira eta azterketa kolektiboa gauzatzen da. Auzoaren egunerokotasunaren inguruko ikuspegi kolektiboa osatzeko baliatu da *photovoice*-a. Lehen bilkuran azterketa aurkeztu dugu eta bi galdera planteatu ditugu argazki bitartez erantzuteko: zerk errazten du auzokideen arteko harremanak sortzea? Eta zerk zailtzen du auzokideen arteko harremanak sortzea? Hurrengo astean zehar partaideek bere auzoaren argazkiak atera dituzte, eta bigarren bilkuran, argazkien deskribapenen bitartez harremanetan eragiten duten auzo bakoitzaren ezaugarri urbanoen inguruko elkarrizketa izan dugu.

### **Adierazleen sorkuntza eta horien araberako azterketa**

Azkenik, lehen esan bezala, jasotako informazioa lau auzoetarako adierazle sorta baten arabera baloratu da. Adierazleak ikerketarako propio sortzeko ahalegina egin dugu, eta hurrengo lerroetan erabili ditugun adierazleetara heltzeko jarraitutako pausuak azalduko ditugu.

Bi iturri bibliografiko izan dira abiapuntutzat hartu ditugunak: *Gender Mainstreaming in urban planning and urban development*<sup>1</sup> Vienako hiria-

---

1 Hainbat egile, (2013), *Gender Mainstreaming in urban planning and urban development*, City of Vienna.

**Nola eraiki dira gure auzoak? Eta nola baldintzatzen ditu horrek auzokideon arteko harremanak?**

Auzoko gure argazkiekin galdera horien inguruan hausnartuko dugu. Animatuko zara?

**Galtzaraborda eta Beraun / Urtarrilak 10, 18:30**  
Galtzaraborda eta Berauneko auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

**Alaberga eta Kaputxinoak / Urtarrilak 11, 18:30**  
Alaberga eta Kaputxinoak auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

Maria Teodoro, Beate Larramendi eta Ana Alaberrak gara eta Errenteriko Urdarriko Auzoak ikusiko dituzue. Auzoak ikusiko dituzue. Auzo Dorretik ikusita, 4. Auzo horien atzaperrak urteak dituzte eta horien erakundeak eguneroko bizitzan eta harreman komunitarioan eragin handia du.

Galtzeraren baliabidea, delia gaitzazu 050704301 telefonora.

**Nola eraiki dira gure auzoak? Eta nola baldintzatzen ditu horrek auzokideon arteko harremanak?**

Auzoko gure argazkiekin galdera horien inguruan hausnartuko dugu. Animatuko zara?

**Galtzaraborda eta Beraun / Urtarrilak 10, 18:30**  
Galtzaraborda eta Berauneko auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

**Alaberga eta Kaputxinoak / Urtarrilak 11, 18:30**  
Alaberga eta Kaputxinoak auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

Maria Teodoro, Beate Larramendi eta Ana Alaberrak gara eta Errenteriko Urdarriko Auzoak ikusiko dituzue. Auzoak ikusiko dituzue. Auzo Dorretik ikusita, 4. Auzo horien atzaperrak urteak dituzte eta horien erakundeak eguneroko bizitzan eta harreman komunitarioan eragin handia du.

Galtzeraren baliabidea, delia gaitzazu 050704301 telefonora.

**Nola eraiki dira gure auzoak? Eta nola baldintzatzen ditu horrek auzokideon arteko harremanak?**

Auzoko gure argazkiekin galdera horien inguruan hausnartuko dugu. Animatuko zara?

**Galtzaraborda eta Beraun / Urtarrilak 10, 18:30**  
Galtzaraborda eta Berauneko auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

**Alaberga eta Kaputxinoak / Urtarrilak 11, 18:30**  
Alaberga eta Kaputxinoak auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

Maria Teodoro, Beate Larramendi eta Ana Alaberrak gara eta Errenteriko Urdarriko Auzoak ikusiko dituzue. Auzoak ikusiko dituzue. Auzo Dorretik ikusita, 4. Auzo horien atzaperrak urteak dituzte eta horien erakundeak eguneroko bizitzan eta harreman komunitarioan eragin handia du.

Galtzeraren baliabidea, delia gaitzazu 050704301 telefonora.

**Nola eraiki dira gure auzoak? Eta nola baldintzatzen ditu horrek auzokideon arteko harremanak?**

Auzoko gure argazkiekin galdera horien inguruan hausnartuko dugu. Animatuko zara?

**Galtzaraborda eta Beraun / Urtarrilak 10, 18:30**  
Galtzaraborda eta Berauneko auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

**Alaberga eta Kaputxinoak / Urtarrilak 11, 18:30**  
Alaberga eta Kaputxinoak auzoak, 1940ko urterekin. Auzo, 1930ko eta 1940ko hamarkadako auzoak. (Auzo Dorretik ikusita, 4).

Maria Teodoro, Beate Larramendi eta Ana Alaberrak gara eta Errenteriko Urdarriko Auzoak ikusiko dituzue. Auzoak ikusiko dituzue. Auzo Dorretik ikusita, 4. Auzo horien atzaperrak urteak dituzte eta horien erakundeak eguneroko bizitzan eta harreman komunitarioan eragin handia du.

Galtzeraren baliabidea, delia gaitzazu 050704301 telefonora.

1A, 1B, 1G eta 1K. irudiak. Auzoetan antolatutako tailerren zabalpen kartelak. Iturria: egileek eginak.

ren gida, eta *Urbanismo para la vida cotidiana. Herramientas de análisis y evaluación urbana a escala de barrio desde la perspectiva de género*<sup>2</sup> Adriana Ciocolettoren tesia.

*Gender Mainstreaming in urban planning and urban development* gidak hainbat irizpide jasotzen ditu hiri egitura, auzo-zentroak, azpiegitura soziala, etxebizitzak, segurtasuna, espazio publikoa eta mugikortasuna genero ikuspegitik aztertu eta diseinatzeko. *Urbanismo para la vida cotidiana* tesiak adierazle sistema bat sortzen du eguneroko espazioak hurbiltasun, aniztasun, autonomia, bizitasun eta adierazgarritasun kualitatiboaren arabera baloratzeko. Bi iturrietako irizpide eta adierazle sortatik abiatuta, lehen aukeraketa bat egin dugu hurrengoak kanpoan utziz:

- Hirigintza proiektu berriak sortzeko edo eraikuntza berriak ezaugarritzeko espezifikoak direnak.
- Irizpide orokorregiak eta ez neugarriak direnak.
- Ikerketa objektutik kanpo geratzen direnak, hots: eguneroko bizitza eta harreman komunitarioak.
- Ikerketaren eskalatik kanpo geratzen direnak, hots: hiri eskalari erreferentzia egiten diotenak, ekipamenduen barrualdeetan aplikatzekoak, eta harreman espazioen diseinuari dagozkienak.

Iragazpen horretatik eratorritako adierazle eta irizpide sorta 7 gairen arabera antolatu dugu:

- Hiri-egituraren konfigurazioa
- Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak
- Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura
- Etxebizitzak
- Segurtasun pertzepzioa
- Espazio publikoa
- Mugikortasuna eta konektibitatea

Ondoren, bigarren galbahe bat pasa diegu adierazle eta irizpideei, kopurua txikitu eta ikerketa egingarri izan zedin eduki dugun denbora eta baliabideekin. Horregatik, gai bakoitzaren barruan egon zitezkeen azpigaiak identifikatu di-

---

2 CIOCOLETTO, Adriana (2014), *Urbanismo para la vida cotidiana. Herramientas de análisis y evaluación urbana a escala de barrio desde la perspectiva de género*, Bartzelona, Universidad Politécnica de Cataluña.



tugu, genituen adierazle eta irizpideak azpigai horien arabera antolatu ditugu, eta azpigai bakoitzeko bana hautatu dugu, gure aburuz, esanguratsuen zena.

Azkenik, neurketa homogenea izan zedin, irizpide modura formulatuta zeuden aspektuak adierazle neurgarri bilakatu ditugu. Jarraian, lanketa honetatik eratorritako adierazle taula ikusi dezakegu, hurrengoak adierazita: gaia, azpigai, adierazlearen iturria, adierazlea, neurketarako baldintzak, puntuazioa, eta baldintzak neurtzeko informazioaren jatorria.

1 taula. Auzoak aztertzeko baliaututako adierazle taula. Iturria: egileek egina.

1. Hiri-egituraren konfigurazioa					
Azpigaiak	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
Eraikinen ezaugarri estrukturalak	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	1.1 Auzoko eraikinen altuerak eraikinen barrualdearen eta kalearen arteko harremana ahalbidetzen du.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiek B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoan ez dago harremanik eraikin barrualdeen eta kalearen artean.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Katastroa
Eraikinen ezaugarri estrukturalak	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	1.2 Etxebizitzek ekialde-mendebalde orientazioa izanez gero, hormartea 15 m ingurukoa izatea; eta iparralde-hegoalde orientazioa izanez gero, hormartea 12 m-ko sakonera izatea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiek betetzen dute baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko etxebizitzek hegal sakonera handiegia dute.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Kartografia
Eraikinen ezaugarri estrukturalak	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	1.3 Eraikin-bolumenek gehienez 150m-ko luzera daukate, eta luzeagoak izatekotan igarobideak dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiek betetzen dute baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko etxebizitzek hegal sakonera handiegia dute.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Kartografia

<b>Harreman espazioen ezaugarri estrukturalak</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	1.4 Auzoan biztanleko harreman espazioen proportzio egokia edukitzea (parkeak, plazak, jolasguneak eta kirolguneak).	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 5m2 edo gehiago harreman espazio dago.</li> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 3-5m2 harreman espazio dago.</li> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 3m2 baino gutxiago harreman espazio dago.</li> </ul>	5 3 1	Landa datu Behaketak Kartografia
<b>Harreman espazioen ezaugarri estrukturalak</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	1.5 Espazio publiko irekiak funtzio ezberdinetarako baliatu ahal izatea, interes eta helburu anitz aintzat hartuz: jolasa, kirola/jarduera fisikoa, lasaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko espazio publikoetan 3 funtzioak bete daitezke: jolasa, jarduera fisikoa eta lasai egotea.</li> <li>Auzoko espazio publikoetan 3 funtzio horietariko 2 soilik bete daitezke.</li> <li>Auzoko espazio publikoetan funtzio bakarra bete daiteke.</li> </ul>	5 3 1	Behaketak

## 2. Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak

Azpigaiak	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
<b>Auzo tamaina</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	2.1 Auzoak tamaina erosoak dauka.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoa alderik alde zeharkatzeko oinez 10 minutu edo gutxiago behar dira (&lt;750m)</li> <li>Auzoa alderik alde zeharkatzeko oinez 10 minutu baino gehiago behar dira (&gt;750m)</li> </ul>	5 1	Kartografia
<b>Eraikinen identitatea</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	2.2 Auzoak diseinu-ezaugarri bereizgarriak ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Inguruko auzoekiko diseinu ezaugarri propio eta ezberdinak ditu.</li> <li>Ez dauka inguruko auzoekiko diseinu ezaugarri propio eta ezberdindurik.</li> </ul>	5 1	Behaketak Dokumentazioa
<b>Herri mailako jarduera nodoak</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	2.3 Herri-mailako garraio publiko-ko gurekuen inguruan, 300 m-ko erradioan, erabilera aniztasuna ematen da eta harreman espazioak daude, auzo-zentroen sorrera ahalbidetzen dutenak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>300m-ko erradioan erabilera aniztasuna dago eta harreman espazioak daude.</li> <li>300m-ko erradioan erabilera aniztasuna dago edo harreman espazioak daude.</li> <li>300m-ko erradioan ez dago erabilera aniztasunik, ezta harreman espaziorik ere.</li> </ul>	5 3 1	Behaketak Kartografia

<b>Erabilera nahasketa</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	2.4 Auzoko hiri-egituran etxebizitzak beste erabileraren batekin nahasten dira (ekipamenduak, dendak, tailer txikiak, bulegoak, etab.)	• Etxe irla edo etxebizitza bloke guztietan.	5	Behaketak Katastroa
			• Etxe irla edo etxebizitza bloke gehienetan.	4	
			• Etxe irla edo etxebizitza blokeen erdian.	3	
			• Etxe irla edo etxebizitza blokeen erdian baino gutxiagotan.	2	
			• Auzoko hiri egituran ez dago erabilera nahasketarik.	1	
<b>Komertzioa</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	2.5 Auzoan egunerokotasunerako komertzioa dago.	• Hainbat produktu mota bakoitzeko eta eguneroko sarearen barruan.	5	Behaketak Katastroa Kartografia
			• Hainbat produktu mota bakoitzeko eta, gutxienez, mota bakoitzeko bat eguneroko sarearen barruan.	4	
			• Hainbat produktu mota bakoitzeko baina eguneroko saretik kanpo.	3	
			• Produktu mota bakoitzeko bakarra dago.	2	
			• Auzoan ez dago eguneroko dendarik.	1	

### 3. Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura

Azpigaiak	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
<b>Ekipamendu motak</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	3.1 Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude:	• Eguneroko ekipamendu guztiak daude.	5	Behaketak Katastroa Kartografia
			• Eguneroko ekipamendu gehienak daude, hurrengoak barne: haurtzaindegia, lehen hezkuntzako zentroa, nagusien zentroa eta osasuna barne.	4	
			• Erdiak daude edo gehienak, baina hurrengoak gabe: haurtzaindegia, lehen hezkuntzako zentroa, nagusien zentroa eta osasuna barne.	3	
			• Erdiak baino gutxiago daude.	2	
			• Eguneroko sarean ez dago eguneroko ekipamendurik.	1	

Ekipamenduen hurbiltasuna	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	3.2 Eguneroko ekipamenduek auzo osotik oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eguneroko ekipamendu guztietara</li> <li>Gehienetara haurreskola, LH eskola, nagusien zentroa eta osasun zentroa barne</li> <li>Erdietara edo gehienetara baina haurreskola, LH eskola, nagusien zentroa eta osasun zentroa gabe</li> <li>Erdietara baino gutxiago</li> <li>Ez dago eguneroko ekipamendurik auzotik 10 minututara oinez.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Katastroa Kartografia
Ekipamenduen eta kalearen arteko harremana	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	3.3 Auzoko ekipamenduek tarteko espazioa dute kalerantz jarduera sortzen dutenak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guztiak.</li> <li>Gehienek.</li> <li>Erdiek.</li> <li>Erdiek baino gutxiagok.</li> <li>Ekipamenduek ez daukate tarteko espaziorik kalerantz.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak
Ekipamenduen komunitarioen presentzia	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	3.4 Biltzeko eta komunitatearekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko gela dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Badago espazioa eta komunitate osoak erabili dezake.</li> <li>Ez dago espaziorik, edo badago baina talde batek soilik erabili dezake.</li> </ul>	5 1	Behaketak Katastroa Elkarrizketak

#### 4. Etxebizitzak

Azpiarria	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
Irisgarritasuna	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	4.1 Etxebizitzak oztopo arkitektonikorik gabe diseinatu dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guztiak</li> <li>Erdia baino gehiagok</li> <li>Erdia</li> <li>Erdia baino gutxiagok</li> <li>Auzoko etxebizitzek oztopo arkitektonikoak dituzte."</li> </ul>	5 4 3 2 1	Artxiboa Behaketak
Kanpo espazioa	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	4.2 Etxebizitzek espazio ireki pribatua daukate (balgoia edo terraza).	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guztiak</li> <li>Erdiak baino gehiagok</li> <li>Erdiak</li> <li>Erdiak baino gutxiagok</li> <li>Ez daukate"</li> </ul>	5 4 3 2 1	Artxiboa Behaketak

Moldagarritasuna	Guk sortua <sup>3</sup>	4.3 Etxebizitzak moldagarriak dira hurrengo ezaugarrien arabera: gelek tamaina berdintsua dute, logela bakoitzak sarrera indibiduala dauka, gune hezeak elkarrengandik hurbil daude, komunetara gune komunitatik sartu daiteke (komunak ez daude gela barruetan).	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko etxebizitzan tipologie-tan 4 baldintzak betetzen dira.</li> <li>Auzoko etxebizitzan tipologie-tan 3 baldintza betetzen dira.</li> <li>Auzoko etxebizitzan tipologie-tan 2 baldintza betetzen dira.</li> <li>Auzoko etxebizitzan tipologie-tan baldintza bakarra betetzen dira.</li> <li>Auzoko etxebizitzan ez da baldintza bat ere betetzen."</li> </ul>	5 4 3 2 1	Artxiboa
Elkarbizitza eredu anitzak jasotzeko aukera	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	4.4 Gela kopuru ezberdineko etxebizitzak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gela kopuruari dagokionez, 3 etxebizitza tipologia ezberdin edo gehiago daude</li> <li>Gela kopuruari dagokionez, 2 etxebizitza tipologia ezberdin daude</li> <li>Etxebizitza guztiek gela kopuru bera dute</li> </ul>	5 3 1	Artxiboa
Auzokideen arteko harremanen sustapena	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	4.5 Bloke-sarrerera bakoitzeko gehienez ere 40 etxebizitza daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guztiek</li> <li>Erdiak baino gehiagok</li> <li>Erdiak</li> <li>Erdiak baino gutxiagok</li> <li>Auzoko eraikin-sarrerera guztiek 40 etxebizitza baino gehiago dituzte.</li> </ul>	5 4 3 2 1	Katastroa
<b>5. Segurtasun pertzepzioa</b>					
Azpigaia	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
Zaintza informala	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	5.1 Eguneroko sareko kaleetako beheko solairuak espazio publikora irekita daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kale guztietan</li> <li>Gehienetan</li> <li>Erdian</li> <li>Erdian baino gutxiago</li> <li>Behe solairu guztiak daude kalearekiko isolatuta</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak

3 Adierazle konkretu hau sortzeko Vienako gidaz gain Zaida Muxí Martínez-en *Recomanacions per a un habitatge no jeràrquic ni androcèntric* gida ere baliatu da.

<b>Emakumeen ikuspegia</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	5.2 Auzoko emakumeek segurtasun pertzepzioa dute auzo osoan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzo osoan segurtasun pertzepzioa dago</li> <li>Auzoko punturen batean ez dago segurtasun pertzepziorik</li> </ul>	5 1	Elkarrizketak Tailerrak Dokumentazioa
<b>Orientazio espazial argia</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	5.3 Eguneroko sareko kaleek oinezkoentzako argiztapen jarraia dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kale guztietan</li> <li>Gehienetan</li> <li>Erdian</li> <li>Erdian baino gutxiago</li> <li>Ez dago kalerik oinezkoentzako argiztapen jarraiturik duenik</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak
<b>Hiri paisaia</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	5.4 Auzoko kaleetan hiri-paisaia zaindua* dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kale guztietan</li> <li>Gehienetan</li> <li>Erdian</li> <li>Erdian baino gutxiago</li> <li>Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Elkarrizketak
<b>Pertsonen aniztasuna</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	5.5 Auzoko harreman-espazioetan, haurren, adinekoen, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta bakarrik dauden emakumeen presentzia dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsona horien guztien presentzia</li> <li>Pertsona horietako gehien presentzia</li> <li>Pertsona horien erdiak baino ez daude</li> </ul>	5 3 1	Behaketak Elkarrizketak

### 6. Espazio publikoa

Azpigaia	Adierazlearen iturria	Adierazlea	Neurketarako baldintzak	Puntuazioa	Informazioaren jatorria
<b>Espazio publiko ekipatua</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	6.1 Eguneroko sareko kaleek espazio eta altzariak dituzte pertsonak harremandu, egon, bildu edo jolastu ahal izateko, eta ez bakarrik joan-etorrietarako.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kale guztietan</li> <li>Gehienetan</li> <li>Erdian</li> <li>Erdian baino gutxiago</li> <li>Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak
<b>Naturalizazioa</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	6.2 Eguneroko sareko kaleetan zuhaitzak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kale guztietan</li> <li>Gehienetan</li> <li>Erdian</li> <li>Erdian baino gutxiago</li> <li>Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak

<b>Harreman espazioen hurbiltasuna</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	6.3 Oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen duten auzoko harreman espazioak daude (750m)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik</li> <li>• Auzoaren gehiengotik</li> <li>• Auzo erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Ez dago auzo eskalako harreman espaziorik 10 minutura oinez joateko moduan</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Katastroa Kartografia
<b>Harreman espazioen konektibitatea</b>	Guk sortua Vienako gidako irizpidetik	6.4 Espazio publiko eta aisialdi-gune nagusia irisgarria da garraio publikoan eta bizikletaz, hau da, garraio publikoko geralekua eta bidegorria bertara arte iristen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua dauka eta bidegorria iristen da bertara arte</li> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua eta bidegorria gehienez 300m-ra dauzka</li> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua eta bidegorria 300m-ra baino distantzia handiagora dauzka</li> </ul>	5 3 1	Behaketak Kartografia
<b>Harreman espazioen eta kalearen arteko harremana</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	6.5 Auzoko harreman espazioek perimetro irekia dute kalera, bateko eta besteko jarduerak integratu ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio publiko nagusi guztiek betetzen dute baldintza</li> <li>• Gehienek</li> <li>• Erdiak</li> <li>• Erdiak baino gutxiagok</li> <li>• Batek ere ez du betetzen</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak
<b>Etxebizitzaren inguru hurbila</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	6.6 300 metroko erradio maximoan eta ibilbide irisgarriaren bitartez heltzeko aukera ematen duten auzoteriako (vecindario) harreman espazioak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoaren osotasunean</li> <li>• Auzoaren azaleraren gehiengoa</li> <li>• Auzoaren azaleraren erdian</li> <li>• Auzoaren azaleraren erdian baino gutxiagotan</li> <li>• Ez dago auzoteriako harreman espaziorik oinez irisgarria denik</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Katastroa Kartografia
<b>Ordezkarritasuna</b>	Urbanismo para la vida cotidiana tesia	6.7 Komunitatearen memoria auzoaren gizarte- eta kultura-ondare gisa mantentzen duten espazioak edo elementuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatearen memoria mantentzen duten espazio edo elementuak daude</li> <li>• Ez dago espazio ez elementurik komunitatearen memoria mantentzen duenik</li> </ul>	5 1	Elkarrizketak Tailerrak
<b>Mugitzeko moduan</b>		7.1 Eguneroko sareko kaleek mugitzeko aukera ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetzen dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Kartografia

<b>Oinezko-tasuna</b>		7.2 Eguneroko sareko kaleetan deskantsurako bankuak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan, gehienez 50m-ko distantziara euren artean</li> <li>• Gehienetan gehienez 50m-ko distantziara euren artean; edo guztietan 100m-ko distantziara euren artean</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	5 3 1	Behaketak Kartografia
<b>Bizikleta</b>		7.3 Bizikleten alokairurako puntu publikoak daude auzoan, oinez 5 minutura.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik</li> <li>• Auzoaren gehiengotik</li> <li>• Auzoaren erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Auzoan ez da baldintza hau inon betetzen"</li> </ul>	5 4 3 2 1	Udal web-gunea
<b>Garraio publikoa</b>		7.4 Oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen duten auzoko garraio publikoaren geralekuen distribuzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik,</li> <li>• Auzoaren gehiengotik</li> <li>• Auzo erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Ez dago garraio publikoko geralekurik auzotik 10 minutura oinez joateko moduan</li> </ul>	5 4 3 2 1	Behaketak Kartografia
<b>Autoak</b>		7.5 Auzora heltzeko aparkamendu poltsa publikoa dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoan aparkatzeko poltsa publikoa dago</li> <li>• Ez dago aparkaleku publikoko poltsarik auzoan</li> </ul>	5 1	Katastroa Behaketak



## 2. Marko teorikoa

### 2.1 Mugimendu Modernoa eta Atenaseko Agiria

#### 2.1.1 Mugimendu Modernoaren sorrera

Hainbat arkitekto internazionalak bultzatuta sortu zen Congr s International d'Architecture Moderne (CIAM) 1928ko ekainean La Sarrazen, Suitzan. CIAM bilkura sorta bat izan zen Mugimendu Modernoaren ideia laborategi bezala baliatu zena, eta bertan arkitektura eta hirigintza berri baterako oinarriak eztabaiatu eta formulatu ziren. Arkitektura eta hirigintza tresna ekonomiko eta politiko bezala ulertzen zuten, eta eraikinen eta hirien diseinuaren bitartez mundua hobetu zitekeela sinesten zuten. CIAM topaketekin batera, Comit  International pour la Resolution de l'Architecture Contemporaine organoa sortu zen, CI-PARC delakoa, CIAM topaketen antolaketaz eta egikaritzeaz arduratzen zena.

CIAM kongresuak 1928tik 1959ra gertatu ziren eta 11 topaketa izan ziren guztira. Lehena 1928ko ekainaren 28an antolatu zen Suitzako La Sarraz hirian. Fundazio bilera horretan hainbat hausnarketa egin ziren ekonomiaren, hirigintzaren eta arkitekturaren inguruan. Ordura arte garatutako arkitektura ereduak kolokan jarri ziren, ulertzen baitzen zaharkituta zeudela eta ez ziotela etxebizitzaren aferari nahikoa atentzio jartzen. Arkitekturaren bitartez aurrerapen soziala bultzatu nahi zuten CIAMeko partaideek, eta ordura arteko hiri-eredua zaharkituta zegoela ulertzen zuten heinean, eredu berri bat sortu nahi izan zuten. Antolatutako kongresu ezberdinetan hirigintzaren inguruko ideia berritzaile eta abangoardistak landu zituzten, bereziki diseinu espazialaren bitartez higiena bultzatzea helburu zutenak. Izan ere, kezka berezia zuten biztanleriaren higienean eragina zuten parametro arkitektonikoen inguruan, eta kezka horrek etxebizitzan fokua jartzera bultzatu zituen, pertsonen oinarritzko bizitokian. Etxebizitzetan higiene baldintzak bermatzea, beraz, CIAMek proposatutako irizpide arkitektonikoen premisa nagusi bilakatu zen.

Kongresuen artean ezagunena eta azpimarragarriena laugarrena izan zen, "Atenaseko Agiria" manifestua osatzeko baliatu zutena. 1933an gertatu zen IV. CIAM, Marseilla - Atenas - Marseilla ibilbidea egin zuen itsas-bidaia batean. "Hirigintza funtzionala" izan zen landutako gaia, eta hor sortutako ideiekin, bederatzi urte geroago, Le Corbusier eta Jeanne de Villeneuve arkitektoek manifestua publikatu zuten 1942an.

### 2.1.2 Hirigintza berri baterako proposamena: hirigintza funtzionalista

XVIII. mendeko hiri industrialak krisian zegoen, bertako bizi baldintzek pertsonen pilatze handia, gaixotasunak eta heriotza-tasa altuak eragin baitzituzten. Egoera horren erreakzio bezala sortzen dira higienismoan oinarritutako hiri-ereduak, etxebizitzak jarduera kutsagarrietatik bereiztearen alde egiten dutenak eta espazio berde eta zabalak beharra azpimarratzen dutenak.

CIAMen helburu nagusia XX. mendeko metropolien birdiseinua eta etorkizuneko garapena langile-klaseen behar biologiko, psikologiko eta sozialetan oinarrituta egotea zen. Sustatu nahi zuten hiri-plangintzaren oinarrian irizpide higienistak lehenesten zituzten, eta hirigintzaren ikuspegi berri batekin premiazkoak ziren beharrei erantzuna eman nahi zieten. Beharrezkoa zen hiritarrek eguzkitzapena eta aireztapena bermatuko zituzten espazioak edukitzea beste oinarritzko bizi-funtzio batzuk gauzatu ahal izateko. Bizi-funtzio horiek habitatzea, lan egitea eta deskantsatzea ziren, eta hirigintzak horien betetzea zorrotasunez zaindu behar zuen.

Espazio higienikoak sustatzea beraz, arkitektura arrazionalistaren funtsean zegoen. Higienearikiko obsesio hori ulertzeko, XX. mende hasierako gizarteak tuberkulosiarekiko zuen kezka aditu behar diogu. Tuberkulosia airean zehar transmititzen den bakteriak sortzen du, *Mycobacterium tuberculosis* deritzonak, eta 1882an aurkitu zuen Robert Koch mikrobiologo alemaniarra. Ordu-ra arte, gaixotasunaren sorrera ariketa fisiko faltari, barrualdeetan garatutako bizitza sedentarioari, bentilazio kaxkarrari, argi faltari eta emozio depresiboei egotzen zitzaion. Tuberkulosia gaixotasun “umela” zela uste zen, hiri umelek sorrarazia, eta uste hori ezeztatzeke denbora asko behar izan zen, gizartean oso hedatuta baitzegoen. Arkitekto modernoek, inguru espazialean eraginez sustatu nahi zuten osasuna, eta eguzkia, argia, bentilazioa, ariketa fisikoa, estalki terrazatuak eta kolore zuria tuberkulosia saihestu eta osatzeko tresnatzat lantzen zituzten. Le Corbusierrek bere 1923ko *Vers une architecture* liburuan, garaiko arkitektura eta etxebizitza tradizionala pertsonen ahultasunaren eragiletzat hartu zituen, tuberkulosiaren ustezko jatorriaren sortzaile. Otto Wagnerrek etxebizitza makinaren eta ospitalearen arteko fusioa izan behar zuela argudiatzen zuen, makina perfektua, higiene exijentzia klinikoak betetzen zituzten objektuak zituena. Etxebizitza osasunerako makina bezala diseinatzea zuten helburu arkitekto modernoek. Giza gorputza jada ez zen soilik arkitekturak gorde behar zuen zerbaite, baizik eta arkitekturaren bitartez birdiseinatu

eta moldatu zitekeen hori. Xede-mediko hori hirira ere zabaldu zuten, eta hiri moderno baterako irudikatu zituzten proposamenak horren isla dira: Ebenezer Howard-en Lorategi-Hiria (1898), Arturo Soria y Mataren Hiri lineala (1897), Otto Wagnerren Groszstatdt (1911), eta Le Corbusierren Ville Radieuse (1935)<sup>4</sup>, besteak beste.

## Atenaseko Agiria

Aipatutako postulatu higienistak hirigintzan aplikatzeko irizpideak Atenaseko Agirian gorpuztu ziren. 1942an Le Corbusierrek eta Jeanne de Villeneuvek hirigintza funtzionalaren oinarriak definitzen dituen manifestua publikatu zuten. Orduko egoeraren analisi kritiko bat egiten dute testuan, ondoren, hiri funtzionalaren doktrina definituko duten puntuak zehazteko. Atenaseko Agirian jasotzen denak izugarritzko eragina izan zuen bereziki XX. mendearen bigarren erditik aurrera Europan eraiki ziren auzune berrietan. Hurrengo lefroetan “Doktrina puntuak” deritzon hirugarren atalean<sup>5</sup> jasotzen diren plan-teamenduak aipatuko ditugu, ikerketa honetarako esanguratsuenak diren arreta jarritz. Higienismoarekin, zonakatzearrekin eta hiri-organikoaren ideiarekin harremana duten puntuetan sakonduko dugu, kontzeptu horiek baitira ikerketan zehar behin eta berriz erreferentziatuko ditugunak.

Azpimarratu nahi dugun lehenengo ideiak testuan definitzen diren oinarritzko bizi funtzioekin du harremana, eta horiek hirigintzan izan beharreko gorpuzte zonakatuarekin. Hirigintzaren klabeak lau bizi funtziotan oinarritzen dira, eta funtzio horiek bizitzea, lan egitea, gozatzea eta zirkulatzea dira. Ondorioz, hirigintzak lau funtzio nagusi izango ditu: lehenik eta behin, pertsonen ostatu osasuntsuak bermatzea, hau da, espazioa, aire garbia eta eguzkia eskuzabaltasunez bermatuko dituzten lekuak sortzea. Bigarrenik, lantokiak antolatzea, lanak morroitza neketsua izateari utzi diezaion eta giza jarduera naturala izatera itzuli dadin. Hirugarrenik, ordu libreak emankor bilakatu ahal izateko behar bezalako instalazioak aurreikustea. Eta laugarrenik, antolaketa eremu desberdin horien arteko lotura zirkulazio-sare baten bidez ezartzea, trukeak bermatu eta bakoitzaren eskumenak errespetatuko dituen. Lau funtzio horiek autonomoak izango dira, klimak, topografiak eta ohiturek lagunduta, eta beren potentzial gorena garatzeko baldintza aproposenak eskaintzen dituzten lekuetan ezarriko dira. Funtzio horiek lurraldean ezartzean, bizitegi funtzioa

4 COLOMINA (2019), 33. orr.

5 Hainbat egile (1950), 116-141. orr.

izango da zentrala eta gainontzekoen arteko lotura egingo duena. Ezarpen horretan, hiriak horizontalean zabaltzea ekidingo da denbora xahuketa eragingo duten distantziak ez inposatzeko. Ibilgailuen inguruko kezka ere agertzen da testuan, zirkulazioa oztopatzen baitu, osasunerako txarrak diren zarata eta kutsadura sortu, eta ibiltzearen funtzio sano eta naturala galarazten ari baitira. Zirkulazioa erregulatzeko beharra mahaigaineratzen dute, eta bizi funtzio zonifikatuak lotuko dituzten arteria handiak sortzea proposatuko dute.

Testutik azpimarratu nahi dugun bigarren ideia bat eskualdeari ematen zaion garrantzia da. Hiria bere eragin eremuko eskualdearekin batera aztertze-ko beharra mahaigaineratzen dute agirian, eta horretarako, eskualde-planek udal-planak ordezkatzea proposatzen dute. Hiri eta herri bakoitzak bere tokia hartuko du herrialdearen ekonomia orokorrean, eta eskualde eta herrialdearen arteko oreka bilatuko da. Ondorioz, hiriak unitate funtzional bat osatuko du eta modu orekatuan haziko da zatika. Datuetan oinarritutako aurreikuspenek beren etorkizuna marraztuko dute, beren izaera zehaztu eta beren garapenaren dimentsioa definitu, beti ere eskualdearen beharren pean, eta lau bizi-funtzio klabeak kokatzeko helburuaz. Prozedura horren bitartez, aurreikuspenak eta programa definituak ordura arteko zoria eta inprobisazioa ordezkatuko dituzte, eta legeak lurzoru bakoitzaren erabilera nagusia definituko du, kokapen eta distantzia aproposenetan. Hiri-ekimen ezberdinak plan orokorrean txertatuko dira, eta aldi berean, eskualde planean.

Hirugarren ideiak organizismoarekin du harremana. Arkitekto modernoan arabera hiria sorkuntza biologiko bat izango da, argi definitutako eta beren funtzioa modu perfektuan beteko dituzten organoz osatua. Funtzio horiek ondo betetzen direla ziurtatzeko, toki bakoitzaren baliabide naturalak, topografia, datu ekonomikoak, gizarte-beharrak eta balore espiritualak hartuko dira aintzat. Formakuntza biologiko horren abiatze-nukleoa etxebizitza-zelula izango da, tamaina aproposa duen etxebizitza unitate edo bloke batean txertatua egongo dena. Familia bakoitzari ostatu ematen dion etxebizitza izango da zelula soziala, hiriaren elementu biologiko funtsezkoa. Etxebizitzak gizakien hazkundera babesten du, eta bere barnean eguzkia eta aire purua izan behar ditu, eta kanpora zabaldu behar da instalazio komunitario anitzen bitartez. Zerbitzu komun horiek “bizitegi unitateetan” txertatuko dira, modu erosoan erosi, hezi, medikuarenera joan edo aisialdiaz gozatzeko aukera emango duten bloke independente eta mistoetan. Etxebizitza unitate horretatik abiatuta ezarriko dira hirian lan eremuen eta aisialdirako tokien arteko harremanak.

Azkenik, premisa horiek aintzat hartuko dituen hiria diseinatzeko legeak baliatuko direla diote CIAMeko arkitektoek. Legearen bitartez erabilgarria den zoru oro urgentziaz arautu eta antolatuko da, eta banakoen bizi-beharrak behar kolektiboekin orekatuko dira. Zorua eskuragarri egon behar da edozein momentutan eta aurretiaz emandako balore ekonomikoaren arabera, interes orokorraz ari garenean zorua mobilizatzeko gaitasuna egon behar baita. Finean, interes pribatua interes kolektiboaren menpe egon behar dela diote, beren hitzetan, pertsona bakoitzak oinarrizkoak diren pozak izan ditzan: etxebizitzaren ongizatea eta hiriaren edertasuna.

### **Irizpideen gorpuztea: bloke irekiko hirigintzaren ezaugarriak**

Atenaseko Agirian jasotako doktrinek ondorengo hamarkadetako arkitektu-raren forma eta materializazioan eragin zuzena izan zuten. Ramon López de Lucio *Vivienda colectiva, espacio público y ciudad* liburuan hezurmamitze horren zenbait ondorio azpimarratzen ditu, bloke irekiko hirigintzaren oinarrizko ezaugarri direnak.

Alde batetik, urbanitate tradizionalaren ezeztatze bikoitza egingo da, eta korridore-kalea eta etxe-irla itxiak alde batera utziko dira. Kale tradizionala, hots, bi fatxada jarrai eta paraleloz sortutakoa, eta etxe-irlen kanpo alineazioarekin mugatua, baztertu egingo da. Baita ordura arte oinarrizko hiri-unitatea osatu zuen etxe-irla itxia ere, medianera artean kokatutako eraikinez osatuta dagoena, non eraikinen fatxadek etxe-irlaren muga osatzen duten. Ordura arteko hiriaren irudiarekin amaituko da, eraikinak, atariak, dendak eta bestelako kale-multzoetan lerrokatzen dituen hiriarekin.

Apurketa hori gorpuzteko modua bloke lineal aske eta estuz osatutako hiri erresidentzial modernoa izango da, non blokeak paraleloan kokatuko diren errepideen ardatzekiko elkarzut. Blokeen arteko espazioak erabilera publikoko espazio libreak izango dira, ahal dela berdegune eta zuhaizdunak. Blokeek orientazio uniformeak izango dute eta eguzkitzapen baldintza hoberenak biltuko dira. Horrela, etxe-irlek jada ez dute espazio mugatu bat definituko, jada ez dira fatxada itxiz osatutako multzo bat izango, eta errepidera begira dauden bloke paraleloen albo fatxada estuek osatuko dute etxadien muga.

Ondorioz, eraikin erresidentziala elementu isolatu bezala landuko da, bere lau fatxadez inguratua, unitate isolatu bezala. Ordura arte, etxe-irlaren bolumen unitatean txertatzen ziren eraikinak, medianera artean. Hemendik aurrera,

eraikina elementu isolatu eta kontenplaziorako objektu espezifiko gisa uler-tuko da. Eraikin berezietan edo monumentuetan egozten zituzten singularitatea eta estatusa eraikin erresidentzial bakoitzean bilatuko da. Blokeen arteko espazio publikoak indartu egingo du aspektu hau, eta eraikinak distantzia eta perspektiba proposarekin kontenplazzea ahalbidetuko du. Hala ere, distantzia horiek ez dira kasu askotan errespetatuko, eraikuntza merkatzeko, sarri, medianeretatik lotutako blokeak sortuko baitira, L, U edo bestelako formak hartzen dituzten taldeak sortuz.

Beste ondorio bat partzelen muga argien lausotzea izango da. Historikoki, eraikinak muga esplizituak zituen partzeletan ezarri dira. Hiri klasikoan, lorategi-hirietan edo landa-eremuetan, muga horiek fatxada, hesi edo zuhaixken bitartez adierazten dira; espazio publikoaren eta pribatuaren arteko mugak argiak dira. Mugimendu Modernoaren ondorengo diren hiri-eremuetan dauden muga argi bakarrak bloke bakoitzak bere fatxadekin ezartzen dituenak dira. Espazio publikoak etxadiak zeharkatu eta eraikinak inguratuko ditu. Espazio publikoa ez da beti kalea izango, ezta plaza, ezta lorategia ere, eta denak izan daitezke aldi berean.

Beraz, partzelarioaren muga desagerpenak espazio publikoaren eta pribatuaren arteko proportzioen alderantzizkatzea ekarriko du. Antzinako hirian espazio pribatua %80 ingurukoa izan zitekeen, XIX. mendeko zabalguneeetan %65 ingurukoa, eta bloke askez osatutako hiriguneetan aldiz, ohikoa izango da %20 eta %25 ingurukoa izatea.

Aipatu dugun bezala, luzerako bloke askea hautatuko da guztiz irekiak diren eta barne-patiorik ez duten etxebizitzak proiektatzeko. Hormarte bikoizdun blokeak izango dira nagusi, 8 eta 9 metro arteko zabalera izango dutenak, eta argiztapen eta eguzkiztapen baldintza onak izango dituztenak, beti ere blokeen arteko distantziak ondo dimentsionatzen badira. Hau da ziurrenik higienismoak arkitekturari eginiko ekarpenik argiena: patio itxien desagerpenak, orientazio landuek eta altueraren arabera kalkulaturako blokeen arteko distantziak izango dira etxebizitza osasuntsua ziurtatzeko mekanismo nagusiak.

### **2.1.3 Atenaseko Agiriak sustatutako hiri ereduaren inguruko eztabaida eta ezeztatzea**

Aipatu dugun bezala, Atenaseko Agirian jasotako planteamenduek eragin izugarria izan zuten bereziki Bigarren Mundu Gerra ondoren eraikitako bizitegi

eremuetan, Mugimendu Modernoaren postulatuak jarraituz proiektatu baitziren. Baina paradoxikoa bada ere, garai bertsuan printzipio horiek kolokan jartzen hasi ziren CIAM antolakundearen baitan.

Mugimendu Modernoko kideen artean korrante berezituak sortzen hasi ziren 40ko hamarkadatik aurrera, partaide batzuek uste baitzuten gerra aurreko CIAMen planteamenduek ez zituztela aintzat hartu oinezkoen topaketa eragiten duten eta bizitza publikoa sortzen duten espazio zibiko eta kulturalak. Hirirako bosgarren funtzio baten beharra mahaigaineratzen hasi ziren, “herriarren zentro” edo “hiriaren bihotza” deitzen zutena. Paraleloan, Europan, CIAMeko kideak etxebizitza eta berreraikitze planak prestatzen ari ziren gerraostean hiriak berreraiki eta modu azkarrean etxebizitzak masiboki eraikitzeko. “Hiriaren bihotza” deitu zuten gaiak, beraz, banaketa sortu zuen CIAMen barruan. Alde batetik bosgarren funtzioaren defendatzaileak zeuden, Sert, Giedion eta Le Corbuiser buru zituztelarik; eta bestetik, funtzionalismoaren aldeko taldea zegoen.

1951. urtean antolatu zen CIAM VIII kongresuaren gaia hain zuzen ere “Hiriaren bihotza” izan zen. Bilkura horretan Sert-ek hiriak jasaten ari ziren deszentralizazio joera azpimarratu zuen. Bere hitzetan, “*hiri batean bizitzearen abantaila bakarra pertsonak pertsonetara hurbiltzea da, eta jendeak ideiak elkarbanatzea eta modu librean eztabaida eragitea*”<sup>6</sup>. Hiria gehiegi hedatutako munstroa bilakatu zela ohartarazi zuen, eta “hiri-bihotzen sare” bat ezartzea zuen helburu, hiri eremu zabalak oinezkoentzako zentroen inguruan birzentralizatzeko eta jendea horietan biltzeko. Hiri bihotza oinezkoentzako irla bat izan behar zen. Baina CIAMeko kide guztiak ez zeuden ados ikuspegi horrekin, eta sortutako tentsioek CIAM IX kongresuan taldearen kontsentsuaren apurketa eragin zuten. Izan ere, CIAMen inguruan zegoen arkitekto talde gazte batek<sup>7</sup> *Doorn Manifestoa* publikatu zuen 1954an, non lau bizi funtzioak diseinu kategoria bezala erabiltzea ezeztatzen zuten. Horren orde, kategoria berriak proposatzen zituzten “giza-elkartzean” eta eraikinen eta beren kokalekuaren arteko harremanean oinarrituak. Arkitekto talde gazte horrek Team X izena hartuko zuen, CIAM X kongresua antolatzearen ardura hartu baitzuten. 10. kongresu horretan apurketa nabarmena izan zen, eta CIAM desegin egingo

6 MUMFORD (2007), 112. orr.

7 Taldean Van Eyck, Bakema, Candills eta Woods zeuden, eta baita CIAMeko kide britainiar gazteak ziren Alison eta Peter Smithson, William Howell eta John Volker ere. Beraiek antolatu zuten CIAM X kongresua, eta horregatik Team X izendatu zuten beraien taldea.

zela aditzera eman zen. 1959an CIAM XI azken kongresua antolatu zen eta “CIAMen heriotza” adierazi zuten Team X-eko kideek.

Baina funtzionalismoaren kritikak ez ziren soilik CIAM barruko partaideen ahotik etorri. 60ko hamarkadan zehar ikerketa soziala eta hausnarketa teorikoa lantzen zuten teoriko kritikoak hirigintza modernoaren kontra azaldu ziren baita ere. Hiri-espazio tradizionalaren ezaugarriak defendatzen zituzten, sortzen zuen sistema sozial eta espazialak integrazio gaitasun handi eta frogatua baitzeukan. Jarrera horren adibide da Jane Jacobsen *The Death and Life of Great American Cities* (1961) liburua, non Le Corbusierren kale kontzeptuaren sinplifikazioaren kontra egiten duen, besteak beste; eta Henri Lefebvreren *Le Droit à la ville* (1968) liburua, non herritarren eskubidea defendatu zuen beren hiriak eraiki eta hiriaren gaineko erabakiak hartzeko.

## 2.1.4 Mugimendu Modernoaren irizpideetan oinarrituta sortutako etxebizitza-bloke prototipoak

Mugimendu Modernoaren buru izan ziren arkitektoek zenbait etxebizitza-bloke sortu zituzten bultzatzen zituzten premisa arkitektonikoei forma emateko eta horien bitartez errealitatean eragiteko. Bloke horiek ondorengo hamarkadetan erreferentziatzat hartu ziren Europa osoko hirigune berriak sortzeko. Gipuzkoan, eta konkretuki Erreterian ere, bloke eredugarri horien kopia edo horien antza duten eraikinak topa ditzakegu. Hurrengo lerroetan mundu osoan zehar, eta baita gure testuinguruan ere, eredutzat baliatu ziren zenbait etxebizitza-bloke ekarriko ditugu harira. Jarraian azalduko ditugun adibideak Ramón López de Lucio *Vivienda colectiva, espacio público y ciudad* liburuan jasotako batzuk dira<sup>8</sup>. Zehazki, López de Lucio deskribatutakoen artean gehien errepikatu eta eraiki ziren blokeak azalduko ditugu.

### 2.1.4.1 Nazioarteko ereduak

#### Weissenhof auzoa, Stuttgart (Mihes van der Rohe, 1927)

Bloke lineal estua, altuera ertainekoa, igogailurik gabea, eta solairuko bi etxebizitzetara sarrera ematen duten eskailera-kutxak dituena.


---

8 LÓPEZ DE LUCIO (2012), 92-108. orr.



Lau solairu, 50 metro inguruko luzera eta 9 metroko zabalera dituen blokea da, lau eskailera kutxa dituen. Eskailerak, solairu bakoitzean, bi etxebizitzara sarrera ematen du. Etxebizitzaren banaketetan bariazioak daude izaera esperimentala izan zuen auzoa izan baitzen. Hala ere, etxebizitza motetako baten banaketa azaltzen da liburuan: 81 m<sup>2</sup> inguru ditu, eta egongela-jangela batek, sukaldeak, komunak eta bi logelek osatzen dute etxea.

Bloke mota hau, ziurrenik, Europan gehien errepikatu zen prototipoa izan zen, milioika etxebizitza eraiki direlarik eredu honi aldaketa txikiak eginez. Eraikuntzaren zabalera kasu askotan 12 metrora arte zabaldu da, eta banaketari dagokionez, logela kopurua moldatu egin da. Eredu honen arrakastaren gako nagusia eraikuntzaren merketasuna izan zen, ez baitzuen igogailurik behar eta adreiluzko karga-hormez eraiki zitekeelako.




2. irudia. Weissenhof auzoko bloke bateko etxebizitza baten barne-banaketa. Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.

## Nirvana Flats, La Haya (J. Duiker, 1927-1930)

Dorre askea, karratua eta altua, igogailuduna, eta solairuko lau etxebizitza dituen.

Ia karratua den bloke askea da hau, zazpi solairu eta erdisoto bat dituen. 25 x 22 metro ditu, eskaileak eta igogailua dituen komunikazio nukleo zentral bat dauka, eta solairuko lau etxebizitza dauzka. Etxebizitzak lau iskinetan kokatzen dira, beraz, orientazio bikoitza daukate. Etxe handiak dira, 145 m<sup>2</sup>koak, eta hiru gelara, egongela, sukaldea eta zerbitzu gela dituzte.

La Hayako jatorrizko eraikina bere ondorengo kopiak baino baxuagoa da, 10-12 solairuko dorreak eraiki baitziren batez ere eredu honetan oinarrituta. Bloke askeko etxebizitza eremuetan sarri topa dezakegun eraikin mota da hau, luzerako blokearekin konbinazioan ezarria.



3A eta 3B. irudiak. Nirvana Flats eraikinaren argazkia eta solairu tipoaren barne-banaketa.  
Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.

## Highpoint eraikina, Londres (B. Lubetkin & Tecton eta Ove Arup, 1934-35)

Gurutze formadun oin-planta duen dorrea, igogailuduna eta solairuko lau etxebizitza dituen.

Aurretik azaldutako Nirvana Flats ereduaren bariazioa da, baina gurutze formadun oin-planta edukitzeak bi fatxadadun etxebizitzak sortzea ahalbidetzen du. Lau fatxada itsu ere baditu, gurutzearen lau puntetan, blokeak elkarri atxikitzea ahalbidetzen dutenak. Izan ere, Londreseko eredu hau fatxada itsuetatik elkartutako bi dorrek osatzen dute, eta dorre bakoitzak bere igogailu eta eskailera kutzak ditu gurutze bakoitzaren zentroan. Etxebizitzak zabalak dira eta bi tipologia ezberdin daude: bi logeladunak, gurutzearen beso laburretan kokatuak; eta hiru logeladunak, beso luzeenetan kokatuak.

#### **2.1.4.2 Jatorrizko prototipoen garapen espekulatiboa Espainian**


Etxebizitzaren eraikuntza merkatzeko eta dentsitate altuagoko auzuneak sortzeko, Mugimendu Modernoak sortutako eredu horien eratorpen espezifikoa bat gertatu zen Espainian. Eraikinen dentsitatea handiagotzeko barne-patioak berreskuratu ziren XX. mendeko bigarren erdialdean garatu ziren hainbat etxebizitza-poligonoetan. Azpimarratzekoa da arkitektura arrazionalistaren printzipio oinarritzko baten subertsio nabarmena dela hori, barne-patioen ezabapena oinarritzkoa baitzen arkitektura modernoak bilatzen zituen inguru osasuntsuak sortzeko. Hurrengo lerroetan barne-patioa berreskuratu zuten bi eredu jaso ditugu.

#### **Mortalazgo etxebizitza sozialak, Madril (A. Domínguez Salazar, 1958)**

Luzerako blokea eta dorre askea konbinatuz sortzen da H forma duen oin-planta-modulua. Moduluak halako nahi beste kateatzeko aukera ematen du, barne-patioak dituzten bloke zabalak sortzeko, edo hiruzuloka lotzen badira, patio irekiak dituzten blokeak sortzeko.

Aplikazio orokortuena H formadun 2, 3 edo modulu gehiago lotzea izan da barne patioak dituzten blokeak sortuz. Modulu bakoitza bi luzerako bloke zatiz osatuta dago, eta eskailera kutzak konektatzen ditu bi atalak. Ondorioz, solairuko lau etxebizitza edukitzea lortzen da, komunikazio elementuetan aurreztuz eta eraikinak nabarmen trinkotuz. Esan bezala, hiruzuloka ere lotu daitezke H formadun moduluak. Kasu horretan ez dira barne-patioak sortzen, baina bai kalera zabaltzen diren U formako patio irekiak. Konposizio honek emaitza zitalak ematen ditu espazio publikoari begira.

Bi bariazio horietan oinarritutako ehunka mila bloke eraiki dira eta eraikitzen jarraitzen dira Espainian.



4. *irudia*. Moratalazgo eraikinen solairu tipoaren barne-banaketa. Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.

### Jesús auzoa, Madril (J. A. Domínguez Salazar, 1949-54)

Etxe-irla eraikina barne patioa edo patioak dituen, eta lau kanpo fatxada.

Bloke erresidentzial handi eta askea da, lau kanpo fatxada dituen, eta zabalera handia izateagatik barne patioak ere badituen. Errenazimenduko palazooaren deribazioa da, eta Espainiako zenbait auzotan sarri erabili izan da, bereziki XIX. mendeko zabalgunek handitzeko edo horien perimetroan. 8 solairu ditu, bi barne-patio eta 5 eskailera-kutxa. Etxebizitzak zabalak dira eta gutxienegongela eta logela nagusiak kanpo fatxadan kokatuta daude. Etxebizitzek orientazio bakarra daukate, beraz, eguzkiztapen baldintzak oso ezberdinak dira batzuen eta besteen artean.

Atal honetan aipatu ditugun zenbait eredu aurrerago berreskuratuko ditugu, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako bloke tipologia errepi-kakorrenak aztertzean.

## 2.2 Hirigintza feminista

Feminismoak hirigintzari egiten dion ekarpenaren oinarrian dago azaleratzea, jakintza diziplina eta praxi oro bezala, hirigintza ere genero rolek zeharkatzen dutela. Baieztapen horren eragina estrukturala da, eta hainbat aspektutan islatzen da: emakumeek historian zehar hirigintzari egindako ekarpenen errekonozimendu ezean; XIX. mende bukaeran hirigintza jakintza-zientzia bezala sortzean, intrintsekoki bere gain hartzen dituen ikuskera kapitalista eta patriarkalean; arkitekto-figura historikoki maskulinoaren sorreran, eta ondorioz, bizi-esperientzia horrek espazioen diseinuan duen eraginean; espazioaren neurketa-eredutzat hartutako gorputz ustezko unibertsal baina maskulinoan...

Gaiaren heldulekuak askotarikoak dira, eta horregatik, ezer baino lehen, generoaren inguruko zenbait aspektu orokor argituko ditugu. Generoa erai-kuntza sozial eta kulturala da, emakume-gizon marko binarioan oinarritua, ahalmen eta zeregin ezberdinak egokitzen dituen zenbait ezaugarri biologikotan oinarrituta. Aspektu biologiko horiek ugalketarekin lotutakoak dira, eta horien arabera pertsoneri rol eta lan sozial batzuk edo beste egozteari lanaren banaketa sexuala deritzo. Feminismo materialistatik, lanaren banaketa sexuala definitzeko askotan oinarritzat hartzen diren ezaugarri biologiko sexualen kategorizazio binarioa kolokan jartzen da. Kategorizazio bitar hori biologia binarismotik irakurtzeak dakarrela argudiatzen da, eta ez biologikoki gizakion sexua binarioa izateak. Zientzia biologikoetan hainbat korrante daude gizakion “sexua” binarioa baino bimodala dela defendatzen dutenak<sup>9</sup>. Christine Delphyren arabera, ez da biologiaren izenean batzuei eta besteei ezarritako lanen espezifikazio teknikoa, funtzioa edo erabilgarritasun soziala lanaren banaketa sexualaren oinarrian dagoena. Produktio harremanak baik, hots, produktorearen eta produktuaren arteko harremanak. Hori horrela, *patriarkatuaren produkzio eredia emakumeek etxearen eta familiaren marko*

9 Juane Celeste Giraldo dibulgatzaile zinetifikoaren arabera, gizakiongan bi zelula sexual edo gameto existitzen dira, baina kromosoma sexualen hainbat mutazio daude, eta baita lehen eta bigarren mailako karaktere sexualen hamaika konbinazio ere, logika binarioetatik at geratzen direnak (DELPHY, 2023: 15. orr.).

*sozialean (eta ez geografikoan) egiten duten doako lana da, eta marko horretan ematen den edozein produkziari aplikatzen zaio*<sup>10</sup>. Doako lan horiek etxearen, harremanen eta pertsonen zaintzarekin lotutakoak dira, ikusezinak, eta balio sinbolikorik gabeak. Rol maskulinoarekin lotutako lanak aldiz publikoak eta ordainduak dira, ikusgarriak, eta balio sozial handia dutenak. Ondorioz, historian zehar “emakume-ugalkor” roletik egindako hainbat ekarpen sozial ikusezin egin dira, ez zaie aitortzarik egin ezta genealogiarik eraiki. Ez dira iruditegi kolektiboan existitzen. Diziplina orotan ematen den ezabatze historikoa harremanetan dago baita ere errelatoa eraikitzen duten gertaerak hautatzeko irizpide eta baloreekin. Rol maskulino publikotik egindako ekintzak baino ez baditugu aintzat hartzen, zaintza lan ikusezinetan lanpetuta ibili diren emakumeek egindakoak ez dira errelato historikoetan sartuko. Eta esparru publikoan parte-hartzeko baldintzak izan dituzten emakumeen ekarpenak ezabatu, edo modu bidegabean horiez jabetu eta ikusezin bilakatuko dira.

Generoaren aferak, beraz, inplikazio sozial eta historiko handiak ditu. Alde batetik, jakintza markoak eraikitzeke aintzat hartzen diren eta ez diren ekarpenak baloratzeko, eta ondorioz, jakintza-diziplinak definitzeko; eta bestetik, ekarpen horiek egiten dituzten pertsonen aitortza soziala egiteko.

Arkitektura eta hirigintzara bueltatuz, espazio urbanoez eta feminismoaz hitz egitean, hainbat gai ezberdinetan jarri dezakegu fokua. Jarraian, historian zehar emakumeek arkitektura eta hirigintzaren diziplinari egindako ekarpenen errepasso labur bat egingo dugu, ondoren, feminisмотik proposatzen den hirigintza ereduaz azaltzeko.

## **2.2.1 Nondik gatz**

### **2.2.1.1 Emakumeek hirigintzari egindako ekarpenen begirada historiko labur bat**

Bizipen ezberdinek esperientzia ezberdinak sortzen dituzte, eta ondorioz, abiapuntu ezberdinak erronka edo proiektuei heltzeko. Jakina da genero rolek bizi-esperientzia ezberdinak sortzen dituztela, eta ezberdintasunak aintzat hartzea beharrezko pausua da bisio aniztasun horri balore berdinean aitortzeko. Gure hirien eraikuntzaren inguruko begirada aberasteko, ezinbestekoa

---

10 DELPHY (2023), 15. orr.

da emakumeek arkitektura eta hirigintzaren esparruan egindako ekarpenak ikusaraztea. Horregatik, ekarpen horiei begirada orokor bat emango diegu. Genealogia zehatz bat egitetik urrun, ekarpen historiko ezberdinen aberastasuna ezagutuko dugu, eta egungo panoramara heltzeko bide posible bat egingo dugu. Horretarako, Zaida Muxik *Mujeres, casas y ciudades* liburuan egiten duen errepaso historikoaren zenbait traza ekarriko ditugu hona.

Abiapuntua XV. mendean jarriko dugu, formazio akademiko unibertsitarioaren sorrera baino lehen, arkitektura ikasi gabe arkitekto bezala lanean ibili ziren horietan. Arkitektura ikasketa arautu bilakatu baino lehen, bi bide zeuden arkitekto izaten ikasteko: bata eraikuntza gremioen bitartez ematen zen, eta bestea arkitekturaren inguruko interes amateurra landuz, marrazketa eta arteak ikasiz, eta ikasitakoa Europan zeharreko bidaietan osatuz. Bi aukerak ziren zailak emakumeentzat, baina badaude bide horiek jarraitu zituzten emakumeen erreferentzia historikoak. Eraikuntza batean esku-hartzen duen lehen emakumearen erreferentzia XVI. mende hasierakoa da, Katherine Briçonnetek bere Chenonceauko gazteluan (Frantzia) egindako obra-jarraipenarena 1513 eta 1521 urteen bitartean. Arkitekto kontratatu bezala daukagun lehen emakumearen arrastoa Plautilla Briccirena da, Villa Bennedetti (1663-1849) zeritzon eraikuntzaren arkitekto izan zena. Zailtasunak zailtasun, Ilustraziotik aurrera, aristokraziako emakume batzuek arkitekto lanak egin ahal izan zituzten beraien jabetzako lurretan, eta horretarako matematika, marrazketa, eta ikerketa formakuntza jasotzen zuten. Emakume gutxi eta pribilegiatuak ziren arkitektura praktikatzan zuten horiek, emakumeentzat zuzenak ez ziren jardueretan murgilduta.

XIX. mendea aldaketa sozial askoren garaia izan zen. Industria Iraultzaren ondorioz landa eremuetako biztanle asko hiri handietara mugitu ziren, eta hirietan hazkunde demografiko handia eman zen. Biztanle berri horiek ez zeukaten mediorik etxebizitza duin bat lortzeko, eta familia ezberdineko kideak batera bizi ziren etxebizitza berdinean. Egoera horrek gizarte viktoriarraren baloreekin talka egiten zuen. Izan ere, burgesia viktoriarrak eredu izan nahi zuen gizartearentzat. “Izan behar zenaren” jokabide sozial kode zurrun bat zabaldu nahi zuten, eta familia nuklearraren eredu orokortu. Langile klasearen bizi baldintzetan ikusten zuten kontrol faltak moralizazio kanpaina indartsua eragin zuen, emakumearen irudia ama eta emazte rolekin lotuz eta zaintzaren arduradun nagusitzat irudikatuz. Emakumeek eta gizonek ezin omen zituzten lan berdinak egin, ezin zuten batera lan egin eta etxetik kanpo egindako lana feminitatearekin kontra-jartzen zen. Testuinguru horretan, emakumeek zailta-

sunak zituzten rol publikoak hartzeko. Hala ere, gutxi batzuek, beren posizio sozial eta ekonomikoari esker, etxebizitzaren egoeran eta hiriaren osasun faltan eragiteko aukera izan zuten: pertsona pobreentzako eta moralaren eruditik at zeuden emakumeentzako etxebizitzak eraiki zituzten, bizi baldintzak hobetzeko auzoen birgaitzearen alde egin zuten eraistearen alde beharrear, edo langileentzako etxebizitzak eraiki eta erosi zituzten. Auzoak birgaitzearen planteamenduaren aitzindaria izan zen Octavia Hill, eta bere lanak XX. mendean zehar hiri-inguruak hobetzeko hiru alderditan izan zuen eragina: etxebizitzak eraberritzean alderdi sozial eta materialak aintzat hartzea, hurbiltasunetik jardutea, eta jada eraikia dagoenari garrantzia aitortzea hiri inguruetan aniztasun historikoa gordetzearen beharra azpimarratuz.

Etxebizitzaren diseinuari dagokionez ere, ekarpen handiak egin zituzten emakumeek XIX. mende bukaeran. Egunerokotasunetik ekonomia domestikorako tratatuak idatzi zituzten, etxebizitza moderno eta garaikidera heltzeko oinarri izan zirenak, erabilera eta antolaketa kontzeptu berriak proposatu baitzituzten. Catharine Beecher-ek adibidez, etxebizitza funtzionala izan behar zela defendatzen zuen, emakumeen behar eta gaitasunen neurria eraikia. Egun indarrean dauden lau gai planteatu zituen: sukaldeak efizientea eta zentrala izan behar du etxebizitzan, espazioek malguak eta moldagarriak izan behar dute, gauzak gordetzeko armairu enpotratuek abantaila ugari dituzte altzari isolatuen aldean, eta aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa aintzat hartu beharreko afera da. Sukalderik gabeko etxebizitzaren aldarria ere XIX. mendearen bigarren erdian egin zuen Melusina Fay Peircek. Eskola edo ospitaleek bestelako zaintza lanak etxetik kanporatzen zituzten bezala, sukaldearen desagertzea sukalde-lanen espezializazioaren aldeko apustua zen, emakumeak liberatzeko eta beren anbizio pertsonalak garatzeko ahalmena emango ziena.

XIX. mendearen azken laurdenean independentzia pertsonal eta ekonomikoa bilatzen zuten emakume burgesek aukera izan zuten arkitektura munduan lana bilatzeko, planoak kopiatzen edo obretako espezifikazioak idazten. Ospe gutxiko lanak ziren, aspergarriak, merkeak, eta ondorioz emakumeentzat egoikiak. Garai bertsuan, emakumeak Britainia Handiko Arts&Crafts<sup>11</sup> mugimendura gehitu zirenean, aldiz, ikusgarritasuna eta ospe ona zuten rolak hartzeko aukera eduki zuten. Lan, formakuntza eta garapen esparrua zen beraientzat,

---

11 Arts&Crafts Erdi Aroko arte eta ofizioen berreskuraketan jardun zen mugimendu artistikoa izan zen, Ingalaterran sortua 1880an, garaiko produkzio masiboa ezeztatzen zuena.



etxetik kanpo ematen zena, eta mende bukaeran klase ertaineko emakumeentzat aukera berri eta interesgarria zena.

Mende berean arkitektura-diziplina akademikoki eta profesionalki sendotu egin zen hainbat arkitektura eskolaren sorreraren ondorioz. American Institute of Architects (AIA) 1857an sortu zen, University of Illinois Urbana-Champaign 1867an, eta Massachusetts Institute of Technology (MIT) 1868an, besteak beste. Eskola horietatik atera ziren lehen emakume arkitekto tituludunak. Lehena Mary Louisa Page izan zen, 1878an, Illinoisko Unibertsitatean. XIX. mende bukaeran, beraz, Europako lehen emakume arkitekto titulatuak ditugu, eta paraleloan, Arts&Crafts mugimendua, non hainbat emakume taldek parte-hartzen duten artisautzaren inguruan lanean.

XX. mende hasieran lehen emakume unibertsitario eta ekonomikoki independenteak agertu eta botere esparruak hartzen hasi ziren. Rolak apurtu behar izan zituzten eta harreman eredu berriak eraiki, eta askotan, esperimentaziora eramane zituen horrek. Muxiren hitzetan, XX. mende hasierako emakume-bezeroak izan ziren etxebizitzaren programa berritzaileak sortu zituztenak, rol tradizionala hautsi zuten emakumeak<sup>12</sup>. Emakume horiek etxebizitza estatiko eta hierarkikoaren totema kolokan jarri zuten. Trust Schröder etxean adibidez, hierarkiarik gabeko espazioak planteatzen dira, non gune guztiek azalera antzekoa duten. Anbienteen arteko banaketa tabike mugikorren bitartez egiten da, eta espazio bakarretik espazio konpartimentatura pasatzeko aukera dago. Gainera, hainbat altzari ditu funtzio espezifikoak betetzeko diseinatuak. Etxebizitza horretako espazioen diseinua familia harreman eredu berri baten isla zela esan daiteke, pribatutasun maila zurrinak eta hierarkiak kolokan jartzen zituenarena. Izan ere, XIX. mendetik aurrera, arkitektura domestikoaren diseinu ildo nagusia eremu pribatuaren eta familiarren babesean zentratu zen. Baina Alice T. Friedmanen arabera *“harrigarria da arkitekto ospetsuek eginitako etxebizitza garrantzitsu gehienak emakume-bezeroentzat edo emakumeak buru zituzten familia ez tradizionalentzat diseinatuak izan zirela”*<sup>13</sup>. Etxebizitza harreman sozial eta ekonomikoak antolatzeko espazioa ere bada, eta XX. mendean etxebizitza ereductan esperimentazio eta berrikuntza interesgarriak eman ziren arren, modernitate horrek ez du garapen lineala izan, eta ohiko etxebizitzaren programa ia bere horretan mantendu da gaur arte.

12 MUXÍ (2018), 193. orr.

13 Ibid.

XX. mendeko bigarren erdialdean, Bigarren Mundu Gerraren gerraosteko garaian, emakumeen rol publiko eta produktiboan atzerapen handiak eman ziren eta domestizitatea berrasmatu zen. Publikoaren eta pribatuaren, produktibo eta ugalkorraren arteko banaketa indartu egin zen, eta espazioaren formalizazioan ere eragina izan zuen horrek. Estatu Batuetan hainbat etxebizitza-aldiri eraiki ziren, hiri modernoaren eta lorategi hiriaren ideiak gorpuzten zituztenak, baina horien kopia eskasak zirenak. Lurralde klase eta generoaren arabera banatu zen, eta lorategidun etxebizitza unifamiliarra familia nuklearraren bizitegi desiratu bilakatu zen. “Amets amerikarra” progresiboki amets global bilakatu zen, eta emakume pribatu eta domestikoaren eredu gailendu zen rol desiragarri bezala. Testuinguru horretan ere, kargu publiko, politiko eta aktibistak izan zituzten emakumeak egon ziren, garaiko korronte nagusien kontra hirigintza proiektu eta proposamen interesgarriak garatu zituztenak.

Udal teknikari roletik egindako lanen artean Holandako adibidea azpimarrazten du Muxik. Jakoba Mulderrek eta Cornelis van Eesterenek Amsterdamen zabalpenerako idatzitako proiektua modu kontzientean talde-lanean prestatu eta aurkeztutako lehen plana izan zelan dio, egiteko moduetan tendentzia berri bat markatu zuena. Lotte Stam-Besse ere aipatzen du, auzoaren eta hiriaren osotasunaren arteko lotura landu zuena. Hiria bizitza komunitarioaren ondorio dela zioen, eta ez indibidualtasunarena. Hirigilearen papera, beraz, hiria eta bere komunitateak interpretatzea da eta gizartea ordezkatzeko duten estrategiak aurreikustea.

Aktibismotik egindako ekarpenen artean Jane Jacobs estatubatuarrarena da funtsezko piezetariko bat. Jacobsek ez zuen ikasketa unibertsitariorik eta gutxietsia izan zen horregatik, esanez ezin zuela hirigintzari buruz hitz egin zuten ikasketa apurrekin. *The Death and Life of Great American Cities* lana idatzi zuen 1961ean, egun irakurrita ere indarrean dirauena. Kaleko hiri errearen funtzionamendua aztertu zuen bere lanean, unibertsitate hiri pentsatzen ari ziren horiei zorua zapaltzeko eta esperientzia errealetatik ikasteko gonbita eginez. Bere ikuspuntuak hiriaren inguruko jakintza jasotzeko moduen iraulketa planteatu zuen, eta baita egiteko moldeena ere: espazio errealetan pertsona errealetzako eta errealekin jardutea zen bere apustua. Bere ekarpenen arrastoak 1980an sortu zen Matrix taldearen planteamenduetan topa ditzakegu. Matrix 25 arkitekto eta hirigilek osatutako kooperatiba feminista ingelesa izan zen. Emakume anitz ziren, jatorri, arraza, formakuntza edo sexu-orientazio ezberdinak zituztenak, eta beren burua feministatzat aldarri-

katzen zutenak. Teoria eta diseinua lantzen zituzten elkar-elikatze logikatik, eta beraiena da *Making Spaces* (1984) liburua, arkitektura eta hirigintza feminismitik eta emakumeen esperientziatik landu zuen Britainia handiko lehen liburua. Proiektuen hasieratik erabiltzaileak txertatzeko diseinu metodologia bat diseinatu zuten, eta erabakiak kolektiboan hartu ahal izateko, hizkuntza eta adierazpen modu ulergarriak eta barneratzaileak bilatzen zituzten.

Garai bertuko esperientzien artean azpimarragarria da ere Vienako hiria- ren kasua, egun eredu izaten jarraitzen duena. 90eko hamarkadan hasi ziren plangintza sailetik, Eva Kail buru zutela, generoa aintzat hartzen duten iriz- pideak hiriaren planeamenduan txertatzen. Lan erreproduktiboak gauzatze- ko baldintzak hobetzea dute helburu, baita emakume eta neskatoen aisialdi, kirol eta mugikortasun behar espezifikoerantzutea ere. Mariahilfer barru- tiaren birgaitzean adibidez, genero irizpideak aplikatzeko proiektu pilotu bat egin zuten 2002an. Erabilerak eta pertsonen ohiturak xehetasunez aztertu zituzten, eta hiritarren bizitza erreala hobetzeko esku-hartze txiki eta kon- kretuak proposatu zituzten. Kaleen arteko bidegurutzak hobetzea, espaloiak zabaltzea, semaforoen denborak luzatzea, bankuak jartzea edo espaloietako argitasuna hobetzea izan ziren egindako zenbait aldaketa. Ia ikusezinak izan daitezkeen interbentzioak, baina egunerokoan aldaketa nabarmenak eragin ditzaketenak.

Aipatu ditugunak ekarpen gutxi batzuk baino ez dira izan, historian zehar eta egun ere, arkitektura eta hirigintza ulertzeko dugun modua aberastu dutenak. Testura ekarritako emakumeek eta beste askok arkitektura eta hirigintzaren gorputz teorikoa eta praxia aberastu dute mendeetan zehar. Ekarpen gehie- nak ez dira feminismoaren etiketapean gauzatu, baina garaian garaiko ordena soziala eta korrante arkitektoniko nagusiak kolokan jarri dituzte emakumeen bizi-esperientziatik eginak izate hutsagatik.

### 2.2.1.2 Hiri funtzionalaren kritika feminismitik

2.1 atalean ikusi dugun bezala, 1933an publikatutako Atenaseko Agiriak hiri- gintza berri baterako hiri eredugarriaren gidalerroak jasotzen ditu. Hirigintza funtzionalistaren oinarriak deskribatzen ditu, eta oinarri horiek genero ikus- pegitik aztertzen baditugu, ezinbesteko zaigu 77. puntuan gelditzea. Zera dio:

*“Hirigintzaren klabeak lau bizi funtziotan oinarritzen dira, eta funtzio horiek bizitzea, lan egitea, gozatzea eta zirkulatzea dira. Ondorioz, hi-*

*rigintzak lau funtzio nagusi ditu: lehenik eta behin, pertsonen ostatu osasuntsuak bermatzea, hau da, espazioa, aire garbia eta eguzkia esku-zabaltasunez bermatuko dituzten lekuak sortzea. Bigarrenik, lantokiak antolatzea, lanak morroitzak neketsua izateari utzi eta giza jarduera naturala izatera itzuli dadin. Hirugarrenik, ordu libreak emankor bilakatu ahal izateko behar bezalako instalazioak aurreikustea. Laugarrenik, antolaketa eremu desberdin horien arteko lotura zirkulazio-sare baten bidez ezartzea, trukeak bermatu eta bakoitzaren eskumenak errespetatuko dituenak.*<sup>14</sup>

Hirigintzak ase beharreko oinarrizko lau bizi funtzio deskribatzen dira beraz, beraien artean berezita ulertu ahalko balira bezala, eta egunerokoa konplexutzen duten harremanen eta zaintza lanen beharrak aintzat hartu gabe. Unibertsaltzat hartu ziren irizpide horiek “gizon-tipoaren” beharretan oinarritzen ziren, gizartearen ikuspegi androzentrikoa orokortuz<sup>15</sup>. Ez da kasualitatea, CIA-Meko partaide gehienak gizonak baitziren. Esan bezala, genero rolek bizi-esperientzia ezberdinak sortzen dituzte, adinak, estatus ekonomikoak, arrazak edo beste aldagai batzuek bezalaxe. Zaintza ardurarik ez duten pertsonen begiradatik proposatzen zen lau bizi-funtziotan oinarritutako egunerokoaren bisio sinplifikatu hori. Lau bizi-funtzio horiek, gainera, lurralde-eremu espezifiko eta banatuetan kokatzea proposatu zuten, egun “zonakatze” bezala ezagutzen dugun hori. “*Funtzio klabe horiek autonomoak izango dira*”<sup>16</sup> diote, eta bakoitzari kokaleku aproposena emango diote bere osotasunean gara dadin. Zonakatzearen alde egiten zuten beraz, hiri-erabileren bereizketa edo segregazio zorrotz baten alde, lurraldea hiri-funtzioen arabera modu zientifikoan antolatzeko<sup>17</sup>.

Baina zonakatzea ez zuten Mugimendu Modernoko arkitektoek asmatu, Industria Iraultzak hirietan sortutako higiene eta osasun arazoak saihesteko sortu baitzen XIX. mendean. Fabrikak eta etxebizitzak hirian nahastuta edukitzeak inguru zaratatsu, zikin eta kontaminatuak sortzen zituen, eta baita garraioen joan etorri gogaikarria ere. Horren aurrean, bi hiri-eredu nagusi sortu ziren: aztertzen ari garen hiri-funtzionala, eta Ebenezer Howardek proposatutako Lorategi-hiria. Lorategi-hiri teorikoak forma erradiala zuen. Zentroan eraikin publiko nagusiak kokatzen ziren, hurrengo eraztunean parke handi

14 Hainbat egile (1950), 123. orr.

15 CIOCOLETTO (2014a), 24. orr.

16 Hainbat egile (1950), 124. orr.

17 Fernández de Betoño (2014), 90. orr.

bat, hurrengo bi eraztunetan etxebizitzak eta beste ekipamendu gutxi batzuk (eskola edo eliza), eta azken geruzan, fabrikak, biltegiak, eta zarata eta kutsadura sortzen zuten lan-jarduerak. Inguruan landa-eremua zegoen, nekazari-tzarako lur eta baserriekin. Mugimendu Modernoak baina, funtzioen arteko banaketa argiagoa aldarrikatzen zuen, funtzio bakarreko guneen aldeko defentsa sutsua eginez.

Zonakatzea lanaren banaketa sexuala lurraldean islatzearen ondorio ere bada. Hiri-bizitza pobretu eta parte-hartze soziala zailtzen du. Izan ere, lan leku bezala proiektatutako eremuek lanaren esfera produktibo eta ordainduari baino ez diote so egiten. Gure buruaren, beste pertsonen, izaki bizidunen edo etxebizitzaren zaintzarako egin beharreko lanak nahitaezkoak dira bizitzak aurrera egin dezan. Lan horiek etxebizitza barruan zein kalean ematen dira eta egunean zeharreko momentu ezberdinetan. Espazioen banaketa zorrotza denboraren muga argiekin lotuta dago, hots, hasiera eta bukaera argi bat duten jarduerekin (Industria Iraultzatik oinordetutako soldatapeko lana eredu). Lan ugalkorren denborak elastikoak dira, ez dute hasiera eta bukaera erabatekorik, ardura eta jarduera konstante eta puntualen forma hartzen dute. Lan horien izaera aintzat hartzeak erabilerak eremu ezberdinetan banatzearen oinarrian dagoen logika dikotomikoa kolokan jartzen du: lana-etxebizitza edo publiko-pribatu bezalako dualitateek zentzua galtzen dute zaintza lanen denbora- eta espazio-logikak ekuazioan txertatzen baditugu. Esfera ugalkorrenekin harremana duten hezkuntza, osasun edo erosketa lanak egiteko lekuak etxebizitza barrualdetik at daude kokatuta, hirian zehar. Zaintza ardurak dituzten pertsonentzat leku horiek lan-lekuak dira ere, ez dira aukeran bisitatzeko tokiak, nahitaez erabili beharrekoak baizik. Errealitate hori aintzat hartzen badugu, ulertu dezakegu nola funtzio bakarreko auzo erresidentzial batean bizitzeak, hiri-inguru misto eta konpaktu batean bizitzearekin alderatuta, askoz ere zailtasun handiagoak ekartzen dituela egunerokotasuna aurrera eramateko. Nola eraman haurrak eskolara lanera sartu baino lehen? Nola egin errekaduak lanetik irten eta etxera bidean? Erabilera ezberdinak nahasten dituzten hiri-inguruek jarduera ezberdinak kateatzea ahalbidetzen dute, egunerokoa erraztuz. Jarduera horiek eremu funtziobakar eta banatuetan gauzatzeak aldiz, desplazamendu handiagoak, eta ondorioz, denbora xahutze handiagoa dakar.

Eta nola egin oinez ezinezkoak diren desplazamendu horiek? Hiri-funtzionario egiten zaion beste kritika bat automobilaren erabileran oinarritutako mugikortasun eredu sustatzen duela da. Hiri eremu funtziobakar eta isolatuen artean mugitu behar izateak kotxearekiko dependentzia areagotu egiten du.

Garraio publikoa edukita ere, urrun dauden eginbehar ezberdinak kateatu ahal izateko, ordutegi maiztasun handiak eta intermodalitate baldintza onak behar dira. Eta sarri ia ezineko bilakatzen da leku batetik bestera denbora handirik xahutu gabe heltzea. Horrelakoetan, kotxea hartzea edo nahitaezkoak ez diren egitekoei uko egitea dira aukera bakarrak, askotan aisialdi jardueren eta ongizate pertsonalaren kaltetan. Kotxearen nagusitasunak hainbat ondorio ekarri dizkio lurraldeari eta hiriari: errepide mordera eraikitze beharra, hirietako espazio publikoaren zati handi bat kotxeari ematea, aire-kutsadura, baliabide-naturalen xahuketa edo kale-paisaien degradazioa. Gainera, automobil pribatuaren jabetza eta erabilera tasak aztertzen baditugu, ikusi dezakegu gizonen mugikortasun modu nagusia kotxea den bitartean, emakumeak batez ere oinez mugitzen direla egunerokoan<sup>18</sup>. Pobreziaren feminizazioak eragina dauka eskuragarri ditugun mugikortasun aukeretan, eta emakumeek egun gidabaimen eta auto gutxiago dituzte jabetzan gizonekin alderatuta. Horrek talka egiten du kotxean zentratutako mugikortasun ereduaz hazitako hirien erabilerarekin, lanerako, hezkuntzarako, kulturarako edo aisialdirako aukerak mugatzen baititu.

Jane Jacobs izango da, bere *The Death and Life of Great American Cities* (1961) lanean, hiriarekiko begirada unibertsal eta homogeneoarekin kritikoa izango den lehenengotarikoa. Hiriaren ulermenerako egunerokotasunaren begiradaren garrantzia aldarrikatuko du, eta funtzio ezberdinen hurbiltasunaren eta nahasketaren garrantzia ere bai. Espazio publikoaren funtzio sozialean fokua jarri eta pertsonen kalean duten presentzia areagotzeko, aniztasuna sustatzeko, eta bizilagunek topo egin eta harremantzeko hainbat planteamendu espazial egiten ditu. Finean, hiriaren funtzionamendua kalean gertatzen den horretatik aztertzen du Jacobsek, eta hortik abiatuta hiria proiektatzeko irizpideak proposatzen ditu. Hiria ulertzeko modu horrek hiru ezaugarri nagusi ditu Muxí-ren arabera. Lehenengoa, bizitako esperientziaren garrantzia litzateke, aintzat hartuz esperientzia hori ez dela unibertsala, eta bizi-baldintza eta faktore ezberdinen ondorioz pertsonen egunerokotasunak askotarikoak direla. Bigarrena, hiria sistema konplexu bezala ulertzen duela da, erabakiak hartzeko jakintza eremu ezberdinak aintzat hartu behar baitira eta baita eskala ezberdinetan lan egin ere. Eta hirugarrena, funtsean, pertsonak hirigintzaren zentroan kokatzea da.

---

18 EAEko 2016ko mugikortasun azterlanaren arabera, gizonen %43,8a ibilgailu motorizatu indibidualen mugitzen da emakumeen %28,2aren aldean. Ibilgailu motorizatu indibidualak barne hartzen ditu automobila gidari edo bidaiari bezala erabiltzea, taxia eta motorra. Emakumeek aldiz, bidaiariak (%47 inguru) oinez egiten dituzte, gizonen %39aren aldean.

Egun, hirigintzari feminismotik egiten zaizkion ekarpenek asko edaten dute Jacobsen proposamenetatik. Hurrengo orrialdeetan, gure testuinguruan feminismotik lantzen ari den hirigintzaren planteamenduak aztertuko ditugu.

## 2.2.2 Hirigintza feminista baterako proposamena

Azken hamarkadetan zehar, hirigintzaren ulermen hegemonikoa funtzionalismoaren, estetikaren eta eraikuntzaren patroien pean ulertu da<sup>19</sup>, eta sarri, pertsonak ahaztu ditu bere izatearen funtsezko elementu bezala. Desberdinkeria handidun gizartean bizi gara, eta egitura sistemikoez birsortzen dituzten biolentzia eta itzalak gure egunerokotasuneko espazioetan ere islatzen dira. Norengan pentsatuz diseinatzeko dira kale eta plazak? Zein erabilera mota sustatu nahi dute? Ingurura begiratu eta gure buruari galdera horiek egiten badizkiogu, espazioen kalitateek pista interesgarriak emango dizkigute. Bankurik ez dagoen kallean geldiro mugitzen den horrek ezin izango du deskantsatu, edo terraza batean kontsumitzeko dirurik ez duenak ezin izango du egon. Galtzadaren zabaleraren herena hartzen duen espaloi estu batetik zailtasun handiekin gurutzatuko dira umeen gurditxoak daramana eta karroarekin erosketetara doana.

Hirigintza feministak pertsonen egunerokoa hiri erabakien zentroan kokatzen du, eguneroko jarduerak balioan jarriz eta lan ugalkorren garrantzia aitortuz eta ikusaraziz, hein handi batean emakumeek ardurapean geratzen direnak<sup>20</sup>. Ez dago feminismoa eta hirigintzaren inbrikatzea modu bakarrean ulertzerik, baina gure testuinguruan erreferente diren Col·lectiu Punt 6 kooperatibako kideek beren proposamena jasotzen dute Urbanismo Feminista liburuan. Hiri feminista bat eraikitzeko hainbat printzipio zehazten dituzte, espazioaren diseinuari eragiteaz gain, hirien orden sozial eta sinbolikoa egituratzen duten baloreak ere kolokan jartzen dituztenak. Hurrengo lerroetan, aipatzen dituzten sei alderdi nagusiak ekarriko ditugu testura.

Lehenengoa. Materialtasuna, elementu fisikoak eta eraikuntza-sistemak gai sozialei erantzuteko tresna partzialak baino ez dira. Funtsezkoa da pertsonen eguneroko bizitzatik abiatuz lan egitea, abiapuntu horrek kontu espazialak denbora-baldintzekin lotzen baititu. Denboran kudeaketarekin harremana duten gaiei eraikuntza aspektuen pareko garrantzia aitortzeko beharra dago.

19 NOVAS (2021), 26. orr.

20 COL·LECTIU PUNT 6 (2019), 19. orr.

Bigarrena. Kapitalismoak sarri soluzioen eta elementuen estandarizazioa dakar, tokian tokiko baldintza eta beharrak aintzat hartzeko tarterik utzi gabe. Testuinguru bakoitza aztertzea, ulertzea, eta bertan bizi diren pertsonekin duen harremanean sakontzea ezinbestekoa da. Horretarako, soluzio homogeenak proposatu beharrean, aproposagoa da sustatu nahi diren irizpide edo baldintzak zehaztea, ondoren, tokiaren eta bizilagunen berezitasunera moldatzeko eta leku bakoitzeko aproposenak diren planteamenduak sortzeko.

Hirugarrena. Urte askotan zehar hiria bulegotik diseinatu da, lurraldea zapaldu gabe eta biztanleen bizipenei itsu. Hirigintza feministak toki bakoitzean bizi diren pertsonen eguneroko esperientziatik egiten du lan, horien aniztasuna aintzat hartuz eta egoera zaugarrienean daudenen baldintzak hobetu nahian.

Laugarrena. Hirigintzak sarri duen izaera diziplinatzailearen aurrean, aniztasuna eta ezberdintasunak ikusaraztea da helburua, desberdinkeriak agerian uztea eta horiek orekatzea. Gorputz eta izate anitz beregain hartu behar ditu hirigintzak botere egiturak ulertu eta horiek espazioan duten isla lausotzeko.

Bosgarrena. Esku hartzeak egitean, sarri, onura ekonomikoa dakarten eta jarduera produktiboak hobesten dituzten interbentzioak lehenesten dira. Horren aurrean, nahitaezkoa da lehenetasunak irauli eta bizitzaren sostengua lehenetasun nagusitzat hartzea. Hiriak bizitzarako sostengu fisikoa bermatzen du, eta egunerokoaren esfera ugalkor, produktibo, pertsonal eta komunitarioa hartu behar ditu aintzat, produktiboaren nagusitasuna lausotuz.

Seigarrena. Autosufizientziaren ideia apurtu eta pertsonetikiko eta ingurugiroarekiko dugun dependentsia agerian uztea beharrezkoa da zaintzen izaera komunitarioa aitortzeko. Zaintzak espazio ezberdinetan eta modu partekatuan gauzatzeak komunitatea indartu eta pertsonen autonomia handitzen laguntzen du.

Hirigintza garaian garaiko baloreen isla da, eta hautatzen diren hiri-bilbe ereduak, lehenesten den mugikortasun moldeak, kaleen neurriek eta bertan dauden elementuek, edo jarduera ezberdinen kokapenak balore horiek gorputzen dituzte. Aipatutako sei alderdiek ikuspegi eta oinarri ideologiko esplizitu bat



ezartzen dute, nahi dugun espazio urbanoa barneratzaileagoa, berdinzaleagoa eta komunitarioagoa izan dadin.

### **2.2.2.1 Tokian tokiko aplikaziorako 5 hiri kualitate**

Aurreko atalean aipatu dugu nola testuinguru eta behar ezberdinetarako soluzio homogeenak aplikatzea baino interesgarriagoa dela hiri-bizitza aberats bat sortuko duten irizpideak zehaztea, ondoren, tokian tokiko baldintzetara egokitzeke.

Zentzu horretan, Adrianna Ciocolettok lan interesgarria egin zuen bere tesian hiri-espazioak genero ikuspegitik aztertu eta hobetzeko hiri kualitateak definitzeko. Bere lanean, 5 kualitate zehazten ditu espazioek pertsonen eguneroko bizitzaren esperientzia aintzat hartu dezaten. Eguneroko zereginak kateatu ahal izateko eta mugikortasuna eta denbora optimizatzeko, auzoak berebiziko garrantzia hartzen du etxebizitzetatik hurbil dagoen ingurunea baita. Hurbiltasun horrek lan ugalkorrek egiteko toki ohikoena eta aproposena bilakatzen du auzoa. Desiragarria da etxetik oinez heldu ahal izatea harremanak ehuntzeko espazio publikoetara; erosketak egiteko dendetara; bizi kalitatea ematen diguten ekipamenduetara; eta hurbil ez ditugun tokietara joateko garraio publikora. Auzoa, beraz, egunerokoa eusten duen hiri-azpiegitura funtsezkoa da. Gutxi gorabehera oinez 10 minutuko erradioan zeharkatu daitekeen eremu guzti hori bezala ulertuko dugu auzoa, sarri, eremu horrek muga administratiboarekin bat egingo ez duen arren.

Eguneroko bizitza errazteko auzoan sustatu nahi ditugun 5 hiri kualitateak, beraz, hurrengoak izango dira: hurbiltasuna, aniztasuna, autonomia, bizitasuna eta adierazgarritasuna.

Hurbiltasuna harreman-espazioak, osasun, hezkuntza edo bestelako zentroak, garraio publikoko geltokiak eta saltokiak haien artean eta etxebizitzetatik gertu daudenean ematen da. Eguneroko erabiltzen ditugun espazioak hurbilekoak ez badira, pertsonak denbora gehiago eskaini behar diete joan-etorriari, edo jarduerari uko egin behar diete eguneroko zereginak garatu ahal izateko.

Aniztasuna pertsona desberdinak espazio berean jarduerara desberdinak egiten ari direnean gertatzen da. Espazioak anitz direnean, pertsonen, jardueren eta egoteko eta bizitzeko moduen aniztasuna sustatzen

dituzte, generoa, sexua, adina, jatorria, kultura, aniztasun funtzionala, osasun-egoera edo gizarte-egoera baztertzailea izan gabe.

Pertsonak autonomia dute espazioak segurutzat hartzen dituztenean eta irisgarriak direnean. Hori gertatzen ez denean, espazio ez-irisgarriak sortzen dira aniztasun funtzionala duten pertsonentzat edo haur-kotxeak edo erosketa-orgak daramatzatenentzat; “puntu beltzak” edo beldurratik erabiltzen ez diren lekuak agertzen dira; edo guneak non mendekotasuna duten pertsonak (haurrak, adinekoak, etab.) ezin diren egon edo ibili beste batzuen zaintzarik gabe.

Espazio bat bizia da jende asko dagoenean eta bertan jarduerak ematen direnean. Horri jaramonik egiten ez zaionean eta, adibidez, kalearekin konektatuta ez dauden eraikinak edo parkeak eraikitzen direnean, erabilerarik gabeko eremuak sortzen dira, gutxiegi erabiltzen direnak edo eguneko ordu jakin batzuetan soilik bizia dutenak.

Adierazgarritasunak esan nahi du pertsonak ingurunearekin identifikatuta sentitzen direla (sinboloak, izenak, ondarea, estetikak, etab.). Gizartearen iraganaren eta orainaren parte diren pertsonen aitortza eta ikusgarritasun-erak eragotzi egiten du gizarte berdinzalego eta bidezkoago bat eraikitzea<sup>21</sup>.

Ezaugarri horiek helburu espezifikoak ezartzen dizkiete gure eguneroko espazioei, baina ez dute helburuak lortzeko soluzio bakarrik proposatzen. 4.2 atalean, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoak aztertuko ditugu kalitate hauek aintzat hartuta.

---

21 CIOCOLETTO (2014b), 43-47. orr.

## 3. Mugimendu Modernoaren eragina gure testuinguruan: 1950-1980 hiri-garapena

### 3.1 Hiri eredu modernoaren gorpuztea Gipuzkoan eta Errenterian: 1950 eta 1980 urteen arteko ga- rapen urbanistikoa

Atal honetan Gipuzkoak eta Errenteriak bigarren industrializazioaren ondorioz 1950 eta 1980 urteen artean izan zuen hiri hazkundearen ezaugarriak aztertuko ditugu eta Arrazionalismoaren postulatuekin harremanduko ditugu. Horretarako, Gipuzkoako arkitektoak Mugimendu Modernoaren ideietara nola heldu ziren ikusiko dugu, horietariko batzuk Frankismoko hirigintza politiken sustatzaile eta arduradun izan baitziren. Politika horiek Gipuzkoako hiri eta herri nagusien hazkundera gidatu zuten, Errenteriana baita ere. Azken puntuan, 1950 eta 1980 urteen artean Errenteriak espezifikoki izan zuen hiri hazkundera ezagutuko dugu, eta hazkunde horretan irizpide arrazionalisten isla bilatuko dugu.

#### 3.1.1 CIAMen eragina Gipuzkoako arkitekto eta hirigileengan

XX. mende hasieran CIAM kongresuetan lantzen ari ziren ideiek oihartzun ia berehalakoa izan zuten Gipuzkoako zenbait arkitekto gazterengan. Guda Zibila baino lehen, arkitekto belaunaldi interesgarri bat sortu zen, arkitekturaren loraldi bat ekarri zuena Euskal Herrira. Frantziako mugatik hurbil egoteak publikazio espezializatuak lortzea errazten zien arkitekto gipuzkoarrei. Ondorioz, Gipuzkoa Europako arkitektura modernoan ematen ari ziren eztabaidetara zabalik zegoen, eta leku estrategikoa zuen garaiko testuinguru arkitektonikoko ideia berritzaileen oihartzunak jasotzeko.

Arrazionalismoaren lur-hartze horretan mugarri izan zen Donostiako Nautikoaren 1929ko eraberritzea. José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayenek proiektatu zuten eraikin berria eta 1929ko abuztuan inauguratu zen. Bi arkitekto gazteen planteamenduak Le Corbusierren “Arkitektura berri baterako bost puntu” liburuan azaldutako irizpideak jarraitzen zituen eta bere ingu-

ruko eraikinekiko estilo apurketa suposatu zuen. Hormigoi armatuzko egiturarekin eraiki zen, banaketa modu askean diseinatzea ahalbidetzen zuena, eta baita fatxada ere; leiho horizontal eta jarraiak ditu; estalki lau erabilgarria dauka; ez dauka ez barne eta ez kanpo dekoraziorik, eta estilo arrazionalistaren kolore zuri bereizgarria dauka fatxadak. Autoreek izpiritu garbi eta sinplearen ideia gailendu nahi izan zuten proiektuan<sup>22</sup>, arrazionalismoaren eta higienismoaren premisei forma emanez. Jarraian ikusiko dugunez, lan hau garrantzitsua izan zen bai Gipuzkoako arkitekturarentzat eta baita bi arkitektoen ibilbidearentzat ere.

Idea arrazionalistak indarrez eta modu egituratuan zabaltzeko klabea izan zen GATEPAC-en sorrera. GATEPAC, edo *Grupo de Artistas y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea*, 1930eko urriaren 26an sortu zen Zaragozan, CIAM-en adar espainiarra izateko helburuz. Estatu mailako taldea hiru lantaldetan egituratu zen: Zentrokoa, egoitza Madrilan zuena; Ekialdekoa, egoitza Bartzelonan zuena; eta Iparraldekoa, Donostia eta Bilboren artean partekatutako egoitza zuena. *AC. Documento de Actividad Contemporánea* aldizkaria ere sortu zuen GATEPAC-ek, ideia arrazionalistak zabaltzeko eta inguruan eragiteko tresna gisa. Aldizkariaren bitartez taldearen proposamenak zabaltzen zituzten eta European zehar lantzen ari ziren problematika urbanistiko eta arkitektonikoen berri ematen zuten. Aldizkariaren lehenengo zenbakian, Donostiaren garrantzia azpimarratu zuten arrazionalismo espainiarraren loraldiaren abiapuntu bezala, Gipuzkoako Ateneoan antolatuta Pintura eta Arkitektura Erakusketaren funtsezko ekarpena nabarmenduz. Beraien esanetan, 1930eko irailean Donostian egin zen erakusketa hori izaera bertsuko ordura arteko erakusketen artean garrantzitsuena izan zen<sup>23</sup>.

Lehenengo zenbaki horretan gainera, GATEPAC-en asmoen adierazpena ere irakur zitekeen:

*“Arkitekturak erabilgarritasun bati, helburu bati erantzuten dio. Arrazoia ase behar duzu. Elementuetatik, programatik, materialetatik, espaziotik, argitik abiatu; barrualdetik abiatuz arrazionaliki garatu, funtziotik, kanpoaldera, fatxada, modu sinple eta konstruktiboan, edertasuna proportzioan, ordenan, orekan bilatuz. Gainjarritako dekorazio alferrikakoa kendu, arkitektura bere ingurune*

22 LABAYEN eta AIZPURUA (1930), 50. orr.

23 PONTE (2016), 12. orr.

*naturalera eraman, hau da, ingurune tekniko, sozial eta ekonomikora, zeinetatik gaur egun bananduta dagoen. Hori da GATEPAC taldeak praktikara eraman nahi duen programa, ahaleginak eta lana modu kolektiboan koordinatuz*<sup>24</sup>.

Idea arrazionalistak Gipuzkoan zabaltzeko prozesu horretan, José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayen arkitektoen papera azpimarratu behar dugu. Beraiek izan ziren, hasiera batean, GATEPAC-en Donostiako taldea osatu zutenak. Izan ere, Aizpuruak CIRPAC-en (Comité Internacional por la Resolución de l'Architecture Contemporaine) bileretan parte hartzen zuen GATEPACeko kide bezala. Konkretuki, 1932an Bartzelonan egin zen bileran ere parte hartu zuen, IV. CIAM kongresu ezaguna antolatzeko baliatu zutena. Ikusi dugun bezala, bilkura horretan landu eta definitu zen “Hiri Funtzionala”ren kontzeptu teorikoa.

Paraleloan, eta urte bertsuetan, arkitekto elkarte berri baten sorrera ere eman zen: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (EHAEO). 1930ean sinatu zen konstituzio akta Bilbon eta 1931ko ekainean osatu zen ofizialki, lurralde historiko bakoitzean delegazio bana ezarriz: Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan. Elkargoaren sorrerak arkitektoak antolatu zituen eta ideia berrien zabalpenari euskarri instituzionala eman zion. GATEPAC-i, gainera, ideia arrazionalistak arkitekto profesional saretu bati zabaltzea ere erraztu zion.

Arkitekto belaunaldi gazte batek bultzatuta, beraz, Mugimendu Modernoaren premisek eragina izan zuten 30eko hamarkadan zehar Gipuzkoan egin zen arkitektura eta hirigintza planteamenduetan. Baina espero baino bide laburragoa egin zuen korrante honek gurean, Guda Zibilak bat-bateko etenaldia suposatu baitzuen. Gerraostean, arrazionalismoaren ideien oihartzunak presente jarraituko du Espainian eta baita Gipuzkoan egingo diren planteamendu arkitektoniko eta urbanistikoetan ere, baina testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial berri horretara egokituak.

### **3.1.2 CIAMen ideien isla Gipuzkoako probintzia ordenazioan**

#### **Autarkia garaiko testuinguru sozial eta ekonomikoa 1939 - 1957**

Gerra Zibila igaro eta diktaduraren lehenengo garai hau, depresio ekonomiko, ondasunen eskasia, isolamendu ekonomiko, eta estatuaren protekzionismo eta

---

24 ETXEPARE eta GARCÍA (2012), 258. orr.

interbentzionismo handiko garaia izan zen. Gerraostetik 1957ra arte luzatu zen Autarkia<sup>25</sup> deritzon garaia. Alde batetik, gerrak eragindako suntsiketa berrearaiki behar zen, eta gainera, ekonomia industrialak bultzatu nahi zen, baina testuingurua latza zen horretarako. Bigarren Mundu Gerran zehar industria garatzea eta esportazioak egitea ia ezinezkoa zen, eta ondorioz, lehen sektorean jarri zen indarra ekonomiaren berraktibazioa bultzatzeko helburuz. Herrialdea bere baitan zituen medioekin hornitzeko garaia zen, eta hein handi batean arrantza eta nekazaritzan oinarritu zen jarduera ekonomikoa.

Gainera, etxebizitza falta orokortua zegoen Gerra Zibilak eragindako suntsipenaren ondorioz, eta bizitoki berrien eraikuntza sustatzea helburu garrantzitsua zen Erregimenarentzat. Horretarako, hainbat erakunde berri sortu ziren 1939an. Dirección General de Regiones Devastadas (DGRG) erakundearen bitartez gerrak kaltetu edo suntsitutako ondasunak konpondu nahi ziren. Dirección General de Arquitectura (DGA) instituzioa ere sortu zen hiru funtzio nagusirekin: arkitekturaren antolaketa nazionala egitea, arkitektoen esku-hartzea zuzentzea hala eskatzen zuten zerbitzu publikoetan, eta arkitektura jarduera profesionalak zuzentzea<sup>26</sup>. Instituto Nacional de Vivienda (INV) ere urte berean sortu zen, etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta horrekin lotutako jarduerak kudeatzeko. Bere funtzioen artean zeuden Plan Orokorrak egitea, etxebizitza babestuak eraikitzeako ordenantzak sortzea, proiektuak onartu eta kalifikatzea, edo etxebizitza babestuen inguruko lege-erreformak proposatzea. Urtebete beranduago, 1940an, Obra Sindical del Hogar y la Arquitectura (OSH) sortu zen. OSH-k eraikuntzaren ardura zuzena zuen, eta etxebizitza babestuak sustatzeko eta eraikitzeiko gai zen Erregimenaren tresna bakarra izan nahi zuen. Gerraosteko garai honetan, beraz, administrazio publikoak lideratu zuen etxebizitza produkzioa, *“Lehenengo etxebizitza, gero Hirigintza”*<sup>27</sup> lemapean, eta materialen falta eta arrazoinamendu testuinguru batean.

Konkretuki, Gipuzkoan, garapen industrialak ez zuen etenik izan. Gerra Zibilera arte, industria ekonomiaren parte nabarmena zen: siderurgia, eraldaketa-

25 Autarkia hala definitzen zuen Juan Antonio Suanzesek, 1941 eta 1963 artean Industria Institutu Nazionaleko presidente izan zenak: *“Autarkia bitarteko, zirkunstantzia eta aukera multzoa da, herrialde bati bere existentzia, ohorea, mugitzeko askatasuna eta, beraz, bere independentzia politiko osoa bermatuz, bere garapen normal eta asebetegarria eta bere behar espiritual eta material justuak asetzeari ahalbidetzen diotenak.”* (Lizundia, 2012: 11).

26 Ley de 23 de septiembre de 1939 creando la Dirección General de Arquitectura.

27 Garaiko etxebizitza ministro baten hitzak ziren, etxebizitza politiken helburuak ari adierazten dituenak: etxebizitza kopuru maximoa eraikitzea, baldintzak eta kalitatea aintzat hartu gabe (Lizundia, 2012: 11).

-industria, armagintza, burdinazkoa ez den metalurgia, ehungintza, papergintza edo altzarigintza sektoreek pisu azpimarragarria zuten ekonomian. Gerra ondorengo autarkia garaian, hainbat tailer eta negozio txiki sortzen jarraitu ziren burdingintzari eta transformazio-metalurgiari lotuta.

Gerraostean beraz, hirigintza eta arkitektura gai klabeak izatera pasa ziren, eta Estatu Berria eraikitzeke mesedetan lan egiten zuten jarduera bilakatu ziren. Mugimendu Modernoaren ikuskera organikoa oinarri hartuta, diktaturako arkitektoek nazio berriaren eraikuntzari ekin zioten. Eraikuntza, baina, ez zen soilik materiala. Birgaitze morala birgaitze materialarekin batera eman behar zen, berreskuratu nahi zen Inperio espainiarraren handitasunaren isla. Helburu ideologiko eta politiko horiek aurrera eramateko hainbat plangintza tresna sortu ziren, eta jarraian, horietariko batzuk aztertuko ditugu. Konkretuki, Gipuzkoako probintziaren ordenazioan eragina izan zutenak, eta Gipuzkoako hiriguneen garapena bideratu zutenak.

### Gipuzkoaren Ordenazio Plana: Gipuzkoa Organikoa (1942)

DGAren misio nagusietariko bat jarduera arkitektonikoa lagundu eta bideratzea izan zen, eta bereziki tokiko administrazioen jarduera urbanistikoa koordinatzea, bateratasun zentzua lortzeko eta metodikoki aplikatzeko. Horretarako, hiri eta eskualdeetarako planak sortzeko estrategia bat jarri zen martxan, horien bitartez, Estatuaren ordenazio oso bat lortzeko. Lurralde ordenazioaren planteamendu berri bat ezarri nahi zen eta udal-plangintzen mugak gainditu nahi ziren, hiri-eraldaketak marko bateratu batetik planteatuz, tokiko, eskualdeko eta probintzia-planen bitartez. Antzeko ezaugarriak zituzten eremuetatik, edo zeluletatik, abiatzea zen ideia, eta eskualdeak bateratasun ikuspegi batetik lantzea, Estatu osoa behetik gora eratzera heldu arte.

Ikuspegi zentralista eta organizista hori garatzeko mugarri garrantzitsua izan zen 1942an sortu zen Gipuzkoaren Ordenazio Plana. Pedro Muguruza<sup>28</sup>ren esanetan, Gipuzkoarena, probintzia ordenazio plan bat egiteko “urgentzia justifikatua” zuen kasua zen, bizi zuen garapen industrialaren erritmoak lurraldeak zuen espazio eskasa inbaditzen baitzuen, inolako ordenik jarraitu gabe<sup>29</sup>. Muguruza Elgoibarrekoa zen, eta berarentzat testuinguru ezaguna izateak ere

28 Pedro Muguruza Otaño (1893-1952) arkitekto elgoibarra izan zen, DGA-ko buru izan zena, eta Francoren gobernuan kargu garrantzitsuak izan zituenak.

29 PONTE (2016), 64. orr.

Gipuzkoaren aldeko hautua baldintzatu zuen. Dirudienez, Gipuzkoako Ordenazio Plana Estatuko beste probintzietan ere aplikatu nahi zen tresna baten lehen froga izan zen, probintzia-planen lehen prototipo bat. Hori horrela, DGAREN Hirigintza Saileko Pedro Bidagorrek<sup>30</sup> eta bere taldeak Gipuzkoako probintziarako Ordenazio Plana idatzi zuten, tokiko eta Estatuko administrazioetako teknikarien laguntzaz. Plana 1942an publikatu zen *Revista Nacional de Arquitectura* aldizkarian.

Planean jasotzen zen probintzia- eta tokiko-ordenazio ereduak Atenaseko Agiriko hiri organikoaren ideia zuen oinarrian: hiria organo ezberdinez osatutako gorputz-osotasun batekin parekatzen zuen. Ideia hori Falangearen Arkitektoen 1. Asanblada Nazionalen landu zen 1939an, eta horren trazak Gipuzkoako Ordenazio Planean ere islatu ziren. Pedro Bidagorrek asanblea haretan azaldu zuen, nola, gizakion gorputzean organo eta sistema asko biltzen diren bezala, hirian, organo gorenak gordetzen dituzten gorputz adarrak gailendu behar direla. Organo goren horiek, hirira ekarrita, funtzio erlijiosoak, zuzendaritza nazionalarena, kulturala, justiziarena eta defentsarena ziren<sup>31</sup>. Ondorioz, hiru hiri-eremuren garrantzia azpimarratzen zuen:

*“1. Ordezkatzailea, hau da, buru-urbanoa, zuzendaritzaren, adimenaren egoitza. 2. Zentrala, hiriarri dagozkion zerbitzuak gordetzen dituen, komertzioa, aisialdiarenak, edo tipikoena den etxebizitzarena. 3. Muturrekoak edo sateliteak, gorputz-adar elastikoak, industriaren egoitza direnak eta baita zarata, eragozpen edo bestelako arrazoiengatik independentzia beharra duten funtzioenak ere”<sup>32</sup>.*

Bidagor berak aitortzen zuen, bere ikuspegia Le Corbusierren ideien bitartez eraiki zuela, eta hala azaltzen zuen:

*“Organikoa funtzioen banaketa modu bat da, egitura funtzional baten kulinazioa. Hiriaren antolaketa funtzionalari buruzko azterlanak agerian uzten du badagoela dagokion funtzioa betetzeko bereziki prestatua zegoen organo bat. Horrek, aldi berean, funtzio horren betetzea errazteko modurik egokiena aztertzeo beharra dakar. Antzeko funtzioa duten elementuek ba-*

30 Pedro Bidagor Lasarte (1906-1996) DGA-ren Hirigintza Sekzioaren buru izan zen autarkia garaian, eta erakunde horretatik, Pedro Muguruzarekin batera, arkitektura eta hirigintza espainiarrak sustatu zituen. PONTE (2016), 63. orr.

31 PONTE (2016), 69. orr.

32 *Ibid.*



*tera egon behar dute. Baina kontua konplexuagoa da. Arazoa ez da konpon-  
tzen funtzio bakoitzarentzat organo bat dagoelako soilik. Sistemaren nozioa  
behar da, eta berarekin, osotasunaren eta organoen arteko interrelazioaren  
ideia. Sistemaren ideia giroan zegoen. Ez nuen nik asmatu. Hirian islatu  
nuen. Organoek eta sistemek organismoa osatzen dute. Gizakia eta anima-  
liak modu funtzional eta organikoan proiektatuta daude. Zuzendaritza-or-  
ganoak, mantentze-organoak eta kanpoarekiko harremanetarako organoak  
daude, eta sistema batzuetan oinarritzen da organismoaren funtziona-  
litate bateratua: zirkulazio-sistema (bide-sarea), nerbio-sistema (gizarte-  
-etxeen sistema) eta arnas-sistema (espazio libreen sistema), besteak beste.  
[...] Hiri baten antolaketa funtzionala aurkitzea da hiri horren plangintza  
organikorako lehen urratsa. Bere organoak behar bezala kokatzea, hierarki-  
koki antolatzea eta sistemen funtzionamendua erraztea da bere zeregina”<sup>33</sup>.*

Mugimendu Modernoak definitu zuen hiri-organikoaren markotik abiatu zen, beraz, Gipuzkoako Ordenazio Planaren sorkuntza, Atenaseko Agiriaren prin-  
tzipioak modu esplizituan aipatzen ez ziren arren. Bere edukiari dagokionez,  
gaikako ataletan antolatuta zegoen, eta atal bakoitzean gai edo sektore bakoit-  
za bideratzeko irizpideak zituen. Lehenengo atala komunikazioen ingurukoa  
zen, eta trenbide, errepide, itsas-portu eta aireportuak barne-hartzen zituen;  
bigarren atalean industria-sektorea lantzen zuen; hirugarrenean etxebizitzare-  
na; laugarrenean herrien plangintzan zentratzen zen; eta azkenik, atal espezifi-  
ko bat zeukan Donostiari buruzkoa.

Plana 1951ko abuztuan aurkeztu zen Donostiako San Telmo museoan antola-  
tutako erakusketa batean, eta Estatu mailako oihartzuna izan zuen, Espainiako  
lehenengo Ordenazio-Plan Probintziala izan baitzen. Ponteren hitzetan, “Or-  
denazio Planaren emaitza azpimarragarriena tokiko hiri-plangintzen idazke-  
tarako sortutako dokumentu multzoa izan zen, ia denak egitura beraren pean  
diseinatuak, bakoitzaren kalitate indibidualaz harago, dokumentu-gorpuz ho-  
mogeneo bat osatzen zutenak”<sup>34</sup>. Gipuzkoako Probintziaren Ordenazio Planak,  
beraz, bere ezarpenerako, zenbait udalerriren tokiko planifikazioa eskatzen  
zuen. Beren egoeratik edo planean jasotzen ziren aurreikuspenengatik esan-  
guratsuak ziren zonalde industrial berrietan, Plan Lokalak garatu behar ziren.  
Planaren figura bera berritzailea zen orduan, eta ondoren Plan Orokor bezala  
ezagutuko ditugunen hastapena izan zen.

33 *Ibid.*

34 *Ibid.*

## 1951ko Liburu Gorria

Udal planen definiziorako ezinbestekoak izan ziren atal honetara ekarri ditugun “Gipuzkoako Probintziarako Ordenazio Planaren Arau Urbanistikoak eta Edifikazio Ordenantza Orokorrak”. Kolore gorridun liburu batean argitaratu ziren, eta horregatik hartu zuten arkitektoen artean “Liburu Gorria” izena. Dokumentu honetako jarraibideek udalerrri bakoitzerako marraztutako ordenazio planoek bezain besteko garrantzia izan zuten, eta horregatik, laburki aipatuko ditugu jasotzen zituen edukiak.

Liburu Gorriko Arau Urbanistikoaren oinarrian hiri-organikoaren ideia dago berriro. Pedro Bidagorren esanetan, ordenantzek hiria modu organikoan antolatzea zuten helburu, erabilera konkretuetarako eremuak zehaztuz, eta organo eta sistemen ideia garatuz. Erabilerak definitzea eraikitze-bolumenak zehaztea baino garrantzitsuagoa zen, eta ondorioz, Ordenantza garrantzitsuenak Zonakatze-Ordenantzak ziren, eta ondoren, bolumen eraikigarriak definitzen zituzten Ordenantzak aplikatzen ziren.

Zonakatzean, oinarritzko zortzi zonalde mota definitzen ziren:

1. eremua: Alde Zaharrak
2. eremua: Trantsiziozkoak
3. eremua: Lorategi-Hiria
4. eremua: Industrialak
5. eremua: Landa-eremuak
6. eremua: Erreserbakoak
7. eremua: Sarreren, errepideen eta edonolako bideen babesak
8. eremua: Bereziak

Atal honetan ez dugu eremu bakoitzari egozten zitzaizkion ezaugarrietan sakonduko, baina aztergai ditugun lau auzoen sorrera prozesuak azaltzean, eremu mota horietako batzuen azalpen zehatzagoak ekarriko ditugu testura.

## 1956ko Lurzoruaren Legea

Liburu Gorriaren sorreraren garai bertsean, 1949an, Francok enkargua egin zion Pedro Bidagorri Lurzoruaren Araubideari eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legea egiteko. Legearen helburu nagusia orduko zenbait arazori kontra egitea zen: hiriguneak modu eskalonatuan hazteko lurzoru erreserben aurrei-

kuspen falta, hirien perimetroaren neurrigabeko hedapena, lurzorua-aren espekulazioa, eta azkenik, ondo bideratuta ez zegoen migrazio mugimendu zabala, zenbait hiritan populazio-masa nabarmenak biltzen zituena, landa-ingurunearen kalterako, eta Estatu-mailako ondorioak eragiten ari zena. Araudi urbanistiko marko bateratu berri baten bitartez, begirada orokor batetik heldu nahi izan zitzaion Estatuko problematika urbanistikoari. Horrez gain, indarrean zeuden tokiko erregulazio urbanistikoak begirada organikotik osatu nahi ziren.

Legea 1956ko maiatzaren 12an sartu zen indarrean, eta hurrengoak dira garatu zituen alderdi nagusiak<sup>35</sup>:

- Hiri-urbanizazioaren prozesuaren behin betiko instituzionalizazioa, plan nazional, probintzial, orokor eta partzialen bidez.
- Lurzorua-aren sailkapena hiru kategoriatan: hiri-lurzorua, hiri-erreserba eta landa-erreserba.
- Erreserbako lurzorua hiri-lurzoru bihurtzeko araudia zehaztea.
- Plangintza aurrera eramateko sistemak, eta Administrazioak zein lurzorua-aren jabeek prozesu horretan bete beharreko zereginak.
- Lurren balorazioa.
- Zuzendaritza-organoen eta kudeaketa-organoen hierarkiak, bai zentralak eta bai tokikoak, hirigintza-prozesua zuzendu eta fiskalizatzeko.
- Sektore publikoak lurzorua-aren merkatuan esku hartzeko aukera, berau erosi eta urbanizatuz.

Legea indarrean sartu eta sei egun beranduago, “Kartilla Urbanistikoa” zeritzon liburuxka onetsi zen. Argitalpen horrek helburu praktiko eta pedagogikoa zuen, eta instrukzio sorta bat zeukan Lurzorua-aren Legea aplikatzeko irizpideekin.

Legeak beraz, plangintzarako tresna ezberdinen hierarkia bat ezartzen zuen, eta gainera, Plan Orokorretan hiri-erreserba bezala izendatutako eremuak garatzeko Plan Partzialen beharra zehazten zuen. Plan Partzialek erreferentziako Poligono bat behar zuten, eta ondorioz, udalerrria poligonoetan banatu behar zen Plan Partzialak garatu ahal izateko. Hori horrela, Lurzorua-aren Legea indarrean sartu ondoren, jada garatuta zeuden hainbat Plan Lokal moldatu egin behar izan ziren Gipuzkoako herri industrialetan poligonoen

---

35 LIZUNDIA (2012), 20. orr.

banaketa proiektuak egiteko. Poligonoen banaketa aurretik eginda zeuden zonanakatzeko planoetan oinarritu zen hein handi batean. Poligono bakoitzari identifikazio zenbaki bat ezartzen zitzaion, eta zenbakitzearekin batera, Liburu Gorrian zehaztutako eremu mota batekin ezaugarritzen zen, bere erabilera definitzen zuena. Horrez gain, azalera eta eraikigarritasun indizea zehazten ziren, hirigintza-aprobetxamendua definituz.

Tresna urbanistikoaren planteamenduek CIAM-en ideiekin duten harremana mahaiganeratzeko jarraitzeko, aipatuko dugu nola hirigintza organikoaren kontzeptuaren pean, Poligonoa hiriaren oinarritzko-unitate bezala ulertzen zen lege berrian. Poligonoa zen hiriaren zelula, ondoren auzo bilakatuko zena, eta oinarritzko elementu batzuk behar zituen autosufizientea izateko. Horregatik, perimetroa definitzeaz gain, hurrengoak zehaztu behar ziren: etxebizitza eremuen, espazio librearen eta zerbitzu publikoen kokapena, bideen trazadurak eta plazaren kokalekua.

Teoria horrelakoa zen arren, errealitatea ez zen paperean azaltzen zen zorrotasun eta ordenarekin garatu. Herri askotako Plan Orokorrek garatzean, lurzoru lauak urbanizatu ondoren eremu maldatsuak ere artifizializatu ziren, eta etxebizitza eremuak sortu ziren inguru malkartsuetan, Poligonoen Banaketa Proiektuek hala ahalbidetu zutelako. Pontek azaltzen duen bezala, Poligonoek ezarritako zonakatzearen ondorioz, hirien zabalpenerako fenomeno berri bati eman zitzaion bidea. XX. mendeko lehenengo hamarkadetan hiri-plan-gintzak hiriaren irudi estatiko eta oso bat definitzen zuen bitartean, poligonoen araberrako banaketak zatikako garapena ahalbidetzen zuen, eta hiriaren ikuspegi globala lausotu egiten zuen. Paradigma aldaketa horrek urbanizazio prozesu desorekatuak sortu zituen, eta aurrerago ikusiko dugunez, horren adibide argia dugu Erreterria.

## Autarkia garaitik garapenkeriara

Aipatutako tresna urbanistikoak indarrean zirela abiatu zen “garapenkeria” izenaz ezagutzen dugun fenomenoak. Espainia krisi ekonomiko latzean zegoen, 1956an inflazioak goia jo zuen, eta politika ekonomiko berriak martxan jarri behar ziren. Norabide aldaketa horren lehen pausuetariko bat 1957an gobernuan egin ziren zenbait mugimendu izan ziren. Ordura arte, ministerioetako kargu nagusiak frankismoko familia tradizionalak betetzen zituzten, eta 1957an Komertzio eta Finantza Ministerioetako buruak perfil teknikoa

eta kudeaketan aditu ospea zuten buruengatik ordezkatuak izan ziren<sup>36</sup>. Aldaketa horrekin ekonomiaren liberalizaziorako bidea hasi zen, eta hurrengo pausua Estabilizazio Planaren onarpena izan zuen. *Nueva Ordenación Económica* Dekretu-legea 1959ko uztailaren 21ean indarrean jarrita, ekonomiaren kanpo-blokeoari bukaera eman zitzaion eta atzerriko inbertsioei bide egin zitzaizen. Gutxinaka egoera ekonomikoa aldatzen hasi zen, eta 1961etik aurrera Espainia hazkunde etengabeen murgildu zen.

Politika ekonomikoen paradigma berri horrek ondorio garrantzitsuak izan zituen gizartean. Fenomeno azpimarragarriena landa eremutik hirietara eman zen inmigrazio prozesu masiboa izan zen, hirietan urbanizazio prozesu handiak eragin zituen, eta eskualde industrialen eta nekazaritza eskualdeen arteko desoreka nabarmena sortu zuena.

Fenomeno horrek Gipuzkoan ere izan zuen bere isla, Euskal Herrian hazkunde handienetarikoa jasan zuen lurraldea izan baitzen. Modu nahiko homogeneoan eman zen garapen industrial probintzian, eta hiriburuek izan ohi duten erakarpen-funtzioak ez zuen berebiziko garrantzirik izan, nukleo urbano eta industrializatu ugari baitzeuden lurraldean zehar sakabanatuta. Industria gipuzkoarra berregituratu, modernizatu eta nazioarteko merkatuetan lehiatzen hasi zen. Biztanleriari dagokionez, 50eko hamarkada bukaeran %27,9rainoko hazkunde tasa izan zuen populazioak, eta goia jo zuen 1960 eta 1970 artean, handitzea %31,9koa izatera iritsiz. Hamarkada horretan 64.845 etorkin heldu ziren Gipuzkoara. Inmigrazioaren fenomenoari *baby boom* deritzon jaiotze tasaren hazkunde ere gehitu behar zaio, Mendebaldeko Europa osoan eman zen fenomeno.

Biztanleriaren hazkundearen ondorioz, zenbait hirigunek izugarrizko handitzea jasan zuten, eta horien artean dago Erreterria. 60ko hamarkadan zehar biztanleriaren %84,4ko hazkunde tasa izan zuen, eta gainontzeko hirigunee-tan ez bezala, 1975 urtera arte hazten jarraitu zen. 11.000 pertsonatan hasi zen Erreterriako biztanleria 1971 eta 1975 urteen artean, probintzia osoaren hazkundearen %20a suposatu zuena. Biztanleriaren hazkunde esponentzial horrek etxebizitza behar handia sortu zuen herrian. Hurrengo atalean, Erreterriak garaiotan izan zuen hiri-hazkunde prozesuan sakonduko dugu, eta hazkunde bideratu zuten tresna eta plan urbanistikoak ezagutuko ditugu.

---

36 Komertzio Ministeritzaren buruzagitza Alberto Ullastresen hartu zuen, eta Finantza Ministeritzare-na Marino Navarrok (LÓPEZ, 2018: 56).

### 3.1.3 Errenteriaren hiri garapena 1950 eta 1980 urteen artean

Errenteriak 50eko hamarkadatik aurrera izan zuen garapen urbanoa ulertzeko, orduan indarrean zegoen plangintza-urbanistikoa ezagutuko dugu eta orduko testuinguru soziodemografikoari begirada orokor bat emango diogu.

#### 1925eko Zabalgune eta Barne Erreforma Proiektua

Plangintza urbanistikoari dagokionez, 1925ean Gumersindo Birebének erre-daktatutako Zabalgune eta Barne Erreforma Proiektua izan zen Errenteria-ren hazkundera modu planifikatuan gidatu zuen lehen plana. XX. mendeko lehen hamarkadetan populazioa bikoitza baino gehiago hazi zen Errenterian, udalerrria bizitzen ari zen hazkunde industrialaren ondorioz. Industria eta etxebizitza berriak jada existitzen ziren bideen inguruan ari ziren ezartzen. Plangintzarik gabeko hazkundeak eragiten duen nahasmendua ekidin nahian, eta Alde Zaharraren bide-sarea eta saneamendu baldintzak hobetu nahian, Udalak zabalpen-plana erredaktatzeko enkargua egin zion Birebeni. Planaren lehen helburuari erantzunez, hots, eraikitakoaren Barne Erreforma gauzatze-ko, urbanizazio elementu ezberdinak jasotzen zituen proiektuak: ur-edangarri eta estolderia sareak, espaloi eta errepedeen pabimentazioak, eta batez ere, Alde Zaharrerako alineazio berriak, kaleen zabalerak kotxeen igarotzea ahalbidetu zezan. Bigarren helburuari heltzeko, hots, Zabalpen Plana zehazteari begira, lurzorua bi eremutan banatzen zen: Alde Zaharra eta Zabalgunea. Zabalgunean ere bide-sarea eta alineazioak zehazten ziren, baina ez zen erabilera kalifikaziorik egiten, eta beraun garatzeko tresna eta kudeaketa prozeduren inguruko zehaztapenik ezta. Hala ere, 1932an Edifikazio Ordenantzak erre-daktatu ziren Birebén Planaren eranskin bezala. Ordenantza horien bitartez Zabalgunea lau eremutan banatzen zen (Ipar-Eremua, Ekialdeko Eremua, Hego-Eremua eta Mendebaldeko Eremua). Horietariko hiru esparru eremu-misto bezala izendatu ziren (industria eta etxebizitzak), eta laugarrena Lora-tegi-Hiri bezala ezaugarritzen zen. Birebenen Plana izan zen, ondoren ikusiko dugun 1955eko Plan Orokorren oinarri nagusia.

#### 3.1.3.1 Autarkia garaia (1939-1957)

Jakin badakigunez, 1936ko udan, Gobernu Errepublikanoaren kontrako altxamendu militarra gauzatu zen, 1939ra arteko Guda Zibila piztu zuena eta egunerokotasuneko funtzionamenduaren etetea suposatu zuena. Guda ondoren ezarri zen Diktaduraren lehenengo hamarkadetan depresio sozial handia,

ondasunen eskasia, isolamendu ekonomikoa eta estatuaren protekzionismo indartsua ziren nagusi. Errenterian ere aldaketa sozial handiak etorri ziren arren, industri-hiri izaten jarraitu zuen: langile askodun herria zen, etxebizitza faltaren arazoak indarrean zirauen, eta industria handia zein txikia ziren herriaren ekonomia-motore nagusiak. Biztanleria hazkunde bidean zegoen: 1940an 10.186 herritar zituen herriak, eta 1950eko erroldan 12.784 lagun ageri ziren<sup>37</sup>. Gipuzkoako bosgarren hiri populatuena zen Errenteria, eta biztanleriaren hazkundeak hurrengo hamarkadetan goraka egiten jarraituko zuen. Izan ere, *Errenteriako Historia* liburuan egiten den garai horietako errolden azterketaren arabera, 1951 eta 1955 urteen artean herriko populazioa 2.180 pertsonatan hasi zen, eta hamarkadaren bigarren erdian 3.678 pertsonatan, 1960 urtean 18.642 biztanle izatera iritsi zelarik. Hazkunde horrek etorkinen etorreran zuen jatorria batez ere: “1951 eta 1960 artean, 5/1 proportzioan hazten da [biztanleria], migrazioaren eta berezko hazkunde konparatuz”<sup>38</sup>. Hala ere, baby-boom bezala ezagutzen den garaiotako ugalkortasun hazkundeak Errenterian ere izan zuen isla. Familia ugarien kopurua handitu egin zen, eta aldi berean, horien etxebizitza, elikadura edo diru-arazoak ere. Hainbat laguntza erakunde sortu ziren herrian, “Oficina de caridad”, “Servicio de Asistencia Benéfico Social” eta “el Ropero de Niños Pobres” besteak beste, herritarrek bizi zuten larritasun ekonomikoaren seinale.

Errenteriako biztanleriaren bilakaera 1950-1975. Iturria: Errenteriako Historia, 468. orr.

Biztanleriaren bilakaera (1950 – 1975)				
Urtea	Errenteria	Oinarria	Gipuzkoa	Oinarria
1950	12.784	100,0	374.040	100,0
1960	18.642	145,8	478.337	127,9
1970	34.369	268,8	631.003	168,7
1975	46.329	362,4	682.517	182,5

Testuinguru horretan etxebizitzaren arazoa larriagotu baino ez zen egiten, eta ikerketa honetan aztergai dugun Alaberga auzoaren sorrera egoera horri erantzuteko bide bezala planteatu zen. Alaberga izan zen 50eko hamarkadan Errenterian eraiki zen etxadi esanguratsuena, bai zuen tamainagatik, eta baita

37 Hainbat egile (1996), 448. orr.

38 *Ibid.*

bere ezaugarri arkitektonikoengatik ere (3.2 atalean sakonduko dugu Alabergaren sorrera prozesuan). Hurrengo lerroetan, Errenteriaren garapen urbanistikoaren begirada orokorra eraikitzen jarraituko dugu, 50eko hamarkadan zehar onetsi zen Plan Orokorraren nondik norakoak ezagutzeko.

## 1955eko Zaldua Plana

Errenteriako Plan Orokorra<sup>39</sup> Zerbitzu Teknikoen Probintzia Batzordeak onetsi zuen 1955eko abuztuaren 30ean, Francisco A. Zaldua arkitektoaren proiektuaren arabera<sup>40</sup>. “Zaldua Plana” bezala ere ezagutzen da, eta aurrerantzean horrela izendatuko dugu testu honetan. Zaldua Plana, aurretiaz existitzen zen 1925eko<sup>41</sup> Zabalguneta eta Barne Erreforma Proiektuaren zabalpen eta moldaketa bat izan zen. Ikusi dugun bezala, 1942ko Gipuzkoako probintziaren Ordenazio Planak zenbait udalerriren planifikazio lokala garatzea exijitzen zuen, zehazki, beraien kokapenengatik edo Gipuzkoako Plan Probintzian jasotzen ziren aurreikuspenengatik, guneta industrial esanguratsu berriak izango zituztenenak. Eta Errenteria udalerririk horietarikoa bat zen. Ondorioz, udalerriren planifikazio tresnak Gipuzkoako probintziaren Ordenazio Planak ezarritako marko legal berrira egokitzeko, Zaldua arkitektoak Plan berri bat erredaktatu zuen.

Zaldua Planaren memorian irakurri daitekeenez, funtsean, 1925eko Plana mantentzea zen helburua, orduetik eman ziren zenbait egoera berri aintzat hartuz, hots: uholde arriskuak gutxitzeko helburuz, Oartzun erreka ibilguari egindako zuzenketa lanak; errepideen ondoko eraikinen inguruko legedia berria; eta Plan Probintzian Errenteriari ezarritako dependentzia egoera Donostiarekiko. 1925eko Eraikingintza Ordenantzek zehazten zuten zonakatzeara ere, funtsean, mantendu egiten zen, baina izendapen berria ezartzen zitzaion Liburu Gorriaren arau urbanistikoetara moldatzeko.

Hurrengo lerroetan Zaldua Planean zehaztutako lurzoru-klasifikazioa azalduko dugu<sup>42</sup>, Enrique Ponteren *La construcción de la ciudad. Gipuzkoa 1940-1976* liburuan eremu mota bakoitzari ematen zaion azalpena baliatuz.

39 Errenteriako Udal Artxiboa (EUA) - Plan general antiguo, 115. kutxa

40 PONTE (2016), 115. orr.

41 Gumersindo Birebenen Errenteriako Zabalguneta eta Barne Erreforma Proiektuaren erredakzioa 1925ean sinatu zen, eta 1927an onetsi zen.

42 Kolore-leiendak eskuz idatzita irakurri daiteke plano originalean, publikazio honetako argazkian apreziatu ezin den arren.





5. irudia. Zaldua Planaren zonakatzeko planoak Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen eremuak adierazita. Iturria: egileek eginaren Errenteriako Udal Artxiboko dokumentazioa oinarri hartuta.

Kolore gorri margotutako eremuak Alde Zaharrari dagozkio, Liburu Gorriaren klasifikazioan lehenengo eremua dena. Alde Zahar izendatutako zonaldeen eraikinek solairu desberdinak zituzten, eta antzinako hirigintza-arauek arabera eraikitako etxadiak ziren. Beraien ingurune-ezaugarri orokorrak eta arkitektura-elementu tradizionalen izaera kontserbatzea interesatzen zen, eta hirigune zaharretan bertan egoki moldatu ezin zitezkeen erabilerak debekatzeko ziren. Errenteriako kasuan, Alde Zaharra, Zentroa eta Gabierrota barne-hartzen zituen eremu honek.

Kolore hori margotutako eremuak Trantsizio eremuei dagozkie, bigarren eremu mota Liburu Gorriaren arabera. Zonalde horietan altuerako eraikinak aurreikusten ziren, hormarte bikoizdunak, partzelako barne-patioak gabeak, eta jada existitzen ziren Alde Zaharren eta kanpoaldeko eremuetan baimendutako eraikinen arteko trantsizioa egingo zutenak. Trantsizio eremuak garatzeko Plan Orokorren gidalerroekin bat zetorren Proiektu Partzialaren beharra zegoen. 5 irudian ikusi daitezkeen bezala, egungo Alaberga eta Galtzaraborda auzoak barne-hartzen ditu bere osotasunean Trantsizio eremuak, eta Beraun, Pontika eta Kaputxinoak auzoen zenbait zati.

Kolore marroiz margotutako eremuak Lorategi-Hiri bezala izendatutakoei dagozkie, hirugarren eremu mota Liburu Gorriaren arabera. Ustiapen baxuko etxebizitzak aurreikusten ziren, espazio librez edo lorategiz inguratuak. 5. irudia begiratzen badugu, marroi kolorez ikusiko ditugu Kaputxinoen mendebaldea, Beraunen hegoaldea, Gaztaño, Agustinak eta Fanderia.

Laugarren eremu mota Gune Industrialena litzateke, planoan urdin ilunez margotua. Industria handiko, industria ertaineko, industria txikiko eta biltegi eraikinak eraikitzeke guneak ziren.

Liburu Gorriaren araberako bosgarren zonaldea Landa-Eremua da, gure planoan kolorerik gabe ageri dena. Landetan barreiatuta zeuden zelaiak eta base-riak barne-hartzen zituen, baita kontserbatzeko eta balorean jartzeko garrantzitsuak ziren paisaia-eremuak ere.

Urdin argiz margotuta ageri direnak Eremu Berezi bezala sailkatu zituen Zalduak, Liburu Gorriaren arabera zortzigarrenak zirenak. Horietan, helburu berezi bat zuten erabilerak aurreikusten ziren, gune berdeak, kirolguneak, zonalde militarrak, aireportuak, portu edo trenbide inguruak, eta eraikin publiko bereziak izan zitezkeenak, besteak beste. 5. irudian urdin argiz ikusi ditzakegu Pasaiako Portua, Kaputxinoetako Sorgintzulo zonaldea, eta trenbide ingurua, besteak beste.

Azkenik, berdez margotuta ageri dira zenbait eremu txiki, berdegune bezala mantendu nahi izan zirenak: Alameda ingurua, Nafarroa Etorbidea, Olibet azoko parkea, Alaberga sarreran dagoen plaza, eta egun Fanderiako kiroldegiko zelaiak direnak.

### 3.1.3.2 Garapenkeria garaia (1957-1980)

50eko hamarkadako hazkunde demografikoaren joera 60ko hamarkadatik aurrera areagotu baino ez zen egin. Autarkia garaiaren bukaera ezaugarritzen duen irekiera ekonomikoak, ikusi dugunez, inmigrazio handia eragin zuen lurraldeko ingurune industrial nagusietara. *Errenteriako Historia* liburuan azaltzen den bezala, Errenteriako populazioa 1960an 18.642 lagun ziren bitartean, 1970ean 34.333 lagunekoa izatera pasa zen, hamarkada bakarrean ia bikoizterira iritsiz. Urte berean, Een zuen. 1970eko biztanleriaren ezaugarriak azter-

tuz<sup>43</sup>, ikusi daiteke biztanleria gazte bat zela. 20 urtetik beherako herritarrak gutzizkoaren %39a ziren bitartean, 65 urtetik gorakoak %5a ziren soilik, eta Udalerriko batez besteko adina 27 urtekoa zen. Biztanleen jatorriari dagokionez<sup>44</sup>, 1970ean biztanleriaren %40,4 Errenterian jaioa zen; %22,4a Gipuzkoako gainontzeko herrietan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan jaioa; eta %36,7a estatuko gainontzeko probintzietan jaioa zen. Gaztelatik etorritakoak ziren nagusi (%10,9), Extremadurakoez (%8,3) eta Leoikoez jarraituak (%7,8). Galizian eta Andaluzian jaiotakoak ere talde nabarmenak osatzen zituzten. Laburbilduz, 1960 eta 1975 urteen bitartean Errenteriak jaso zuen inmigrazioaren ondorioz, biztanleria gazte eta jatorri-askotako batek ematen zion bizia herriari.


Biztanleriaren hazkunde esponenzialak hamarkada hauetako etxebizitzaren beharra izugarri areagotu zuen, eta auzo berri askoren eraikuntza azkar eta kasu askotan kaxkarra eragin zuen. Hurrengo orrialdeetan Errenteriaren hazkunde prozesu horren irudi orokor bat marraztuko dugu, handitze horretan eragina izan zuten tresna urbanistiko nagusiak aipatuz.

### **1956ko Lurzoruaren Legera moldatzea: poligonoen zehaztapena 1959an**

Zalduaren Plan Orokorra onetsi eta hurrengo urtean, 1956ko maiatzaren 12an, Erregimen Frankistak *Lurzoruaren Araubidearen eta Hiri-antolamenduaren legea* onartu zuen. Ikusi dugunez, arau berri horrek Gipuzkoako industria-herrietako Plan Orokorra moldatzeko beharra ekarri zuen, eta horien artean Errenteriako Zaldua Plana lege berrira egokitzea. Ondorioz, “Plan Orokorra Poligonoetan Zatitzeko Proiektua” sinatu zuen Zalduak 1959ko uztailaren 2an. Plan horretan, Errenteria 59 poligonotan banatzen zen, eta poligonoetatik at geratzen zen lurzorua Landa-Lurzorutzat hartzen zen. Poligono bakoitzari eraikigarritasun indize baten, Ordenantza baten eta Bariante baten aplikazioa zehazten zitzaion. Aplikatu beharreko Ordenantzek eta Barianteek Liburu Gorriko Arau Urbanistikoaren atalari egiten zioten erreferentzia.

43 Hainbat egile (1996), 477. orr.

44 HIRIGINTZ KOORDINADORA (1978), 92. orr.



6. irudia. Poligonoen banaketa plano. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa

Proiektuaren memorian irakurri dezakegunez, Zalduak egindako poligono banaketa, hein handi batean, 1955eko Plan Orokorrean oinarritzen da, eta aintzat hartzen ditu ere, bere izaeratik jada eraikita dauden eta poligono-unitate bat osa zezaketen udalerriko espazioak. Unitate horien artean funtsezkoenak aipatzen ditu memorian<sup>45</sup>, hots:

- 2. poligonoa, Bosco Fundazioaren eraikinak dituen.
- 7. poligonoa, Real Compañía Asturiana de Minas-en lursailak.
- 13. poligonoa, Alabergako herrixka.
- 27. poligonoa, Unión Alcoholera Españolaren fabrika zatia.
- 29. poligonoa, Galletas Olibet fabrikak eta Papelera Españolak osatutako eremua.
- 36 eta 37. poligonoak, Papelera Españolaren bi fabrikak.
- 26. poligonoa, 1933ko Errenteriako Zabalgunearen Planoan Udal Parke Publiko bezala definitua.
- 55. poligonoa, Udal Kirol Zelai bezala definitutakoa.

Planoaren eskumatara dagoen taulan poligono bakoitzari eragiten dion Ordeantza adierazten da, eta poligono multzo bakoitzari egokitutako Bariantea eta eraikigarritasuna ere.

45 EUA - Plan orokor zaharra, 115. kutxa.

Poligono bakoitzaren ezaugarriak adierazten dituen taula. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

<b>Banaketa poligonoetan</b>			
<b>Ordenantza N°1</b>	<b>Aldaera A</b>	<b>Eraikigarritasuna 7.-</b>	<b>33</b>
	“ A.	“ 6.-	23-30-32-22
	“ B.	“ 6.-	15-19-20-40.
	“ B.	“ 5.-	38-46-47-51-52.
<b>Ordenantza N°2</b>	<b>Aldaera A.</b>	<b>Eraikigarritasuna 3,50</b>	<b>34.</b>
	“ B.	“ 4.-	13-39-54.
<b>Ordenantza N°3</b>	<b>Aldaera A.</b>	<b>Eraikigarritasuna 1,50</b>	<b>8-10-25-59.</b>
	“ C.	“ 2,25	11-12-35-42-56.
	“ D.	“ 2,00	14-15.
	“ E.	“ 2,50	55.
<b>Ordenantza N°4</b>	<b>Aldaera A.</b>	<b>Eraikigarritasuna 5,-</b>	<b>7-16-17-24-27-29-36-37.</b>
	“ B.	“ 4,-	9-41-48.
	Aldaera A.	Eraikigarritasuna 0,50	44.
	Aldaera A.	Eraikigarritasuna 2,00	3-4.
	“ B.	“ 1,50	1-5-6-31-43-50.
	Aldaera A.		26-28-49-58.
	“ B.		53.
	“G.		57.
	“ H.		2-21-45.

Proiektuan azaltzen diren 59 poligonoen inguruko zehaztapenak hona ekarriko ez ditugun arren, aipatuko dugu nola poligono guztien deskribapenean lursailen kokapena zehazten den jada existitzen ziren azpiegitura, eraikin edo elementu bereizgarriei erreferentzia eginez. Horrez gain, poligono bakoitzari eraikigarritasun indize bat zehazten zaio; Liburu Gorrian jasotako Ordenantza bat ezartzen zaio; eta berau garatzeko egin beharreko Plan Partzialari buruzko azalpen laburrak jasotzen dira. Aurrerago, ikerketa honetan aztergai ditugun lau auzoen sorrera azaltzean, beraiei dagozkien poligonoei buruz jasotzen dena azalduko dugu.

Poligonoak zehazteaz gain, memoriaren bukaeran egikaritze-priorizazio bat egiten du Zalduak, eta berehala erredaktatu beharreko Plan Partzialen zerrenda bat zehazten du. Hurrengoak hartzen ditu lehenbailehen erredaktatu beharreko bezala:

- 2. Poligonoaren Plana, Bosco izenduna, eraikitze bidean dagoena.
- 18, 19 eta 40. Poligonoen Plana, eraikin urbanoduna.
- 22, 23, eta 52. Poligonoen Plana, hein handi batean Alde Zahar bezala eraikiak izan zirenak eta Plan Partziala behar dutenak 1925eko Zabalkunde Planetik 1955eko Plan Orokorrera egindako aldaketak gauzatzeko.
- 41. Poligonoaren Plana, erabilera industrial duena.
- 14, 55 eta 56. Poligonoen Plana, Galtzaraborda izendunak eta Hiri-Lorategi bezala eraiki beharrekoak.
- 2. Poligonoaren Plana, Lete-enea izenduna, Irun-Madril errepidearekin muga egiten duena, eta Kaputxinoen Gaineko tartean Hiri-Lorategia izan behar dena. Alabergako herrixkaren parean egonik, beharrezkotzat hartzen da plangintza bat osatzea berehala erabili ahal izateko.

“Plan Orokorra Poligonoetan Zatitzeko Proiektua” Udaletxean izapidetu ondoren, Hirigintza Probintzia-Batzordera bidali zen behin-betiko onespena bideratzeko, baina Batzordeak gaitzetsi egin zuen, indarrean zegoen Zalduaren Plan Orokorraren zonakatzearikiko aldaketa nabarmenak planteatzen zituelako. Hori hala izanik ere, Proiektu honetan planteatzen den poligono-banaketa da hein handi batean Erreterriak hurrengo hamarkadetan izango zuen garapenaren oinarri. 60ko eta 70eko hamarkadetan eraikitako auzoek, beraz, balio juridikorik gabeko proiektu bat izan zuten abiapuntu, inolako zorrotasunik gabe aplikatu zena gainera: ez ziren zonakatzearen baldintzak aplikatu, ezta zehaztutako bolumen eraikigarriak. Ondorioz, Erreterriaren zabalpenaren oi-

narri izan ziren Plan Partzialak promotoreen, teknikoen eta orduko erakunde publikoen nahien emaitza izan ziren, Lurzoruaren Legearen aurreikuspenak eta zehaztasunak inolako zorrotasunik gabe aplikatu zituztenak<sup>46</sup>.

### **Etxebizitza-poligonoen eraikuntza 60ko eta 70eko hamarkadetan**

Zehaztutako poligonoetan oinarrituta hainbat auzo eraiki ziren Proiektua Udaletxean onetsi eta hurrengo bi hamarkadetan.



7. irudia. Poligonoen banaketa planoak. 50eko hamarkadan eraikitakoak horiz ageri dira, 60ko hamarkadakoak gorritz eta 70eko hamarkadakoak urdinez. Iturria: egileek egina Errenteriako Udal Artxiboko dokumentazioa oinarri hartuta.

60ko hamarkadan Galtzaraborda (14. eta 56. poligonoak), Iztieta ibarra (18. eta 19. poligonoak) eta Gabierrota (40. poligonoa) eraiki ziren. Agustinak ere (35. poligonoa) hamarkada horretan hasi ziren eraikitzen, egikaritzea 1978ra arte luzatu zen arren. Aipatutako lehen bost poligonoak berehala garatu beharreko bezala izendatuta zeuden Zatiketa Proiektuaren memorian. Errenteriako Historia liburuan kontatzen den bezala, Iztieta Plan Partziala 1958an onartu zen eta 10 urteko epean 1.466<sup>47</sup> etxebizitza eraikitzeko proiektua zegoen. Galtzarabordako Plana, aldiz, 1959koa da, eta 1.250 etxebizitza eraikuntza aurreikusten zuen hurrengo 20 urteetan garatzeko. Gabierrotan, 610 etxebizitza

46 PONTE (2016), 168-169. orr.

47 ARRIETA (1964), 14. orr.

berri proiektatu ziren 10 urteren buruan eraikitzeko. 1964 Oarso aldizkariko *Rentería necesita nuevas Parroquias* artikuluko datuen arabera, urte horretarako, Iztieta, aurreikusitako etxebizitzaren %51 zeuden eraikita, Gabierrotan %29a, eta Galtzarabordan %24a. Urte berean, onetsita zegoen ere hurrengo poligonoen eraikuntza: Gaztaño-Alduntzin, Agustinak, Santa Klara-Alduntzin, eta Edicon (Kaputxinoak). Lau poligono horietan, guztira, 2.500 etxebizitza berri aurreikusi ziren.

Hamarkada bat geroago, 70eko hamarkadan zehar, hainbat auzo berri eraiki ziren: Beraun (4. poligonoa), Kaputxinoak (1., 2., 5., 8. eta 9. poligonoak), Pontika (25. poligonoa) eta Olibet-Casas Nuevas (27., 28. eta 29. poligonoak) besteak beste. Agustinak hamarkada osoan zehar osatzen jarraitu zen.

Bi hamarkadatan Errenteriako etxebizitza kopurua modu izugarrian hasi zen: 1960 urtean 4.086 etxebizitza izatetik, 1977an 13.387 etxebizitza izatera pasa zen, hots, hirukoiztu egin zen udalerriko bizitegi kopurua<sup>48</sup>. Datuak beste modu batera azalduz, historian zehar 1977ra arte Errenterian eraiki ziren etxebizitza kopuru totalaren %70a 1960 eta 1977 urteen artean eraiki zen. Zifra itzelak dira horiek, eta halako azkartasunarekin eraikitzeak hainbat arazo eta protesta ekarri zituen herritarren partetik.

Errenteriako etxebizitza-parkearen garapena 1900 eta 1977 urteen artean. Iturria: Gure Errenteri.

Etxebizitza-parkearen bilakaera 1900-1977 aldia		
Urteak	Etxebizitza kopurua	Indizeak (1960=100)
1900	429	10,5
1936	1.038	25,4
1950	2.500	61,2
1960	4.086	100,0
1970	8.580	210,0
1977	13.387	328,0

48 HIRIGINTZ KOORDINADORA (1978), 99. orr.



## Etxebizitzaren ezaugarriak eta garapenkeriak sortutako problematikak

1978an *Gure Errenderi-Informe urbanístico* publikazioa argitaratu zen Errenteriako Auzoetako Hirigintza Komisionen Koordinadoraren eskutik. Atal honetako informazioa hor jasotakoan oinarrituko da nagusiki.

Errenteriako Auzoetako Hirigintza Komisionen Koordinadora auzo ezberdinetan egiten ari ziren lanen indarrak bateratzeko sortu zen, hirigintza arazoetan eskumena zuten legedian eta erakundeetan eragina izateko helburuz. Koordinadorak talde tekniko bati (hiru arkitekto, abokatu batek, ingeniari batek eta soziologo batek osatua) txosten urbanistiko baten erredakzioa egiteko enkargua egin zion, udalerririk bizi zituen hirigintza-arazo larriak azaldu eta horiek bideratzeko hobekuntza-proposamenak egiteko.

Argitalpenean jasotzen denez, 1978an Errenteririk 474 biztanle/Ha-ko eta 112 etxebizitza/Ha-ko dentsitatea netoa<sup>49</sup> zuen, udalerririkaren ezaugarri topografikoentzako oso gradu altutzat hartzen zena. Aldi berean, eremu urbanoaren %73a eremu erresidentzial hutsez edo nagusiki erresidentzialak ziren eremuez osatuta zegoen, eta lurzoru urbanoan industriak %17a hartzen zuen. Egituraketa orokor baten faltak, dentsitate altuak, ekipamendu faltak eta inguruko herriekiko dependentzia altuak pilaketa egoera larria izan zuten ondorio.

13.387 etxebizitza zeuden orduan udalerririk. Eraikinen %70a 1960 urtearen ondoren eraiki zen arren, eta ondorioz berriak ziren arren, kalitate eskasekoak ziren eta eraikuntza hutsuneak antzematen zitzaizkien. Etxebizitzaren %50a eremu altuetan eraikita zegoen (7.000 etxebizitza inguru), lauak ziren zenbait eremu hutsik zirauten bitartean, Donostialdean etxebizitza merkea eskaintzeko lur merkeen okupazio-estrategia bezala bakarrik uler zitekeena. Etxebizitza berriek osatutako hiri-inguruen kalitatea eskasa zen, ez baitzen aurreikusitako etxebizitzekin batera eraiki behar ziren oinarritzko azpiegituren eta ekipamendu publikoen kostua. Ondorioz, espazio libreen, zerbitzuen eta azpiegituren gabezia larria zegoen, kalitatezko hiri-inguruak sortzeko ezinbesteko elementuak. Espezifikoki aipatzen dira: ur hornikuntza arazo larriak, kotxearekiko dependentzia, garraio publikoaren eskasia, eremu altuetako auzoentzako an-

49 Dentsitate netoak hiri-lurzoru erresidentzial hektarea bakoitzeko dagoen biztanle kopurua adierazten du. Dentsitate brutoak aldiz, hiri-lurzoru hektarea bakoitzeko dagoen biztanle kopurua.

bulategiaren beharra, haurreskola gehiagoren beharra, eta espazio publikoen gabezia<sup>50</sup>.

Txostenak dakarren eranskin espezifiko batean, etxebizitzaren inguruko datu interesgarriak irakur ditzakegu. Garai ezberdinetan eraikitako etxebizitzaren arazo nagusien inguruan, ikusi dezakegu nola 1950a baino lehen eraikitako etxeetan, bizilagunek antzematen zituzten eragozpen nagusiak txikitasuna eta dutxa falta ziren; nola 1950etik 1960ra eraikitakoetan txikitasunaz gain hezetasuna eta igogailu falta aipatzen diren; eta nola 1960tik aurrera eraikitakoetan txikitasuna, hezetasuna, eraikuntza eskasa eta prezio garestia diren azpimarratzen diren desegokitasunak. Etxebizitzaren batzbesteko tamaina 73 m<sup>2</sup>koa zen eta gela kopurua 3,75ekoa. Etxebizitza handienak Kaputxinoetan eta Zentroan zeuden (batzbeste 76,66 m<sup>2</sup> eta 76,08 m<sup>2</sup> hurrenez hurren), eta txikienak Lartzabal eta Ondartxon (batzbeste 60 m<sup>2</sup> eta 61,5 m<sup>2</sup> hurrenez hurren).

Laburbilduz, udalerritari Donostialdean egotzitako funtzio eta hierarkiak eskualde funtzionamendu bati erantzuten zion, non Errenteria hiriburuaren menpe zegoen bizitegi eremu merkeak jasotzeko. Hori horrela izan zedin, 60ko eta 70eko hamarkadetan gauzatutako hazkunde esponontzial eta azkarrak hiri-eremu berri trinkoegiak sortu zituen, oinarritzko azpiegitura eta zerbitzuen falta larria zutenak.

## 3.2 Auzoen sorrera eta irizpide arrazionalisten isla beren hiri-ezaugarrietan

Atal honetan Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen sorrera prozesua aztertuko dugu, eta auzo horien ezaugarri urbanoak Mugimendu Modernoaren planteamendu urbanistikoekin lotuko ditugu. Horretarako, auzoen sorrerarako gidatzat baliatu ziren tresna urbanistikoak ezagutuko ditugu, eta auzo bakoitzaren hiri-morfologiari eta eraikin tipologiak deskribatuko ditugu, ondoren, irizpide arrazionalistekin harremanetan jartzeko.

Aztergai ditugun lau auzoak 50eko eta 80ko hamarkaden artean eraiki ziren, hein handi batean Erregimen Frankistaren pean, baina testuinguru sozial, ekonomiko eta urbanistiko ezberdinetan. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, hi-

---

50 Orduko espazio publiko urbanizatuen kopuruak garaiko estandar baxuenek eskatzen zuenaren %10a ere betzen ez zuela aipatzen da.

rigintza plangintza eta egikaritzea gauzatzeko tresnak aldatuz joan ziren hiru hamarkada horietan zehar, eta baita diziplinarekiko begiradak eta nahiak ere.

50eko hamarkadako higiezinaren produkzio ia guztia estatuak sustatua zen, Obra Sindical del Hogar erakundearen bitartez. Etxebizitza sozialen hainbat bizitegi-poligono eraiki ziren, kasu askotan isla-izaeradunak, hau da, inguruko hiri bilbearekin harremanetan egon arren, proiektu unitario bezala sortuak. Gure lehenengo auzoa, Alaberga, horren adibide dugu. Alabergan, aztergai ditugun gainontzeko auzoetan ez bezala, hasierako proiektutik, etxebizitzak eta ekipamenduak konbinatzen zituen hiri-bilbea planteatu zen. Ondorengo hazkundeetan, aldiz, eraikuntza gero eta masiboagoa izango da nagusi, ia etxebizitza hutsez osatua. Urteen poderioz, beraz, promozio pribatuak lekua kendu zion sustapen publikoari, eta higiezin-agentzien presentzia handituz joan zen prozesu urbanistikoetan.

50eko hamarkada bukaeran, Erregimenak ekonomia liberalizatzeko eta atzerriara irekitzeko hainbat neurri hartu zituen. Industria eta zerbitzuen sektoreek hazkunde progresiboa izan zuten, eta ondorioz, migrazio prozesu masiboak eman ziren estatuko hegoalde eta mendebaldeko nekazaritza lurraldeetatik iparralde eta ekialdeko ingurune industrialetara. Ondorioz, 60ko hamarkadan zehar, etxebizitza eskaera izugarri hasi zen nukleo industrialen inguruan, eta ekonomia produkzio urbanistikoaren ardatz nagusi bilakatu zen. 60ko hamarkada hasieran, etxebizitza hutsez osatutako hainbat auzo sortu ziren lan bila zetozen norbanako eta familiak hartzeko. Hamarkadak aurrera egin ahala, etxebizitza poligono gero eta trinkoagoak sortu ziren mozkin ekonomikoak handitzeko, lau solairuko blokeetatik 10 solairu baino gehiagoko dorreetara pasatuz. Eboluzio horren isla dugu Galtzaraborda.

70eko hamarkadan zehar eraiki ziren aztergai ditugun hirugarren eta laugarren auzoak, hots, Beraun eta Kaputxinoak. Hamarkada honetan eraikitako auzoen trinkotasun maila 60ko hamarkada hasierakoena baino nabarmen altuagoa da. Beraunen tipologia bakarra baliatu zen auzo osorako: 6 eta 11 solairu arteko eraikinak, barne-patioa berreskuratu eta solairuko bi etxebizitza lerro zituztenak. Kaputxinoen kasuan, aldiz, hiri-egituraketa askoz ere desordenatuagoa eta heterogeneoagoa da, orografia oso malkartsuak baldintzatuta. Azken auzo honetan, Galtzarabordan bezala, 15 solairuko dorreak lau solairuko blokeekin konbinatzen dira, eta erliebearen tolesduren eta malda handien artean kokatzen dira.


Hurrengo orrialdeetan, auzo bakoitzaren sorrera prozesua azalduko dugu, baliatu ziren tresna urbanistikoetan fokua jarritz.



8. irudia. Zalduaren Plan Orokorren zonakatze planoak, Alabergari, Galtzarabordari, Berauni eta Kaputxinoei dagozkien eremuak adierazita. Iturria: egileek egina, Errenteriako Udal Artxiboko dokumentazioa oinarri hartuta.



9. irudia. Zalduaren Plan Orokorra Poligonoetan Zatitzeko Proiektua, Alabergari, Galtzarabordari, Berauni eta Kaputxinoei dagozkien eremuak adierazita. Iturria: egileek egina, Errenteriako Udal Artxiboko dokumentazioa oinarri hartuta.



10. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoetako eraikin tipologia nagusiak adierazten dituen planoak. Gorriak bloke linealak, morez H formadun oinplanta duten blokeak, eta urdinez dorreak. Iturria: egileek egina.

### 3.2.1. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen sorrera prozesua

#### 3.2.1.1. Alaberga 1945 - 1959: aurreproiektu lehiaketa eta ondorengo proiektuak



11. irudia. Alabergaren airetik argazkia 1965ean. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

51 1945ean egin zen auzorako proiektu lehiaketa, eta 1959an inauguratu zen Alaberga.

“Alaberga herrixka<sup>52</sup>”ren eraikuntza Errenteriako Udalak sustatu zuen Obra Sindical del Hogar-ekin batera. Aztergai ditugun gainontzeko hiru auzoen sorrera prozesuekin alderatuta, Alabergarena ezberdina izan zen, bai diseinu eta definizio prozeduragatik, eta baita erakunde sustatzaileengatik ere. Baina batez ere, auzoa bere osotasunean definitzen zuen proiektu baten bitartez diseinatu eta egikaritu zelako, ondoren ikusiko ditugun Plan Partzial eta zatitako proiektuen orde.


### Aurreproiektu lehiaketa

Alabergaren diseinua zehazteko aurreproiektu-lehiaketa bat antolatu zuen Udalak 1945eko maiatzean. Lehiaketarako prestatutako oinarrietan, zenbait diseinu irizpide zehaztu ziren proiektuaren funtza osatu behar zutenak. Esplizituki adierazten ez zen arren, “erregionalismoa”ren aldeko apustua egiten zen oinarrietan, “modernismoak” ekiditeko beharra adieraziz. Modu argian planifikatutako multzo ordenatu bat izan behar zela ere aipatzen zen, eta zenbait loturetan portikoak kokatzea gomendatzen zen, saltokiak edo artisau-dendak jaso zitzaizketenak. Eraikuntza sistemari zegokionez, behe-solairuetako hormetan harria erabiltzeko beharra aipatzen zen, orokorrean, oso ohikoa izan zena 40ko hamarkadan eta 50eko hamarkada hasieran Gipuzkoan egin ziren etxebizitza sozialen proiektuetan.

Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 15era arte utzi zen zabalik eta lau arkitekto eta arkitekto-taldeek aurkeztu zuten proiektua: D. A. Marqués arkitektoak; D. Manuel Urcola arkitektoak; Faci Iribarren, Varela Feijoo eta Apraiz Barreiro arkitektoek osatutako taldeak; eta D. Luis Astizarán arkitektoak<sup>53</sup>. Urriaren 4ean, Obra Sindikalaren Probintzia Buruak ofizio bat bidali zion Errenteriako Alkateari, proiektu irabazlea Luis Astiazarán arkitektoak aurkeztutakoa izango zela adieraziz. Hori horrela, 15.000 pezetako saria irabazi zuen, eta berari egin zioten proiektua erredaktatzeko enkargua. Bigarren saria Faci, Varela eta Apraiz arkitektoek osatutako taldeari eman zioten, beste 15.000 pezeta; eta accesita Marqués arkitektoari 5.000 pezetako sariarekin. Bi urteren ondoren, 1947ko ekainean OSHren Probintzia Buruak Alaberga lursailaren orubeak desjabetzeko agindua eman zion Errenteriako Alkateari.

---

52 Artxiboko dokumentazioan “Poblado de Alaberga” bezala izendatzen da auzoa.  
53 MARTICORENA eta AYERZA (2014), 69. orr.



12. irudia. Albergaren ordenazio orokorra 1956ko proiektuaren arabera.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Artxibo Nagusia.



## Bigarren proiektua (1948)

Urtebeteren buruan, 1948ko maiatzean, Alabergako lurak Delegación Nacional de Sindicatos de Falange Española y de las JONS erakundeari saldu zizkion jabeak. Urte bereko abuztuan, aldiz, José del Ríok auzorako proiektu berria sinatu zuen, lehiaketara aurkeztutako aurreproiektuaren garapen moldatu bat zena. Moldaketak OSHren Probintzia Buruaren eskaerei erantzunez egin zituen, eta proiektuaren memorian<sup>54</sup> zera azaltzen zuen:

*“Aurreproiektu-lehiaketarako deialdia eragin zuen etxe-taldea eraikitzeko beharra areagotu egin da, ezinbestean, deialdi hori egin zenetik hona igaro den denboran. Izan ere, Errenteriako hiribilduko etxebizitza-premiak gora egin du, eta fenomeno bera gertatu da probintziako hiriburuan. Bertako biztanleak sakabanatu egin dira inguruko hiribildu eta herrietan, eta tokiko beharra zena probintzia-behar bihurtu da. Aztergai dugun herrixka eraikitzeak, hein handi batean, arazo hori konpontzen lagun dezakeenez, ondorio zuzena izan da proiektuaren etxebizitza-kopuruak gora egin dezakeela pentsatzea, aurrez kalkulatatakoarekin alderatuta, eta, beraz, proiektua tratatzeko moduari buruzko irizpidea erabat aldatu da”.*

Gogoratu behar dugu, 6 urte lehenago, Gipuzkoaren Ordenazio Plana (1942) indarrean sartu zela, probintziaren lurralde antolamendua bateratasun ikuspegi batetik lantzen zuena. Irakurri berri dugun aipua, bateratasun ikuspegi horren isla ere bada, Errenterian etxebizitzak eraikitzen probintziaren bizitegi beharra asetu nahirik.

Proiektu berri honetan planteatutako aldaketak hurrengoak ziren: 4.000 m<sup>2</sup>-ko azaleradun eremua gordetzen zen etxebizitzak eta ukuiluak zituen baserri-esnetegi baten lursail gisa; hiri-eremua hobeto aprobetxatzen zen dentsitate altuagoak bilatuz; hiri-paisaiari zegokionez, perspektiba itxiagoak bilatzen ziren, fatxaden jarraikortasuna lantzen zen eta etxebizitzaren atzealdeak ostentzen ziren; obra merkatze aldera txalet isolatuak eta solairu bakarreko etxe-taldeak desagerrarazten ziren; eskolaren kokapena aldatzen zen osasun arrazoiak medio; eta bide eta errepide tarte berriak planteatzen ziren. Auzo-proiektua 401 etxebizitza izatetik 563 etxebizitza izatera igaro zen: 262 beheko eremuan eta 301 goikoan.

54 Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (EAE-HAAN) - EB-CIO-00297.

## Hirugarren (1954) eta laugarren (1956) proiektuak

Hala ere, 1948ko proiektuaren ondoren, beste bi proiektu egin ziren auzoaren eraikuntza martxan zela. 1952ko ekainean jarri zuten obraren lehen harria, eta 1954ko abenduan Ramón Martiarenak Alabergarako hirugarren proiektu bat sinatu zuen. Kasu honetan, proiektuaren bertsio berri bat egitea justifikatzen zuena zera zen: Errepidetako Poliziaren Legearen aldaketak auzoaren behaldean ezarritako baldintza berriak; lurzorua profilaren ezberdintasunak 1948ko proiektuan jasotakoekin alderatuta; eta etxebizitzetan planteatutako zenbait hobekuntza beharrezkotzat hartzen zirenak<sup>55</sup>. Aldaketa horiek proiektuaren egikaritzea garestitu egin zuten eta 563 etxebizitzaren gain ezarri zen kostua.

Aurreratu dugun bezala, laugarren proiektu bat ere egin zen Alabergarako, 1956ko urtarrilean Luis Alústizak sinatu zuena. Azken proiektu honetan<sup>56</sup> “eraikin osagarriak” zeritzen zenbait eraikin publiko desagerrarazi ziren<sup>57</sup> eta zenbait aldaketa planteatu ziren oraindik eraiki gabe zeuden etxebizitzetan<sup>58</sup>, eraikuntzaren kostua apur bat merkatzeko. Hala ere, “eraikin osagarri” horietako hiru mantendu egin ziren, gaur egun auzoan topa ditzakegunak: eliza, eskolak eta esnetegi-baserria. Hurrengo arrazoiak azaltzen dituzte proiektuaren memorian:

*“Lehenengo biak [eliza eta eskolak] lasaigarriak izango dira Taldeko biztanleentzat, eta azkenari dagokionez [esnetegi-baserria], etxebizitzatzat baliatuko du Alaberga Herrixkaren kokalekuko lurak alokairuan lantzen zituen lehengo kolonoak”<sup>59</sup>.*

Azkenik, 1959an inauguratu zen auzoa eta 1962ko uztailaren 7an zertifikatu zen, aurreproiektu lehiaketa deitu eta hamazazpi urtera.

55 EAE-HAAN - EBCIO-00298.

56 EAE-HAAN - EBCIO-00299.

57 Proiektutik kendu ziren eraikinak hurrengoak izan ziren: frontoia, merkatua, latsarria eta Frantziako mugara zihoan trenbidearen geralekua. Memorian diotenez, ez ziren beharrezkoak herrixkaren programa osatzeko.

58 Planteatutako aldaketak hurrengoak ziren: zimentazioa arintzea zoruaren erresistentziak hori ahalbidezen baitzuen, eta ganbaretako trastelekuak desagerraraztea, memorian aipatzen denaren arabera “kasu askotan, planteatutakoaren kontrako ondorioak eragiten baitituzte; izan ere, askotan, inon falta ez diren jabe lotsagabeek pertsona behartsuei alokatzeko logela bihurtzen dituzte”.

59 EAE-HAAN - EBCIO-00299.



13. irudia. Alaberga 1960 inguruan, soroz inguratua. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



14. irudia. Alaberga 1960 inguruan, eraikitze prozesuan. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Ikusi dugunez, Alabergako auzoaren kontzeptualizazio eta diseinuan hainbat arkitekto ezberdinek parte-hartu zuten. Laburbilduz, lau arkitekto ezberdinek sinatutako lau proiektu daude auzorako. 1945ean Luis Astiazaránek egin zuen lehenengo aurreproiektua, diseinu lehiaketa irabazi zuena. 1948an José del Ríok aurreproiektuan oinarrituta proiektu garatu bat egin zuen OSH-ren Pro-bintzia-Buruaren enkarguz, obren enkanterako baliatu zena, eta 1952an obrak

abiatzeko erabili zena. Obra parteetatik<sup>60</sup> eta ondorengo planoen sinaduretatik<sup>61</sup> ondoriozta daitekeenez, Ramón Martiarena izan zen obra zuzendaritza egin zuen arkitektoa. Eta Martiarena bera izan zen 1954an, eraikuntza hasi eta bi urtera, Alabergarako proiektuaren bertsio berri bat sinatu zuena (hirugarrena) José del Ríoren proiektua topografia errelera eta lege berrietara egokitze-ko. Azkenik, 1956an Luis Alústizak, arkitekto-aholkulari bezala, Mariarenaren proiektua onetsi zuen aurretik aipatutako zenbait aldaketa eginez.

Aldaketak aldaketa, herrixka bezala diseinatutako auzoa izan zen Alaberga, non etxebizitzetaz gain, dendak eta erabilera publikodun eraikinak aurreikusi ziren. Bertako biztanleen eguneroko beharrak asetu nahi zituen auzo-unitate bat.

### 3.2.1.2. Galtzaraborda 1959-1971<sup>62</sup>: Galtzarabordako Plan Partziala



15. irudia. Galtzaraborda eraikitzen ari zeneko airetiko argazkia 1965ean.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©

60 EAE-HAAN - EBCIO-00407.


61 EAE-HAAN - EBCIO-00299.

62 1959koa da Galtzarabordarako topatu dugun lehenengo urbanizazio espedientea, eta 1971koa da auzoan aztergai dugun garaietako eraikinik berriena Gipuzkoako Katastroaren arabera.



16. irudia. Galtzaraborda eraikitzen ari zeneko airetiko argazkia 1965ean.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©

Galtzarabordaren sorrera prozesua aztertzeko 1955eko Plan Orokorra eta 1959ko Plan Orokorra Poligonoetan Zatitzeko Proiektura joko dugu.



17. irudia. Zaldua Planaren zonakatzeko planoak Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxi-  
noak auzoen eremuak adierazita. Iturria: egileek egina Errenteriako Udal Artxiboko doku-  
mentazioa oinarri hartuta.

17. irudian ikusi dezakegun bezala, Galtzaraborda horiz margotua ageri da Zalduaren zonakatzean, Trantsizio Eremu izendatu baitzuen Plan Orokorreko zonakatzea zehaztu zuenean. Liburu Gorriaren arabera, hurrengo ezaugarriak ezartzen zitzaizkien trantsizio eremuei:

*“Edifikazio mota altua, hormarte bikoizduna, partzelako barne-patiorik gabea, egungo alde zaharren eta kanpoaldeko eremuetan baimendutako eraikinen arteko trantsiziotzat balioko duena. Proiektu Partzialaren beharra izango du beti, Plan Orokorren gidalerroekin bat datorrena”<sup>63</sup>.*



18. irudia. Poligonoen banaketa plano. Iturria: Erreneriako Udal Artxiboa

Lau urteren ondoren Zalduak berak egin zuen poligonoen banaketa proiektuan, Galtzaraborda 14. poligonoak osatzen zuen. Proiektuaren memorian<sup>64</sup> horrela deskribatzen du eremu horretan proiektatu beharreko zabalkundearen ezaugarriak:

“14 eta 15 poligonoak. Batez ere Galtzaraborda etxearenak diren goiko lursailak dira, eta malda handiko lurzati handiak dituztenez, Plan Partzialean berdegune handiak eta eraikigarritasun-indize baxuko eraikinak eduki behar dira.

63 PONTE (2016), 105. orr.

64 EUA - Plan orokor zaharra, 115. kutxa.

Poligonoen Banaketa planoarekin batera dagoen deskribapen taulan zera adierazten da:

- 14. poligonoari 3. Ordenantza dagokio, D Bariantea, eta 2,00 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna.

3.1 atalean ikusi dugu nola Poligonoen Zatiketa Proiektua Udalak onetsi arren, ez zela onartua izan Gipuzkoako Hirigintza eta Arkitektura Batzordean. Hala ere, banaketa hau hartu zein oinarri 60ko eta 70eko hamarkadetako auzo berriak eraikitzeko, eta horregatik dakargu Galtzarabordaren sorreraren genealogiara.

Aztertutako dokumentazioaren arabera, beraz, 14. poligonoaren garapenerako beharrezkoa zen Proiektu Partzial bat, edo ondoren Plan Partzial<sup>65</sup> bezala ezagutuko duguna, osatzea. Eta hala egin zen. 1959an Galtzaraborda zeritzon 14. Poligonoaren Plan Partziala osatu zen.

### Jatorrizko Plan Partziala (1959)

Planaren memorian<sup>66</sup> azaltzen denez, Lorategi-Hiri eremu bezala planteatu zen auzoa. 9 eta 11 metroko altuerako eraikinak planteatzen ziren, baina “Lorategi Parke Zentrala”<sup>67</sup> deritzoten eremuaren inguruan altuera handiagoko lau bloke proiektatu ziren. Auzoa Alabergarekin lotzen zuen bidearen pareko eremu maldatsuan betetze lanak egitearen ondorioz sortu zen Parke hori. 19. irudian ikusi dezakegun bezala, auzoaren behealdean, egun trenbidea dagoen lekuan, umeen jolaserako zelai bat eta bi pabiloi industrial proiektatu ziren. Horrez gain, auzoaren goialdean, “herrixkaren-zentroa” deritzotena irudikatu zen, plaza nagusia, eskola bat, eliza, eta eraikin publiko (frontoia eta igerilekua besteak beste) eta komertzialekin<sup>68</sup>. Hor zegoen ere auzoari izena ematen zion Galtzaraborda baserria. Bigarren eskola bat ere aurreikusten zen parkearen ondoan. Etxebizitzaren izaerari dagokionez, ekialdeko eremuan eraikin baxuagoak zeuden. Mendebaldean, Kaputxino-gainean zehar, orientazio hobea zegoen lekuan eta parkearen parean, familia bakarreko etxebizitza isolatuak eta adosatuak proposatu ziren.

65 1956ko Lurzoruaren Legean sortu zen Plan Partzialaren tresna urbanistikoa.

66 Errenteriako Hirigintza Artxiboa (EHA) - AA C H39 E 1.

67 Egun Urdaburu parkea bezala izendatua.

68 Eguno Aizkorri plazaren ingurua da hori, Galtzaraborda, Iantzi eta Beraunen arteko muga zonaldea.



19. irudia. Galtzarabordaren jatorrizko Plan Partziala, 1959.  
Iturria: Errenteriako Hirigintza Artxiboa.



## Plan Partzialaren aldaketak

Hala ere, Galtzarabordako Plan Partziala ez zen proiektatu bezala garatu. Abiapuntu plano hainbat aldiz moldatu zen etxebizitzaren eskaera bere momentu gorenean zegoela aprobetxatu eta posiblez handitzeko. Auzoaren eraikuntza proiektatu bezala abiatu zen,  $2 \text{ m}^3/\text{m}^2$  -ko eraikigarritasuna erreferentziatuz hartuz, eta Liburu Gorrian zehazten zen bezala, behe solairuaren gainean 4 solairu zituzten hormarte bikoizdun bloke linealak eraikiz. Baina etxebizitza eskaera eskaintza gainditzen ari zen momentuan, Plan Partzialaren lehenengo aldaketa<sup>69</sup> tramitatu zen, 1962an zehazki. Lehenengo modifikazio horretan egiten ziren aldaketak hauek ziren: hirugarren eskola bat aurreikusten zen auzoan parkearen lursailaren barruan; jatorrizko Plan Partzialaren bloke distribuzioa bertan behera uzten zen; eta partzela bakoitzaren barruko bloke-ordenazioaren zehaztapena partzela-proiektu bakoitza idazten zuen teknikariaren esku uzten zen. Teknikari horiei jartzen zitzaizkien baldintzak hurrengoak ziren:  $2,03 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko batezbesteko eraikigarritasuna mantentzea, eta sektore bakoitzarentzat ezarritako altuerak errespetatzea. Kontua zera da: jatorrizko Plan Partzialean auzoarentzat batezbesteko  $2,03 \text{ m}^3/\text{m}^2$  -ko eraikigarritasuna planteatzen zela, poligono osoaren azalera aintzat hartuz (gune berdeak barne); eta aldaketa honekin, partzela bakoitzari egotzen zitzaion eraikigarritasun indize berbera. Ondorioz, poligonoaren eraikigarritasuna handitu egiten zen Planaren bertsio berriarekin, eta dentsitate altuagoko eraikin tipologiak eraikitzen hasi ziren, hots, H formadun oina zuten 10 solairurainoko eraikinak.



Baina aldaketak ez ziren hor bukatu, Plan Partzialaren bigarren aldaketa bat ere egin baitzen 1966an. Eraikigarritasuna berriro ere handitu egin zen, 14 solairurainoko dorreak proiektatzera heldu arte. Plan Partzialaren aldaketa horiek, gainera, ez ziren Plan Orokorrean islatu, indarrean zeuden tresna urbanistikoak nahierara baliatu zituztelarik prozesu urbanistikoaren parte ziren promotore, tekniko eta erakunde publikoek<sup>70</sup>.

20. irudia. Parke kaleko urbanizazio lanak 1982an. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

69 EHA - AA C H39 E 1  
70 PONTE (2016), 256. orr.

### 3.2.1.3. Beraun 1968 - 1976<sup>71</sup>: Beraun-Berri Plan Partziala



21. irudia. Beraun eraikitzen ari zeneko airetiko argazkia 1971n. Eskumaldean Galtzarabordaren goialdea ikusi daiteke. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©



22. irudia. Beraun eraikitzen ari zeneko airetiko argazkia 1973an. Ezkerraldean Galtzarabordako bloke linealak eta dorreak ikusi daitezke. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©

71 1998koa da Beraungo Plan Partziala, eta 1976koa da auzoan aztergai dugun garaietako eraikinik berriena, Gipuzkoako Katastroaren arabera.

Galtzarabordarekin egin dugun bezala, Beraunen sorrera ulertzeko abiapuntua Zalduaren Plan Orokorrean eta ondorengo Poligonoen Zatiketa Proiektuan bilatuko dugu.

Planaren zonakatze planoan, Beraunen lur-eremuak horiz eta marroiz margotuta ageri dira. Auzoaren erdialdetik gorako esparrua Trantsizio Eremu izendatu zen planean, eta erdialdetik beherakoa Lorategi-Hiri (ikus 17. irudia). Trantsizio Eremuen ezaugarriak Galtzarabordaren atalera ekarri ditugun arren, berriro ere ekarriko dugu testura Liburu Gorrian jasotako definizioa, Lorategi-Hiri Eremuen inguruan dioenarekin batera:

*“Trantsizio Eremua: edifikazio mota altua, hormarte bikoizduna, partzelako barne-patiorik gabea, egungo alde zaharren eta kanpoaldeko eremuetan baimendutako eraikinen arteko trantsiziotzat balioko duena. Proiektu Partzialaren beharra izango du beti, Plan Orokorren gidale-  
rroekin bat datorrena.*

*Lorategi-Hiri Eremua: ustiapen baxuko etxebizitzak aurreikusten dira, espazio librez edo lorategiz inguratuak.<sup>72</sup>.*

Zonakatzeaz gain, poligonoen banaketa proiektua aztertzen badugu, egungo Beraun 4 eta 5 poligonoen baturak osatzen dute (ikus 18. irudia). Proiektuaren memoriak<sup>73</sup> hurrengo deskribapena dakar gune horien zabalkundeen inguruan:

*“3 eta 4 poligonoak. Donostiarekin mugakide diren eta etorkizunean herrixka berrietarako erabiltzeko egokiak izango diren lursail altuak dira.*

*5 eta 6 poligonoak. Irun-Madril autobidearen mugakide izango diren Lorategi-hiri estiloko eraikinak eraikitzeko egokiak diren lursailak, erre-serban uztea egokitzat jotzen da eta gerora hobeto erabiltzeko babestea komeni da.”*

Horrez gain, 4 eta 5 poligonoetan eraikitzeko, hurrengo zehaztapenak ageri dira planoan:

72 PONTE (2016), 105. orr.

73 EUA - Plan orokor zaharra, 115. kutxa

- 4. poligonoari 6. Ordenantza dagokio, A Bariantea, eta 2,00 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna.
- 5. poligonoari ere 6. Ordenantza dagokio, B Bariantea, eta 1,50 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna.

Aztertutako dokumentazioaren arabera, beraz, 4. poligonoa trantsizio eremu bezala izendatuta egonik, Plan Partzial bitartez garatu behar zen, Galtzarabordan gertatzen zen bezala. Hori horrela, Beraun-Berri Plan Partziala<sup>74</sup> deritzona sortu zen 1968an.

### Jatorrizko Plan Partziala (1968)

Lurzoru gehien jabe zen Urdaburu higiezin agentziaren buruaren hitzetan *“Errenteriako langile eta klase ertainarentzako hirigintza proposamen eredugarri bat”*<sup>75</sup> proiektatu nahi zen Beraunen. Horretarako etxebizitza modulu konkretu bat baliatzen zen, *“etxebizitzaren promozio sozialerako proposa zena, barne-banaketa airosoa eta sinplea zuelako, eta baita egikaritze merkea ere”*<sup>76</sup>. Horretarako, jatorrizko Plan Partzialean, auzoa 18 partzela eraikigarritan banatzen zen, eta partzela bakoitzaren inguruko hainbat aspektu zehazten ziren, besteak beste: partzelaren azalera, eraikinen izaera (erdisotorik duen, behe solairuen azalera eta altuera, eta etxebizitza solairuen azalera eta altuera), proiektatutako bolumen eraikiak, eta aurreikusitako etxebizitza kopurua.

### Plan Partzialaren aldaketak

Hala ere, Galtzarabordaren kasuan bezala, jatorrizko Plan Partzialari zenbait aldaketa puntual egin zitzaizkion alineazioak fintzeko eta blokeen kokapenak moldatzeko. 1971n Pablo Sorozabal plazaren inguruko hiru blokeak birplanteatu ziren (12, 13 eta 15 zenbakiduna), eta urte berean, bigarren aldaketa bat egin zen 8, 9, 10, 11 eta 14 partzeletan. 1973ko hirugarren aldaketa batean, 13, 49 eta 72 blokeak moldatu ziren; eta urtebete beranduago, D etxadiko blokeak moldatu ziren aparkaleku eremu berri bat sortzeko (3, 4 eta 6A partzelak).

---

74 EHA - AA C H12 E 1


75 EHA - AA C H12 E 1

76 Ibidem.



1973ko birmoldaketa proiektuan horrela laburtzen dira poligonoak ordura arte jasandako aldaketak: auzoa eraikitzen hasia zenean eskola-eremuak handitzeko orubeak egokitu ziren, sektore bat gurutzatzen zuen goi-tentsioko linea baten ondorioz zenbait blokeren diseinua moldatu zen, eraikuntza-sistema industrializatuak erabili ziren, eta aurreikusitakoa baino kalitate altuagoko gune portikatuak sortu ziren. Guzti horrek auzoaren urbanizazioan ere eragina izan zuen, hobekuntzak memoria erredaktatzen duen arkitektoaren<sup>77</sup> ikuspuntutuz: errepede-tipoa 9 metrora arte zabaldu zen, 14 metroko kaleak zabaldu ziren aparkalekuetarako, aparkaleku kopurua izugarri handitu zen, bloke guztietan lortu zen sarrera ematen zion kaleak errepedea izan zezan, hegoaldeko kale nagusia<sup>78</sup> zuzendu egin zen, eta eremu portikatuak hobetu ziren.

Hala ere, aldaketa guzti horien ondorio esanguratsuena eraikinen altueren handitzea izan zen, errepede eta aparkalekuentzako espazioa irabazi nahian, dentsitate altuagoko blokeak sortuz. Etxebizitza kopurua, beraz, handitu egin zen jatorrizko proiektuan aurreikusitako zenbakia eta egungoa alderatzen badiugu: 2.042 eta 2.253 etxebizitza artean proiektatu ziren hasiera batean, eta egun, 2.331<sup>79</sup> etxebizitza daude.



24. irudia. Beraunen jatorrizko Plan Partzialaren aldaketa planoak, 1988.  
Iturria: Errenteriako Hirigintza Artxiboa.

77 José Luis Pla, Construcciones Pasajes.

78 Beraun kalea dela irudika dezakegu.

79 Eustat, 2022. Aintzat hartu behar dugu, egun, lokal komertzialak ziren zenbait espazio etxebizitza bilakatu zirela Beraunen, beraz, etxebizitza kopuruaren handitzea ezin dugu zuzenean zenbakien kenketaren bitartez kalkulatu.

Galtzarabordarekin alderatuta, Beraunen kasuan auzoaren jatorrizko irudikapena eta egungo errealitatea ez dira horrenbeste aldatu. Etxebizitza tipologiak mantendu egin ziren eraikuntza prozesuan zehar, eraikinen kokapena hein handi batean ere, eta espazio libreen sareak jatorrizkoaren antzeko egitura mantentzen du.



25. *irudia*. Pablo Sorozabal plazaren orubean San Juan sutearen prestaketa 1981ean.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



26. *irudia*. Pablo Sorozabal plaza 1981ean. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

### 3.2.1.4. Kaputxinoak 1964 - 1978<sup>80</sup>



27. irudia. Sorgintuloko dorreak atzean Pasaia badiak 1971n.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©




28. irudia. Kaputxinoetako dorreak eta bloke linealak 1973an.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©

80 1964koa da Kaputxinoetako Plan Partziala, eta 1978koa da auzoan aztergai dugun garaietako eraiki-  
nik berriena, Gipuzkoako Katastroaren arabera.



Kaputxinoen sorrera ezagutzeko, 1947 urteko proiektu batetik abiatuko gara. Errenteriako Udal Artxiboan, 1947ko Urbanizazio Plan bat<sup>81</sup> topa dezakegu egungo José Manuel Zamarreño parkearen lurretan proiektatu zena. Edicon Sozietatearen lurrak ziren, eta Versailles eta Sorgintxulo baserrien lursailen artean geratzen zen. Urbanizazio Proiektuaren planoaren arabera, zonalde horretan hiru edifikazio mota planteatzen ziren: etxebizitza blokeak, etxebizitza isolatuak eta almazenak. Planoa aztertzen badugu, sei etxebizitza-bloke ikus ditzakegu eremuaren ekialdean, eta ondoren, eremu zentrolean hainbat etxebizitza isolatu irudikatzen dira. Azkenik, mendebaldeko mugan, lau almazeneraikin daude, portutik hurbilen dagoen aldean. Horrela deskribatzen dira proiektuaren memorian proiektatutako inguru-eraikiak:

*“Etxebizitza-blokeak hiri-lorategi deritzon eraikin-motaren estilora egokituko dira, eta horien bidez multzo bat lortu nahi da, kokalekuaren edertasunarekin bat datorren profil eta proportzioak izango dituena. Etxebizitza isolatuak eraikita, Pasaiaiko Portutik gertu txalet-herrixka bat antolatu nahi da, multzo bat osatzen duena, eta herrixkari kalitate eta balore estetiko handia duen multzo sentsazioa emanaz. Azkenik, lursailen behealdean, lursailek perspektibarik ez duten eta portuko instalazioekin nahasten diren lekuan, lurzati batzuk gaitu dira biltegiatarako edo antzeko instalazioetarako, portutik gertu ezinbestekoak direnak.”*



29. irudia. Edicon Sozietatearen lurretarako urbanizazio proiektua, 1947.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Segidan ikusiko dugun bezala, Poligonoen Banaketa Proiektua gauzatu zenean, eremu hau 8. poligono bezala izendatu zen.

1955eko Zalduaren Plan Orokorra aztertuz, aldiz, ikusi dezakegu Kaputxinoen ingurua lau koloretan margotua ageri da (ikus 17. irudia): horia, urdin argia, urdin iluna eta marroia. Gogora ekarriko dugu kolore horietako bakoitzaren esanahia planoaren legendaren eta Liburu Gorrian jasotako definizioaren arabera:

*“Horia - Trantsizio Eremua: edifikazio mota altua, hormarte bikoitzduena, partzelako barne-patiorik gabea, egungo alde zaharren eta kanpoaldeko eremuetan baimendutako eraikinen arteko trantsiziotzat balioko duena. Proiektu Partzialaren beharra izango du beti, Plan Orokorren gidalerroekin bat datorrena.*

*Marroia - Lorategi-Hiri Eremua: ustiapen baxuko etxebizitzak aurreikusten dira, espazio librez edo lorategiz inguratuak.*

*Urdin argia - Eremu Berezia: helburu berezi bat zuten erabilerak, gune berdeak, kirolguneak, zonalde militarrek, aireportuak, portu eta trenbide inguruak, eta eraikin publiko bereziak izan daitezkeenak, besteak beste.*

*Urdin iluna - Eremu Industrialak: industria handiko, industria ertaineko, industria txikiko eta biltegi eraikinak eraikitzeke guneak dira.”<sup>82</sup>.*

Hasiera batean, beraz, Kaputxinoen goialdean, egungo Galtzaraborda hiribidearen inguruan, etxebizitza blokeak aurreikusten ziren, 3-4 solairukoak, hirigune trinkoaren eta kanpoaldearen arteko trantsizio funtzioa izango luke tenak. Galtzaraborda hiribidea Pasaiako Badiara heltzen den puntuan, hots, egungo José Manuel Zamarreño parkea dagoen tokian, lorategi-hiri izaerako eremua proiektatu zen, lorategiz inguratutako etxebizitza baxuak izango zituena. Azkenik, Sorgintxulo kalearen bihurtuneak mugatzen duen eremuan, eremu berezi bat aurreikusten zen, Portuko Eremu Berezi gisa kalifikatua, biltegiek eta industria txikiak osatua.

---

82 PONTE (2016), 105. orr.

Poligonoen banaketa proiektuari erreparatuta, ikusi dezakegu 1, 2, 3, 8, 9, 10 eta 12 poligonoek osatzen dutela egungo Kaputxinoak. Proiektuaren memorian<sup>83</sup> dakartzan deskribapenak irakurriz, hurrengo informazio gehigarria izan dezakegu auzoan hasiera batean proiektatutakoaz (ikus 18. irudia):

*“1 poligonoa. Udalerriko mendebaldeko muturrean dagoen poligonoa, Fundación del Bosco eta errepidearen artean. Fundazio horretara sartzeko bide partikularrak gurutzatuko du, eta baita Irun-Madril autobidearekin dagoen lotura garrantzitsuak ere. Beraz, zehaztapen horien ondorioz, Erreserba-Eremutat jotzen da.*

*2 poligonoa. El Bosco Fundazioaren eskola-eraikinek osatzen dute soilik, eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Plan Partziala egin du.*

*3 eta 4 poligonoak. Donostiarekin mugakide diren eta etorkizunean herrixka berrietarako erabiltzeko egokiak izango diren lursail altuak dira.*

*8 eta 10 poligonoak. Pasaiako portura begira dauden "Sorguinchulo" eta "Versailles" etxeen lursailtako eremu garaiei dagozkie; beraz, hiri-lorategi gisa sailkatzen dira.*

*9 poligonoa. Lehen aipatutako baserrietako errepidearen mailako lursail baxuek osatzen dute, eta Pasaiako portuko kai berrietarako sarbidetik hurbil daudenez, portutik gertu behar diren industria-eraikuntzetarako egokiak direla uste da.*

*11 eta 12 poligonoak. Kaputxinoen Gaina eta Galtzaraborda Poligonoa lotzen dituen bide nagusiaren mugakide diren goi-lurrik berehala erabil daitezkeela uste da; izan ere, Alaberga herrixkaren mugakide dira eta lorategi-hiri estiloko eraikinak eraikitzeke aproposak, aipatutako herrixkakoaren antzekoak. Aipatzekoa da 11. poligonoan, "Lete-enea" etxearen ondoan, errepidearen ondoan, orube bat dagoela, etxearen mailan desmuntatua, eta, beraz, etxebizitza-etxe bat eraikitzeke erabili behar dela.”*

Horrez gain, poligono horietan eraikitzeko, hurrengo zehaztapenak ageri dira planoan:

- 1 poligonoari 6. Ordenantza dagokio, B Bariantea, eta  $1,50 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna.
- 2 poligonoari 8. Ordenantza dagokio, H Bariantea, eta ez da eraikigarritasun indizerik zehazten.
- 3 poligonoari 6. Ordenantza dagokio, B Bariantea, eta  $2,00 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna.
- 8 eta 10 poligonoari 3. Ordenantza dagokio, A Bariantea, eta  $1,50 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna.
- 9 poligonoari 4. Ordenantza dagokio, A Bariantea, eta  $5,00 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna.
- 12 poligonoari 3. Ordenantza dagokio, C Bariantea, eta  $2,25 \text{ m}^3/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasuna.

Bi proiektuek auzoaren eremu ezberdinen definiziorako dakarten informazioa gurutzatuta, honela deskriba ditzakegu Kaputxinoetan hasiera batean proiektatu ziren zonaldeak: auzoaren goialde guztian, Galtzaraborda Hiribidearen parean geratzen den eremuan, Alabergaren antzerako edifikazioak aurreikusitakoak ziren, solairu gutxiko blokeez osatuak, eta lorategiz inguratuak.  $1,5$  eta  $2,25 \text{ m}^3/\text{m}^2$  arteko eraikigarritasuna ezartzen zituzten eremu horretako zonalde ezberdinei. Egungo José Manuel Zamarreño parkea dagoen tokian  $1,5 \text{ m}^3/\text{m}^2$  -ko eraikigarritasuna izango zuen lorategi-hiri estiloko eremua proiektatu zen, etxebizitza isolatuz osatua irudika dezakeguna. Esnabide kaletik maldan behera dagoen zonaldean, aldiz, zonalde industrialak ezaugarritu zituen; eta Don Bosco Fundazioaren lurretan hezkuntza eraikinek osatutako eremu berezia irudikatu zen, egun dagoenarekin bat datorrena<sup>84</sup>.

Horretan oinarrituta, beraz, 1962an Kaputxinoen Plan Partziala erredaktatu zen, eta bi urteren ondoren onetsi zuen Gipuzkoako Hirigintza eta Arkitektura Batzordeak. 8-9-10 eta 12 poligonoak garatzen zituen Planak, auzo berriaren

---

84 Plan Orokorraren zonifikazio plana begiratzen badugu, ikusi dezakegu nola Don Bosco Fundazioaren eremua urdin ilunez agertzen den margotuta (Eremu Industrialak), eta Sorgintzulo kalearen ingurua urdin argiz (Eremu Berezia). 1955ekoa da Plan Orokorraren zonifikazioa, 1959koa Poligonoen Banaketa Proiektua, eta 60ko hamarkada hasierakoak dira Don Bosco Lanbide Heziketa zentroko eraikuntzak. Badirudi poligonoen banaketa eta zehaztapenak egitean, aurretik zegoen zonifikazioa birpentsatu eta aldatu egin zutela, eremu bereziena industriagune bezala ezaugarrituz, eta alderantziz.

muina osatuko zuten eremuak. Planaren memorian murgilduko gara proiektatutakoaren arrazoiak ulertzeko.

### Jatorrizko Plan Partziala (1962)



30. irudia. Kaputxinoetako jatorrizko Plan Partzialaren hiri-egituraren plano, 1962.  
Iturria: Errenteriako Hirigintza Artxiboa.

Abiapuntu bezala, 1962ko Plan Partzialak<sup>85</sup> Plan Orokorrak ezarritako premisak hartu ziren kontuan, hots, hiru zonalde ezberdin sortzea: bata portuarekin lotutako industria erabilerarako, bigarrena lorategi-hiri izaeraduna, eta azkena, Alabergarekin trantsizio eremua osatuko zuena. Horrez gain, zerbitzu sozialak, parkeak, eta dendak aurreikusi behar ziren, eta hurrengoak txertatu ziren proiektuan: parrokia eraikina, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eskola, parke publikoen 71.838,77 m<sup>2</sup>, eta etxebizitza bakoitzeko komertziorako 2m<sup>2</sup>. Osagai horiekin proposatutako auzo berriaren antolaketa orokorrari dagokionez, funtsean etxebizitzaz osatutako auzoa sortu nahi zen, 1.330 etxebizitza inguru izango zituen, eta zentroa eremuaren goialdean izango zuena: gaur egun Cristobal Gamón dagonen lekuan proiektatu zen eskola, eta horren inguruan hiru plaza komertzial eta parke bat. Eliza goialdean zegoen ere, zentroa izango zenaren eta Alaberga herrixkaren artean.

Zonalde baxuenean, egun Sorgintxulo bezala ezagutzen denean, industrialde bat proposatu zen, eta gune altuenean lorategi-hiri izaera zuen eremua (egun igerilekuak dauden tokian).

Azkenik, topografiaren erdialdean geratzen zen eremuan “etxebizitza dorre laukoitzak” derizotenak proposatu ziren. Etxebizitza blokeak orubeetan ezartzean, ez zen orografia moldatu nahi izan, eta garrantzitsua zen blokeek beraien artean badiarako bistak ez oztopatzea. Horregatik, dorreak erlaitz-eremuetan kokatu ziren bata bestearengandik nahikoa banatuak eta espazio berdez inguratuak. Goialdean, Alabergarekin mugan, 7 solairuko hiru bloke luzanga proiektatu ziren, eta parke publiko bat ere, mendiaren irudia mantentzeko helburuaz.


## Plan Partzialaren aldaketak

Planean deskribatutakoa errealitatearekin alderatzen badugu, azkar konturatu gara hainbat aldaketa jasan zituela proiektuak, eta hor jasotakoaren atal xume batzuk baino ez zirela proiektatu bezala eraiki. Izan ere, 6 urte geroago, 1969an, Plan Partzialaren lehenengo aldaketa<sup>86</sup> onetsi zen 1 eta 2 sektoreetarako.

---

85 EHA - AA C H29 E 1.

86 EHA - AA C H29 E 1.



31. irudia. Kaputxinoetako Plan Partzialaren 1 eta 2 sektoreen erreforma plana, 1967.  
Iturria: Errenteriako Hirigintza Artxiboa.

Aldaketaren justifikazioa orubearen behealdean zegoen Arditurriko meatze-trenbidearen itxiera izan zen. Orube hori EDICON S.A. enpresak erosi, eta aukeragune bezala ikusi zuen Plan Orokorrean ezarritako erabilera aldatu eta etxebizitza eta dendaz osatutako eremua sortzeko. Proposatzen zuen hiri-egitura hurrengoa da: errepideak ardatzen du eremua, eta Pasaiako Portua eta Kaputxino-gaina konektatzen ditu. Badiatik heldu eta sarrerako eremuan gune komertzial bat kokatzen da, eta ardatzaren eskumaldean 4 bloke altu. 5-6-7 eta 8 blokeak 14-18 solairudunak eta behealdean komertzioez lotuak diseinatu dira, gainean, paseorako eta umeek jolasteko terraza handia daukatena. Dentsitate altu xamarreko eremua sortu nahi zen, 4 fatxadadun blokeak sortuz, beren norabide guztietan bistak, aireztapena eta eguzkitapena izango zituztenak. Badiatik hurbilen dauden hiru blokeak, portutik gertu egonik, komertziorako interesgarriak direla ulertzen da eta bulegoak proposatu dira bertan.

Planaren aldaketa hau Gipuzkoako Hirigintza eta Arkitektura Batzordeak onetsi zuen 1969ko otsailaren 28an, eta horren bitartez eratu zen egun Sorgintxulo bezala ezagutzen den auzoaren behealdea.

Aztergai ditugun hamarkadetan, Plan Partzialari beste aldaketa bat egin zitzaion, 1973an zehazki. Helburu nagusia oinarritzko irakaskuntza orokorrari

buruzko legea eta hezkuntza eta zientzia ministerioaren arau berrietara egokitzea izan zen. Horretarako, erabilera kulturalerako aurreikusitako orubeak hezkuntza erabilerara aldatu ziren, eta ahal izan heinean Plan Partzialaren hiri-egitura eta Urbanizazio Proiektua bere horretan utzi ziren.



32. irudia. Kaputxinoetako Plan Partzialaren erreforma plana, 1972.  
Iturria: Errenteriako Hirigintza Artxiboa.

32. irudian ikusi dezakegunak jatorrizko Plan Partzialak baino antza handiagoa du errealitatearekin, baina zenbait ezberdintasun ikus ditzakegu. Egun Zamarreño parkea hartzen duen eremuan, 6 dorre proiektatzen ziren, eta egun bakarra dago eraikia. Auzoaren goialdean halako beste 6 dorre ere proposatzen zirela ikus dezakegu, eta horietariko bat ere ez zen eraiki. Sorgintxuloko eremua eta maldan dauden bloke linealek aldiz eremu horien egungo konfigurazioa azaltzen dute.

Izan ere, 80ko hamarkadan sortutako Hirigintza Batzordeen Koordinakundeak aurreikusitako eraikinen batzuen egikaritzea geldiaraztea lortu zuen. Horrela, Kaputxinoetan planteatzen zena baino dentsitate baxuagoa eta eremu berde zabalagoak edukitzea lortu zuten.





33. irudia. Kaputxinoetako lehenengo dorreak eraikuntza prozesuan 1968an. Atzean Alaberga ikusi daiteke. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. Paisajes Españoles ©

### 3.2.2. Lau auzoetako eraikin tipologia nagusiak

Aztertzen ari garen lau auzoen hiri morfologiak eta eraikin tipologiak garai eta hamarkada ezberdinetako etxebizitza eraikinen garapen tipologikoaren isla dira. Lau auzo hauetan, autarkia garaian eta garapenkeria garaian Gipuzkoan eraikitako tipologia adierazgarrienak aurki ditzakegu, eta garai horietan zehar hirigintza espekulazioak eragin zuen garapen tipologikoa irakurri dezakegu auzoetako tipologia errepikakorrenei adituz<sup>87</sup>.



34. *irudia*. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako eremuak hamarkada ezberdinetako tipologia orokorraren arabera adieraziak. Berdez 50eko hamarkadako bloke askeak, laranja 60ko hamarkada hasierako bloke askeak, marroiz 60ko hamarkada bukaerako patiodun blokeak, eta urdinez 60ko hamarkadako patiodun dorreak. Iturria: egileek egina.

50eko hamarkadan zehar eraikitako etxebizitza poligonoak bloke askeez osatuta egon ohi dira. Antzerako tipologia, konposizio eta bolumetria duten

87 LIZUNDIA (2012), 42-64 orr.

blokeak kalitatezko espazio publikoaz inguratzen dira. Gune berdeek eta auzokideen erabilerarako pentsatutako kaleek osatzen dituzte etxe-inguruak. Eraikinak luzetarako blokeak izaten dira, hiru eta bost solairu artekoak, eta fatxada bikoizdun etxebizitzak dituztenak. Egitura hormigoizkoa izan ohi da, fatxadetan luzitu-akabera jarraia harri eta zeramikazko elementuekin konbinatzen da, eta teilazko estalki inklinatuak izan ohi dituzte. Alaberga auzoa garai honetako eraikuntza motaren adierazgarri da.

60ko hamarkada hasierako etxebizitza poligonoak hiri-aldirietan eraiki ziren batez ere. Konfigurazio arkitektoniko eta hiri antolaketa oso konkretu bat jarraitzen dute: bloke isolatuez osatutako etxebizitza multzoak dira, eta izaera semipribatua duen espazio publikoaz inguratuta daude. Ez dira eraikin altuak eta hormarte bikoitza dute, ondorioz, etxebizitzak kontrako orientazioa duten bi fatxadetara zabaltzen dira. Eraikuntza ezaugarriei dagokionez, hormigoi armatuzko egiturak dituzte, fatxadan luzitu-akabera jarraiak, leiho txikiak eta teilaz estalitako estalki inklinatuak. Mota honetako hiri-morfologia Galtzarabordan eta Kaputxinoetan topa dezakegu.

60ko hamarkada bukaera eta 70eko hamarkada hasierako etxebizitza poligonoak hiri-aldirietan eraikitzen jarraituko dira, baina zenbait aldaketa jasango dituzte aurreko tipologiekin alderatuta. Orokorrean, bolumentria eta altuera handiagoko eraikinak izango dira. Hormarte zabalagoa eta barruko patioa izango dute, fatxada bakoitzeko etxebizitza bana ezartzea ahalbidetuko duena. Fatxadako akaberak kasu gehienetan zeramikoak eta beirazkoak izango dira, luzitu-akabera jarraiez konbinatuak. Eraikinen inguruko espazio publikoaren izaerari dagokionez, eraikinak kalera zabalduko dira, eta kasu askotan komertzioa izango dute behe solairuetan. Horrelakoa da Beraungo eraikinek osatzen duten hiri-konfigurazioa.

60ko hamarkada erdialdean aurreko tipologiaren aldagai berri bat sortuko da, hein handi batean ezaugarri oso antzekoak izango dituen, baina altuera askoz ere handiagoduna. 10 eta 16 solairu arteko dorreak izango dira, fatxadan bistako adreilua izango dutenak kasu askotan. Dorren kasuan, multzokatuta aurki daitezke poligono osoak sortuz, Kaputxinoetako Sorgintxulo inguruan gertatzen den bezala; baina baita modu isolatuan kokatuak ere, Galtzarabordako Parke kaleko dorreak kasu.

Hurrengo orrialdeetan garai bakoitzaren adierazgarri diren tipologia errepikakor horiek aztertuko ditugu artxiboetako dokumentazioan oinarrituta.

Auzoz-auzo joango gara, 1950 eta 1980 urteen artean eraiki ziren etxebizitza blokeen artean gehien errepikatzen direnak deskribatuz eta horien etxebizitza barrualdeak aztertuz.


### 3.2.2.1 Alaberga

Alabergan etxe-tipo nagusi bat dago, solairuaren edo bloke motaren arabera aldatuz doana. Azterketa honetarako tipologia horren hiru bariazio ezberdin hautatu dira: Goi-Alabergako bloke linealetako etxebizitzak; Behe-Alabergako bloke linealetako etxebizitzak (eremu lauaren eta parkearen arteko muga egiten dutenak); eta Behe-Alabergako etxe-irletako linealetako etxebizitzak.



35. irudia. Alabergako etxebizitza tipologia errepikakorrenak adierazten dituen planoak. Gorriko bloke linealak. Iturria: egileek egina.

## Goi-Alabergako bloke linealak



36. irudia. Goi Alabergako etxebizitzaren lehenengo solairuaren oin-planoa.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Artxibo Nagusia.

Goi Alabergako blokeen deskribapena Alaberga 68, 69 eta 70 zenbakien artxiboko dokumentazioan oinarrituko dugu<sup>88</sup>. Mota horretako zazpi bloke daude auzoan. Hormarte bikoitzak dituzte, fatxadek ipar-mendebalde eta hego-ekialde orientazioa daukate eta maldari elkarzut ezarrita daude. 7,7 metroko sakonera dute, eta behe-solairuaren gainean bi edo hiru solairuko altuera. Izan ere, blokeak hiru atari ditu, muturretako atarietan hiru solairu eta zentroko atarian bi. Jarraian, bloke horren lehenengo solairuko etxebizitza-tipoa deskribatuko dugu.


7,7 metroko sakonera eta 9,4 metroko zabalera dauka etxeak. Ataritik sartu eta atondo bat dago, logela batera, komunera eta egongelara sarrera ahalbidetzen duena. Barrurago, egongelatik, sukaldera eta gainontzeko bi logeletara heldu daiteke. Guztira beraz, hiru logela ditu etxebizitzak. Komuna eta sukaldea bata bestearen ondoan daude, fatxada berean. Iskinetako sarreretako etxebizitzek balkoia dute egongelan, eta zentroko tipologiek ez dute balkoirik, horren ordez, gela handiago bat dutelarik.

Etxebizitzak kaletik begiratzean ikusi daiteke nola erdiko ataritik sarrera duten etxebizitzak berdinak diren solairu guztietan; eta iskinetako etxebizitzak aldiz,

88 EAE-HAAN - EBCIO-00299.

aldatzen doazen solairuz solairu. Batzuen eta besteen arteko ezberdintasun nagusia balkoia da, iskinetako etxebizitza guztiek balkoia baitute (kokapen eta tamaina ezberdinekin bada ere), eta zentrokoek ordea, ez.

### Behe-Alabergako bloke linealak




37. irudia. Behe Alabergako bloke linealetako etxebizitzaren lehenengo solairuaren oin-planoa.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Artxibo Nagusia.

Behe-Alabergako bloke linealek behe solairuan eta gaineko hiru solairuetan etxebizitzak dituzte, eta duten berezitasun nagusia zera da: mendi magalaren kontra eraikita daudela, eta ondorioz, behe solairuko etxebizitzek fatxada bikoitza izan beharrean fatxada bakarra dutela. Horrez gain, behe solairuko etxebizitzek atari propioa dute, gainontzeko solairuetako etxebizitzaren kontrako fatxadan. Behe-solairuko etxeetara fatxada nagusitik sartzen den bitartean, gaineko etxebizitzetarako sarrera parkeari begira dagoen fatxadan dauden atarietatik ematen da.

Baldintza horrek behe solairuko etxebizitzaren banaketa ere baldintzatzen du, eta horiek dira jarraian deskribatuko ditugunak. Etxebizitza oso estuak dira, 7,7 metroko sakonera daukate eta 3,5 metroko zabalera. Espazioen banaketa ere aurretik ikusitakoaren ezberdina da. Atari indibidualetik sartu eta etxea eskuma eta ezkerrean zabaltzen da. Atondotik eskumara komunera, sukaldaria eta gela baterako sarrera dago. Atondotik ezkerrean gela bat dago, hortik biga-

rren gela batera heldu daiteke eta azken horretatik hirugarren batera. Planoan altzariak marraztuta ez dauden arren, imajinatu daiteke ezkerraldeko lehenengo gela egongela dela, eta bukaerakoa logela bat. Kasu honetan, fondoaren tainak gutzit baldintzatzen du geletarako sarrera, gela batera ondoko gelatik sartzera behartuz.

### Behe-Alabergako etxe-irlak



38. irudia. Behe-Alabergako etxe-irletako etxebizitzaren behe solairuaren oin-planoa.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia.

Behe-Alabergako blokeek etxe irla zabalak osatzen dituzte, bloke linealen gehikuntza bezala irakur ditzakegunak. Behe solairuan eta gaineko hiru solairuetan etxebizitzak dituzte, eta aurretik azaldutako Goi-Alabergakoen banaketa oso antzerakoa dute. Ezberdintasun bakarra zera da: behe solairuko etxebizitzek ez dutela balkoirik, kale kotan baitaude.


#### 3.2.2.1 Galtzaraborda

Auzoko bi etxebizitza tipologia errepikakorrenak hurrengoak dira: lau solairuko bloke linealak eta H oin-planta duten blokeetako etxebizitzak. Jarraian etxebizitza bloke horien ezaugarriak aztertuko ditugu, Errenteriako Udaleko Artxiboko dokumentazioan oinarrituta.



39. *irudia*. Galtzarabordako etxebizitza tipologia errepikakorrenak adierazten dituen plano. Gorriz bloke linealak eta morez H formadun oinplanta duten blokeak. Iturria: egileek egina.


## Bloke linealak




PLANTA DE SEMI-SOTANO

40. *irudia*. Bloke linealen behe solairuaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.





41. irudia. Bloke linealen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



42. irudia. Bloke linealen zeharkako ebaketaren plano. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.


Parke kaleko 25 zenbakiaren artxiboko dokumentazioan oinarrituta, auzoko bloke linealen konfigurazioa deskribatuko dugu<sup>89</sup>. Mota honetako 36 bloke daude auzoan, 1972 eta 1976 urteen artean eraikiak. Hormarte bikoizdun blokeak dira, kasu gehienetan iparralde-hegoalde orientazioa dutenak, eta maldaren norabideari elkarzut kokatuak. 8,6 metroko hormartea dute, eta behe-solairuaren gainean lau solairuko altuera. Estalki inklinatua dute, bi isurialdeko teilatuarekin, eta atari bakarra. Blokeak elkarri atxikitako modulu ezberdinez

osatuta daude. Kasu batzuetan modulu bakarrak osatzen du blokea, baina gehienetan, bi eta sei moduluren arteko atxikimenduak sortzen ditu blokeak. Jarraian, aipatutako oinarrizko modulua aztertuko dugu.


Modulu bakoitzak atari bakarra dauka, eta ataritik etxebizitzetarako komunikazioa eskailera bitartez egiten da. Solairu bakoitzean bi etxebizitzetara sarrera dago. Behe-solairua aztertuz, ikusi daiteke nola bere sakonera gaineko solairuena baino txikiagoa den, 2 metro inguruko zabalera duen arkupea baitauka fatxada nagusian. Hor kokatzen dira bi lokal komertzial eta zortzi trasteleku. Izan ere, behe solairuak fatxada bakarra dauka, atzealdea maldaren kontra baitago.

Etxebizitza tipologiari dagokionez, esan bezala, 9,5 metroko sakonera dauka eta 9,1 metroko fatxada-luzera. Ondorioz, 86,5m<sup>2</sup> inguruko azalera eraikia dauka. Banaketari erreparatuz, ataritik etxebizitzara sartu eta atondoak gela guztietara sarrera ahalbidetzen du. Sartu eta alde batera komuna eta sukalde daude, eta ondoren, beste 4 gela, 3 logela eta egongela bakar bezala aurreikusiak. Etxeak hiru balkoi ditu: bata sukaldean, eta beste biak logela banatan.

## H oinplantadun dorreak




43. irudia. Dorreen behe solairuaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



44. irudia. Dorreeen solairu-artearen oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



45. irudia. Dorreeen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



46. irudia. Dorreen zeharkako ebaketaren planoak. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Mota honetako 24 bloke daude auzoan, eta oso antzekoak diren arren, bariazio txikiak dituzte haien artean: solairu kopurua, leihoen kokapena, edo kasu bal-koiaren diseinua, besteak beste. Parke kaleko 24 eta 30 zenbakietako proiektuen dokumentazioan oinarrituta, dorre hauen ezaugarriak deskribatuko ditugu.

“H” formadun oin-planta duten dorreak dira, zortzi fatxada dituztenak: lau fatxada nagusi, eta bi patio irekitara begira dauden beste 4 fatxada. Fatxaden guztizko tamaina 20 x 20 metrokoa da. Blokeek ez dute altuera homogeneorik, eta kokapenaren arabera, blokeak altuagoak edo baxuagoak dira. Gune baxuenetan kokatuak dira altuenak (Parke kaleko 24, 26, 28 eta 30 zenbakiek adibidez 12 eta 14 solairu bitartean dituzte); Urdaburu parkearen inguruan daudenek 8 eta 11 solairu bitartean dituzte, eta maldan gorago daudenek bost eta zortzi solairu artean. Maldan kokatutako blokeak izanik, kasu gehienetan, kaletik sarrera bat baino gehiago daukate, eta horien artean, solairuarteak daude. 46. irudian blokearen ebaketa ikusi dezakegu, eta hor ondo ikusten da nola blokeak maldan ezartzean solairuarte konplexuak sortzen diren.

Blokeen barrualdea aztertuz, ikusi daiteke komunikazio nukleo bakarra dutela, eskailera eta bi igogailurekin. Behe solairuan ataria eta lokalak daude; 1. eta 2. solairuetan etxebizitza bakarra dago, eta gainontzeko espazioan lokalak

daude; 3. solairuan bigarren atari bat eta lau lokal daude, eta hortik gorako solairuetan etxebizitzak daude. Artxiboko dokumentazioan etxebizitza solairuen oin-tipoa aurkitu ez dugun arren, gainontzeko oin-plantak aztertuz, ulertu daiteke 3. solairutik gora, solairuko lau etxebizitza daudela.

45. irudiko planoan ikusi dezakegunez, etxebizitzek bi fatxada dituzte, bata besteari elkarzut daudenak, 9 metroko luzerakoak. 77 m<sup>2</sup> inguruko azalera dute. Banaketari erreparatuz, ikusi dezakegu nola, etxebizitzara sartu eta “L” formadun korridore batek gela guztietara sartzeko aukera ematen duen. Sarre-raren alde batera komuna eta sukaldea daude, azken hau, jangela bati atxikia. Ondoren, lau gela daude logela bezala aurreikusiak. Etxebizitzak bi balkoi ditu: bata jangelan, eta bestea logeletako batean. Bigarren hori arropa-lehortegi bezala aurreikusita dago, eta fatxada-lerrotik 2,8 metro sartuta dago.


### 3.2.2.1 Beraun

Beraunen bloke mota bat errepikatzen da nabarmen: H formadun oin-planta duten blokeak, bata bestearen segidan jarriz luzerako blokeak sortzen dituztenak. Oinarrizko konfigurazio horretatik abiatuta, bi bloke aldaera dira nagusi: komunikazio nukleo bakoitzean solairuko lau etxebizitza dituztenak, eta solairuko hiru dituztenak. Jarraian dator bloke mota bakoitzaren deskribapena.




47. irudia. Beraungo etxebizitza tipologia errepikakorrenak adierazten dituen planoan. Gorritz bloke linealak eta morez H formadun oinplanta duten blokeak. Iturria: egileek egina.


## H oinplantadun blokeak solairuko lau etxebizitza dituztenak



48. irudia. Blokeen behe solairuaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



49. irudia. Blokeen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



50. irudia. Blokeen zeharkako ebaketaren planoak. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Mota honetako 23 eraikin daude, H oinplantadun 63 moduluz osatuak. Bloke mota honen kasuan, guzti-guztiak ez dira berdinak, eta balkoiaren formaren eta azaleraren arabera, bi azpialdaera daude: batzuek 81,66 m<sup>2</sup> dituzte eta fatxada nagusi osoa alderik-alde zeharkatzen duen balkoia daukate; eta besteek balkoi txikiagoa izateaz gain, 69,91 m<sup>2</sup> dituzte, aurrekoak baino 12 m<sup>2</sup> inguru gutxiago. Aldaketa hori gorabehera, etxebizitzaren oinarrizko distribuzioa berdina da, eta baita materialtasuna eta estetika ere.

H formatadun modulu hori modu isolatuan edo bata bestearen segidan kokatuta topa dezakegu auzoan, baina kasu gehienetan, binakako eta launakako taldeetan proiektatu dira. Izan ere, oinarrizko moduluaren diseinuak blokeen atxikipena ahalbidetzen du, blokeen artean patio itxi edo irekiak sortuz.

Oinarrizko moduluaren azterketan zentratzen bagara, ikusi dezakegu blokeak bi fatxada nagusi dituela, eta bigarren mailako beste lau fatxada, kasu batzuetan patio bilakatzen direnak moduluen eransketagatik, eta besteetan, zelosia batez itxi eta erdi-irekita geratzen direnak. Edonola ere, kalera begiratzen duten bi fatxada ditu blokeak, 19,2 metroko luzeradunak. Estalki inklinatua dauka, kasu batzuetan bi isurkiko estalkiarekin, besteetan lau isurkirekin. Blokeek ez dute altuera homogenezorik, eta kokapenaren arabera, bloke altuago edo baxuagoak eraiki dira, bost solairutik hamaika solairu arteraino doazenak. Bloke baxuenak auzoaren mendebaldean dauden bitartean (ingurune altuean), bloke altuenak ekialdean daude, maldak beheara egiten duen eremuan. Galtzarabordako dorreekin gertatzen zen bezala, bloke hauek ere, eremu maldatsuan ezarrita daude, desnibel handiago edo txikiagoa duen lurzoruan. Ondorioz, askotan, kaletik sarrera bat baino gehiago daukate (kale-kota bakoitzari dagokiona), eta atariaren eta etxebizitzak soilik dituzten solairuen artean solairuarteak sortzen dira, non lokalak edo trasteroak dauden etxebizitzekin batera. Deskribatzen ari garen modulu bakoitzak komunikazio nukleo bana dauka, eskailera eta igogailuarekin, solairu bakoitzean 4 etxebizitzara sarrera ahalbidetzen duena.

Etxebizitzaren banaketa aztertzen badugu, zera ikusi dezakegu: etxebizitzara sartu eta atondotik, etxebizitzako gainontzeko geletara sarrera ematen duen korridore bat hasten da. Atondoan bertan, sarrera atearen parean, esekileku semi-ireki batera irteera dago. Korridorea jarraituz, komuna eta sukaldea daude bata bestearen ondoan, eta ondoren, egongela eta hiru logela. Aurretik aipatu bezala, fatxada alderik-alde zeharkatzen duen balkoia dauka etxebizitzak, sukaldetik, egongelatik eta logela batetik kanpoaldera irteteko aukera ematen duena. Etxe-

bizitzek beraz, orientazio nagusi bat dute, balkoidun fatxadaren orientazioa, eta beste aldetik, 4,2 metroko zabalera duen patio batera ematen dute gelek. Patio hori bi moduluren arteko atxikipena ematen denean, patio itxi bilakatzen da; eta ondoan beste modulurik ez badu, patioa zelosia batez erdi-itxita geratzen da, bentilazioa ahalbidetuz baina nolabaiteko itxitura emanez.

Balkoi txikiagoa duen modulu-tipoaren kasuan, 1 x 4 metroko kanpo espazio pribatua dute etxebizitzek, sukaldetik eta egongelatik irteera duena.

### H oinplantadun blokeak solairuko hiru etxebizitzita dituztenak



51. irudia. Blokeen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Mota horretako zortzi bloke daude auzoan, bakoitza H oinplantadun bi moduluz osatua. Kasu honetan, eraikin bakoitzak bi komunikazio nukleo ditu, solairu bakoitzean hiru etxebizitzara sarrera ahalbidetzen dutenak. Blokea hauek ez dira bata besteari atxikitzen, eta leihoak dituzte lau fatxada nagusietan.

Etxebizitzen barne banaketei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu aurretik deskribatutako ena berdinak direla, bariazio oso txikiekin: sukalde eta komunaren arteko hormaren alineazioa, leihoen tamainak, patiora ematen duten leihoen kokapena, sarreraren parean dagoen logelaren tamaina, eta esekilekura irteten den atearen kokalekua. Aipatutako ezberdintasunaz gain, bloke hauen gainontzeko ezaugarriak aurreko puntuan azaldutako ena berdinak dira.




### 3.2.2.1 Kaputxinoak

Kaputxinoetan bi bloke tipologia errepikatzen dira gehien bat: 70eko hamarkadako bloke linealak eta 70eko hamarkadako dorreak. Hurrengo lerroetan, etxebizitza bloke horien ezaugarri tipologikoak aztertuko ditugu, Errenteriako Udaleko Artxiboko dokumentazioan oinarrituta.




52. irudia. Kaputxinoetako etxebizitza tipologia errepikakorrenak adierazten dituen planoak. Gorriz bloke linealak eta urdinez dorreak. Iturria: egileek egina.

### Bloke linealak



53. irudia. Bloke linealen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



54. irudia. Bloke linealen zeharkako ebaketaren planoak. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Versalles kaleko 12, 14 eta 16 zenbakien artxiboko dokumentazioan oinarrituta<sup>90</sup>, Kaputxinoetako bloke linealak deskribatuko ditugu. Horrelako sei bloke daude auzoan, 1972 eta 1976 urteen artean eraikiak. Hormarte bikoizdun blokeak dira, iparralde-hegoalde orientazioarekin maldari elkarzut ezarriak. 8,2 metroko sakonera dute eta lau solairuko altuera. 48. irudian ikusi daitekeenez, behe solairuaren azpian erdisoto bat dago trastelekuak dituen. Blokeek estalki inklinatua dute, lau isurialdeko teilatuarekin.


Bloke bakoitza elkarri atxikitako modulu ezberdinez osatuta dago. Kasu batzuetan, bi modulu gehituz sortzen dira eraikinak; besteetan, hiru moduluren batuketaren ondorio dira. Blokeak sortzen dituen oinarritzko modulua aztertuko dugu jarraian.

Modulu bakoitzak atari bakarra dauka, solairu bakoitzean bi etxebizitzetara sarrera ahalbidetzen duena. Jatorrizko diseinuan, komunikazio nukleoan eskailerak baino ez daude. Etxebizitzek 85 m<sup>2</sup> inguru dituzte, eta komun batez, sukaldiaz, egongelaz, eta hiru logelaz osatuta daude. Etxebizitzara sartu, eta korridore batek gela guztietarako sarrera bideratzen du. Sarreraren parean sukaldia eta komuna daude (bakoitza alde banatarra), eta ondoren egongela eta hiru logelak kokatzen dira. Etxebizitzek arropa eskegitzeko kanpo espazioa dute komunean, zelosia batez erdi-itxita dagoena; eta horrez gain, balkoia ere badute iparralderako orientazioa duen fatxadetan. Planoan horrela adierazita ez


90 EUA - AA C 412 E 2.

dagoen arren, balkoiak alderik alde zeharkatzen du iparraldeko fatxada, alde horretako gela guztiek kanpo-espaziora irteteko aukera ematen dutelarik.

### Balkoidun dorreak




55. irudia. Dorreen behe solairuaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



56. irudia. Dorreen solairuartearen oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa



57. irudia. Dorreen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



58. irudia. Dorreen zeharkako ebaketaren planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Hurrengo deskribapena Sorgintxulo kaleko 9 eta 11 zenbakien artxiboko dokumentazioan oinarritu dugu<sup>91</sup>. Horrelako zortzi bloke daude auzoan, 1970 eta 1975 urteen artean eraikiak. Lau fatxadadun eraikinak dira, fatxadako 16,44 metro dituztenak. Bi isurialdeko estalki inklinatua dute, petril batez ostondua da-

91 EUA - AA C 409 E 2.

goena, eta behe solairuaren gainean 13 eta 16 solairu arteko altuera dute. Ikusi ditugun beste dorre batzuekin alderatuta, hauek zera dute bereizgarri: behe solairuaren eta etxebizitzak dituen lehenengo solairuaren artean, “portxea” deritzoten plataforma bat daukatela. Plataforma horrek dorreen behe solairuak bateratzen ditu eta kaleari jarraikortasuna ematen dio. Horrela, dorrek duten altuera arindu egiten du, oinezkoen eskalara pentsatutako fatxada jarrai bat osatuz.

Hori horrela, behe solairuan eraikineria ataria egoteaz gain, lokal komertzialak daude. Solairuartea dagoen kasuetan, bulegoentzako espazioa dago; eta horren gaineko solairua “portxea” deritzona izango litzateke, non etxebizitzetara heltzeko bigarren atari bat dagoen. Solairu horretatik gora etxebizitza solairuak daude. Dorre bakoitzak komunikazio nukleo bakarra dauka, bi igogailuk eta eskailerek osatua, eta komunikazio nukleoaren alde banatara, 1,32 x 1,5 metroko patio txiki bat dago, komunen bentilazioa ahalbidetzen duena.

Solairu bakoitzean lau etxebizitza daude, 69,41 m<sup>2</sup>-ko azalera dutenak. Etxebizitza bakoitzak bi fatxada eta bi orientazio elkarzut ditu, 8,22 metroko luzerakoak. Sarbide atetik sartu, eta atondo luzanga batek etxeko gela guztietara sarrera ahalbidetzen du. Sarreraren alde banatara komuna eta logela bat daude, eta aurrera jarraituz, sukalde-egongela eta beste bi logela aurki daitezke. Sukalde-egongelan etxeko balkoi bakarra dago

### Balkoirik gabeko dorreak



59. irudia. Dorreen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Basanoaga kaleko 4 eta 8 zenbakiak tipologia hau jarraitzen dute, eta beren artxiboko dokumentazioan oinarrituta balkoirik gabeko dorreen deskribapena egingo dugu<sup>92</sup>. Halako hiru bloke daude auzoan, 1967 eta 1973 urteen artean eraikiak. Hiru dorreak itxuraz berdinak diren arren, artxiboko dokumentazioa aztertuta, ikusi daiteke nola bi proiektu-bertsio egin ziren lehenengo dorrea eta hurrengo biak eraikitzeko. Lehenengo dorrea 1967an eraiki zen banaketa diseinu bat baliatuta, eta beste biak 1973an eta 1976an eraiki ziren, aurreko proiektuaren banaketa diseinu erreformatuarekin (hala adierazten da planoen izenean). Hala ere, hiru eraikinen egiturazko ezaugarriak berdinak dira.

Lau fatxadadun eraikinak dira, 23,96 x 17,70 metroko fatxadekin, eta bi isurialdeko estalki inklinatua dute, petril batez ezkutatua. 13 eta 15 solairu arteko altuera dute, eta behe solairuan lokal komertzialak daude. Behe solairu honek duen berezitasuna zera da, perimetro osoa fatxadaz itxia eduki beharrean, igarobideak dituela dorre azpitik alderik alde igarotzeko, eta ataria eta lokal komertzialetara sarrera pasabide horietan kokatuta daudela. Egun, pasabide horietako batzuk itxita daude bertan bizi diren bizilagunek erabakita. Dorre bakoitzak komunikazio nukleo bakarra dauka, bi igogailuk eta eskailerek osatua, eta solairuko lau etxebizitza daude.

Etxebizitzen barne-banaketari erreparatuz, lehenengo bertsioa (Basanoaga 4 zenbakiari dagokiona) honela deskribatu dezakegu: 92,97 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia duten etxebizitzak dira, elkarzut dauden bi fatxadarekin, 10,78 eta 8,85 metroko luzerakoak. Sarbide atetik sartu, eta atondo luzanga batek bi logelatarako sarbidea ematen du, bakoitza alde banatara kokatua. Aurrera jarraituz, korridore txiki batera igaro daiteke, eta hemendik egongela, logela batera, sukaldera eta komunera sartu. Laugarren logelara egongelatik sartzen da. Horrez gain, erdi-irekita dagoen gela bat dago, “solana” deritzona.

Bigarren bertsioa (Basanoaga 8 zenbakiari dagokiona) honela deskribatu dezakegu: 100 m<sup>2</sup> inguruko azalera eraikia duten etxebizitzak dira. Aurreko banaketarekin dagoen alde nagusia zera da: logela guztiek dutela sarrera espazio komunetatik; komun bakarra beharrean bi komun daudela; eta kanpo espazio txikiagoa daukatela.


---

92    EUA - AA C 408 E 1.


### 3.2.3. Mugimendu Modernoak sortutako etxebizitza prototipoen isla auzoetako etxebizitza tipologia nagusietan

Ikerketaren 2. atalean Mugimendu Modernoaren premisak gorpuzten zituzten zenbait etxebizitza prototipo ezagutu ditugu, bai nazioartean eta bai Espainian XX. mendean zehar eraiki diren hainbat etxebizitza diseinatzeko eredutzat baliatu direnak. Errenterian ere topa ditzakegu prototipo horietan oinarritutako etxebizitza blokeak, eta baita aztergai ditugun lau auzoetan ere. Hurrengo orrialdeetan Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoetan 1950 eta 1980 urteen artean eraiki ziren etxebizitza tipologiaren artean, errepikakorrenak diren horiek Mugimendu Modernoak sortutako prototipoekin lotuko ditugu. Ikusiko dugunez, kasu batzuetan, ia bere horretan topa ditzakegu 20ko hamarkadan diseinatutako prototipoak gure auzoetan eraikiak. Hala ere, antzekotasunak programari dagozkionak dira, estetikoki eta materialki oso gure auzoetako eraikinek ez baitute antzik mende hasieran proiektatutako bloke arrazionalistekin.


#### Weissenhof auzoa, Stuttgart (Mihes van der Rohe, 1927)



60. irudia. Weissenhof auzoko bloke baten argazkia eta etxebizitza baten barne-banaketa.  
Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.



61. irudia. Gai-Alabergako etxebizitzaren lehenengo solairuaren oin-planoa.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia<sup>93</sup>.



62. irudia. Behe-Alabergako etxebizitzaren behe solairuaren oin-planoa.  
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia<sup>94</sup>.

93 EAE-HAAN - EBCIO-00299.

94 EAE-HAAN - EBCIO-00299.





63.irudia. Galtzarabordako bloke linealen solairu-tipoaren oin-planoa.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



64. irudia. Kaputxinoetako bloke linealen solairu-tipoaren oin-planoa.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Egingo dugun lehenengo konparazioak Mihes van der Roheren Weissenhof auzoko blokeak hartuko ditu erreferentziatzat. Eredu horren kopia oso antze-koak aurki ditzakegu Alabergan, Galtzarabordan eta Kaputxinoetan. Hurren-

go taulan, aztergai ditugun auzoetako etxebizitza bloke ezberdinen ezaugarriak Weissenhof auzoko blokeekin konparatu ditugu.

Weissenhof auzoko etxebizitzaren eta aztergai ditugun auzoetako zenbait blokeren ezaugarrien arteko konparaketa taula. Iturria: egileek egina.

Proiektua	Solairu kopurua	Hormarte zabalera	Solairuko etxebizitza kopurua	Etxebizitzaren azalera	Etxebizitzaren gelak
Weissenhof auzoa (1927)	4	9 m	2	81 m <sup>2</sup>	Egongela-jangela Sukaldea Komun 1 2 logela Balkoi 1
Goi Alabergako blokeak (1952)	3/4	7,7 m	2	72 m <sup>2</sup>	Jangela Sukaldea Komun 1 3 logela Balkoi 1
Behe Alabergako blokeak (1952)	4	7,7 m	2	68 m <sup>2</sup> <sup>95</sup>	Jangela Sukaldea Komun 1 2 logela Balkoi 1
Galtzarabordako bloke linealak (1962)	4	8,6 m	2	78 m <sup>2</sup>	Jangela Sukaldea Komun 1 3 logela 3 balkoi
Kaputxinoetako bloke linealak (1971)	4	8,2 m	2	85 m <sup>2</sup>	Egongela Sukaldea Komun 1 3 logela Balkoi 1

Bloke bakoitzaren ezaugarriak ereduarekin konparatuz, ikusi dezakegu nola altuera ia kasu guztietan lau solairukoa den (Goi Alabergako blokean ez ezik,

95 Behe Alabergako etxebizitza guztiek ez dute azalera bera, bariazioak daude. Baina 68 m<sup>2</sup>-ko azalera duena da gehien errepikatzen den etxebizitza tipologia.

altuera aldakorra baitauka). Kasu guztietan, ataritik solairuko bi etxebizitzata-  
ra ematen da sarrera, eta bloke batek ere ez du igogailurik. Hormarteari dago-  
kionez, bariazioak daude. Miesen eredua da hormarte zabalena daukana, gure  
auzoetako blokeen hormarteak 7,7 eta 8,6 metro artean daudelarik. Etxebizi-  
tzen azaleran eta programan ere bariazioak daude, ereduak bi logela baititu  
eta Behe Alaberako blokeetan ez ezik, gainontzekoek hiru logela baitituzte.  
Programa eta azalera aintzat hartzen baditugu, ikusi dezakegu nola Miesen  
eredua zabaltasun handiena duen etxebizitza den, 81 m<sup>2</sup>rekin bi logeladun  
etxea egiten baitu. Kaputxinoetako bloke linealetan, atzeko azalerarekin hiru  
logela proiektatzen dira, eta Alabergan eta Galtzarabordan azalera txikiagoe-  
kin bi edo hiru logeladun tipologiak daude.

Konparatu ditugun blokeen artean bariazio txikiak dauden arren, aztergai di-  
tugun auzoetako bloke linealak Weissenhof auzoan Miesek eraikitako etxebi-  
zitza tipologian oinarrituta daudela esan dezakegu.


### Nirvana Flats, La Haya (J. Duiker, 1927-1930)



65. irudia. Nirvana Flats eraikinaren solairu tipoaren barne-banaketa.  
Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.



66 irudia. Kaputxinoetako dorreen solairu-tipoaren oin-planoa, Sorgintxulo 9-11.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



67. irudia. Kaputxinoetako dorreen solairu-tipoaren oin-planoa, Basanoaga 8.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Erreferentziatzat hartuko dugun bigarren eredua La Hayako Nirvana Flats proiektua izango da. Etxebizitza bloke horren kopia oso antzekoak aurki ditza-kegu Kaputxinoetan. Kaputxinoetako bi dorre tipologia nagusien ezaugarriak Nirvana Flats blokearekin konparatu ditugu.

Nivana Flats eraikinaren eta aztergai ditugun auzoetako zenbait blokeren ezaugarrien arteko konparaketa taula. Iturria: egileek egina.

Proiektua	Solairu kopurua	Hormarte zabalera	Solairuko etxebizitza kopurua	Etxebizitza azalera	Etxebizitzaren gelak
Nirvana Flats (1927)	7	25 x 22 m	4	145 m <sup>2</sup>	Egongela-jangela Sukaldea Komun 1 3 logela 2 balkoi
Kaputxinoetako Sorgintxuloko dorrea (1968)	13 - 16	16,4 x 16,4 m	4	69 m <sup>2</sup>	Sukalde-jangela Komun 1 3 logela Balkoi 1
Kaputxinoetako Basanoagako dorrea (1973)	13 - 15	24 x 17,7 m	4	93 m <sup>2</sup>	Egongela-jangela Sukaldea 2 komun 4 logela Esekitoki 1

Kaputxinoetako bi dorre moten ezaugarriak Nirvana Flats proiektuarekin konparatuz, atentzioa deitzen duen lehenengo aspektua altuerarena da. López de Lucio aipatzen zuen eredu honen erreplikak egitean, ohikoena 10-12 solairuko dorreak eraikitzea zela, eta Kaputxinoetan oraindik ere altuagoak diren dorreak eraiki ziren, 13 eta 16 solairu artekoak zehazki. Blokeen zabalerari dagokionez, Nirvana Flats da azalera handiena duen eraikina. Basanoagako dorreak eredu baina zerbait estuagoak dira, eta Sorgintxulokoak nabarmen estuagoak. Horrek eragin zuzena dauka etxebizitzaren tamainetan. Izan ere, hiru dorrek dituzte lau etxebizitza solairu bakoitzeko, ondorioz, Nirvana Flats-eko etxebizitzak Kaputxinoetakoak baino nahiko handiagoak dira. Sorgintxuloko dorreen azalera ereduaren erdia baino txikiagoa da, eta Basanoagakoena haren bat txikiagoa gutxi gorabehera. Azalera ezberdintasun handia egon arren, etxebizitzaren programa ez da erabat ezberdina. Sorgintxuloko dorreak hiru logela eta komun bakarra ditu, ereduak bezala, baina sukaldea eta jangela gela berean konbinatzen ditu. Basanoagako dorreak, aldiz, bi komun eta lau logela ditu, ereduak baino komun bat eta logela bat gehiago.

Konparatu ditugun blokeen errotiko planteamendua berdina da, hots: dorre ia-karratuak dira, altueran hazten dira, komunikazio nukleo bakarria dute eskailera eta igogailuarekin, eta solairuko lau etxebizitza dituzte. Hala ere, nabarmena da nola Kaputxinoetako dorreak errendimendu ekonomiko handiagoa

lortzeko helburuaz formulatu diren, eraikin bakarrean etxebizitza kopurua bikoiztu egiten baita solairuak handituz, eta etxebizitzak askoz ere txikiagoak baitira programa ereduarekiko nabarmen aldatzen ez den arren.


### Moratalazgo etxebizitza sozialak, Madril (A. Dominguez Salazar, 1958)



68. *irudia*. Moratalazgo eraikinaren solairu tipoaren barne-banaketa.  
Iturria: Vivienda colectiva, espacio público y ciudad.



69 *irudia*. Galtzarabordako dorreen solairu-tipoaren oin-planoa.  
Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.



70. irudia. Beraungo blokeen solairu-tipoaren oin-planoa. Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa.

Aztergai ditugun auzoetan aurki dezakegun hirugarren bloke eredua Espainian oso hedatua dagoen H oina daukan bloke askea da, Moratalazgo etxebizitza sozialetan topa dezakeguna. Bai Galtzarabordako dorreen eta bai Beraungo blokeen oin planta aztertzen badugu, konturatuko gara H forma hori daukate-la. Horien ezaugarriak Moratalazgo etxebizitzekin konparatu ditugu.

Moratalazgo etxebizitza sozialen eta aztergai ditugun auzoetako zenbait blokeren ezaugarrien arteko konparaketa taula. Iturria: egileek egina.

Proiektua	Solairu kopurua	Hormarte zabalera	Solairuko etxebizitza kopurua	Etxebizitzen azalera	Etxebizitzaren gelak
Moratalazgo etxebizitza sozialak (1958)	5	15 x 20 m	4	56 m <sup>2</sup>	Egongela Sukaldea Komun 1 3 logela Balkoi 1
Galtzarabodrako dorrea (1964)	5 - 11	20 x 20 m	4	77 m <sup>2</sup>	Egongela Sukaldea Komun 1 3 logela Esekitokia
Beraungo blokeak (1971)	5 - 11	19 x 22 m	3 - 4	82 m <sup>2</sup>	Egongela Sukaldea Komun 1 3 logela Balkoi 1 Esekitokia

Taulako datuak aztertzean, kasu honetan ere altuera da azpimarra dezakegun lehenengo bariazioa. Moratalazgo blokeek bost etxebizitza solairu dituzten bitartean (lehenengoa behe solairuan kokatuta dago), Galtzaraborda eta Beraungoek 5 eta 11 solairu artean dituzte, eta behe solairuetan lokal komertzialak. Ondorioz, Madrilgo blokeek jatorriz igogailurik ez duten bitartean, Beraun eta Galtzarabordakoek eskailerak eta igogailua dituzte komunikazio nukleoan. Aipa dezakegun beste ezberdintasun bat H moduluak elkarri itsasteko modua da. Moratalaz auzoan H oin-plantadun moduluak modu ezberdinetan atxiki dira: H moduluen bi mehelinitsuak batuz, mehelinetakoko bat ondoko moduluaren patioarekin batuz, edo hiruzuloka, hots, H moduluak mehelinbakarraren bitartez atxikiz. Galtzarabordan, Madrilen bezala, hiruzuloka, edo bi mehelinetatik atxikita kokatu dira blokeak, baina baita modu isolatuan ere. H moduluaren tamainari dagokionez, Moratalazgoak baino zerbait handiagoak dira Galtzaraborda eta Beraungo blokeak. Ondorioz, etxebizitzak nabarmen handiagoak dira Errenteriako bi auzo hauetan. Etxebizitzen programak konparatzen baditugu aldiz, hiru adibideek dituzte gela kopuru oso antzekoak: komun bakarra, hiru logela, sukaldea eta egongela. Errenterian esekitokia ere gehitu zaio banaketari.

Galtzaraborda eta Beraungo blokeek Moratalazgo eredu jarraitzen dutela baieztatu dezakegu, baina Madrilgo etxebizitzen deribazio trinkoagoak dira Errenteriakoak, lurzoru azalera ia bera okupatuz, etxebizitza kopuru bikoitza sortzera heltzen baitira.



## 4. Auzoen azterketa hirigintza feministaren ikuspegitik

### 4.1 Auzoen deskribapena: biztanleria, hiri-ezaugarriak eta eguneroko bizitza

Atal honetan Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen egun-egoeraren deskribapen eta azterketa egingo dugu, beti ere hirigintza feministaren begiradatik. Horrenbestez, auzotarren eguneroko bizitza garatzeko azpiegitura eta espazioen ezaugarri eta baldintzak ezagutuko ditugu, aurrerago, horien ebaluazio bat egin ahal izateko. Eguneroko bizitzaz ari garenean, produktiboak ez diren eginbeharrak garatzea ahalbidetzen duten hiri-espazio eta azpiegiturak interesatzen zaizkigu bereziki, hots: ekipamenduak, komertzioa, harreman espazioak, kaleak, garraio publikoa, etxebizitzak, eta guzti horiek osatzen duten espazio- eta denbora-sarea. Horregatik, auzo bakoitzeko aspektu horien deskribapena egingo dugu, auzo bakoitzak eguneroko bizitza garatzeko ezartzen dituen baldintzetan sakontzeko.

Auzokako deskribapena hurrengo hiru blokeetan banatu dugu: lehenengoan auzotarren deskribapen soziologiko labur bat egin dugu generoan, adin banaketan, jatorrian, eta bizikidetzan moldean atentzioa jarritz. Bigarren blokean auzoko espazio urbanoak eta etxebizitzak deskribatu ditugu atal hauen arabera: auzoaren antolamendu orokorra eta elementu egiturazailerak, harreman espazioak, komertzioa, ekipamenduak eta etxebizitzak. Etxebizitzen deskribapena egitean, auzoko etxebizitzen inguruko zenbait datu estatistiko eman ondoren, auzo bakoitzeko gehien errepikatzen diren bi-hiru tipologiak sakonean deskribatu ditugu. Hirugarren blokean aldiz, eguneroko bizitzan eta harreman komunitarioetan zentratu gara, auzokideen eguneroko bizitzaren espazioak deskribatuz (auzoaren mugetatik harago doazenak), auzoan bertan egunerokoan espazioak erabiltzeko moldeak azalduz, eta azkenik, elkartegintza eta harreman komunitario egituratuen zerrenda bat eginez.

Hala ere, azterketan murgildu baino lehen, aurreko paragrafoetan aipatu ditugun eta atal honetara ekarriko ditugun zenbait oinarritzko kontzeptu argitu nahi genituzke. Hurrengo kontzeptu eta definizioak Adriana Ciocchetto-ren *Urbanismo para la vida cotidiana* (2014) doktorego tesian eta Collectiu Punt 6-ek tesi horretan oinarrituta egindako *Espacios para la vida cotidiana. Auditoría de Calidad Urbana con perspectiva de Género* (2014) gidan zehazten dira:

Eguneroko bizitza<sup>96</sup>: pertsonak bizitzako hainbat esparrutan dituzten beharrak asetzeko egiten dituzten jardueren multzoa. Jarduera horien barruan sartzen dira zeregin produktiboak, ugalkorrak, politikoak eta komunitarioak. Jarduera horiek euskarri fisiko batean (auzoa, hiria, lurraldea) eta denbora jakin batean gauzatzen dira.

Auzoko eguneroko sarea<sup>97</sup>: auzotarrek eguneroko beharrak asetzeko erabiltzen dituzten harreman espazioez, eguneroko ekipamenduez, komertzioez, garrario publikoko geralekuez eta horiek konektatzen dituzten kaleez osatutako sarea da. Auzo bakoitzeko eguneroko sarea auzoan bertan eta auzoaren mugetatik kanpo zabaltzen da, eta identifikatu beharreko elementua da.

Harreman espazioak<sup>98</sup>: pertsonak beren hiri-ingurunean eguneroko jarduerak egitean elkarreragin dezaketen espazioak dira, batez ere etxea eta beste pertsona batzuk zaintzarekin zerikusia duten jarduerak egitean, sare-komunitarioen eta elkar-laguntza sareak indartzeko aukera emanez. Aisialdirako, jolaserako eta topaketarako guneak ere badira, komunitate bateko pertsonak elkarrekin bizi daitezen, elkar ezagutu dezaten eta bakoitzak gizarteari ematen dion aniztasunaz ikas dezaten. Auzo-eskalako plazak edo espazio irekiak aintzat hartzeaz gain, bestelako espazio txiki eta eskala hurbilagokoak ere hartu dira kontuan, hots: kaleetan bi edo hiru eserleku biltzen dituzten txokoak eta izkinak, edo atarien pean topa daitezkeen publiko eta pribatuaren arteko transizio espazioak.

Eguneroko ekipamenduak<sup>99</sup>: egunero erabiltzen diren eta bizitzako etapa guztietan eguneroko bizitza garatzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko euskarri gisa ezinbestekoak diren ekipamenduak dira. Bizikidetzak, trukea, sozializazioa eta elkarrekiko laguntza sortzen dituen komunitate baten erreferentzia-espazioak ere badira. Eguneroko sarean egon behar duten gutxieneko programak dira, baina ez dute zertan eraikin espezifiko batean egon behar, hau da, premia horietako bati baino gehiagori erantzuten dieten espazio polifuntzionalak egon daitezke. Gutxienekoen zerrenda ere handitu daiteke, auzo edo udalerrri bakoitzaren berezitasunen arabera, baina lan honetan oinarritzotzat jotzen diren ekipamenduak honako hauek dira:

---

96 CIOCOLETTO (2014b), 14. orr.

97 CIOCOLETTO (2014a), 86. orr.

98 *Ibid.*

99 CIOCOLETTO (2014a), 87. orr.

- Udal-arreta-zerbitzua
- Osasun lehen mailako arreta
- Adinekoak zaintzeko espazioa (eguneko zentroa edo antzekoa)
- 0 eta 3 urte bitarteko haurren zaintzarako espazioa
- 3-5 urte arteko Haur-Hezkuntza
- 6-11 urte arteko Lehen Hezkuntza
- 12 eta 16 urte arteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Haur, gazte, heldu eta adinekoentzako gizarte-zentroak
- Kultura-jarduerak dituzten zentroak (kultur-etxea, liburutegia...)
- Jarduera fisikorako espazioak (kiroldegia edo kirola egin daitezkeen lekuak)

Komertzioa<sup>100</sup>: eguneroko komertzioa eta komertzio anitza ezberdinduko ditugu. Eguneroko komertzioa oinarritzko elikagaiak eta etxea zaintzeko premiazko produktuak eskaintzen dituen establezimendua litzateke. Komertzio anitza, aldiz, elikadura eta etxea zaintzearen oinarritzko premiez gain, bestelako beharrak asetzen dituen da: norberaren jantzi eta zaintza beharrak, behar bereziak (hala nola kultura, kirola, etxerako beste elementu batzuk), eta behar sozialak (hala nola tabernak, jatetxeak).

#### 4.1.1 Azterketa eremuaren definizioa

Egungo auzoen hiri ezaugarrien azterketa egiteko, ez gara 1950 eta 1980 urteen artean eraikitako bloke eremuetara mugatu. Auzoen eguneroko funtzio-namenduak hurbiltasunean oinarritutako osotasun logika bat jarraitzen du, eta hurbiltasun horretan dauden garai ezberdinetako eraikuntza eta espazioak barne hartzen ditu. Jarraian, egungo hiri ezaugarrien azterketarako eremua definitzeko emandako pausuak azalduko ditugu.

Abiapuntutzat hartu dugu auzo bakoitzaren sorreraren jatorrian zegoen proiektuak edo Plan Partzialak hartzen zuen esparrua. Paraleloan, indarrean dagoen HAPOak zehazten dituen eremu eta sektoreak kontsultatu ditugu. Bi iturri horiek aintzat hartuta muga batzuk zehaztu ditugu, auzokideekin elkarriketat egiten joan garen heinean moldatu ditugunak. Izan ere, helburua, auzoak eguneroko erabileraren logikatik ulertzea eta definitzea izan da. Eta elkarriketen bitartez egunerokotasun horretan sakontzea ezinbestekoa izan da

---

100 *Ibid.*


auzo bakoitzaren funtzionamendu logikak ulertzeko. Hori horrela, 71. irudian ikusi daitezke aztergai ditugun lau auzoak aztertzeko zehaztutako esparruak.




71. irudia. Auzo bakoitzaren azterketa eremuaren definizio plana. Iturria: egileek egina.

#### 4.1.2 Lau auzoen ikuspegi orokorra: biztanleriaren datu konparatuak

Aztertuko ditugun lau auzoetan murgildu baino lehen, tarte txiki bat hartuko dugu Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako biztanleriaren ikuspegi orokor eta konparatu bat osatzeko.




72. irudia. Errenteriako biztanleria osoa, aztergai ditugun auzoetako biztanleria adieraziz. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



73. irudia. Aztergai ditugun lau auzoetako biztanleriaren emakume eta gizonen proportzioa. Horiz Alaberga, laranjaz Galtzaraborda, gorritz Beraun eta granatez Kaputxinoak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Aztergai ditugun lau auzoetan 14.423 pertsona bizi dira<sup>101</sup>, Errenteriako populazioaren %38,2a. 72. irudian ikusi daitekeen bezala, Alabergan Errenteriako biztanleen %3,3a bizi da, Galtzarabordan %12,2a, Beraunen %14,7a, eta Kaputxinoetan %7,9a. Lau auzoen biztanle kopurua konparatzen badugu, ikusi dezakegun nola auzorik populatuena Beraun den 5.537 biztanlerekin; ondoren Galtzaraborda daukagu 4.627 biztanlerekin; jarraian Kaputxinoak 2.997 biztanlerekin; eta azkenik Alaberga legoke, auzokide kopuru txikiena daukana, 1.262 bizilagunekin. Auzoetako biztanleria totalaren generoari dagokionez, lau auzoetan oso antzekoa da emakume eta gizonen kopurua, emakumeena beti delarik gizonena baino apur bat handiagoa.




74. irudia. Errenteriaren eremu urbanoko eta aztergai ditugun lau auzoetako eta populazio dentsitatea pertsona/km<sup>2</sup>-tan. Berdez Errenteria, horiz Alaberga, laranjaz Galtzaraborda, gorritz Beraun eta granatez Kaputxinoak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

101 Eustat - Euskal Estatistika Erakundea, 2022.


Etxebizitza kopuruari dagokionez, lau auzoetan, guztira, 6.213 etxebizitza daude<sup>102</sup>, Errenteria osoko %38a. Alabergan 570 etxebizitza daude, Errenteriako etheen %3,5a; Galtzarabordan 1.992 etxebizitza, totalaren %12,2a; Beraunen 2.332 etxebizitza, guztizkoaren %14,3a; eta Kaputxinoetan 1.319 etxebizitza, %8,1a.

Auzokako azterketan murgildu baino lehen ezagutzeko interesgarria den beste datu bat dentsitatearena da. 73. irudiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola lau auzoen artean dentsitate baxuena duena Kaputxinoak diren 11.815,96 biztanle/km<sup>2</sup>-ko ratioarekin. Alabergak jarraitzen dio 13591,67 biztanle/km<sup>2</sup>-rekin; ondoren dentsitate nabarmen altuagoarekin (Kaputxinoen bikoitza baino gehiago) Galtzaraborda legoke 24.434,94 biztanle/km<sup>2</sup>-rekin; eta azkenik Beraun, aztergai ditugun lau auzoen artean dentsitua dena, 27.684,45 biztanle/km<sup>2</sup>-rekin (Alabergaren dentsitate bikoitza gutxi gorabehera). Datu horiek Errenteriako eremu urbanoaren dentsitate datuekin konparatzen badiugu, azpimarragarria da Galtzarabordak eta Beraunek duten dentsitate altua, Beraunen dentsitateak Errenteriako eremu urbanoarena ia bikoiztu egiten duelarik.



75. irudia. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako biztanleriaren proportzioa Errenterian eta aztergai ditugun lau auzoetan. Berdez Errenteria, horiz Alaberga, laranja Galtzaraborda, gorri Beraun eta granatez Kaputxinoak. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

102 Eustat, 2022.




76. irudia. Erreterrian eta aztergai ditugun lau auzoetan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako biztanleria. Estatuan jaiotakoen proportzioa ezkerrean, eta atzerrian jaiotakoena eskuman. Berdez Erreterria, horiz Alaberga, laranja Galtzaraborda, gorri Beraun eta granatez Kaputxinoak. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Populazioaren jatorriari dagokionez, 74. irudia begiratuta ikusi dezakegu nola Alabergan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako auzotarren proportzioa Udalerrikoa baino baxuagoa den, baina gainontzeko hiru auzoetan aldiz, nabarmen altuagoa. Udalerrian biztanleen %31,27 EAE-tik kanpo jaiotako den bitartean, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako biztanleen %40 inguru da EAE-tik kanpo jaiotakoa. EAE-tik kanpo jaiotako jatorriari erreparatzen badiogu, 76. irudian ikusi dezakegu nola auzoz auzo aldakorra den proportzioa. Azpimarratzekoa da nola Alabergan EAEtik kanpo jaiotako auzokideen erdia gutxi gorabehera estatuko beste autonomia erkidegoetan jaiotakoa den, eta beste erdia atzerrian jaiotakoa. Beste muturrean Beraun legoke, non EAEtik jaiotako gehiengoak (%78,7) estatuko beste autonomia erkidegoetan duen jatorria, eta soilik %21,3a den atzerrian jaiotakoa.

Atal honetan ezagututako datuek auzo bakoitzaren azterketan murgiltzeko begirada orokor bat ematen digute. Hurrengo orrialdeetan, beraz, Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen azterketa sakonago bat egingo dugu hurrengo aspektuei erreparatuz: biztanleriaren ezaugarriak eta bizikidetzaren moldeak; auzoko hiri-bilbearen, ekipamenduen, komertzioaren, harreman espazioen eta etxebizitzaren ezaugarriak; eta auzotarren eguneroko bizitzaren garapena eta harreman komunitarioak.


### 4.1.3 Alaberga

#### A/ Biztanleriaren ezaugarriak



77. irudia. Alabergako biztanleria urte-tartetan berezia. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Alabergan 1.262<sup>103</sup> pertsona bizi dira, %52 emakumeak eta %48 gizonak. Auzoko biztanleen adin banaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola %14,7 umeak diren (0-14 urte), %5 gaztetxoak (15-19 urte), %16 gazteak (20-34 urte), %46,7 helduak (35-64 urte) eta %17,6 nagusiak (65 urte edo gehiago). Azpimarratzekoa da, nola pertsona nagusien proportzioa Errenteriako batez-bestekoa baino nabarmen baxuagoa den (Errenteriako herritarren %24,1ak ditu 65 urte edo gehiago); eta baita ere, nola umeen proportzioa 2 puntu altuagoa den (Errenterian herritarren %12,7-k ditu 0 eta 14 urte bitartean).




78. irudia. Alabergako biztanleria jaioterriaren arabera berezia. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

103 Eustat, 2022.




Bizilagunen jaioterriari dagokionez, ia hiru laurden (%73,8) Euskal Autonomia Erkidegoan jaioa da, %13,3a Estatuko beste erkidegoetan, eta %12,9a atzerrian. EAEn jaiotako gehienak gipuzkoarrak dira (%98,71). Aipagarria, kasu honetan, EAEn jaiotakoen proportzioa udalerrri osokoa baino altuagoa dela (Errenteriko biztanleen %68,73 jaio da EAEn), eta aldi berean, beste autonomia erkidego batzuetan jaiotakoak ia 7 puntu baxuagoak direla Alabergan (Errenteriako biztanleen %20,18 jaio da beste erkidegoren batean).



79. irudia. Atzerrian jaiotako Alabergako biztanleria nazionalitatearen arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Nazionalitate atzerritarra duten bizilagunen artean aldiz, hurrengo herritar-tasunak dira jendetsuenak: Amerikarrak ia erdiak dira (%46,5a, non %19,8 Hego-Amerikarrak diren eta %26,7 Amerikako gainontzeko lurraldeetakoak). Magreb-go herrialdeetako bizilagunak %19,8a dira, eta Ekialdeko Europakoak %18,3.



80. irudia. Alabergako biztanleria etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopuruaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



81. irudia. Alabergako biztanleria etxebizitzaren jabetza-erregimenaren arabera bereizita. Iturria: egileek eginia EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Etxebizitzarekin eta horri lotutako bizimoldeei buruzko datuei erreparatuta, EUSTAT-en arabera, 2016an auzokideen herena gutxi gora-behera bakarrik bizi zen (%34), herena baino gutxiago bikoteka (%29,3), eta herena baino apur bat gehiago 3 eta 5 pertsona arteko taldean (%36,7). Aldi berean, auzotarren gehiengoak bizitoki duten etxebizitzaren jabe da (%84,5), eta %13,4a alokairuan bizi da.

## B/ Hiri-espazioa eta etxebizitzak

**Antolamendu orokorra: ingurunea, egiturazko elementuak eta etxebizitzaren ezaugarri orokorrak**



82. irudia. Alabergako hiri-bilbearen ardatz eta gune nagusiak. Iturria: egileek eginia.

Eremu lauaren eta maldatsuaren artean ezarritako auzoa da Alaberga, eta ondorioz, orografiak guztiz baldintzatzen du eraikinen eta espazio publikoaren izaera. Baldintza hori abiapuntutzat hartuta, ingurura moldatutako hiri bilbe bezala irakurri dezakegu auzoa, non eraikinen formak tokiaren ezaugarrietara moldatzen diren, eremuaren arabera, hautu tipologiko batzuk edo besteak eginez. Auzoa beraz, bi eremu nagusitan banatuta dago. Malda nabarmena duen gune berde batek banatzen ditu tradizionalki Goiko Alaberga eta Beheko Alaberga bezala ezagutzen direnak (%50 inguruko malda). Beheko Alabergan lurzorua lauagoa da, eta Goiko Alaberga aldiz ingurunea inklinatuago dago. Ondorioz, gune batek eta besteak hiri-antolaketa ezberdina daukate.

Behe-Alabergako hiri-bilbea etxe irlaz eta bloke linealez osatuta dago. Biteri kalearen eta Nafarroa etorbidearen arteko topagunean sortzen den plazaren inguruan egituratzen da hiri-bilbea. Puntu horretatik sortutako bi ardatzek eta zirkulo konzentrikoek hiru etxe irla zabal sortzen dituzte. Etxe irla horiek patio zabalak dituzte, irisgarriak direnak eraikinak zeharkatzen dituzten paso estalietatik. Aipatutako ardatzek malda nabarmena duen eremuarekin topo egitean, etxe irlen eta parkearen arteko muga egiten duten bloke linealen forma definitzen dute. Lautasunaren eta maldaren arteko muga horretan, etxeen artean, auzoko eliza ere kokatzen da. Auzo-sarrerako plaza eta eliza lotzen dituen kalea da behealde honetako arteria nagusia. Izan ere, eliza parean dagoen plazan igogailu publikoa dago, eta horrek auzoko goialdera igotzeko edo inguruko auzoetara heltzeko nahitaezko igarobide bilakatzen du kale hau. Auzoaren behealdean, baina goranzko bidean, “Alabergako plaza” deritzona dago (“Plaza de Alaberga” dioen plakak aditzera ematen duen bezala), eta horren parean, gune honetako azken hiru etxebizitza-bloke linealak daude. Bloke horiek Deikagest Lan Heziketa zentroa inguratzen dute, eta berriro ere, orografiak ezarritako formetara moldatzen dira. Etxebizitza blokeen altuerari dagokionez, eraikinek hiru solairu dituzte eta behe-solairu ia guztietan etxebizitzak daude.

Goiko-Alabergako hiri-bilbea aldiz, orografiara egokitutako bloke linealez osatuta dago bere osotasunean. Etxebizitza blokeak sestra-kurben formetara moldatzen dira, eta kota ezberdinetara dauden kaleak sortzen dituzte. Maldarekiko paraleloan ezarritako ardatzek markatzen dute hiri-bilbea, eta baita auzoaren parte honetan zehar mugitzeko lotura nagusiak ere. Aipatzekoa da 2018an eraiki zen eta auzoa zeharkatzen duen igogailu publikoak zeharkako norabidea indartu duela goialde honetan, oinezkoen ibilbide fluxu berri bat sortuz kale nagusiei elkarzut. Goialde honetan hiru eta lau solairudun etxebi-

zitza blokeak konbinatzen dira, eta behe solairu guztietan etxebizitzak baino ez daude.

Azkenik, auzoaren hego-mendebaldean, Galtzarabordarekin mugan, familia bakarreko etxebizitza bat dago, auzoari izena eman zion “Alaberga” baserria eraistean eraiki zena, jabeentzako konpentsazio modura. Horren parean, etxebizitza bloke lineal bat dago, 2020an eraikia, Alaberga auzoaren mugen barruan dagoena, baina 50eko hamarkadako multzo-historikoarekin ezaugarri estetikorik ezta tipologikorik konpartitzen ez duena.



83. irudia. Alabergako eguneroko espazioak: harreman-guneak, ekipamenduak, komertzioa eta garraio publikoko geralekuak. Iturria: egileek egina.

## Harreman espazioak

Tamaina eta ezaugarri anitz dituzten harreman espazioak daude Alabergan. Daudenen artean, aipagarrienak deskribatuko ditugu hurrengo lerroetan. Hala ere, xelebrea da plazek ez dutela izenik, auzoko kale eta espazio publiko guztiak deitzen baitira “Alaberga”. Ondorioz, horiek deskribatzerako orduan, kokapenaren arabera identifikatuko ditugu:

1. Zentrotik auzorako sarreran dagoen plaza: izendapenean aipatu beza-la, auzorako sarrera nagusian kokatzen da plaza. Nafarroa etorbidea eta Biteri kalea batzen dituen biribilgunearen parean dago, eta errepi-detik banadua begetazio eremu baten bitartez. Plazan eserlekuak, berdeguneak eta zuhaitzak daude.
2. Elizaren aurreko plaza: umeentzako jolasak ditu zentroan, eta horien inguruan eserlekuak daude forma zirkularra eginez. Ondoan, beste zirkulu bat osatuz, eserleku gehiago daude. Zuhaitzak eta berdegune txikiak ere baditu plazak. Aipatzeko da hemen abiatzen dela auzoaren goialdera igotzeko igogailua.
3. Tellerialde plaza: auzoko jolas parke handiena daukan plaza da. Eserlekuz, berdegunez eta zuhaixkaz inguratuta daude jolasak. Plazaren azpian autoentzako aparkaleku bat dago, eta ondorioz, plaza, pareko kalea baino kota altuagoan dago, kalearengandik bananduta.
4. Alabergako plaza: auzoa eraiki zen garaian egin zen plaza ofiziala da. Zementuzko eremu zabala da, eta kota ezberdinetara dauden 2 gunetan banatuta dago. Kota baxuenean, harmailez inguratutako kirol kanta bat dago. Kota altuenean aldiz kiosko bat dago, parean eserleku gutxi batzuk dituela.
5. Parke nagusia: Goi eta Behe Alaberga banatzen dituen ingurune naturala da, maldatsua, eta bidexkaz josia. Zuhaitz eta begetazio asko dauka. Izan ere, auzoa egin zenean, jatorrian zeuden zuhaitzak mantendu ziren eremu honetan.
6. Goiko Alabergako parkea: goialdean, Kaputxinoekin eta Galtzarabordarekin muga, parke txiki bat dago. Belardia, zuhaitzak eta eserlekuak ditu Galtzaraborda hiribidearen parean.

Plaza eta parke horiez gain, txikiagoak diren beste hainbat harreman espazio daude auzoan: etxebizitzetarako sarreren pareko bankuak, 34 eta 37 zenbakien arteko plazatxoak, eta 19. zenbakiaren parean dagoen txoko ezkutua besteak beste.

## Komertzioa


Lokal komertzial oso gutxi daude auzoan. Komertzioa jaso zezaketen lokal urriak auzoko sarreran kokatzen dira, Nafarroa Etorbidea eta Biteri kalea elkartzen diren plazan. Gune horretan, zazpi lokal daude etxebizitzaren behealdean. Gaur egun, horietariko bitan bakarrik dago komertzioa: hortz klinika bat eta inprimategi bat.

## Ekipamenduak

Ekipamenduak dira nagusiki Alabergan erabilera-nahasketa sortzen dutenak. Auzoan dauden guztiak behealdean kokatzen dira, eta bat ere ez da “eguneroko ekipamendu<sup>104</sup>” kategorian sartzen. Hurrengo lerroetan zerrendatzen dira auzoko ekipamendu publikoak:

- Deikagest Oinarrizko Lanbide Heziketa zentroa: Alaberga 38 B zenbakian kokatua, zurgintza eta mekanikaren inguruko prestakuntza eskaintzen du. Goizeko 8:00etatik 14:00etara egoten da zabalik.
- Auzo etxea: Alaberga 32 zenbakiaren ondoan kokatua (Alaberga z/g), jubilatuen elkarte, zezen-elkarte, eta Beti-Ona futbol taldearen egoitza daude hor. Ez dauka ordutegi finkorik.
- Lokal komunitarioak: auzorako sarrerako plazan kokatuak (Alaberga 4 eta 9 zenbakien behe solairuetan), plaza inguratzen duten arkupeetan dauden lokalak dira. Arditurri auzo elkarte eta Jai-Toki kultur-elkarte daude hor. Ez daukate ordutegi finkorik.
- Eliza eta bere azpiko lokalak: Alaberga 28 eta 29 zenbakien artean kokatuak. Eliza egun itxita dago, eta bere lokaletan jarduera gutxi dago, bilera gutxi batzuk egiten dira. Ez daukate ordutegi finkorik.

## Etxebizitzak




84. irudia. Alabergako blokeak etxebizitza kopuruaren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.


104 Eguneroko ekipamenduen definizioa eta kategoria horretan sartzen diren ekipamenduen zerrenda 4. atalaren hasieran aurkitu daiteke.




85. irudia. Alabergako etxebizitzak igogailua duten edo ez duten arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



86. irudia. Alabergako etxebizitzak azaleraren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



87. irudia. Alabergako etxebizitzak gela kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



88. irudia. Alabergako etxebizitzak komun kopuruaren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Alabergan 570 etxebizitza daude 82<sup>105</sup> ataritan banatuta. Etxebizitzen %96,8a 3 eta 10 etxebizitza artean dituen blokeetan dago; %2,8a aldiz, 11 eta 20 etxebizitza bitarteko blokeetan. Irisgarritasunari dagokionez, etxebizitzen %85,1ak ez dauka igogailurik kalearen eta etxearen artean, eta %14,9ak soilik du igogailua.

Etxebizitzen barrualdeen ezaugarriei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu nola %85,1ak 61 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duen, %10,7ak 10 eta 60 m<sup>2</sup> artean dituen, eta %4,2ak 91 eta 120 m<sup>2</sup> bitartean. Gela kopuruari dagokionez, gehienek bost gela dituzte (%83,5), ulertuz bost gela horiek sukaldea eta egongela ere barne hartzen dituela. Tipologia orokortuenak, beraz, 3 logela edukiko litzuzke. %8,6ak lau gela ditu, %5,6ak sei gela, eta %2,3ak gela bat eta hiru artean. Komun kopuruari dagokionez, ia etxebizitza guztiek komun bakarra daukate, bost etxebizitza baino ez daude 2 komun edo gehiagorekin.



Datu horien bitartez ikusi dezakegu nola auzoan etxebizitza tipologia bat nagusi den: 61-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena; sukaldea, egongela, hiru logela eta komun bakarra duena; eta igogailurik ez duena.

89. irudia. Goi-Alabergako etxebizitza baten argazkia. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

105 Eustat, 2022.



Bloke batzuen eta besteen artean aldaketa txikiak dauden arren, Alabergako etxebizitza guztiak ezaugarri komun asko partekatzen dituzte. Horien artean dago sakonera, 7,8-8 metro artekoa, hormarte bikoizdun etxebizitzak sortzen dituenak. Lerrokatutako blokeen kasuan, fatxada bakoitzak kale banatara ematen du; etxe irla forma dutenetan aldiz, alde batera fatxada nagusia geratzen da, eta bestera, etxe-irlaren barrualdea. Estalkia inklinatua da, bi isurialdeko teilatuarekin; eta ataritik etxebizitzetarako komunikazioa eskailera bitartez egiten da, solairu bakoitzean bi etxebizitzatara sarrera dagoelarik.

Fatxadaren estetika eta materialtasunari dagokionez ere, badaude azpimarratzeko zenbait ezaugarri komun. Auzo osoa “erregionalista<sup>106</sup>” deritzon estiloan eraiki zen: harriaren presentzia behe solairuetan eta zenbait izkinatan, idi-begi leihoak behe solairuetan, erdi-puntuko arkuak behe solairuetan, eta leiho-ateak eguzki babeserako, besteak beste. Ezaugarri komun horietatik abiatuta, bloke mota ezberdinak sortu ziren auzoan.

## D/ Eguneroko bizitza eta harreman komunitarioak

### Eguneroko bizitzaren espazioak



90. irudia. Alabergako eguneroko sarearen planoak. Iturria: egileek egina.

106 AZCONA (2016), 191. orr.

90. irudian ikusi daitekeen bezala, Alabergako bizilagunen eguneroko bizitza auzoan bertan eta inguruko auzoetan garatzen da. Izan ere, egunerokotasunean beharrezkoak diren zerbitzu gehienak auzotik kanpo daude, eta horrek inguruko auzoetarako mugikortasuna areagotzen du.

Auzotik kanpo dauden eguneroko ekipamenduen kokapenari dagokionez: polikiroldegia auzo parean dago, Galtzarabordako behealdean; nagusien eguneko zentroa Martin Etxeberria kalean dago; Uztargi Haurreskola publikoa auzoaren parean dago ere, Tellerialde plaza aurrean; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentroak hainbat daude inguruan (Cristobal Gamón, Bizarain, Koldo Mitxelena, Telleri-Alde besteak beste); ambulatorioa Iztieta zein Beraunen dago; administrazio-izapideak egiteko Alde Zaharrera joan beharra dago Udaletxera; gazteleku hurbilena Beraunen legoke eta ludoteka hurbilena Kaputxinoetan; eta azkenik, kultur jardueretara edo liburutegira joateko Niessen kulturgunea edo Lekuona fabrika leudeke. Komertzioari dagokionez, Zentroa eta Alde Zaharra lirake auzotik hurbilen dauden gune komertzial nagusiak. Harreman espazioak aldiz, auzoan bertan daude, aurreko puntuan ikusi dugun bezala, izaera eta tamaina ezberdinetakoak.

## Eguneroko bizitza auzoan

Alabergako bizilagunek, orokorrean, elkar ezagutzen dutela esan dezakegu. Etxebizitza blokeen tamainak, eta inguruko auzoekin alderatuta, pertsona gutxi bizitzeak, aukera handia ematen du auzokideak ezagutzeko. Izan ere, atariko bizilagunez gain, inguruko bloke edo etxe-irlakoek ere ezagutzen dute elkar. Bizilagunen hitzetan:

*“Alaberga 4 solairuko etxeak dira... guk elkar ezagutzen dugu, nire atarikoak soilik ez, etxe irla osokoak ezagutzen ditugu [...] Horren zati bat erosotasuna eta jende kopurua da. Begira ezazu Alabergan asko sozializatzen dugun auzoa dela, elkar ezagutzen dugula, gauzak egiten ditugula... Eta ez dago tabernarik, ez dago dendarik, ez dago merkataritza-zentrorik, ez dago ezer”<sup>107</sup>.*

Auzo bizitza behealdean ematen da batez ere, bertan baitaude auzoko harreman espazio gehienak, jarduerak antolatzeko espazio zabalenak, eta bertan daude baita jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta espazio komunitarioak

107 1. tailerra (2023/01/11).

ere. Izan ere, auzo bizitza, guztiz lotuta dago harreman espazioen erabilerarekin, ikusi dugun bezala, auzoan ez baitago ez eguneroko ekipamendurik eta ia ezta komertziorik ere. Goialdeko auzo-bizitza Kaputxinoak auzoarekin mugan dauden tabernetan ematen da batez ere<sup>108</sup>.

Auzo bizitzan sakonduz, harreman espazio oso garrantzitsua da Biteri kalea eta Nafarroa etorbidea gurutzatzen diren lekuan dagoen plaza. Zentroan eta Alde Zaharrean hainbat zerbitzu eta komertzio egonik, auzorako sarrera eta irteerarako igarobide garrantzitsua da, eta auzorako sarrera izateaz gain, Zentrotik Kaputxinoetara oinez igotzeko ere beharrezko igarobidea da. Horrez gain, Auzo Elkartearen lokalak ere plazan bertan daude, plazaren jarduerari bizitasuna emanaz. Faktore guzti horien ondorioz, gune bizia da, auzotarrek “auzo-bihotz” izendatu dutena.

*“Adineko jendea soziedadea dagoen plazan esertzen da gehiago. Hor bai. hor dena gertatzen da: txirrindularitza lasterketa bat, patinen lasterketa, futbola, ur puxiken borroka... eta mundu guztia pasatzen da hortik. Banku hoiek, adibidez, asko erabiltzen dira, [adineko pertsonak] entretenitu egiten dira denbora guztian jendea pasatzen delako. Datorren jendea nagusia da eta hor pilo bat sozializatzen dute. Igotzen den edozein bizilagun hortik pasatzen delako. Bizikletaz pasatzen direnak, patinez... Eta jendea hizketan geratzen da. Gune hau ere oso lotuta dago elkartearen lokalarekin: garagardoren bat hartu, hitz egin... Hau da auzoan dagoen komertzio bakarra, garagardo bat hartzen sozializatzeo bakarra. Umeentzako askari handi asko izaten dira”<sup>109</sup>.*

Tellerialde plaza ere elkargune aipagarria da, baina kasu honetan, bereziki familiarerabiltzen dute umeekin jolasean ibiltzeko. Izan ere, plaza hau eliza aurrekoa baino aproposagoa da jolaserako, espazio zabala baitu korrika egiteko, errepidetik banandua baitago segurtasun pertzepzioa areagotuz, eta bankuen kokapena eroso da umeekin batera doazen helduek txikiak zaintzeko, jolasei begira baitaude<sup>110</sup>.

Topaleku pribatuagoak ere badaude eta erabiltzen dira, “usategi” deritzoten eraikinaren pean dagoen plazatxoak adibidez. Leku horretan gaztetxoak bil-

108 14. elkarrizketa (2022/12/27).

109 3. tailerra (2023/01/18).

110 Ibid.

tzen dira batez ere, aparte dagoelako eta ez delako igarotze-lekua. Gaztetxoez gain auzotarrak ere egoten dira, baina beraien esanetan, “*bilatu behar den tokia da. Ez bazara auzokoa ez zoaz horra. Kanpoko jendea ez da hona etortzen.*”<sup>111</sup>. Topaleku pribatuago edo txikiagoekin jarraituz, pertsona nagusiek asko erabiltzen dituzten atari inguruetakoko bankuak kalera irten eta bertan esertzeko. Horren adibide da 13. atariaren parean dagoen txokoa, auzokideek diotenez sarri egoten baita norbait eserita, eta errekadutarako bidean topo egin eta hitz egiteko lekua da<sup>112</sup>. Hala ere, kasu askotan pertsona nagusientzat irisgarritasuna arazo izan ohi da kalera irten eta bankuetan esertzeko, bai etxetik jaisteko eskailerak dituztelako, eta atari inguruetan ere eskailerak egon ohi direlako ere. Hala ere, zenbait puntutan arrapalak egin dira eta nabarmen hobetu dute mugikortasun urria duten pertsonen bizi-kalitatea. “*Nik hanka txarto dudanez, ez naiz irteten. Balkoian esertzen naiz, eta zerbait gaizki dagoela ikusten badut, abisua ematen dut. Lehen ere, gure auzoan, 12 an, lehen eskailerak zeuden, Udalarekin hitz egin ahal izan nuen. Eta arrapala bat egin zen. Hori ona da. Niri ezin dizkidate eskailerak kendu, baina kenduko balizkidade, mesede handiagoa egingo lidakete. [...] Etxebizitzan ezin dugu, ze igogailua eduki arren, atarian ditugun 4 eskailerak kentzen baditugu, lorategiraino joan behar duelako, ia beheraino. Baina, egia esan, kanpoan, ezkerretara ateratzean, eskailerak zeuden. Arrapala bat egitea lortu genuen. Ze arrapala dugun ikus dezakezu, zoragarria da. Orduan nire ama bizi zen arren, pertsona nagusi asko zeuden, eta adineko jendeaz arduratzen gara.*”<sup>113</sup> Mugikortasun urria duten pertsonentzako balkoia eta kaleko etxebizitza pareko eserlekuak auzo-bizitzan parte-hartzeko garrantzitsuak dira.

Atarietako bizilagunen harremanari dagokionez, esan daiteke bloke txikiak diren heinean, elkar-ezagutzeko aukera ematen dutela. Tradizionalki, ataria partekatzen duten bizikideek elkar ezagutzen dute, eta txikitatik auzoan bizi izan diren auzokideek diotenez, harremanetan ezberdintasuna nabaritu da blokeetan igogailuak jartzen hasi direnean. Igogailuan igo eta jaistearen ondorioz, bizilagunek gutxiago egiten dute topo blokean, eta harreman gutxiago sortzen dira: “*Alabergan ere, igogailuak jarri dituzten atariak daude, eta 8 bizilagun dira, baina agian 6-k dute harremana, eta 2 agian ez dituzte ezagutzen. Honek kalte egiten dio [sozializazioari]. Garai batean denak igo eta jeisten ginen*

111 *Ibid.*

112 “Eta hemen dauden banku hauek, 13 zenbakian bi banku daude. Oso ondo daude, errekaduetatik etortzen zarelako eta beti dagoelako norbait elkarrekin hitz egiteko”. 3. elkarrizketa (2022/05/18).

113 *Ibid.*

*eskaileretatik, elkarri egun onak ematen genizkion denek, eta denek topo egiten genuen, igotzean ez bazen, jeistean. Gaur egun, ni 2.-ean bizi naizela, egunaren buruan 2 bizilagunekin topo egiten dut. Lehen, txikia nintzenean eta igo eta jeitsi nebilenean, denekin topo egiten nuen. Horrek sozializatzeko orduan ere, ez du zerikusirik. Eta 4 solairuko atari bati buruz ari naiz. Esango didazu ba Kaputxinoseko dorreetan...<sup>114</sup>*

Igogailuekin jarraituz baina espazio publikora igaroz, auzo bizitzan aldaketa nabarmena eragin dute 2018an egin ziren igogailu publikoek. Horiei esker, goiko eta beheko zonaldeen arteko lotura indartsuagoa bilakatu da, gora eta beheko konexioa askoz ere azkar eta zuzenagoa da, baina albo kalteak ere eragin ditu. Lanbide Heziketa zentroa eta “Alabergako plaza” dagoen zonaldea (33 eta 40 zenbakidun atariak hartzen dituena) auzoaren gainontzeko zonaldeetatik deskonektatuago geratu da. Izan ere, igogailu publikoa eduki baino lehen, bizilagunak hortik igarotzen ziren oinez igo edo jaisteko, eta orain, jende fluxu hori ia ez da existitzen<sup>115</sup>. 33 eta 37 zenbakidun blokeen parean dagoen plazatxo, egun, bertako bizilagunek edo hortik igarotzean deskantsatu nahi duenak erabiltzen du, baina ez da sozializazio gune bat. Inguru honetan ez dago dendarik, ezta eguneroko erabilerarik, eta ondorioz, lehenago zuen topaleku izaera galdu du<sup>116</sup>.

Antzera gertatzen da aipatu berri dugun “Alabergako plaza”rekin. Gaur egun, bizitasun gutxi duen plaza da. Lanbide Heziketako zentroaren eraikina, auzoaren sorreran eta hainbat urtez, auzoko eskola izan zen. Garai horietan, plaza asko erabiltzen zen arratsaldeetan eskola bukatu eta bertan jolasean geratzen ziren umeengatik. Orain, Lanbide Heziketako ikasleak helduagoak dira, eta Errenteriako puntu ezberdinetatik hurbiltzen dira. Ondorioz, klaseak bukatzean, eguerdian, beraien auzoetara joaten dira eta ez dira plazan geratzen. Egunerokoan gune bizia ez den arren, auzoko jaietan eta egun berezietarako ekimen puntaletan biltzeko eta jarduerak antolatzeko erabiltzen dute plaza auzokideek, auzoko eremu lau eta zabal handiena baita.

Inguru horretan dagoen beste espazio aipagarri bat Auzo Etxea da. Aspalditik, Jubilatuen Elkartek, espazio propioa dauka hor. Eraikinaren sarrerei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu irisgarritasun konplexua duela eraikinak. Plaza-

114 2. tailerra (2023/01/11).

115 3. tailerra (2023/01/18).

116 *Ibid.*

tik heltzeko hainbat eskailera igo behar dira, baina egoera hau hobetu egin da igogailu publikoa egin zutenetik. Egun, jubilatuek ibilbide irisgarria egin dezakete eliza parera igogailuan igoz, eta parketik Auzo Etxera sartuz. Hala ere, eraikinera heltzeko ibilbide hau nagusitzeak, berriro ere, plazaren ingurunean ez du inolako jende igarotzerik edo aktibitaterik sortzen.

Laburbilduz, bai orografiagatik, bai ibilbide fluxuengatik, eta baita auzoko jardueren kokapenagatik ere, etxe irlen inguruan ematen da auzo bizitza nagusia.

## Elkartegintza eta harreman komunitarioak

Historikoki, auzokideak auzoaren garapenean eta hobekuntzan oso inplikaturata egon dira, eta egun, oraindik, Auzo Elkarte indartsua du Alabergak. Auzokideek hala diote: “[auzoa] bizilagunei esker hobetu zen, denok arduratzen garelako dena gero eta hobeto uzten.”<sup>117</sup>

Auzo-izaera hori elkarlanak definitzen du, eta horren adierazle dira auzoan dauden elkarteak, eta hurrengo lerroetan zerrendatzen direnak:

- “Arditurri” Auzo Elkarte: 1963an sortu zen, auzoa inauguratu eta urtebetera, eta ordutik, lan handia egin du auzoarentzat. Gaur egun kaldereroak, danborrada eta jaiak bezalako ekimenak antolatzen dituzte, eta baita urtean zeharreko tailerrak ere. Udal mailako ekimen eta prozesu kolektiboetan ere murgilduta dago.
- “La Magdalena” jubilatuen elkarte: 1985ean sortu zen, eta gaur egun nagusientzako ikastaroak antolatzen ditu.
- “Ekinez egin” emakume taldea: pandemia ondoren desaktibatuta geratu den taldea da, baina Auzo Elkartetik lanean ari dira berriro ere martxan jartzeko helburuarekin. Hainbat ikastaro antolatzen zituen.


Elkartegintzatik, urtean zehar, hainbat ekimen publiko eta kolektibo antolatzen dira, eta Alabergaren kasuan, hurrengoak dira azpimarragarrienak: Kaldereroak otsailean, auzoko jaiak ekainean, eta Danborrada uztailean Errenteriako jaietan.

---

117 3. elkarrizketa (2022/05/18).


#### 4.1.4 Galtzaraborda

##### A/ Biztanleriaren ezaugarriak




91. irudia. Galtzarabordako biztanleria urte-tartetan berezia.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Galtzarabordan 4.627<sup>118</sup> pertsona bizi dira, %51 emakumeak eta %49 gizonak. Auzoko biztanleen adin banaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola %13,5 umeak diren (0-14 urte), %5,8 gaztetxoak (15-19 urte), %14,9 gazteak (20-34 urte), %42,8 helduak (35-64 urte) eta %23 nagusiak (65 urte edo gehiago). Adin banaketa hori Errenteriako biztanleriaren adin banaketaren oso antzekoa da, non %12,6 umeak diren, %5,4 gaztetxoak, %13,4 gazteak, %44,5 helduak eta %24,1 nagusiak.




92. irudia. Galtzarabordako biztanleria jaioterriaren arabera berezia.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Bizilagunen jaioterriari dagokionez, ia bi heren (%59,3) Euskal Autonomia Erkidegoan jaioa da, %25a Estatuko beste erkidegoetan, eta %15,7a atzerrian. EAEn jaiotako gehienak gipuzkoarrak dira (%98,25). EAEn jaiotakoen proportzioa Errenteriako batezbestekoa baino 9,4 puntu baxuagoa da, beste autonomia erkidegoetan jaiotakoen proportzioa 4,8 puntu altuagoa, eta atzerrian jaiotakoena 4,6 puntu altuagoa. Nahiko proportzio parekoak direla esan dezakegu.




93. irudia. Atzerrian jaiotako Galtzarabordako biztanleria nazionalitatearen arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Bestalde, nazionalitate atzerritarra duten bizilagunen artean hurrengo herritartasunak dira jendetsuenak: Amerikarrak %40,2a dira (non %19,6 Hego-Amerikarrak diren eta %20,6 Amerikako gainontzeko lurraldeetakoak), Magreb-go herrialdeetako bizilagunak %22,3a dira, eta Ekialdeko Europakoak %15,3.



94. irudia. Galtzarabordako biztanleria etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopuruaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.





95. irudia. Galtzarabordako biztanleria etxebizitzaren jabetza-erregimenaren arabera berezia. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Etxebizitzarekin eta horri lotutako bizimoldeei buruzko datuak erreparatuz, EUSTAT-en arabera, 2016an auzokideen herena baino gutxiago bakarrik bizi zen (%27,8), ia 3 puntu handigoa zen auzoan bikoteka bizi zirenen proportzioa (%30,7), eta auzokideen %40,1 3 eta 5 pertsona arteko taldean bizi ziren. Etxebizitzaren jabetza erregimenari dagokionez, auzotarren gehiengoa bizitoki duten etxebizitzaren jabe da (%84,8), eta %13a alokairuan bizi da.

## B/ Hiri-espazioa eta etxebizitzak

### Antolamendu orokorra: ingurunea, egiturazko elementuak eta etxebizitzaren ezaugarri orokorrak



96. irudia. Galtzarabordako hiri-bilbearen ardatz eta gune nagusiak. Iturria: egileek egina.

Alabergaren hegoaldean kokatuta dago Galtzaraborda. Ereku maldatsuan ezarritako auzoa da, gune lau oso gutxi dituen. Ondorioz, auzorako hautatutako tipologia eta hiri-bilbearen definizioa guztiz baldintzatuta daude aspektu horrengatik. Maldak ibilbide nagusien jarraikortasuna eta kaleen arteko hierarkiak ezartzea zailtzen du. Hala ere, hiri bilbeari dagokionez, hiru gune nagusi ezberdin daitezke: lehenengoa, Galtzaraborda hiribidetik ekialdera dagoen eremua, non malda txikiagoa eta irregularragoa den eta blokeak modu organikoagoan kokatzen diren; bigarrena, Galtzaraborda etorbidearen eta Urdaburu parkearen artean dagoen eremua, non malda konstantea eta handiagoa den eta blokeak sare ortogonal bat osatuz ezartzen diren maldari elkarzut; eta hirugarrena, Urdaburu parketik mendebaldera eta iparraldera dagoen eremua, non ardatz argirik gabe ezartzen diren eraikinak, aurreko eremuetan baino modu desordenatuagoan. Ikusten den bezala, maldaz gain, auzoa inguratu eta zeharkatzen duten azpiegiturek ere auzoaren forma baldintzatzen dute. Trenbideak arrakala eta muga bat sortzen du auzoaren ipar-ekialdean (Alabergaren hegoaldearekin mugan); eta Galtzaraborda hiribideak mugatu egiten du auzoa mendebaldetik eta hegoaldetik, eta ekialdetik zeharkatu.

Deskribatutako lehenengo eremuan, hots, Galtzaraborda hiribidetik ekialderako gunean, etxebizitza tipologia oso ezberdinak daude. Hiri-bilbea irregularra da, orografiak eta errepedeek baldintzatua. Hor kokatzen dira auzoko eraikin zaharrenak (Morrongilleta kalean), eta hor dago ere Udal Euskaltegia eta Oarsoaldeko Helduen Hezkuntza zentroa (HHI) dituen eraikina. Gune honek ez du ardatz nagusi argirik: ibilgailuentzat Galtzaraborda hiribidea izan zitekeen, eta oinez eta bizikletan mugitzen direnentzat horri elkarzut doan bidegorri eta pasealekua (izenik gabeko kalea).

Bigarren eremuan, hots, eremu zentrolean, bilbe ortogonal eta erregularra ezartzen da maldaren norabidea jarraituz, eta horren arabera ordenatzen dira lau solairuko bloke lineal askeak. Bloke horiez gain, eremu honen gune lauean (hots, Parke kalean) hamabi solairu inguruko etxebizitza dorreak daude, maldan dagoen eremuaren irudia guztiz apurtzen dutenak. Aipatutako Parke kalea da eremu honetako ardatz nagusia: Aiako harria kaletik igotzen den igogailua, Jon Arretxe parkean dagoen igogailua eta Urdaburu parkea lotzen ditu. Esan dezakegu auzo osoko ardatz nagusia dela kale hori, Galtzaraborda hiribidearekin batera.

Hirugarren eremua Urdaburu parketik mendebalde eta iparraldera zabaltzen den ingurua izango litzateke, Kaputxinoekin eta Alabergarekin muga egiten

duena. Eremu horretan malda irregularragoa bilakatzen da, eta eraikinak irregulartasun horretara moldatzen dira. Kasu honetan ere bloke askeen aldeko hautua egiten da, baina bloke tipologiaren nahasketak eta eremuaren irregulartasunak hiri-bilbe desordenatu eta kaotikoa sortzen du. Kaleen jarraikortasuna galdu egiten da ibilbideen arteko hierarkiak nabaritzea ezinezko bilakatzen da. Esan bezala, inguru honetan bloke mota ezberdinak nahasten dira: lau solairuko bloke linealak, bost eta hamaika solairu bitarteko bloke karratuak, eta Goi-Alabergarekin mugan, "T" formadun oinplanta duten bost solairuko blokeak. Etxebizitza blokeen artean, tartekatuta daude ere Pio Baroja eraikina (auzoko eskola zaharra zena), Jubilatuen Elkartearen egoitza (auzoko haurreskola zaharra zena), eta Alabergako haurreskola zena eta egun erabilerarik ez duen eraikina.




97. irudia. Galtzarabordako Parke kalea. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Aipatutakoez gain, auzoak bi eremu lau eta zabal ditu. Lehenengoa Aiako Harria kalean dagoen plaza da, eta bertan kokatzen da polikiroldegia, eta baita Galtzarabordako tren-geltokia ere. Zentrotik auzorako oinezko sarrera gunea da, bai Galtzarabordako bizilagunentzat, eta baita Beraungoentzat ere. Bigarren eremu laua Urdaburu parkea da, jada aurreko paragrafoetan aipatu dena, eta auzoaren zentroan kokatzen dena.

Azkenik, azpimarratzekoa da ere etxebizitza erabilera dela nagusi auzoan. Etxebizitza blokeen behealdeetan komertzioa dago kasu batzuetan, baina gehienetan lokal komertzial itxiak daude, edo jatorrian lokal komertzialak zirenak baina etxebizitza bilakatu direnak.

Laburbilduz, Galtzarabordako hiri-morfologia irregularra da, kaleen arteko hierarkia argirik gabea, eta altuera eta izaera ezberdinetako bloke askeez osatua.



98. irudia. Galtzarabordako eguneroko espazioak: harreman-guneak, ekipamenduak, komertzioa eta garraio publikoko gerolekuak. Iturria: egileek egina.

## Harreman espazioak

Hainbat harreman espazio daude Galtzarabordako auzoan zehar sakabanatuta, maldan terraza modura ezarrita, eta kokapenaren arabera tamaina dutenak. Daudenen artean, aipagarrienak deskribatuko ditugu hurrengo lerroetan (izenik ez dutenen kasuak kokapenaren arabera identifikatuko dira):

1. Urdaburu parkea: auzoko harreman espazio zabalena da, Galtzarabordaren zentro-ekialdean kokatua, eta hainbat erabilera ahalbidetzen dituen ezaugarri fisikoak ditu. Bi eremu nagusitan banatuta dago: lehenengoan berdeguneak, zuhaitzak, bankuak, nagusientzako kirol elementuak, eta pergola semizirkular bat dago; bigarrenean aldiz, naturaren presentzia txikiagoa da, 2 jolas eremu ditu eserlekuez inguratuak, korrika edo jolas librean aritzeko zementuzko eremu zabala, kioskoa, eta kirolerako kantxak. Parkeak ikuspegi zabala dauka Errenteriako zentrorantz, eta egunean zehar jasotzen duen eguzkiztapena ere aipatzekoa da.
2. Aiako Harria kaleko plaza: aurretik aipatu bezala, zentrotik auzorako sarreran kokatzen da, eta bertan daude Galtzarabordako polikiroldegia, Galtzarabordako tren-geltokia, eta Galtzarabordara eta Beraunera igotzeko igogailua. Jolaserako elementuak ditu, bankuez inguratuak, eta baita eserlekuak plazako bi ekipamenduen sarreretan ere.
3. Ion Arretxe parkea: maldan eraikia, Parke kalean hasi eta Urdaburu kalera arte heltzen da. Altuera ezberdinetan dauden plataformetan dago banatuta, eta jolas elementuak, berdeguneak eta eserlekuak ditu.
4. Euskaltegi pareko kirol kantxak: etxebizitzaz inguratuak, kirolerako kantxa espezifikokoak dira, eta frontoia ere badute.
  - Auzoan zehar banatuta dauden egoteko txokoak: hainbat harreman espazio txiki daude maldaren terrazatzearen ondorioz sortuak, eta etxebizitza blokeen parean kokatuak. “Terraza” izaera horrek egoteko txokoen izaera indartzen du, pasozko gune bezala pertzibitu beharrean, ibilbide arteriatatik banandutako espazio bezala hautematen direlako bere horretan. Horrelako txoko gehienetara heltzeko eskailerak igo edo jaitsi behar dira, zenbait kasutan, arrapalak egin diren arren.
  - Auzoan zehar banatutako jolaserako txokoak: hiru gune txiki daude auzoan zehar sakabanatuta jolaserako elementuak dituztenak. Lehengo Irumugarrieta eta Murumendi kalearen elkargunean dago kokatuta, bigarrena Mandoegi 8 kalean, eta hirugarrena Aizkorri plazan.

Aipatu beharrekoa da orografiak harreman espazioen izaeran eta konektibitatean duen eragina. Izan ere, aipatutako espazioak planoan begiratzen baditugu, ikusiko dugu nola Urdaburu parkea eta Ion Arretxe parkeaz harago, gainontzeko harreman espazioak oso txikiak direla eta auzoan zehar sakabanatuta daudela horiek konektatu dituzten bide edo ardatz argirik gabe.

## Komertzioa

Jatorriz, auzoko bi tipologia nagusiek (4 solairuko bloke linealek eta dorreek) behe solairuan lokal komertzialak zituzten. Hala ere, 2001ean publikatu zen “Bizitegitarako Hiri Lurreko Hainbat Esparru Finkatueta Kokatzen Diren Lokaletan Hirugarren Sektoreko Erabileratik Bizitegi Erabilerarako Aldaketa Egiteko Jardunak Arautzen Dituen Ordenantza”<sup>119</sup>-ren aplikazioaren ondorioz, hainbat behe solairu etxebizitza bilakatu ziren. Ondorioz, auzoak jatorrian zituenak baino lokal komertzial gutxiago ditu egun. Hala ere, 98. irudian ikusi daitekeen bezala, lokal komertzial horien zati handi bat oraindik eskuragarri dago.

Auzoak duen dimentsioa eta bertan bizi den populazioa aintzat hartuta, esan dezakegu komertzio oso gutxi duela Galtzarabordak. EUSTAT-eko datuen arabera, 2021ean 27 merkataritza-establezimendu zeuden, hurrengo kategorietan banatuta:

- 8 janari saltoki: 3 harategi-urdaitegi, supermerkatu bat eta 4 okindegi-gozotegi
- Liburu-denda bat
- 8 ostalaritza establezimendu: 7 taberna eta janari prestatua saltzen duen denda bat
- 5 ile-apaindegi eta estetika zentru
- Farmazia bat
- 4 tailer

Komertzio eremu jarraitua duen ardatz nagusia Parke kalean dago, eta Urdaburu parkearen inguruan ere zenbait komertzio biltzen dira, baina modu sakabanatuagoan. Gainontzean, komertzio isolatuak daude etxebizitza bloke batzuen behaldean.

---

119 Errenteriako Udalaren webgunea <https://errenteria.eus/udala/araudiak-ordenantzak-eta-erregelamenduak/udal-ordenantzak/>

## Ekipamenduak

Kaputxinoetan hainbat ekipamendu daude, auzoko gune ezberdinetan zehar banatuta. “Eguneroko ekipamenduak”<sup>120</sup> direnak eta ez direnak daude, eta hurrengo lerroetan zerrendatuko ditugu:

Eguneroko ekipamenduak:

1. Galtzarabordako udal-kiroldegia<sup>121</sup>: Aiako Harria kalea z/g-n kokatua, hainbat kirol ikastaro eskaintzen ditu ikasturtean zehar. Astegunetan 6:30 - 22:00 ordutegian dago zabalik, larunbatetan 8:00etatik 22:00etara, eta igandeetan 8:00etatik 14:00etara.
2. Galtzarabordako tren-geltokia: Aiako Harria kalea z/g-n kokatua ere, Hendaia eta Lasarte-Oria lotzen dituen tren-linearen parte da, Donostiatik ere pasatzen dena. Ordutegi aldakorra dauka trenen ordutegien arabera, baina astegunetan 5:00etatik 23:00ak arte egoten da zabalik gutxi gorabehera.
3. Galtzattipi Haur Eskola pribatua<sup>122</sup>: Parke kalearen 1-3. zenbakien behe solairuan kokatua, eta 0-2 urte arteko umeen hezkuntzara bideratua. Ordutegia: 7:30etatik 19:30etara arte.

Gainontzeko ekipamenduak:

4. Errenteriako Udal Euskaltegia<sup>123</sup>: Miguel Zabaleta kalearen 14. zenbakian kokatua, euskara ikasteko ikastaroak eskaintzen ditu. 9:00etatik 17:00etara dago zabalik astelehenetik ostegunera, eta ostiraletan 14:00ak arte.
5. Oarsoaldeko HHI<sup>124</sup>: Udal Euskaltegiaren eraikin berean dago, eta Oarsoaldea eskualdeko biztanle helduen hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen ditu. 10:00etatik 19:00etara dago zabalik astelehenetik ostegunera, eta ostiraletan 13:00ak arte.
6. Gazteentzako etxebizitza komunitarioak<sup>125</sup>: Urbia plaza 2 zenbakian

120 Eguneroko ekipamenduen definizioa eta kategoria horretan sartzen diren ekipamenduen zerrenda 4. atalaren hasieran aurkitu daiteke.

121 [www.errenteria.eus/eraikinak/galtzarabordako-kiroldegia/](http://www.errenteria.eus/eraikinak/galtzarabordako-kiroldegia/)

122 [www.galtzattipi.com/es/zerbitzuak/](http://www.galtzattipi.com/es/zerbitzuak/)

123 [www.euskaltegia.errenteria.eus/](http://www.euskaltegia.errenteria.eus/)

124 [www.cepaorsoaldeahhi.com/hhi-oarsoaldea/](http://www.cepaorsoaldeahhi.com/hhi-oarsoaldea/)


125 [www.gazteria.errenteria.eus/project/etxebizitza-komunitarioak/](http://www.gazteria.errenteria.eus/project/etxebizitza-komunitarioak/)

dago. Zenbait baldintza betetzen dituzten 18-30 urte bitarteko gazteei gela bat alokatzeko aukera ematen die, eta gazteek komunitatean lanak egiten dituzte.

7. Lokal komunitarioak: hiru daude. Gure Leku Auzo elkartearenak Parke kalearen 22 eta 26 zenbakietan daude. Urdaburu kalearen 23 zenbakian, aldiz, “El Parque” jubilatuen elkartearen egoitza dago. Ez daukate ordutegi finkorik.
8. Pio Baroja eraikina: Urdaburu kalearen 2. zenbakian kokatua dago. Aljarafe eta Kamelamos Adiquerar elkartearen eta Team Látigo boxeoklubaren egoitza ere bada. Ez dauka ordutegi finkorik.
9. Galtzarabordako Haur Eskola zaharra: Urdaburu kalearen 23A zenbakian dago eta egun ez dauka erabilerarik.
10. Alabergako Haur Eskola zaharra: Mandoegi kalearen 3A zenbakian dago eta egun ez dauka erabilerarik.


## Etxebizitzak

Atal honetan auzoko etxebizitzaren deskribapen orokorra egingo dugu, eta gehien errepikatzen dire etxebizitza tipologiak sakonago aztertuko ditugu, hots: 4 solairuko bloke linealak, “H” formadun dorreak eta “T” formadun blokeak.




99. irudia. Galtzarabordako blokeak etxebizitza kopuruaren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.





100. irudia. Galtzarabordako etxebizitzak igogailua duten edo ez duten arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



101. irudia. Galtzarabordako etxebizitzak azaleraren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



102. irudia. Galtzarabordako etxebizitzak gela kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



103. irudia. Galtzarabordako etxebizitzak komun kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Galtzarabordan 1992 etxebizitza daude 184<sup>126</sup> ataritan banatuta. Etxebizitzen erdia baino gehiago (%56,5) 3 eta 10 etxebizitza artean dituen blokeetan dago; %9,2a 11 eta 20 etxebizitza bitarteko blokeetan; %21a 21 eta 40 etxebizitza bitarteko blokeetan; eta gainontzekoak 41 etxebizitza edo gehiagoko blokeetan. Blokeek duten etxebizitza kopuruari erreparatuz, nabarmena da Alabergan baino aniztasun handiagoa dagoela, eta blokeko etxebizitza kopuruak handiagoak direla. Irisgarritasunari dagokionez, eta 2016ko datuen arabera, etxebizitzen %56,5ak ez dauka igogailurik kalearen eta etxearen artean, eta %43,5ak badauka. Igogailua duten etxebizitzen proportzioa ia hirukoitza da Alabergarekin alderatuta. Horrek etxebizitza-tipologiekin du harremana (Galtzarabordan dorreak daude, igogailuarekin eraiki zirenak), eta baita jatorriz igogailurik ez zutenetan igogailuak jartzeko dagoen erraztasun handiagorekin ere.

Etxebizitzen barrualdeen ezaugarriei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu nola %84,3ak 61 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duen, %14,3ak 10 eta 60 m<sup>2</sup> artean dituen, eta %1,1ak 91 eta 120 m<sup>2</sup> bitartean. Gela kopuruari dagokionez, hiru laurdenak inguru bost gela dituzte (%77), ulertuz bost gela horiek sukaldea eta egongela ere barne hartzen dituztela. Tipologia orokortuenak, beraz, 3 logela edukiko lituzke. %19,5ak lau gela ditu, %1,9ak gela bat eta hiru artean eta %1,3ak sei gela. Komun kopuruari dagokionez, ia etxebizitza guztiek komun bakarra daukate (%98,9), eta 21 etxebizitza baino ez daude 2 komun edo gehiagorekin (%1,1).

126 Eustat - Euskal Estatistika Erakundea, 2022.

Ikusitako datuak gurutzatuz, beraz, ikusi dezakegu nola auzoan etxebizitza tipologia bat nabarmentzen den: 61-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena; sukaldea, egongela, 3 logela eta komun bakarra duena; eta igogailua eduki edo ez eduki dezakeena. Ezaugarri horiek, auzoko 3.2 atalean aztertu ditugun bi etxebizitza tipologia errepikakorrenen ezaugarriak azalerraten dituzte: 4 solairuko bloke linealetako eta H oin-planta duten blokeetako etxebizitzak.

## D/ Eguneroko bizitza eta harreman komunitarioak

### Eguneroko bizitzaren espazioak



104. irudia. Galtzarabordako eguneroko sarearen planoa. Iturria: egileek egina.

104. irudian ikusi daitekeen bezala, Galtzarabordako bizilagunen eguneroko bizitza auzoan bertan eta inguruko auzoetan garatzen da. Alabergan gertatzen den bezala, egunerokotasuneko zerbitzu asko, gehienak esan dezakegu, auzotik kanpo daude, eta horrek inguruko auzoetarako mugikortasuna areagotzen du.

Auzotik kanpo dauden eguneroko ekipamenduen kokapenari dagokionez: nagusien eguneko zentroa Martin Etxeberria kalean dago; Uztargi Haurreskola publikoa Tellerialde plaza aurrean dago; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentroak hainbat daude inguruan (Cristobal Gamón, Koldo Mitxelena, Telleri-Alde edo Bizarain besteak beste);

anbulatorioa Beraunen dago; administrazio-izapideak egiteko Alde Zaharre-ra joan beharra dago Udaletxera; gazteleku eta ludoteka hurbilenak Beraunen daude; eta azkenik, kultur jardueretara edo liburutegira joateko Niessen kulturgunea edo Lekuona fabrika leudeke. Komertzioari dagokionez, auzoan badago eguneroko komertzioa, baina auzoan zehar sakabanatuta egonik eta leku oso puntaletan, auzotarrentzat ohikoa da Beraunera edo Zentrorantz mugitzea erosketak egiteko, horiek baitira inguruko gune komertzial nagusiak. Azkenik, harreman espazioak egon badaude auzoan, baina orokorrean gutxi erabiltzen direla esan dezakegu, bereziki etxe inguruetan dauden harreman txoko txikiak<sup>127</sup>. Hurrengo atalean, horretan eta auzoko eguneroko bizitzaren beste aspektu batzuetan sakonduko dugu.

### Eguneroko bizitza auzoan

Auzo lasaia da Galtzaraborda<sup>128</sup>, inguruko auzoekin alderatuta bizitasun gutxi daukana<sup>129</sup>. Orografia, bizitasun falta horren baldintzatzaile garrantzitsua da, mugikortasuna asko zailtzen duelako, eta aurretik aipatu bezala, kaleen arteko hierarkia argiak lausotzen dituelako. Hala dio auzokide batek: “[Galtzaraborda] auzo-harreman normalik ez izatera kondenatuta dago, eraikita dagoen altuera desberdinengatik.”<sup>130</sup> Hori horrela izanik, lau gune nagusiren inguruan ematen da auzo bizitza: Galtzaraborda hiribideak zentrotik hurbilen duen tartean, hots, Aralar plaza inguruan; Parke kalean; Urdaburu parkearen inguruan; eta Galtzaraborda hiribidearen alde altuenean, Beraunekin muga egiten duen zati horretan. Auzokide honek horrela azaltzen du: “Orografiak Galtzaraborda markatzen du, eta lau geruzatan banatzen du. Galtzaraborda lehenengo aldapan hasten da, Aralar plazan. Eta horiek ez zuten inoiz Galtzarabordatzat hartu. Guk ere ez dugu Galtzarabordatzat hartu, sektore independentea da. Ondoren bigarren sektore bat dago, Parke kalea barne hartzen duena. Hor izan du [auzoak] bizitzarik handiena. Baina hori ere, urte batera arte, 2010era arte jar genezake. 2010era arte bizitza Parke kalearen inguruan garatu da batez ere. Igantzi kalea ere, baina independizatu zen eta bere auzo elkarte propioa dauka. 2000 inguruan independizatu egingo zen. Galtzarabordako parte altua, [Urdaburu] parkea dena, sektore txiki baina nahiko jendetsua da, nahiko biztanle dituen, uste dut hamar atari dituela, baina 400 edo 500 bizilagun dira. 40-45eko

127 4. tailerra (2023/01/24).

128 7. elkarrizketa (2022/10/27).

129 5. elkarrizketa (2022/09/21).

130 16. elkarrizketa (2023/01/18).

*blokeak dira atari bakoitzeko gutxi gorabehera. Eta ondoren zati altuena dago. Horren guztiaren ondorioz, eremu desberdinak egon dira, eta ez da harreman handirik egon zati horien artean.*<sup>131</sup>

Auzo bizitzaren beherakadan eragin handia izan du ere komertzioak azken hamarkadetan izan duen gainbeherak. Gizartean eman diren kontsumo ohituren aldaketez harago, Galtzarabordan lokal komertzialen desagerpen bat gertatu da aurretik aipaturiko “Bizitegitarako Hiri Lurreko Hainbat Esparru Finkatuetan Kokatzen Diren Lokaletan Hirugarren Sektoreko Erabileratik Bizitegi Erabilerarako Aldaketa Egiteko Jardunak Arautzen Dituen Ordenantza”<sup>132</sup>-ren aplikazioaren ondorioz. Gainera, baldintzagarria da ere mugakide dituen auzoen izaera komertziala. Izan ere, Zentroaren eta Beraunen artean kokatzen da Galtzaraborda, Errenteriako nukleo komertzial nagusiak diren bi auzoen artean. Auzokideek diotenaren arabera, 2000 eta 2010 urteen artean komertzioaren gainbehera nabarmena eman zen, eta erosketak egiteko auzotik kanpo joatearen beharra areagotu zen. Behar hori asetzeko, auzo elkarteak Urdaburu parketik igaroko zen autobus baten eskaera egin zuen, eta lortu ere, egun U6 linea dena. Horrek eguneroko erosketak egitea erreztu zuen, baina aldi berean, auzotik irteteko joera ere indartu. “Igogailuak baino lehen jadanik gertatzen zen [auzotik irteteko joera]. Autobus famatua lortu genuen, pila bat kostatu zitzaiguna, eta horrek asko lagundu du erdigunera erosketak egitera joan ahal izateko. Beharrezkoa da, baina aldi berean, lehen jendea gehiago geratzen zen Parke kalean”<sup>133</sup>. Gaur egun dagoen komertzio apurra gainbeheran jarraitzen du. Izan ere, azken urteetan hainbat denda itxi dira, auzoan zegoen kutxazaina kendu dute, Jubilatuen Elkarteko taberna itxi egin da, eta baita polikiroldegiko taberna ere. Auzokideen esanetan, “ez dago ezer erosketak egiteko. Mundu guztia autobus txikia hartu eta Eroskira edo erdigunera joaten da.”<sup>134</sup>

Harreman espazioen kalitateak ere zeharo baldintzatzen ditu auzo-harremanak. Auzoaren izaera terrazatuaren ondorioz, biltzeko toki txiki eta sakanatuak daude auzo guztian zehar, eta bestalde, Urdaburu parkea bezalako espazio zabala dago, tamaina askoz ere handiagoa duena. Erdibideko tamaina duten harreman espazio lauen faltak, eskala-ertaineko harreman-nodoak eratzea zailtzen du. Etxebizitzaren pareko harreman txoko txikiak ez dira ape-

131 *Ibid.*

132 [www.errenteria.eus/udala/araudiak-ordenantzak-eta-erregelamenduak/udal-ordenantzak/](http://www.errenteria.eus/udala/araudiak-ordenantzak-eta-erregelamenduak/udal-ordenantzak/)

133 4. tailerra (2023/01/24).

134 7. elkarrizketa (2022/10/27).

nas erabiltzen, eta auzokideekin topo nahi eginez gero Urdaburu parkea da erreferentziatzko elkargune nagusia: *“Jendeak ia ez ditu erabiltzen etxeen azpiko bankuak eta eremuak. Jendeak igogailua hartu, igo eta parkera doa. Ezta etxeen azpian ere, dauden korridoreetan, ezta murrutxoetan ere”*<sup>135</sup>. Auzokide hau lau solairuko bloke linealen pean dauden korridoreez eta murre txikiez ari da. Tipologia horretako bloke guztiak halako espazioez inguratuta dauden arren, sortzen dituzten kaleak ez dira pasozko gune, eta ondorioz, ez dira auzokideekin topo egiteko leku aproposak.

Herritarren zahartze progresiboak ere, auzo konplexu bilakatzen du Galtzaraborda eguneroko bizitza eroso bat garatzeko. Auzoko populazioaren eboluzioari erreparatzen badiogu, zera ikusiko dugu: azken 10 urteetan Erreterian 65 urte edo gehiago zituzten herritarren proportzioa ia 4 puntu handitu den bitartean, Galtzarabordan bizi diren pertsona nagusien proportzioa 3 puntu jaitasi da<sup>136</sup>. Auzoko biztanleria mantendu egin dela aintzat hartuta, badirudi auzora bizitzera datozen belaunaldi berriak ez direla 65 urte baino gehiagoko giza taldekoak.

Elkarrizketatutako auzokide batek, auzoko eskolaren itxiera azpimarratzen du ere auzo bizitzaren beherakadaren faktore garrantzitsu bezala: *“Azken 20 urteetan oso faktore garrantzitsua izan da eskola ixtea. Hori, nire ustez, oso behin betikoa izan da auzoko pobreziarako, eskola bizitzeko leku bat delako. [...] A eredu zen, eta D eredura ez pasatzea erabaki zen, momentu horretan Batzordean zeuden pertsonak erabaki zuten. Egia da oso auzo euskalduna ez dela, baina hor oso ikuspegi eskasa egon zen, edo ezin izan genuen egoera behartu pertsonak errespetatzeagatik, ez zutelako ikusten, eta hori oso behin betikoa izan da niretzat. Auzoko umeak eskolara zihoazen, elkar ezagutzen zuten. Gurasoen elkar-atea zegoen. Gurasoak ere elkartzen ziren, hitz egiten zuten, irakasleekin gauzak antolatzen zituzten. Bizitza pixka bat ematen duen hori. Haurrak orain ikastolan banatu dira, Bizarainen eta Gamonen, eta nik uste dut horrek hutsunea eragiten duela.”*<sup>137</sup>

Faktore guzti horien ondorioz, auzo-bizitza txikia duen auzoa da Galtzaraborda. Hala ere, azken hamarkadan egindako igogailu publikoek gune ezberdinen ko-

135 4. tailerra (2023/01/24).

136 2012an Erreterian biztanleen %20,51k zituen 65 urte edo gehiago, eta 2022an %24,10-ak. Galtzarabordan aldiz, 2012an biztanleen %25,91k zituen 65 urte edo gehiago, eta 2022an %22,97-ak.

137 15. elkarrizketa (2023/01/10).

nektibitatea asko erraztu dute. Izan ere, mugimendu asko ematen da igogailuen inguruan, eta asko erabiltzen dira zenbait lotura egiteko, hala-nola: tren geltokira eta polikiroldegira jeisteko, Beraunen dagoen Koldo Mitxelena institutura igotzeko, edo anbulatorioa eta igerilekuetara joateko. Igogailu ezberdinen arteko konexio puntu garrantzitsua da Parke kalea, polikiroldegitik igotzen den igogailua eta Ion Arretxe parkeko igogailua lotzen baititu, eta Urdaburu parkearen parean dagoena ere (Urdaburu kalearen 23 eta 25 zenbakien artean). Parke kalean dago ere auzoko komertzioen ardatz nagusia, eta Auzo Elkartearen lokala, non hainbat tailer eta jarduera antolatzen diren. Datuen ezaugarriengatik, beraz, auzo-bizitzaren erreferentziazko espazio bat dela esan dezakegu.

Urdaburu parkea ere elkargune esanguratsua da auzoan. Nagusiak sarri egoten dira bertan paseoan edo egonean; umeak eta gurasoak jolasen inguruan biltzen dira arratsaldeetan, eta eguzkiztapenak ere, leku atsegina bilakatzen du: neguan eguzkiak ematen dio jolasen inguru horretan, eta udan gune itzaltsuak ditu pergola inguruan.<sup>138</sup>

Jende mugimendu nabarmena duen beste leku bat polikiroldegiaren eta tren geltokiaren plaza da, Aiako Harria kalean. Joan-etorri askodun gunea da, baina auzoaren mugan eta kota baxuenean egonik, ez dauka auzo-bizitzaren trakzio-gune izateko gaitasunik.

Azkenik, eskola zaharra aipatu beharreko jarduera-gune ere bada, bertan zenbait elkarte baitaude jarduera ezberdinak garatzen: Team Látigo boxeo kluba, Kamelamos Adiquerar ijito elkarte, edo Aljarafe elkarte, besteak beste.

## Elkartegintza eta harreman komunitarioak

Auzoaren sorreran eta ondorengo hamarkadetan auzo bizitza handia izan duen auzoa da Galtzaraborda. Beharraren aurrean, auzokideak antolatu eta inguruaren hobekuntzagatik borrokan jardun dira urteetan zehar. Egun, tentsio horrek beherakada nabarmena jasan du, eta auzokideek oraindik ere auzoa hobetzeko eskaerak bideratzen dituzten arren, parte-hartze soziala asko txikitu da. Auzoaren soziologia nabarmen aldatu da azken urteetan, eta horrela azaltzen du auzokide honek: *“Azken urteetan aldaketa bat egon dela uste dut. Auzoa asko zaharkitzen joan da. 40 urte pasa dira, ezta? Ba orduan [auzoa sortu zenean] 40 urte edo hogeita hamar inguru zituztenak, orain 70 edo 80 urteetan gauden pertsonak gara. Orduan, jende horietako asko bere herrietara*

*joan dela uste dut, edo hil egin da. Haien etxeak alokatu dituzte, eta inmigrazio asko etorri da, asko. Momentu hauetan inmigrazio asko dago. Bikote gazteak ere badaude, baina auzo-zentzu gutxikoa iruditzen zait niri, Errenteriakoa gehiago, betidanik izan direlako behekoagoak, Errenteriakoak, eta ondoren etxea hemen erosi dute, baina bizitza Errenterian egiten jarraitzen dute”<sup>139</sup>. Eustateko datuak aztertzen baditugu, zera ikusi dezakegu: azken 10 urteetan auzoko bizilagun kopurua mantendu egin da<sup>140</sup>, baina auzokideen jaioterrian aldaketa nabarmenak eman dira. EAEn jaiotako bizilagunen kopurua %59an mantendu den bitartean, Estatuko beste probintzia batzuetan jaiotakoen proportzioa 8 puntu jaitsi da, eta paraleloan, atzerrian jaiotakoen proportzioa 8 puntu igo eta bikoiztu egin da<sup>141</sup>. Hala ere, datu ofizialetan ageri ez diren bizilagunak ere badaude auzoan, bizi baldintza oso prekarioetan bizi direnak, alokairu kontraturik gabe, eta ondorioz, errolda eskubiderik gabe: “Logelak alokatzen ari diren pisu horiek guztiak erroldatu gabe eta kontraturik gabe alokatzen dituzte. Orduan, gela bat bilatzen etortzen den jendea dago, eta baliabideak eta eskubi-deak izateko ate oro ukatzen diete. [...] Baldintza hoietan bizi diren pertsonen, oso zaila da esatea: ahaztu hori edo alde batera utzi ezazu eta etorri, bilera batera goazela, Errenteriarri buruzko ez dakit zeri buruz hitz egingo dugula...”<sup>142</sup>*

Hori horrela izanik ere, auzoan badaude herritarrek bideratutako elkarteak, eta hurrengo lerroetan zerrendatzen dira:

1. Gure Leku Auzo Elkarte<sup>143</sup>: 1993<sup>144</sup>an sortua da, eta parte-hartze handiagoko eta txikiagoko garaiak izan ditu. Auzorako hainbat jai eta jarduera anitzak antolatuta izan dituzte, eta gaur egun, aisialdi jarduera eta tailerrak egiten dituzte beraien lokalean.
2. Jubilatuen elkarte: 1982<sup>145</sup>an sortu zen, eta eragile aktiboa da auzoan. Denbora libreko jarduerak egiten dituzte, eta elkartearen espazioa erabilera handia duen gunea da.
3. Cáritas: auzoan 1974an ezarria, auzoaren sorreraren pare. Zaurgarritasun egoeretan dauden pertsonekin lan egiten dute, bizi baldintzak hobetzeko prozesuak bideratzen. Udalaren Zerbitzu Sozialekin koordinazioan

139 15. elkarrizketa (2023/01/10).

140 2012an 4.640 biztanle zituen auzoak, eta 2022an 4627 biztanle.

141 Estatuan jaiotakoak 2012an %33a ziren, eta 2022an %25a. Atzerrian jaiotakoak aldiz, 2012an %8a ziren eta 2022an %16a.

142 15. elkarrizketa (2023/01/10).

143 10. elkarrizketa(2022/11/17).

144 Errenteriako Udalaren webgunea.

145 www.euskadi.eus




lan egiten dute. Horrez gain, udalekuak eta aisialdi ekintzak antolatzen dituzte, eta talde topaketak hego-ameriketara jaiotako auzotarrekin.

4. Orotarik gazte-taldea: parrokiako denbora libreko taldea, 30 urte baino gehiago daramatza auzoan lanean. Ikasturte honetan, lehenengo aldiz, ez dute monitore talderik osatu.
5. Aipatutakoez gain, Pio Baroja eraikinean zenbait elkarte edo talde daude, baina ez daudenak auzoan bereziki errotuak: Team Látigo boxeo kluba, Camelamos Adiquerar ijito elkarte, Aljarafe Centro Cultural Andaluz.

Galtzarabordan gaur egun ez da auzo mailako ekimen publiko eta kolektiborik antolatzen. Pandemiaren geroztik ez dira auzoko jaiak antolatu, eta egiten diren jarduerak barrualdeetan garatzen dira elkarte edo talde bakoitzaren espazioetan.

### 4.1.5 Beraun

#### A/ Biztanleriaren ezaugarriak




105. irudia. Beraungo biztanleria urte-tartetan berezia.  
Iturria: egileek eginga EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Beraunen 5.537<sup>146</sup> pertsona bizi dira, %50,46 emakumeak eta %49,54 gizonak. Auzoko biztanleen adin banaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola %11,6 umeak diren (0-14 urte), %4,7 gaztetxoak (15-19 urte), %12,2 gazteak (20-34 urte), %39,5 helduak (35-64 urte) eta %32 nagusiak (65 urte edo gehiago). Azpimarratzekoa da, nola pertsona nagusien proportzioa Errenteriako batezbestekoa baino nabarmen altuagoa den (Errenteriako herritarren %24,1ak ditu 65 urte edo gehiago). Izan ere, aztertzen ari garen lau auzoen artean, pertsona nagusien proportzio handiena duena da Beraun<sup>147</sup>.


146 Eustat, 2022.

147 Alabergak %16,18, Galtzarabordak %22,97, Beraunek %32 eta Kaputxinoek %23,62. 2022ko datuak. Eustat, 2022.



106. irudia. Beraungo biztanleria jaioterriaren arabera berezia. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Bizilagunen jaioterriari dagokionez, %59,8a Euskal Autonomia Erkidegoan jaioa da, %31,6a Estatuko beste autonomia erkidegoetan, eta %8,6a atzerrian. EAEn jaiotako gehienak gipuzkoarrak dira (%98,49). Kasu honetan, aipagarria dena da estatuko beste autonomia erkidegoetan jaiotakoen proportzioa udalerrri osokoa baino 11,4 puntu altuagoa dela, eta aztertzen ari garen auzoen artean profil horretako bizilagunen proportzio altuena duena<sup>148</sup>. EAEn jaiotakoen proportzioa aldiz, %59,8 da, Errenteriko proportzioaren ia 10 puntu baxuagoa<sup>149</sup>.




107. irudia. Atzerrian jaiotako Beraungo biztanleria nazionalitatearen arabera berezia. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Nazionalitate atzerritarra duten bizilagunen artean aldiz, hurrengo herritartasunak dira jendetsuenak: Amerikarrak ia erdiak dira (%48,7a, non %23,5 He-


148 Alabergan %13,3, Galtzarabordan %25, Beraunen %31,6, eta Kaputxinoetan %23,7. Eustat, 2022.

149 Errenteriko biztanleen %68,73 jaio da EAEn. Eustat, 2022.

go-Amerikarrak diren eta %25,2 Amerikako gainontzeko lurraldeetakoak). Magreb-go herrialdeetako bizilagunak %18,3a dira, eta Ekialdeko Europa-koak %16,2.



108. irudia. Beraungo biztanleria etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopuruaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



109. irudia. Beraungo biztanleria etxebizitzaren jabetza-erregimenaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Etxebizitzarekin eta horri lotutako bizimoldeei buruzko datuez hurrengo esan dezakegu: EUSTAT-en arabera, 2016an auzokideen %20,1a bakarrik bizi zen, herena inguru bikoteka (%36,7), eta %41,6a 3 eta 5 pertsona arteko taldeetan. Gainontzeko auzoetan bezala, datuen arabera, auzotarren gehiengoak bizitoki duten etxebizitzaren jabe da (%89,6), eta %9,1a alokairuan bizi da.

## B/ Hiri-espazioa eta etxebizitzak

### Antolamendu orokorra: ingurunea, egiturazko elementuak eta etxebizitzaren ezaugarri orokorrak



110. irudia. Beraungo hiri-bilbearen ardatz eta gune nagusiak. Iturria: egileek egina.

Galtzarabordaren hegoaldean kokatuta dago Beraun, udalerrriaren eremu urbanizatuaren hego-mendebaldeko muga. Galtzarabordak betetzen duen malda bere gorenera iristen den puntuan hasten da auzoa, eta GI-20 errepideak hegoaldeetik muga argia ezartzen dio. Hau ere, aurrekoak bezala, lurzoru maldatsuan ezarritako auzoa da, mendebaldeko eremuan malda lauagoa duena, baina auzoaren hego-ekialdean beheranzko aldapa nabarmenean ezarria (%30eko malda inguru). Izan ere, Errenteriako hirigunean dagoen punturik altuena Beraunen dago, zehazki, Beraun, Galtzaraborda eta Kaputxinoak elkartzen diren puntuan. Maldak, eraikinen ezarpena baldintzatzen du, baina baita kota ezberdinetan sortzen diren kaleen arteko loturak ere. Kasu askotan, eskailera bitartez komunikatzen dira altuera ezberdinetan dauden kaleak, gero eta arrapala eta igogailu gehiago egiten ari diren arren.

Orografia horretara moldatuz, sestra-kurben norabidea jarraitzen duten ardatz arabera kokatu dira eraikinak auzoan. Ezartze horretan, bi gune nagusi sortu direla esan dezakegu: malda txikiagoa duen eremua, hots, Pablo Sorozabal plazaren inguruan egituratzen dena; eta malda handiagokoa, Galtzaraborda hiribidearen eta Beraun kalearen artean dagoena.

Auzoaren mendebaldeko gunean, orografia lauagoak blokeen alineazioak bi norabidetan ezartzea ahalbidetzen du, eta ondorioz, hainbat plaza sortzen dira blokeen arteko eremu terrazatuetan. Ardatz elkarzutek topo egiten duten le-

kuan dago eremu honetako plaza garrantzitsuena: Pablo Sorozabal plaza. Horren inguruan kokatzen dira inguru horretako gainontzeko plazak (Sarriegi, Monroy eta Aldakonea), eta hemendik abiatzen da baita Aita Donostia kalea ere, auzoko ardatz komertzial nagusia. Gune horrek erabilera nahasketa handia dauka, etxebizitza blokeak bestelako erabilerekin elkarbizi baitira erai-kinen altuera ezberdinetan: komertzioak, tailerrak, lokal komunitarioak, eta dotazio publikoak besteak beste.

Auzoaren ekialdeko eremua Galtzaraborda etorbidean hasi eta hego-ekialde-rantz beheraka doan maldan ezartzen da. Maldaren nabarmentzeak eta inguru horretan kokatutako hiru ekipamendu nagusiek (Koldo Mitxelena institutua, Bizarain ikastola eta Beraungo kirolgunea), mendebaldeko eremutik banatzen dute auzogune hau. Kasu honetan, etxebizitza blokeak modu desordenatua-goan kokatzen dira, hiri-bilbe irregularra sortuz. Eremu lau eta zabal gutxi daude eremu honetan, eta Beraun kalearen inguruan biltzen dira, hots: Luis Mariano plaza eta Beraun kalearen parean dagoen parkea.

Auzoan, aipatutako bi azpieremuak ezberdinu daitezkeen arren, auzoaren osotasunean etxebizitza-bloke tipologia bera erabili da, eta horrek osotasun estetiko eta tipologikoa ematen dio Berauni. 20 metroko sakonera duten blo-keak dira, behe solairuan eremu portikatua dutenak, eta portikoetan, lokal komertzialak. Etxebizitzek altuera aldakorra dute, bost eta hamaika solairu artekoa, maldarekiko kokapenaren arabera aldatzen dena: kota baxuenetako eraikinek solairu kopuru handiena dute (ekialdean), eta alderantziz, kota al-tuenetako eraikinak dira auzoko baxuenak (mendebaldean).



111. irudia. Beraungo eguneroko espazioak: harreman-guneak, ekipamenduak, komertzioa eta garraio publikoko gairekuak. Iturria: egileek egina.

## Harreman espazioak

Auzotarren esanetan “*bost plaza daude Beraunen: Pablo Sorozabal, Monroy, Sarriegi, Aldakonea eta Luis Mariano*”<sup>150</sup>, eta plaza horiez gain, Beraun kalearen parean, auzoko parkea dago. Hurrengo lerroetan plazak eta parkea deskribatuko ditugu:

1. Pablo Sorozabal plaza: auzoko harreman espazio handiena da, auzoaren mendebaldean kokatua. Bi kota ezberdinetan dago antolatuta: goialdean erabilera anitz jaso ditzakeen eremu lau eta zabala dauka, perimetroan zuhaitzez eta eserlekuz inguratua. Porteria txiki bat eta ping-pong mahaia ere baditu. Eremu horrek paseorako, korrika egiteko edo jarduera ezberdinetan aritzeko aukera eskaintzen du. Behealdean umeentzako jolas-gunea dauka, estalki batez babestua. Bi altuera horiek eskailera eta arrapala batez konektatzen dira.
2. Monroy plaza: auzoaren ipar-mendebaldean kokatua, Kaputxinoak eta Galtzaraborda auzoekin muga egiten duen puntu bat dago, eta auzo-sarrera funtzioa betetzen du. Umeentzako jolas-elementuek plaza erdia hartzen dute, eta perimetro osoan zehar eserlekuak eta berdeguneak ditu plazak. Hainbat komertzio txiki ere bertan daude.
3. Sarriegi plaza: auzoaren hego-mendebaldeko muga kokatua, Isidro Ansorena kalearen bukaeran zegoen hondar-espazio bat zen, eta 2022an berriro egin zuten belaunaldiartekotasuna ardatz hartuta. Bi eremu ditu: batean kirol kantxa txiki bat dago, eta bestean haur eta helduentzako jarduera eremua. Perimetroa berdegunez eta eserlekuz inguratuta dago.
4. Aldakonea plaza: Aldakonea kalean kokatua, plaza hau ere auzoaren mugetan dago, bi etxebizitza blokeren atzealdean. Azaleraren laurdena haurrentzako jolasek hartzen dute, eta inguruan eserlekuak ditu. Perimetroaren zati handiena berdegune eta zuhaitzez inguratuta dago.
5. Luis Mariano plaza: auzoaren hego-ekialdean kokatua, jolaserako elementuak ditu, eta baita ere eserlekuak plazan zehar banatuta. Plaza zabala da, paseatzeko edo korrika eta jolas librean aritzeko aukera ematen duena. Parean duen Beraun kaletik banandua dago kota aldaketa dela medio.
6. Beraun kaleko parkea: Beraun kalearen luzera osoan zabaltzen da par-

---

150 1. tailerra (2023/01/10).

kea, Kirolgunean hasi eta Pontikaraino. Hainbat elementu edo gune ezberdin ditu: skate pista, txakurrentzako eremua, nagusientzako kirol elementuak, eta zuhaitzez eta berdegunez inguratutako eserleku gune, luzeran zabaltzen dena.

## Komertzioa

Gune komertzial indartsua da Beraun, azken urteetan komertzio txikiaren gainbehera jasan duen arren, oraindik ere sare komertzial indartsu eta anitza daukana. EUSTAT-eko datuen arabera, 2021ean 82 merkataritza-establezimendu zeuden, hurrengo kategorietan banatuta:

- 13 janari saltoki: 2 harategi-urdaitegi, 2 frutadenda, 6 okindegi-gozotegi, 2 janari-denda txiki eta supermerkatu bat.
- Liburu-denda bat
- Gimnasio bat
- 4 finantza erakunde
- 4 burdindegi
- 2 bazar
- 2 arropa-garbitegi
- Mertzeria bat
- 2 altzari denda
- 22 ostalaritza establezimendu: 21 taberna eta janari prestatua saltzen duen denda bat
- 9 ile-apaindegi eta estetika zentro
- Erloju-denda bat
- 5 arropa-denda
- Zapata denda bat
- 7 osasun-establezimendu: 2 hortz-klinika, 2 mediku-kontsultategi, 2 farmazia eta optika bat
- 7 automobilgintza establezimendu: 2 kontzesionario eta 5 tailer

Lokal komertzial asko dituen auzoa da Beraun, auzoan nagusi den eraikin-tipologiak kale-kotan lokalak baititu beti. Galtzarabordan gertatu den bezala, lokalak ziren zenbait espaziotan etxebizitzak egin dira *“Bizitegitarako Hiri Lurreko Hainbat Esparru Finkatuetan Kokatzen Diren Lokaletan Hirugarren Sektoreko Erabileratik Bizitegi Erabilerarako Aldaketa Egiteko Jardunak Arautzen Dituen Ordenantza”*-ren aplikazioaren ondorioz. Hori horrela izanik ere, auzoan ardatz komertzial indartsuak daude, besteak beste: Aita Donos-

tia kalea, Maurice Ravel kalea, Galtzaraborda hiribidea eta horien zeharkako kaleak dira.

## Ekipamenduak

Hiru ekipamendu nagusi daude Beraunen, auzoaren eremu lauena eta maldatsuenaren artean banaketa lerro bat osatzen dutenak. Gainontzeko dotazioak etxebizitza eraikinen behealdeetan kokatzen dira. Ekipamenduen artean “eguneroko ekipamenduak”<sup>151</sup> direnak eta ez direnak daude, eta hurrengo lerroetan zerrendatzen dira:

Eguneroko ekipamenduak:

1. Koldo Mitxelena institutua: Galtzaraborda hiribidearen 43 zenbakian kokatua, Koldo Mitxelena herri ikastetxearen parte da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bideratua. Goizeko ordutegia dauka, 8:00etatik 14:00ak edo 15:15ak arte, astegunaren arabera.
2. Bizarain ikastola: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zentroa Juan Crisostomo Arriaga z/g kalean kokatuta dago, eta 8:45etatik 16:00ak arte egon ohi da zabalik. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentroa San Markos bidean dago, auzoaren kanpoaldean.
3. Beraungo kirolgunea: Beraun z/g kalean kokatua, futbol zelaia, atletismo pistak eta udal frontoia barne-hartzen ditu. Horiez gain, gune estali zabal bat dauka atletismo pistaren alde batea, herritarrek paseorako edo kirol librerako erabili dezaketena.
4. Udal-ludoteka eta gaztelekuak: Pablo Sorozabal plazan kokatuta daude biak. Ludotekak 6-12 urte bitarteko umeentzako aisialdi zerbitzua eskaintzen du, eta gaztelekuak 13-17 urte bitarteko nerabeekin. Astelehenetik ostiralera dago zabalik, 17:30 eta 19:30 bitartean.
5. Kultur etxea eta Herritarren Harretarako Zerbitzua: Aldakonea kalearen 2. zenbakian kokatuko den zerbitzua da, eta egun irekitze prozesuan dago.

Gainontzeko ekipamenduak:

6. Monfragüe kulturgunea: Galtzaraborda hiribidea z/g helbidean kokatua, eskolaurre zaharraren eraikinean. Hor daude Monfragüe eta Concha Rociera kultur elkarteak. Ez daukate ordutegi finkorik.


---

151 Eguneroko ekipamenduen definizioa eta kategoria horretan sartzen diren ekipamenduen zerrenda 4. atalaren hasieran aurkitu daiteke.




7. Lokal komunitarioak: hainbat lokal komunitario daude auzoan, jarduera ezberdinetan dabilten elkarte eta taldeek erabiliak. Ez daukate ordutegi finkorik. Udal webgunearen informazioaren eta egindako elkarrizketen bitartez hurrengoak identifikatu ditugu:
- “Ongi etorri” Auzo Elkarte, Aita Donostia 4.
  - “Bienvenido” jubilatuen elkarte, Aita Donostia 10 eta 12.
  - “Erlontzi” emakume taldea, Jose Mari Usandizaga 2-4 atzea.
  - Pilar de Fuego elkarte, Beraun kalea 27.
  - Nigerian de artistas de Nigeria, Beraun kalea 27.
  - Ostarte elkarte, Isidro Ansorena kalea z/g.
  - Beraungo Jai Batzordea, José María Usandizaga 6.
  - Beraungo Abesbatza Herrikoa, José María Usandizaga kalea.


## Etxebizitzak




112. irudia. Beraungo etxebizitzak blokean dituzten etxebizitza kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.




113. irudia. Beraungo etxebizitzak igogailua duten edo ez duten arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



114. irudia. Beraungo etxebizitzak azaleraren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



115. irudia. Beraungo etxebizitzak gela kopuruaren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



116. irudia. Beraungo etxebizitzak komun kopuruaren arabera bereziak.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Beraunen 2331 etxebizitza daude 95<sup>152</sup> ataritan banatuta. Etxebizitzaren gehien-goia (%84,4) 21 eta 40 etxebizitza artean dituen blokeetan dago; %10,5a 41 eta 60 etxebizitza bitarteko blokeetan; eta %4,1a 11 eta 20 etxebizitza bitarteko blokeetan. Irisgarritasunari dagokionez, etxebizitza ia guztiek dute igogailua (%99,4), eta 14 etxebizitza soilik dira igogailurik ez dutenak.

Etxebizitza barrualdeen ezaugarrietan murgiltzen bagara, ikusi dezakegu nola %94,7ak 61 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duen, %3,6ak 91 eta 120 m<sup>2</sup> artean dituen, eta %1,7ak 10 eta 60 m<sup>2</sup> bitartean. Gela kopuruari dagokionez, bi here-nek bost gela dituzte (%69,8), ulertuz bost gela horiek sukaldea eta egongela ere barne hartzen dituztela. %17,9ak 6 gela ditu, eta %8,8ak 7 gela edo gehiago. Tipologia orokortuenak, beraz, hiru logela edukiko lituzke. Komun kopuruari dagokionez, ia etxebizitza guztiek komun bakarra daukate (%97,5), eta %25ak aldiz bi komun edo gehiago.


Datu horietan argi geratzen da Beraunen ere tipologia bat nagusi dela: 61-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena; sukaldea, egongela, hiru logela eta komun bakarra dituen; eta igogailuduna. Izan ere, 3.2 atalean ikusi dugun bezala, bloke mota bat errepikatzen da nabarmen auzoan: oinean “H” forma duten blokeak, bata bestearen segidan jartzeko aukera ematen dutenak, eta Beraunen, kasuan gehienetan, luzerako blokeak sortzen dituztenak.



117. *irudia*. Beraungo etxebizitza bloke bereizgarriak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

## D/ Eguneroko bizitza eta harreman komunitarioak

### Eguneroko bizitzaren espazioak



118. irudia. Beraungo eguneroko sarearen planoak. Iturria: egileek eginak.

Beraungo bizilagunen eguneroko bizitza auzoan ematen da batez ere. Eguneroko zerbitzu asko auzoan bertan dauden arren, badaude zenbait behar inguruko auzoetan asetu behar direnak.

Aurreko puntuan azaldu dugun bezala, auzoan dauden eguneroko ekipamenduak hurrengoak dira: Koldo Mitxelena institutua, Beraungo kirolgunea, udal-ludoteka eta gaztelekua. Eguneroko beste hainbat ekipamendu, aldiz, auzotik kanpo daude, hala nola: anbulatorioa auzo parean dago, Beraun eta Kaputxinoen artean; barrualdeko kirol instalazio eta ikastaroak dituen polikirol-degi hurbilekoena Galtzarabordakoa litzateke; Uztargi Haurreskola publikoa zentroranzko bidean dago ere; nagusien eguneko zentroa Martin Etxeberria kalean dago, zentroan ere bai; eta administrazio-izapideak egiteko, oraingoan, Alde Zaharrera joan beharra dago, Udaletxera. Azkenik, kultur jardueretara edo liburutegira joateko Niessen kultur gunea edo Lekuona fabrika leudeke. Komertzioari dagokionez, esan genezake eguneroko beharrak asetzeko beste

komertzio daukala auzoak, eta egunerokoaz gain, komertzio espezializatua auzoan berta aurkitzeko aukera ere badagoela. Azkenik, harreman espazioak ere, hainbat daude auzoan bertan, eskala ezberdinekoak eta izaera indartsudunak.

Honenbestez, esan dezakegu zerbitzu sare oparoa duela Beraunek. Horrek auzotik kanporako eguneroko mugikortasuna gutxitzen du, eta ondorioz, auzo bizitza handitu.

## Eguneroko bizitza auzoan

Herri txiki batek bezala funtzionatzen du Beraunek. Jendeak orokorrean, elkar ezagutzen du eta auzoaren bizitza sozialaz gozatzeko ohitura du. Hala dio auzokide honek: *“Azpiegitura ikusgarriak dituen auzo bat dugu. Aurrezki kutxak ditugu, inem-a, ambulatorioa, Donostiara garamatzan autobusa dugu. Dena ondo badoa, ZU sistemadun kulturtxea izango dugu, Udalarekin zuzenean gestioak egin ahal izateko. Komertzioak ditugu. Herri txiki bat da, Saihesbidetik zuzenean irteten gara Donostiara edo Irunera joateko. Horrek bai markatu gaituela pixka bat gure izateko modua.”*<sup>153</sup> Zerbitzuen oparotasunak eta zentroarekiko distantziak herrixka izaera ematen dio auzoari. Izan ere, auzokideen artean zentrorra hurbiltzera doazela esateko *“Errenteriara joatea”* edo *“herrira joatea”* esamoldeak erabiltzea nahiko ohikoa da.

Bizitasun handia duen auzoa da beraz, eta bizitasun hori goialdean ematen da batez ere. Beraungo eremu baxueneko bizilagunek (ekialdekoek hain zuzen ere) Pontika auzorantz jaisteko ohitura dute, edo bestela, Beraungo goiko aldera igotzekoa. Izan ere, plazak auzo bizitzaren leku garrantzitsuak dira, eta paza gehienak auzoaren goikaldean daude. Plazen artean, Pablo Sorozabal da auzo bizitzaren bihotza.

Pablo Sorozabal plazaren inguruan biltzen da auzo bizitza indartsuena. Hori da auzokide ezberdinen topaleku nagusia, egoteko hainbat modu ahalbidetzen dituen. Ondorioz, nagusiak eta umeak; lasai, egonean daudenak eta baloiarekin jolastu nahi dutenak; edo errekadutara bidean topo egiten dutenak eta bertara umeekin jolastera doazenak biltzen ditu plaza horrek. Auzoko espazio lau eta zabalena dela esan dezakegu, egun osoan zehar eguzkiztapena daukana. Goizean zehar ohikoa da auzokide nagusienak bertan topatzea, paseoan, eguzkitan

153 18. elkarrizketa (2023/01/25).

eserita, edo errekadutarako bidean berbetan. Arratsaldeetan, jolasgunearen inguruan biltzen dira familiak, plazaren goiko aldean ibiltzen dira umeak korrika, eta inguruko taberna eta komertzioetako joan etorri eta topaketez kutsatzen da plaza. Plaza honetan antolatu dira historikoki auzoko ekimen garrantzitsuenak. Bizilagunek nostalgiaz gogoratzen dute nola, plaza berritu baino lehen, kioskoa eta zuhaitzak zeuden plazaren goialdean, eta nola jolasak eta musika ekitaldiak antolatzen ziren bertan. Gaur egun ez dago kioskorik, eta musika ekimenak antolatzean, jarri eta kentzen den eszenatokia erabiltzen da<sup>154</sup>.

Monroy plaza ere auzo bizitzaren beste espazio garrantzitsu bat da. Leku oso bizia da, eta bertan biltzen dira bizilagunak egonean eta jolasean. Auzoaren sarreran kokatuta egonik, anbulategira eta supermerkatu bidean, edo Kaputxinoetatik eta Galtzarabordatik etortzean, ohiko igarotze lekua da hau.

Monroy eta Pablo Sorozabal plazetatik abiatzen dira bizitasun handiena duten kaleak, hots: Aita Donostia, Maurice Ravel eta San Marko kaleak. Hiru kale horiek asteburuetan jendez lepo egon ohi dira, bertan dauden taberna eta terrazak sozializazio gune garrantzitsuak baitira. Komertzioz beteriko kaleak ere badira, eta orotariko komertzio txikia topa dezakegu hemen: frutadendak, liburudenda, burdindegia, okindegia, drogeria, altzari denda...

Auzoko topaguneekin jarraituz, Sarriegi plaza ere gune aipagarria da. 2022an plaza berritu eta jarduera ezberdinak egin ahal izateko egokitu zutenetik, auzoko atrakzio puntu bilakatu da<sup>155</sup>. Lehen zementuzko esplanada bat zen, pasorako toki bat Bizarain ikastolara bidean. Egun, beste auzo batzuetako bizilagunak ere hurbiltzen dira asteburuetan plaza honetan egotera. Gaztetoak dira batez ere plaza hau erabiltzen dutenak, 13-15 urte nerabeak.

Auzoko gune erreferentzialak aipatzen jarraituz, ezin ditugu Auzo Elkartearen lokalak eta horien aurrean dagoen arkupea ahaztu. Hori betidanik izan da topagune garrantzitsua auzoan, bai elkartearen jarduera handiagatik; eta bai arkupetako korridorea euriaz babestuta paseatzeko lekua baita. Egun eguzkitsuetan, egun osoa zehar jotzen du hor, eta aurrean eraikinik ez dagoenez, bista zabalaz gozatu daiteke bertatik. Hala diote auzokideek: *“Terraza honek asko ematen dizu. Arkupe bat da, euria ari zuenean eta pandemiaren ondorioz jendea atera ezin zenean hona etortzen zen... Jendea ibiltzen zen denbora guztian.*

154 4. tailerra (2023/01/24).

155 5. elkarriketa (2022/09/21).

*Eta eguzkiak jotzen duenean, jendea hona etortzen da, ez duzu etxerik aurrean, San Markos ikusten duzu, futbol-zelaia entzuten duzu, eta hau erretiratutako jendez eta paseoan dabilen jendez betetzen da. Ondoren [elkartearen] taberna garairen batean itxita egon dena, baina orain terraza ateratzen duzu eta beti dago jendea. Beti izan da erreferentzia Auzo Elkartearen terraza”<sup>156</sup>.*

Auzo bizitza aktibatzen duten ekipamenduen artean dago baita Bizarain ikastola ere, auzo-bizitzaren pieza garrantzitsu, bertan eta Kaputxinoetako Cristobal Gamón eskolan ikasten baitute auzoko ume gehienek. Harremanak sortu eta ehuntzeko espazio garrantzitsua da auzoko eskola. Horrekin batera, auzoko igerilekuak uda partean herri mailako atrakzio bilakutzen dira. Erabilera eta mugimendu asko sortzen dituen lekua da, baina auzoari begira, auzotarrak faltan botatzen dute kaleko igerilekuez gain, urte osorako kirol zerbitzuak auzoan bertan edukitzea. Izan ere, ekainetik irailera soilik daude zabalik, eta urteko gainontzeko hilabeteetan Galtzarabordako kiroldegia da kirola egiteko azpiegitura erabiliena auzotarren partetik.

Bukatzeko, auzoko gune estaliak edukitzeak, kaleetako bizitza handitzen duela diote auzotarrek. Alde batetik, Pablo Sorozabal plazago estalkia dago, umeen jolas eremua tapatzen duena. Bestetik, estadioan ere, aurretik deskribatutako gune estalia dago, paseatzeko, korrika egiteko edo jolas librean aritzeko aukera ematen duena. Horiek baloreari jarri eta asko erabiltzen diren arren, espazio estali balioanitz bat edukitzea botatzen dute faltan elkartegintzatik. Halako espazio batek ekimen jendetsuak antolatzeak aukera handia emango luke, eta baita auzotarrek egunerokoan erreserbarik gabe eta edozein jarduera egiteko bat-batekotasunez erabiltzeko aukera. Hala diote elkartegintzako kideek: “*Ez dugu leku handirik ekitaldietarako, udal bandarako edo danborradarako, adibidez. Hemen euria egiten badu, ez dugu gaitasun hori. [...] Bere garaian kiosko bat zegoen Sorozabalen. Baina gertatzen da Pablo Sorozabalen beheko aldean estali duten parkea, euria egiten duenean, nerabeak hor sartzen direla nora joan ez dutelako. Orduan jendea baloiarekin, edo pipekin...Eta elkarbizitza batzuetan zaila da, tokia zikintzen da. Ez da espazio balioanitz, zabuek hartzen baitute espazio osoa. Zabuek bezalako erabilera zuzenik ez duen espazio estalia falta zaigu.*”<sup>157</sup>

Finean, auzo bizitza handia eta izaera parte-hartzailea duen auzoa da Beraun, zerbitzuz ondo hornitua eta kale-bizitasun handia duena.

156 18. elkarrizketa (2023/01/25).

157 *Ibid.*

## Elkartegintza eta harreman komunitarioak

Elkartegintza bizi-bizia duen auzoa da Beraun, eta hainbat gai eta helburu lantzen dituzten elkarteak topa ditzakegu hemen. Elkarteen artean bi mota ezberdindu ditzakegu: auzoaren sorreratik bertan daudenak eta Beraunekiko lotura zuzena dutenak; eta auzoan modu zirkunstantzialagoan daudenak, hau da, auzoan lokal eskuragarritasun handia egonik, bertan egoitza duten elkarteak. *“Lehen motozale elkarte bat zegoen, modelista elkarte bat, animaliak zaintzen zituen beste bat. Asoziazionismo dezente zegoen, ez Beraunen berariaz zegoelako, baizik eta Beraunen lokalak zeudenez, hemen zeudelako. [...] Izan ere, udalarenak ziren lokal asko zeuden, eta udalak elkarteentzat erabiltzen uzten zuen.”* Bigarren horiek harreman azalekoagoa dute auzo bizitzarekin.

Edonola ere, Beraungo auzokideak oso prest daude auzo-bizitza dinamizatu eta horretan parte-hartzeko. Auzokide helduenei galdetuz gero, beraien gazarroan baino bizitasun gutxiago sumatzen dute kaleetan, biztanleria zaharkituagoa, ume gutxiago kalean... Horrez gain, elkarteetan modu jarraian parte hartzen duten auzokideak ere nagusitzen ari dira eta belaunaldi aldaketa erronka da talde askotan: *“Hemen hasi zenean, denak ginen gazteak. Eta seme-alabak zituzten. [...] Eta begira orain. 50 urte pasa dira... eta hil dira jada... eta hau 10 urte barru... Lehen komunikatiboagoak ginen. 10 urte barru jadanik ez gara egongo, ezta...”*<sup>158</sup>. Hala ere, auzokide gazteagoei galdetuz, Beraunek auzo bizitza indartsua duela iritzi dute. Hala azaltzen du elkartegintzan murgildutako auzokide batek: *“Auzo horrek parte hartzeko gaitasuna izango balu, oso auzo indartsua izango litzateke. Jende asko dago gauzak egitea nahi duena. Eta bestetik bagaude jende bat gauzak bakarrik egiten ez direla dakigunak. Guk ez dugu soldatarik jasotzen, ez ezer, gure denbora besteei eskeintzen diegu. Ondoren eskertzen dizute, “joe ze ondo jaiak”, orduan “zirikatu” behar zaie, ba gurekin kolabora ezazu. Esaten dizut, festetan ezin gara kexatu jendeak ematen digun laguntzaz, hesi bat mugitzen hasten zarenean, bizilagun guztiak etortzen dira laguntzera. 500 pertsonentzako paella antolatzen dugun aldiro denon artean jasotzen ditugu aulkiak. Jende guztia altxatzen da eta galdetzen du: “Zer behar da?” Jendea hor dago, topera dago. Baina falta da zera hori...”*<sup>159</sup>. Estatuko beste probintzia batzuetatik migratutako auzokide asko bizi dira Beraunen, eta zirkulo propioak asko mantendu dituzte. *“Hemen badago duela 40 urte etorri zen jendea eta doinu andaluziarra du edo extremadurar doinua. Eta ez dituzu hortik*

158 12. elkarrizketa (2022/11/22).

159 18. elkarrizketa (2023/01/25).



*aterako, jende berarekin erlazionatzen direlako. Auzo hau herrialdetik migratzen etorri zen jendearentzat eraiki zelako. Zentzu horretan auzo berezia da*<sup>160</sup>.

Honenbestez, hurrengo lerroetan, gaur egun auzoan dauden elkarte esanguratsuenak zerrendatzen dira. Hemen jasotakoak auzokideekin egindako elkarriketetan eta udal dokumentaziotik jasotakoak dira:

- “Ongi Etorri” Auzo Elkarte: 1973an sortu zen<sup>161</sup>, auzoaren sorrerarekin batera<sup>162</sup>. Udalarekin interlokuzio lan handia egiten dute auzotarren eskaerak eta auzorako hobekuntzak bideratzeko. Horrez gain, hainbat aisialdi eta kultura jarduera eskaintzen dituzte elkartearen lokaletan, eta taberna propioa ere badute. Elkartearen lehen urteak oso indartsuak izan ziren San Markoseko zabortearen itxiera lortzeko mobilizazioak zirela eta; eta egun, osasungitza publikoa indartzeko daude antolatuta.
- Jai batzordea: 2017an sortu zen auzoko jaien antolaketari jarraipena emateko (ordura arte Auzo Elkartetik antolatzen ziren jaiak). Auzo sentimendua eta batasuna lantzen dute jaien bitartez.
- “Bienvenido” jubilatuen eta pentsionisten elkarte: 1979an sortua, egun jarduera asko antolatzen ditu nagusientzat. Azken urteetan pertsona nagusi gazte eta dinamikoagoak sartu dira elkartearen, eta ekintza asko antolatzen ari dira.
- Koro herrikoia: 2018an sortua, entsaioetarako lokala daukate auzoan. Urtean zehar Beraungo kaleetan zehar abestera irteten dira, eta herri mailan antolatutako ekimenetan ere parte-hartzen dute. Koroarentzat data bereziki esanguratsuak dira Santa Ageda eta gabonak.
- “Concha Rociera” kultur elkarte: 1992n sortua, Andaluziako kultura eta dantzak zabaltzea du helburu. “Virgen del Rocío” eguna ospatzen dute auzoan.
- “Monfragüe” kultur elkarte: hau ere 1992n sortua, Extremadurako kultura zabaltzea eta bertan jaiotako arteko loturak sustatzea du helburu. “Extremadurako Kultur Astea” eta “Extremadurako ogi apurren eguna” antolatzen dituzte, besteak beste.
- Horiez gain, beste elkarte eta talde asko ere badaude, besteak beste: Beraun Bizirik merkatarien elkarte, txistulari taldea, kirol elkarteak

160 *Ibid.*

161 Errenteriako Udalaren webgunea.


162 Auzoko eraikin zaharrenak 1970ekoak dira, Gipuzkoako Katastroaren arabera.

(Ereintza eskubaloia, Beti Ona futbola...), modelistak, elkarte gastro-  
nomikoak, txalaparta eta trikitixa taldea etab.

Elkartegintzatik, urtean zehar, hainbat ekimen publiko eta kolektibo antola-  
tzen dira, eta Beraunen kasuan, hurrengoak azpimarratuko ditugu: Erregeen  
kabalgata urtarrilean; Rocioko Ama Birjinaren eguna eta Extremadurako Kul-  
tur Astea ekainean; auzoko jaiak irailean; Santa Ageda, San Tomas, eta Olen-  
tzeroren etorrera abenduan. Auzotarren esanetan, gero eta ekimen gehiago  
antolatzen ari dira euskal kulturarekin lotuak. Espazioari dagokionez, histo-  
rikoki auzo-ekimenak Pablo Sorozabal plazan antolatu dira, eta egun horieta-  
rako erreferentziatzko lekua den arren, auzo osora zabaltzen saiatzen ari dira.

#### 4.1.6 Kaputxinoak

##### A/ Biztanleriaren ezaugarriak



119. irudia. Kaputxinoetako biztanleria urte-tartetan berezia.  
Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.


Kaputxinoetan 2.997<sup>163</sup> pertsona bizi dira, %51 emakumeak eta %49 gizonak. Auzoko biztanleen adin banaketari dagokionez, %10,8 umeak dira (0-14 urte), %5 gaztetxoak (15-19 urte), %14,9 gazteak (20-34 urte), %45,7 helduak (35-64 urte) eta %23,6 nagusiak (65 urte edo gehiago). Errenteriako biztanleen adin banaketarekin alderatzen badugu, oso parekoa da adin tarte bakoitzean da-  
goen biztanleriaren proportzioa.

163 Eustat, 2022.



120. irudia. Kaputxinoetako biztanleria jaioterriaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Bizilagunen jaioterriari dagokionez, bi heren inguru Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak dira (%60,2), %23,7a Estatuko beste erkidegoetan, eta %16,1a atzerrian. EAEn jaiotako gehienak gipuzkoarrak dira (%97,56). Kasu honetan nabarmendu dezakeguna zera da, Errenteriako datuekin konparatuta, atzerrian jaiotako bizilagunen proportzioa 5 puntu altuagoa dela Kaputxinoetan, eta Galtzarabordarekin batera<sup>164</sup>, aztertzen ari garen lau auzoen arteko atzerrian jaiotako bizilagun proportzio handiena dutenak dira.




121. irudia. Atzerrian jaiotako Kaputxinoetako biztanleria nazionalitatearen arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.


Nazionalitate atzerritarra duten bizilagunen artean, hurrengo herritartasunak dira jendetsuenak: oraingoan ere, Amerikarrak ia erdiak dira (%50,8a, non %18,5 Hego-Amerikarrak diren eta %32,3 Amerikako gainontzeko lurralde-

164 Errenterian %11,1 dira atzerrian jaiotakoak, eta Galtzarabordan %15,7. Eustat, 2022.

takoak). Magreb-go herrialdeetako bizilagunak %19,1a dira, eta Ekialdeko Europakoak %11,9.



122. irudia. Kaputxinoetako biztanleria etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopuruaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



123. irudia. Kaputxinoetako biztanleria etxebizitzaren jabetza-erregimenaren arabera berezia. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Etxebizitzarekin eta horri lotutako bizimoldeei buruzko datuez zera esan dezakegu: EUSTAT-en arabera, 2016an auzokideen laurdena inguru bakarrik bizi zen (%24), herena inguru bikoteka (%31,1), eta bizilagunen proportzio handiena 3 eta 5 pertsona arteko taldean bizi zen (%43,6). Azkenik, auzotarren gehiengoak bizi den etxebizitzaren jabe da (%82,5), eta %15,4a alokairuan bizi da.

## B/ Hiri-espazioa eta etxebizitzak

### Antolamendu orokorra: ingurunea, egiturazko elementuak eta etxebizitzaren ezaugarri orokorrak



124. irudia. Kaputxinoetako hiri-bilbearen ardatz eta gune nagusiak. Iturria: egileek egina.

Alabergaren mendebaldean kokatuta dago Kaputxinoak auzoa, eta Errenteriako udalerriaren ipar-mendebaleko muga osatzen du, parean Pasaiaiko badia duelarik. Auzo honen kasuan ere, malda irregularra bere hiri-formaren baldintzatzaile garrantzitsua da. Alabergako gainean hasi eta Pasaiairantz jaisten den maldan dago ezarrita auzoa, gainontzeko hiru auzoekin alderatuta, forma malkartsu eta irregularragoa duen lurzoruan. Errenteriarako sarrera garrantzitsua ere bada hau, eta auzoa zeharkatzen duen errepidea elementu zentrala da auzoan. Beraunek hegoaldean duen bezala, Kaputxinoek iparraldean dute GI-636 errepidearen muga zorrotza, auzoari oinez zeharka ezina den gerri-


koa kokatzen diona. Auzoa beraz, Donostiarekin eta inguruko herrieekin oso ondo konektatuta dago errepidez. Auzoan bertan ere, kotxearen presentzia nabarmena dela esan dezakegu, aparkaleku publiko eta pribatuak asko baitaude.

Honenbestez, bi gune nagusitan banatuta dago auzoa: behealde, Sorgintxulo kalearen inguruan egituratzen dena; eta goialdea, orografia lauena duena, eta Cristobal Gamón eskolaren eta Beraungo igerilekuen arteko eremua hartzen duena. Hirugarren gune bat ere ezberdindu genezake, behealdearen eta goialdearen artean dago eremu maldatsua, Esnabide kalearen eta Sorgintxulo kalearen artekoa.

Aipatutako lehenengo eremuan, hots, behealdean, Sorgintxulo kalearen inguruan antolatzen dira eraikinak. Kale honen bi aldeetara orografiak malda handia hartzen du, kalea ibar antzeko batean utziz. Iparralderantz eta hegoalderantz igotzen diren bi malden behealdean kokatzen dira eremu honetako eraikinak: 13 eta 16 solairu inguruko dorreak, 70eko hamarkadakoak, kasu batzuetan behe solairu komun bat sortzen duen zokaloez batuak. Zokalo horietan zenbait komertzio txiki eta lokal huts topa daitezke.

Sorgintxulo kale bihurgunetsua jarraituz, auzoaren goialdera heldu gaitzke, aipatutako bigarren eremu horretara. Iparraldeko puntan dagoen Cristobal Gamón eskolan abiatzen da zonalde hau, eta sestra kurbaren forma jarraituz, Beraungo igerilekuetara arte luzatzen da. Eremu honetan luzetara daude kokatuta etxebizitzak, 90eko hamarkadako bi eta hiru solairu arteko bloke linealak, inguruan plazak, parkeak eta egoteko txokoak dituztelarik.

Auzoaren gainontzeko orografia oso malkartsua da, eta ondorioz, auzoko eremu maldatsuaren zati handi bat parke eta eremu libre bezala atondu da, José Manuel Zamarreño parkea hain zuzen ere. Hala ere, deskribatutako behealderen eta goialdearen artean, badago bloke linealez osatutako hirugarren eremu bat, Versalles kalearen inguruko eremua. Hor, 70eko hamarkadako lau solairuko bloke linealak daude maldan zehar egokituak.



125. irudia. Beraungo eguneroko espazioak: harreman-guneak, ekipamenduak, komertzioa eta garraio publikoko geralekuak. Iturria: egileek egin.

## Harreman espazioak

Kaputxinoetako harreman espazioak auzoaren goialdean biltzen dira batez ere. Badaude handiagoak eta txikiagoak; baita naturalagoak direnak edo izaera urbanoagoa dutenak ere. Jarraian deskribatuko ditugu topaleku aipagarrienak (izenik ez dutenen kasuak kokapenaren arabera identifikatuko dira):

1. Fuentepelayo plazatxoa: Cristobal Gamón eskolaren parean kokatua, hainbat jarduera ahalbidetzen dituen lekua da. Ezaugarri espazial ezberdinak dituzten eremu ezberdinek osatzen dute plaza: erabilera publiko duen eskolako kantxa estalia; estali gabeko kirol kantxak; eserlekuak eta tabernak dituen plaza inguru zabala; eta hegoaldean, umentzako jolasak dituen eremua. Esparru laua da eta auzoaren behealderanzko ikuspegi zabala duena.
2. José Manuel Zamarreño parkea: Cristobal Gamón eskolatik iparraldean, beheerantz doan parke zabala da. Pasaiko badiaranzko bista zabalak ditu, eta zabaltasun hori parke honen ezaugarri bereizgarrietarikoa da. Auzoko harreman-gune handiena eta naturalena da, berdegune zabalak eta zuhaitzak dituelarik. Jarduera ezberdinak egiteko eremuak ere baditu barnealdean, hala nola: bi jolas-parke umeei bideratuak, eserlekuak, paseorako ibilbideak Sorgintzulo kalearen parean, eta baita nagusien jarduera fisikorako elementuak aipatutako ibilbideetan txertatuak ere.
3. Miradorea: Don Bosco Lanbide Heziketarako zentroaren eta Beraungo igerilekuen artean kokatzen da miradorea deritzona. Honek ere, bista ederrak ditu badiara eta ikuspegi zabalaz gozatzeko aukera ematen duen lekua da. Berdegunez eta zuhaitzez inguratutako lekua da, eta mahaik eta eserlekuak ere baditu.
4. Antonio Valverde plaza: auzoaren goialdean dago eta 90eko hamarkadako etxebizitza blokeek inguratzen dute. Umeentzako jolasak ditu zentroan, eta eserlekuz eta berdegunez inguratuta dago.
5. Anbulategiaren atzealdeko kirol kantxak: baloiarekin saskibaloira zein futbolera jolasteko prestatutako txokoa da, inguruarengandik hesiez banatua.

Aipatutako harreman espazioez gain, Versailles kalearen inguruan dauden bloke linealen atarien parean, plaza txikiak daude eserlekuekin. Antzerako logika jarraituz, Galtzaraborda hiribidearen parean dauden 90eko hamarkadako etxebizitzek ere, atarien parean, eserlekuak eta berdegunea dituzten harreman txoko txikiak dituzte.



## Komertzioa

Egun, komertzio urridun auzoa da Kaputxinoak. Auzoko gune komertzial nagusia Sorgintxulo kalearen behealdean dago, eta inguru horretan biltzen dira auzoko komertzio txiki gehienak. Goialdean, Fuentepelayo plaza inguruan komertzio gutxi batzuk ere badaude. EUSTAT-eko datuen arabera, 2021ean 26 merkataritza-establezimendu zeuden, hurrengo kategorietan banatuta:

- 9 janari saltoki: harategi-urdaitegi bat, supermerkatu handi bat, hiru okindegi-gozotegi eta lau janari denda txiki.
- Arropa-garbitegi bat
- 10 ostalaritza establezimendu: 9 taberna eta jatetxe bat
- Lau ile-apaindegi eta estetika zentru
- Farmazia bat
- Ehorztetxe bat

## Ekipamenduak

Eguneroko ekipamenduak:


1. Cristobal Gamón eskola: Sorgintxulo kalearen 6. zenbakian kokatua, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituen zentroa da. 9:00etatik 16:15etara egon ohi da zabalik.
2. Ludoteka: Cristobal Gamón eskolaren barruan dago, eta 6-12 urte bitarteko umeentzako aisialdi zerbitzua eskaintzen du. Astelehenetik ostiralera dago zabalik, 17:30etatik 19:30etara.
3. Cristobal Gamón institutua: Esnabide kalea z/g-n dago, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentroa da. Goizeko ordutegia dauka, eta 8:30etatik 14:30etara egon ohi da zabalik.
4. Osasun Zentroa: Beraungo Osasun Zentroa izena duen arren, Kaputxinoak auzoaren mugen barruan kokatzen da, Galtzaraborda etorbidearen 67. zenbakian. Lehen mailako osasun arreta eta larrialdi zerbitzuak eskaintzen ditu, eta egun osoko ordutegia dauka, 8:00etatik 20:00ak arte.

Gainontzeko ekipamenduak:


5. Beraungo Igerilekuak: Galtzaraborda etorbidean daude, eta uda sasoiaren soilik zabaltzen diren kanpoaldeko igerilekuak dira. Ekainetik irailera egon ohi dira irekita, 10:30 - 21:00 ordutegian.

6. Don Bosco Lanbide Heziketako Zentro Integratu Publikoa<sup>165</sup>: auzo-  
rengandik nahiko isolatuta dagoen lekuan dago, Ciudad Laboral Don  
Bosco Aldea deritzonean. Oarsoaldea eskualdeari ematen dio zer-  
bitzua, industria-esparruaren barruan formakuntza eskainiz. Goiz  
eta arratsalde egon ohi da zabalik, astelehenetik ostegunera 8:00 -  
21:00 ordutegian, eta ostiraletan 8:00etatik 18:30etara.
7. Errenteriako Osasun Mentalerako zentroa: Galtzaraborda etorbideko  
69-75 zenbakietan dago, eta Oarsoaldea eskualde osoari ematen dio  
zerbitzua. Astelehenetik ostiralera dago zabalik, goizez, 08:00etatik  
15:00etara.
8. Lokal komunitarioak: hiru lokal komunitario daude auzoan, jarduera  
ezberdinetan dabilzan elkarte eta taldeek erabiliak. Ez daukate ordu-  
tegi finkorik. Hurrengoak dira:
  - Auzo elkartearen lokala, Galtzaraborda etorbidea 99.
  - “San José” Jubilatuen Klubaren lokala, Basanoaga 4.
  - “Alaitasuna” aisialdi taldearen lokala, Sorgintxulo 25.
9. San Juan Bosco parrokia: Sorgintxulo kalearen 27. zenbakian kokatua,  
ez dauka ordutegi finkorik.


## Etxebizitzak




126. irudia. Kaputxinoetako etxebizitzak blokean dituzten etxebizitza kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.




127. irudia. Kaputxinoetako etxebizitzak igogailua duten edo ez duten arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



128. irudia. Beraungo etxebizitzak azaleraren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



129. irudia. Kaputxinoetako etxebizitzak gela kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egina EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.



130. irudia. Kaputxinoetako etxebizitzak komun kopuruaren arabera bereziak. Iturria: egileek egin EUSTAT-eko datuetan oinarrituta.

Kaputxinoetan 1.319 etxebizitza daude 74<sup>166</sup> ataritan banatuta. Etxebizitzen %44,8a 41 eta 60 etxebizitza artean dituen blokeetan dago; %19,9a 61 eta 80 etxebizitza bitarteko blokeetan; ia kopuru bera (%19,5) 3 eta 10 etxebizitza bitarteko blokeetan. Bloke aniztasun gehiago ere badago etxebizitza kopuruari dagokionez: %7,8a 11 eta 20 etxebizitza bitarteko blokeetan dago, %6,2a 81 eta 100 etxebizitza bitarteko blokeetan, eta %1,9a 21 eta 40 etxebizitza bitarteko blokeetan. Irigarritasunari dagokionez, etxebizitza gehienek igogailua dute (%91,1), eta %8,9ak ez dauka igogailurik.

Etxebizitza barrualdeen ezaugarriak aztertzen baditugu, ikusi dezakegu nola erdiak inguru 61 eta 90 m<sup>2</sup> arteko azalera duen (%52,7), herenak inguru 10 eta 60 m<sup>2</sup> bitartean (%38,1), eta gainontzekoek 91 eta 120 m<sup>2</sup> artean dituen (%9,3). Gela kopuruari dagokionez, erdiak inguru bost gela ditu, ulertuz bost gela horiek sukaldea eta egongela ere barne hartzen dituztela (%56); herenak inguru lau gela (%35,4), %5,5ak sei gela; eta %2,7ak gela bat eta hiru artean. Komun kopuruari dagokionez, hiru laurden inguruk komun bakarria daukate (%77,9), eta %22,1ak aldiz bi komun edo gehiago.

Datu horiei erreparatuz, aurretik aztertutako hiru auzoetan baino tipologia aniztasun handiago dagoela ikusi dezakegu. Tipologia orokortuena 61-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena; sukaldea, egongela, hiru logela eta komun bakarria dituena; eta igogailuduna izango litzateke. Baina bigarren tipologia batek ere oso ohikoa dirudi: 10-60 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena; sukaldea, egongela, bi lo-

166 Eustat, 2022.

gela eta komun bakarra dituena; eta igogailuduna. Azkenik, ikusi daiteke nola etxebizitza handiaren kopuru aipagarria ere badagoela: 91-120 m<sup>2</sup> bitarteko azalera duena, lau logeladuna, bi komun edo gehiago dituena, eta ziurrenik igogailua duena.



131. irudia. Kaputxinoetako dorreak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.



132. irudia. Kaputxinoetako 4 solairuko bloke linealak. Iturria: Itsaso Larramendi.

## D/ Eguneroko bizitza eta harreman komunitarioak

### Eguneroko bizitzaren espazioak



133. irudia. Kaputxinoetako eguneroko sarearen planoak. Iturria: egileek egina.

133. irudiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu nola Kaputxinoetako bizilagunen eguneroko bizitza auzoan bertan eta inguruko auzoetan garatzen den.

Egunerokotasuneko ekipamendu asko auzoan bertan dauden arren, beste auzoetara mugitu beharra dago zenbait zerbitzu eskuratu nahi izanez gero. Auzoan bertan ez dauden eguneroko ekipamenduak hurrengoak dira: gaztelekua Beraunen dago Pablo Sorozabal plazan; polikiroldegia Galtzarborda behealdean; gaztelekua Uztargi Haurreskola publikoa Alaberga eta zentroaren arteko muga; nagusien eguneko zentroa Martin Etxeberria kalean; administrazio-izapideak egiteko leihatila Udaletxean (Alde Zaharrean); eta azkenik, kultur jardueretara edo liburutegira joateko Niessen kulturgunea edo Lekuona fabrika leudeke.

Komertzioari dagokionez, auzoan bertan erosketak egiteko dendak badauden arren, auzotik kanpo joan behar da errekadutarako eskaintza anitza topatzeko. Eguneroko komertzioa eskasa da auzoan, eta Sorgintxulo kalearen inguruan biltzen da. Ondorioz, auzoko komertzioak erosketak puntualak egiteko aukera ematen du, baina eskaintza zabalagoaren bila, ondoko udalerrietako merkataritza gune handietara edo inguruko auzoetara joaten dira auzokideak.

Azkenik, harreman espazioei dagokienez, auzoan bertan badaude izaera eta tamaina ezberdinekoak, baina auzoaren goialdean pilatzen dira batez ere, Gal-tzaraborda hiribideari paralelo.

## Eguneroko bizitza auzoan

Kaputxinoak auzo lasaia dela esan dezakegu, kale-bizitza handirik ez duena. Hala diote auzokideek: *“Benetan asko gara, baina bizitza mailan, auzoan ez da jendetza hori ikusten. Beraunen gehiago ikusten da, dendetatik, kaletik... Hemen dendarik ez dagoenez, Errenteriako erdigunera joatera behartzen zaitu, edo Pasaiara, edo Donostiara”*<sup>167</sup>. Auzo bizitzaren galera komertzio faltarekin lotzen dute bi elkarriketatuek. Izan ere, ekipamendu eta harreman espazio ugari dituen auzoa da, eta horien inguruan ematen da auzo bizitza Kaputxi-noetan, baina gune komertziala ez da bereziki indartsua. Gainera, auzoaren behealdean kokatuta dagoenez eta eskaintza urria denez, behealdean bizi ez diren auzokideek tendentzia handia dute Beraunera edo inguruko udalerrietara joateko. Izan ere, orografiaren bortiztasunak guztiz baldintzatzen du auzo bizitza. Aurreko atalean deskribaturiko bi gune nagusi eta oso berezitan banatzen da auzoa: behealdea, Sorgintxulo kaleak egituratzen duena; eta goialdea, Fuentepelayo plazatzkoaren ingurukoa. Esan dezakegu bi eremu horietan kontzentratzen dela nagusiki auzo bizitza, eta horiek osatuz, José Manuel Zamarrero parkea aipatu dezakegu hirugarren erreferentziazko puntu gisa.

Goialdetik hasiz, Fuentepelayo plazatzkoaren eta Cristobal Gamón ikastetxearen arteko inguru horretan biltzen da jendea. Eremu hau da auzoan topaleku izaera handiena duena, eta hainbat ezaugarri mahaigaineratu ditzakegu horren arrazoia ulertzeko: auzoko gune lau bakarrenetarikoa da, altueran kokatua, behealdearekiko ikuspegi zabalaz gozatzeko aukera ematen duena. Horrez gain, leku honetan, jarduera-traktore diren erabilera ezberdinak biltzen dira: Cristobal Gamón eskola, auzo bizitzaren egiturazko pieza; eta Alaitasuna aisialdi elkartearen lokala eta Auzo Elkartearen lokala, bizitza komunitarioaren dinamizatzaile garrantzitsuak. Plazaren beraren dotazioek ere pertsona antzetzako jarduera gune bilakatzen dute espazio publikoa: umeentzako jolasak daude, gaztetxo edo helduentzako kirol kantzak, erabilera anitzeko plaza estalia dago, banku eta berdegunez hornitutako eremua dago, eta horiekin batera, zenbait taberna daude eremuaren erabilera publikoa osatzen dutenak. Faktore

167 17. elkarrizketa (2023/01/24).

guzti horiek bizilagunen presentzia areagotzen dute hemen, eta adin ezberdineko pertsonak biltzea errazten dute. Auzokideek asko azpimarratzen dute eremu estalia sortzeak auzo bizitzari egin dion ekarpena sekulakoa izan dela: *“Honek [estalkiak] eman dio auzoari bizia, hor jendea biltzen da aste bukaeretan. Irekita egoten da beti, publikoa da. 22:00etararte zabalik egoten da, jaieguruetan baita. [...] Eta hor denetarik gertatzen da: helduak saskibaloian jolasten, 16-17 urtekoak jolasten, patinekin helduak... Auzorako aldaketa handia izan da harremanei dagokienez. Jendea horra ateratzen da, ze bestela, askotan, etxean geratzen zara ez duzulako lekurik ibiltzeko... Hau eduki baino lehen ez zegoen leku estalirik horren handia zenik”<sup>168</sup>*. Gune estaliaren diseinuaren inguruan, portieririk ez jartzea erabaki egokia izan zelan deritzote auzokideek, horrela, hainbat erabilera ahalbidetzen baititu.

Harreman komunitarioei buruz hitz egiten dugunean, eskolak aipamen berezia behar du Kaputxinoetan. Elkargunerako eta auzo bizitzarako gako-elementua da, jendearen joan etorria bultzatzen baitu, inguruko auzoetako bizilagunak etorrazten baititu, eta arratsaldeetan, eskola inguruan jarduera sorrarazten baitu:

*“Eskolak eragin handia du auzoan, ematen dio bizia. Eskola dagoenean beti dago mugimendua kalean. Larunbatetan, eguraldi txarrarekin, ez duzu hainbeste jende ikusten hitz egiten, elkartzen... Baina eskola dagoenean bai. Batzuk ezagutzen dira eskolaren mugimenduaren ondorioz, hasten dira umeak eskolan, eta orduan gurasoak ezagutzen hasten dira. Gainera eskola honetara etortzen dira Kaputxinosekoak, baina Beraunekoak ere, Alabergakoak ere, herri osotik etortzen dira. Mugitzen da jende asko”<sup>169</sup>*.

Auzo bizitzaren bigarren gune garrantzitsua Sorgintxulo kalea da, auzo-sarrerako biribilgunetik hasi eta Basanoaga kalera arte doan tarte zuzena. Hemen topa dezakegu auzoko gune komertzial jarrai nagusia, Sorgintxulo kalearen ipar-espaloieko dorren behealdean dauden denda eta tabernek osatua. Inguru honetako jarduera errekadu txikiak egitera eta taberna inguruetan elkartzera mugatzen da. Erosketa handiagoak egiteko, auzokideak Errenteriako zentrora, Beraunera, edo Pasaia, Lezo eta Donostiako merkatal gune handietara hurbiltzen dira. Auzotik kanpo erosketak egiteko garraiobide ezberdinak baliatzen

168 3. tailerra (2023/01/18).

169 *Ibid.*



dituzte auzokideek: herri-zentrora igogailuek lagunduta edo autobusean hurbiltzen dira, eta merkatal guneetara kotxean joan ohi dira horretarako aukera dutenak. Behealde honetan bizitasun handiagoa egoteko oztopo nagusiak espazio falta eta errepideak ezartzen duen muga dira. Alde batetik, ez dago atondutako gune zabalik jendea elkartu edo bertan jarduerak egiteko. Eserlekuak badaude espaloietan, baina puntu bakarrean daude eserlekuak “U” forma eginez bata bestaren aurrean kokatuta (Sorgintxulo 7 dorrearen aurrean). Auzokideen esanetan, eserleku horietan ia beti dago norbait eserita, eta askotan, pertsona nagusiak:

*“Gure azpiko zonan tabernak daude, eta eseri ahal izateko bi txoko bakarrik. U forman dauden 3 banku daude, non adineko jendea eserita egoten den”<sup>170</sup>.*

Bestalde, errepideak muga handia ezartzen du kalean. Trafiko nahikotxo duen errepidea da, Errenteriako sarreretako bat baita, eta horrek arrisku pertzepzioa handitu egiten du. Ondorioz, umeen edo nagusien autonomiarako muga dela deritzote auzokideek:

*“Kalea mozten du, arriskutsua da, eta umeez ezin dute bakarrik ibili. Mozten du el rollo”. Jaietan ere behartuta gaude dena hemen goian egitera, behean ezin dugu. Hasi gara zerbait egiten, baina ezin dugu ezer antolatu”<sup>171</sup>.*

Auzo-bizitzaren hirugarren gune aipagarri bat José Manuel Zamarreño parkea da. Jarduera handia daukan lekua da, eta nagusiek asko erabiltzen dute paseorako eta kirola egiteko. Hemen dago “Kaputxinoetako miradorea” bezala ezagutzen dena. Bista zabalak ditu Pasaiaiko badiarantz, eta horrek bilakatzen du auzoko leku berezi. Oinezko ibilbideak ditu hona eta hara ibiltzeko, eta baita nagusien jarduera fisikorako elementu espezifikoak ere:

*“Hemen jendea paseoan dago beti, eta eguraldi onarekin banku guztiak beteta egoten dira. Bide horiek paseorako dira, eta txoko pilo bat daude esertzeko, egoteko... Elkartu ere egiten da jendea. Pertsona batzuk fijoak dira, buelta ematen dute ibiltzen eta hitz egiten gelditzen dira. Badaude ere makinak gimnasia egiteko, eta batzuk beti dabilta hor. Eguraldi*

170 17. elkarrizketa (2023/01/24).

171 3. tailerra (2023/01/18).

*txarra badago ere beti dago norbait, fijoak.*<sup>172</sup>. “Kriston bistak daude, berdea da, zelaia dauka, bankuak, irekia da... Auzoan dena dira do-  
rreak, eta zu gainean egotea... Irekiera sentsazioa ematen du. Eta gero badaude mahaiak, bankuak... ondo ekipatuta egoteko. “Salvados” pro-  
grama hor grabatu zen, leku sinbolikoa da”<sup>173</sup>.

Beraien haurtzaroa Kaputxinoetan bizi izan zuten auzotarrek “pizina” deitzen diote leku honi. Izan ere, antzina pizina txiki bat zegoen bertan, ur putzu bat, eta umeak sarri han ibiltzen ziren jolasean. Paseorako eremuaz gain, umeen jolasak dituen beste txoko bat ere badago parkean, eta hor ere sarri biltzen dira familiak seme-alabekin arratsalde eta asteburuetan. Jolasgunea 2010ean berritu zen eta parkearen erabilera nabarmen handitu zuen. Hala ere, jolasgunea errepideaz inguratuta dago, eta auzokideen iritziz, horrek mugatu egiten du umeen autonomia, errepidea egongo ez balitz umeak bakarrik joan ahalko lirатеkeelako bertara.

## Elkartegintza eta harreman komunitarioak

Bere sorreran eta ondorengo hamarkadetan auzo bizitza handia izan duen auzoa da hau. Egun, auzo bizitzaren beherakada nabarmena den arren, auzora lehenengoz bizitzera etorri zirenek eta haurtzaroa hemen bizi izan zuten be-  
launaldiko kideek kale bizitza handia duen auzo bezala gogoratzen dute.

Iraganeko panoramaren eta egungo testuinguruaren arteko saltoan, mugikortasun ohitura berriak eta merkatal gune handien irekiera mugarri izan dira zenbait auzokideren ustetan:

*“Auzoak bizitza handia zuen gaztea nintzenean. Baina noski, hemen toki guztietan bezala da, Nik marra bat egiten dut “Mamut” [merkataritza-zentroa] egin aurretik eta ondoren. Lehen dena erosten zenuen auzoan. Irteten zinen eta dendara joaten zinen. Sei edo zazpi denda zeuden eta bertan dena erosten zenuen. Dendetan ilarak zeuden eta jende guztiak hitz egiten zuen. Autobus gutxi zeuden, bi orduro-edo Errenteriarari zihoan bat zegoen. Baina merkataritza zentroak irekitzean dena bizkortzen da, denda txikiek ixten dute eta bizitza galtzen doa, Orain jendea hemendik gaude, baina jende gehiena Errenteriarari joaten da*

172 *Ibid.*

173 *Ibid.*

*erosketak egitera, Mamutera doa, edo Prycara., eta egia da bizitza handia galdu dela. Gainera, jende mota aldatu da, orain jendea [auzotik] kanpokoagoa da, eta, beraz, harremana ez da hain horrelakoa. Orain seme-alaba gutxiago izaten dira eta ez da hainbeste bizi kalean*<sup>174</sup>.

Aipu horretan ikusi dezakegun bezala, hiru faktore nagusi aipatzen dira harreman komunitarioen lausotzea ulertzen laguntzen digutenak: auzotik kanporako mugikortasuna areagotzea, kontsumo ohituren aldaketa, eta auzo-arekiko atxikimenduaren gutxitzea. Izan ere, auzoko harreman komunitarioez eta auzo-arekiko atxikimenduaz hitz egitean, hurrengo ezberdintasuna egiten dute auzokideek: alde batetik, auzoa behin betiko bizitoki bezala hautatu duten bizilagunak leudeke; eta bestetik, pasozko auzokideak, Kaputxinoetan alokairu eskaintza handia eta eskuragarria dagoen heinean, denbora baterako bizitoki apropos bezala hautatzen dutenak. Sorgintxulo eta Basanoaga kaleetako dorretan biltzen dira batez ere auzora behin behinean bizitzera etortzen direnak.

*“Teléfono-ko zona, Basanoaga eta hori ezinezkoa da. Gainera sei hilabetero batek alde egiten duelako, beste bat etortzen delako... Jendeak duen mugikortasuna oso handia da*<sup>175</sup>.

Auzokideek “lotarako auzo” bezala ere deskribatu dute Kaputxinoak. Jarduera traktore gutxi dituen auzoa izateak eragina dauka auzokideen arteko harremanetan.

*“Jarduera gehiago balego, jendea elkartuago egongo litzateke, gehiago elkar ezagutuko genuke. Baina ez dagoenez, jendeak pentsatu du hau lo egiteko dela, bazkaltzeko, afaltzeko, telebista ikusteko, gehienez ere paseatzeko, eta etxerako. Eta asteburuak kanpoan pasatu. Eta kotxearekin nabaritzen duzu. Asteburuetan kotxe gutxiago daudela nabaritzen duzu. Astean zehar kotxe asko daude*<sup>176</sup>.

Hori horrela izanik ere, auzoan bizitzea erabaki duten auzokideek harremanak landu eta mantentzen dituzte, eta horretarako, ezinbestekoak dira auzoaren dinamizatzaile garrantzitsuak diren hiru elkarteak: Auzo Elkarte, Alaitasuna

174 6. elkarrizketa (2022/09/26).

175 2. tailerra (2023/01/11).

176 17. elkarrizketa (2023/01/24).

taldea eta Jubilatuen Elkarte. Jarraian, elkarte bakoitzaren oinarrizko informazioa jaso dugu:

- Kaputxinoetako Auzo Elkarte: 2018an eratua, auzoko behar material eta kulturalak asetzeko. Goialdean kokatua. 2000 eta 2006 urteen artean auzo elkarte egin zen arren, jarduera gelditu zuen eta 2018an berriro ere aktibatu egin da. Auzoko jaiak antolatzen ditu eta ikasturtean zeharreko ikastaroak ere.
- Alaitasuna taldea: 1975ean sortu zen, auzoa eratu eta urte gutxira. Auzoarekin batera hazi den taldea da, Kaputxinoetako elkarte historikoa. Parrokiari lotuta dago bere jarduna, eta ume gazteekin egiten dute lan batez ere. Izaera komunitarioa indartzeko eta elkarbizitza lantzeko jarduerak antolatzen dituzte, hala nola: tertulia eta afariak, kafe-teatro, aisialdi jarduerak, edo eskola-laguntza.
- “San José” jubilatuen elkarte: 1984ean sortua, auzoko nagusien arteko elkarlana eta parte-hartzea indartzea ditu xede.

Elkartegintzatik, urtean zehar, hainbat ekimen publiko eta kolektibo antolatzen dira, eta Alabergaren kasuan, hurrengoak dira azpimarragarrienak: Kaldereroak otsailean, auzoko jaiak ekainean, eta Danborrada uztailean Erretereriako jaietan.

## 4.2 Auzoen hiri-ezaugarrien azterketa hirigintza feministaren ikuspegitik

Atal honetan Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen hiri-ezaugarriak aztertuko ditugu hirigintza feministaren ikuspegitik sortutako adierazle sortaren bitartez. Ikerketaren lehenengo atalean azaldu dugun bezala, bi informazio iturritik edan dugu azterketa honetarako baliatuko ditugun adierazle eta baldintzak zehazteko: Adriana Ciocoletto-ren *Urbanismo para la vida cotidiana* (2014) doktorego-tesia; eta Vienako Udalaren *Gender Mainstreaming in Urban Planning and Urban Development* (2013) gida.

Auzokako azterketan murgildu baino lehen, zazpi gai-multzotan antolatutako adierazle sorta jaso dugu ondorengo taulan (8. taula), adierazle bakoitzaren asebetetze maila kuantifikatzeko baldintzak zeintzuk izan diren gogoratzeko, eta baita baldintza bakoitzari dagokion puntuazioa ere. Auzo bakoitza aztertzeko 8. taularen moduko bat bete dugu, eta bertan, baldintza bakoitza baloratzeko jasotako informazioa adierazi dugu, adierazle bakoitzari egotzitako

puntuazioaren jatorria zein den ulertu dadin. Lau taula dira guztira, auzo bakoitzeko bana, eta “Eranskinak” atalean kontsultatu daitezke.

Hurrengo orrialdeetan, auzoen azterketa-tauletan aurki daitekeen informazioaren laburpena irakur daiteke.

8. taula. Lau auzoen azterketarako baliau diren adierazle eta baldintza zerrenda. Iturria: egi-leek egina.

1. Hiri-egituraren konfigurazioa		
Adierazlea	Baldintzak	Punt
1.1 Auzoko eraikinen altuerak eraikinen barrualdearen eta kalearen arteko harremana ahalbidetzen du.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiak B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok B+4 solairu edo gutxiago dituzte.</li> <li>Auzoan ez dago harremanik eraikin barrualdeen eta kalearen artean.</li> </ul>	5 4 3 2 1
1.2 Etxebizitzek ekialde-mendebalde orientazioa izanez gero, hormartea 15 m ingurukoa izatea; eta iparralde-hegoalde orientazioa izanez gero, hormartea 12 m-ko sakonera izatea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiak betetzen dute baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko etxebizitzek hegal sakonera handiegia dute.</li> </ul>	5 4 3 2 1
1.3 Eraikin-bolumenek gehienez 150m-ko luzeera daukate, eta luzeagoak izatekotan igarobideak dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko eraikin guztiak betetzen dute baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko eraikinen erdiak baino gutxiagok betetzen du baldintza.</li> <li>Auzoko etxebizitzek hegal sakonera handiegia dute.</li> </ul>	5 4 3 2 1
1.4 Auzoan biztanleko harreman espazioen proportzio egokia edukitzea (parkeak, plazak, jolasguneak eta kirolguneak).	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 5m<sup>2</sup> edo gehiago harreman espazio dago.</li> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 3-5m<sup>2</sup> harreman espazio dago.</li> <li>Auzoan biztanle bakoitzeko 3m<sup>2</sup> baino gutxiago harreman espazio dago.</li> </ul>	5 3 1

1.5 Espazio publiko irekiak funtzio ezberdinetarako baliatu ahal izatea, hainbat interes eta helburu aintzat hartuz: jolasa, kirola/jarduera fisikoa, lasaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoko espazio publikoetan 3 funtzioak bete daitezke: jolasa, jarduera fisikoa eta lasai egotea.</li> <li>Auzoko espazio publikoetan 3 funtzio horietariko 2 soilik bete daitezke.</li> <li>Auzoko espazio publikoetan funtzio bakarra bete daiteke.</li> </ul>	5 3 1
2. Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak		
Adierazlea	Baldintzak	Punt
2.1 Auzoak tamaina erosoak dauka.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzoa alderik alde zeharkatzeko oinez 10 minutu edo gutxiago behar dira (&lt;750m)</li> <li>Auzoa alderik alde zeharkatzeko oinez 10 minutu baino gehiago behar dira (&gt;750m)</li> </ul>	5 1
2.2 Auzoak diseinu-ezaugarri bereizgarriak ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Inguruko auzoekiko diseinu ezaugarri propio eta ezberdinak ditu.</li> <li>Ez dauka inguruko auzoekiko diseinu ezaugarri propio eta ezberdindurik.</li> </ul>	5 1
2.3 Herri-mailako garraio publikoko geralekuen inguruan, 300 m-ko erradioan, erabilera aniztasuna ematen da eta harreman espazioak daude, auzo-zentroen sorrera ahalbidetzen dutenak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>300m-ko erradioan erabilera aniztasuna dago eta harreman espazioak daude.</li> <li>300m-ko erradioan erabilera aniztasuna dago edo harreman espazioak daude.</li> <li>300m-ko erradioan ez dago erabilera aniztasunik, ezta harreman espaziorik ere.</li> </ul>	5 3 1
2.4 Auzoko hiri-egituraren etxebizitzak beste erabilerekin nahastu dira (ekipamenduak, dendak, tailer txikiak, bulegoak, etab.)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxe irla edo etxebizitza bloke guztietan.</li> <li>Etxe irla edo etxebizitza bloke gehienetan.</li> <li>Etxe irla edo etxebizitza blokeen erdian.</li> <li>Etxe irla edo etxebizitza blokeen erdian baino gutxiagotan.</li> <li>Auzoko hiri egitura ez dago erabilera nahasketarik.</li> </ul>	5 4 3 2 1
2.5 Auzoan egunerokotasunerako komertzioa dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat produktu mota bakoitzeko eta eguneroko sarearen barruan.</li> <li>Hainbat produktu mota bakoitzeko eta, gutxienez, mota bakoitzeko bat eguneroko sarearen barruan.</li> <li>Hainbat produktu mota bakoitzeko baina eguneroko saretik kanpo.</li> <li>Produktu mota bakoitzeko bakarra dago.</li> <li>Auzoan ez dago eguneroko dendarik.</li> </ul>	5 4 3 2 1

3. Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura		
Adierazlea	Baldintzak	Punt
3.1 Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude:	• Eguneroko ekipamendu guztiak daude.	5
	• Eguneroko ekipamendu gehienak daude, hurrengoak barne: haurtzaindegia, lehen hezkuntzako zentroa, nagusien zentroa eta osasuna barne.	4
	• Erdiak daude edo gehienak, baina hurrengoak gabe: haurtzaindegia, lehen hezkuntzako zentroa, nagusien zentroa eta osasuna barne.	3
	• Erdiak daude edo gehienak, baina hurrengoak gabe: haurtzaindegia, lehen hezkuntzako zentroa, nagusien zentroa eta osasuna barne.	2
	• Erdiak baino gutxiago daude.	1
3.2 Eguneroko ekipamenduen auzo osotik oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen dute.	• Eguneroko ekipamendu guztietara	5
	• Gehienetara haurreskola, LH eskola, nagusien zentroa eta osasun zentroa barne	4
	• Erdietara edo gehienetara baina haurreskola, LH eskola, nagusien zentroa eta osasun zentroa gabe	3
	• Erdietara baino gutxiago	2
	• Ez dago eguneroko ekipamendurik auzotik 10 minutura oinez.	1
3.3 Auzoko ekipamenduen tarteko espazioa dute kalerantz jarduera sortzen dutenak.	• Guztiak.	5
	• Gehienek.	4
	• Erdiek.	3
	• Erdiek baino gutxiagok.	2
	• Ekipamenduen ez daukate tarteko espaziorik kalerantz.	1
3.4 Biltzeko eta komunitatearekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko gela dago.	• Badago espazioa eta komunitate osoak erabili dezake.	5
	• Ez dago espaziorik, edo badago baina talde batek soilik erabili dezake.	1
4. Etxebizitzak		
Adierazlea	Baldintzak	Punt
4.1 Etxebizitzak oztopo arkitektonikorik gabe diseinatu dira.	• Guztiak	5
	• Erdia baino gehiagok	4
	• Erdia	3
	• Erdia baino gutxiagok	2
	• Auzoko etxebizitzek oztopo arkitektonikoak dituzte."	1
4.2 Etxebizitzek espazio ireki pribatua daukate (balkoia edo terraza).	• Guztiak	5
	• Erdiak baino gehiagok	4
	• Erdiak	3
	• Erdiak baino gutxiagok	2
	• Ez daukate"	1


4.3 Etxebizitzak moldagarriak dira hurrengo ezaugarrien arabera: gelek tamaina berdintsua dute, logela bakoitzak sarrera indibiduala dauka, gune hezeak elkarrengandik hurbil daude, komunetara gune komunetatik sartu daiteke (komunak ez daude gela barruetan).	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoko etxebizitzan tipologietan 4 baldintzak betetzen dira</li> <li>• Auzoko etxebizitzan tipologietan 3 baldintza betetzen dira</li> <li>• Auzoko etxebizitzan tipologietan 2 baldintza betetzen dira</li> <li>• Auzoko etxebizitzan tipologietan baldintza bakarra betetzen dira</li> <li>• Auzoko etxebizitzan ez da baldintza bat ere betetzen."</li> </ul>	5 4 3 2 1
4.4 Gela kopuru ezberdineko etxebizitzak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gela kopuruari dagokionez, 3 etxebizitza tipologia ezberdin edo gehiago daude</li> <li>• Gela kopuruari dagokionez, 2 etxebizitza tipologia ezberdin daude</li> <li>• Etxebizitza guztiek gela kopuru bera dute</li> </ul>	5 3 1
4.5 Bloke- sarrera bakoitzeko gehienez ere 40 etxebizitza daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Guztiek</li> <li>• Erdiak baino gehiagok</li> <li>• Erdiak</li> <li>• Erdiak baino gutxiagok</li> <li>• Auzoko eraikin-sarrera guztiek 40 etxebizitza baino gehiago dituzte</li> </ul>	5 4 3 2 1
<b>5. Segurtasun pertzepzioa</b>		
<b>Adierazlea</b>	<b>Baldintzak</b>	<b>Punt</b>
5.1 Eguneroko sareko kaleetako beheko solairuak espazio publikora irekita daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Behe solairu guztiak daude kalearekiko isolatuta</li> </ul>	5 4 3 2 1
5.2 Auzoko emakumeek segurtasun pertzepzioa dute auzo osoan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osoan segurtasun pertzepzioa dago</li> <li>• Auzoko punturen batean ez dago segurtasun pertzepziorik</li> </ul>	5 1
5.3 Eguneroko sareko kaleek oinezkoentzako argiztapen jarraia dute.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago kalerik oinezkoentzako argiztapen jarraitik duenik.</li> </ul>	5 4 3 2 1
5.4 Auzoko kaleetan hiri-paisaia zaindua* dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1



5.5 Auzoko harreman-espazioetan, haurren, adinekoen, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta bakarrik dauden emakumeen presentzia dago.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona horien guztien presentzia</li> <li>• Pertsona horietako gehienen presentzia</li> <li>• Pertsona horien erdiak baino ez daude</li> </ul>	5 3 1
<b>6. Espazio publikoa</b>		
<b>Adierazlea</b>	<b>Baldintzak</b>	<b>Punt</b>
6.1 Eguneroko sareko kaleek espazio eta altzariak dituzte pertsonak harremandu, egon, bildu edo jolastu ahal izateko, eta ez bakarrik joan-etorrietarako.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian,</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1
6.2 Eguneroko sareko kaleetan zuhaitzak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	5 4 3 2 1
6.3 Oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen duten auzoko harreman espazioak daude (750m)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik</li> <li>• Auzoaren gehiengotik,</li> <li>• Auzo erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Ez dago auzo eskalako harreman espaziorik 10 minutu- ra oinez joateko moduan</li> </ul>	5 4 3 2 1
6.4 Espazio publiko eta aisialdi-gune nagusia irisgarria da garraio publikoan eta bizikletaz, hau da, garraio publikoko geralekua eta bidegorria bertara arte iristen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua dauka eta bidegorria iristen da bertara arte</li> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua eta bidegorria gehienez 300m-ra dauzka</li> <li>• Espazio publiko nagusiak garraio publikoko geralekua eta bidegorria 300m-ra baino distantzia handiagora dauzka</li> </ul>	5 3 1
6.5 Auzoko harreman espazioek perimetro irekia dute kalera, bateko eta besteko jarduerak integratu ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio publiko nagusi guztiek betetzen dute baldintza</li> <li>• Gehienek</li> <li>• Erdiak</li> <li>• Erdiak baino gutxiagok</li> <li>• Batek ere ez du betetzen</li> </ul>	5 4 3 2 1
6.6 300 metroko erradio maximoan eta ibilbide irisgarriaren bitartez heltzeko aukera ematen duten auzoteriako (vecindario) harreman espazioak daude.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoaren osotasunean</li> <li>• Auzoaren azaleraren gehiengoan</li> <li>• Auzoaren azaleraren erdian</li> <li>• Auzoaren azaleraren erdian baino gutxiagotan</li> <li>• Ez dago auzoteriako harreman espaziorik oinez irisgarria denik</li> </ul>	5 4 3 2 1

<p>6.7 Komunitatearen memoria auzoaren gizarte-eta kultura-ondare gisa mantentzen duten espazioak edo elementuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatearen memoria mantentzen duten espazio edo elementuak daude</li> <li>• Ez dago espazio ez elementurik komunitatearen memoria mantentzen duenik</li> </ul>	<p>5 1</p>
<p><b>7. Mugikortasuna eta konektibitatea</b></p>		
<p><b>Adierazlea</b></p>	<p><b>Baldintzak</b></p>	<p><b>Punt</b></p>
<p>7.1 Eguneroko sareko kaleek mugitzeko aukera ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetzen dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan</li> <li>• Gehienetan</li> <li>• Erdian</li> <li>• Erdian baino gutxiago</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	<p>5 4 3 2 1</p>
<p>7.2 Eguneroko sareko kaleetan deskantsurako bankuak daude.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale guztietan, gehienez 50m-ko distantziara euren artean</li> <li>• Gehienetan gehienez 50m-ko distantziara euren artean; edo guztietan 100m-ko distantziara euren artean</li> <li>• Ez dago</li> </ul>	<p>5 3 1</p>
<p>7.3 Bizikleten alokairurako puntu publikoak daude auzoan, oinez 5 minutura</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik</li> <li>• Auzoaren gehiengotik</li> <li>• Auzoaren erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Auzoan ez da baldintza hau inon betetzen"</li> </ul>	<p>5 4 3 2 1</p>
<p>7.4 Oinez 10 minutuko erradio maximoan heltzeko aukera ematen duten auzoko garraio publikoaren geralekuen distribuzioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzo osotik</li> <li>• Auzoaren gehiengotik</li> <li>• Auzo erditik</li> <li>• Auzoaren erditik baino gutxiago</li> <li>• Ez dago garraio publikoko geralekurik auzotik 10 minutura oinez joateko moduan</li> </ul>	<p>5 4 3 2 1</p>
<p>7.5 Auzora heltzeko aparkamendu poltsa publikoa dago.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoan aparkatzeko poltsa publikoa dago</li> <li>• Ez dago aparkaleku publikoko poltsarik auzoan</li> </ul>	<p>5 1</p>

### 4.2.1 Alaberga



134. irudia. Alaberga auzoaren azterketatik eratorritako puntuazioa gaika. Iturria: egileek egin.

Alabergaren hiri-konfigurazioak oso ezaugarri interesgarriak ditu hainbat arrazoiengatik. Etxebizitza blokeek ez dute altuera handirik, eta horrek, eraikinen barrualdearen eta kalearen arteko harremana ahalbidetzen du. Eraikinen hegala sakonerak argiztapen eta eguzkiztapen egokia bermatzen du etxebizitza barrualdeetan. Blokeen luzerak eta ezarpen-formak fatxada jarraidun kaleak osatzen ditu, eta hainbat bidegurutze sortzen ditu, non bizilagunek topo egin dezaketen. Gainera, auzoko harreman espazioen azalera egokia da auzokide kopurua aintzat hartuta, eta horien diseinuek jarduera ezberdinak egiteko aukera ematen dute.



135. irudia. Beheko Alabergako kale eta etxebizitzak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Auzoan zentralitate propioak sortzeko gaitasuna, aldiz, eskasagoa da. Alabergak puntarik punta zeharkatzeko tamaina erosoak dauka, eta proiektu bakar eta oso bezala landu zen heinean, estetika eta diseinu ezaugarri propioak ditu, inguruko auzoengandik bereizten duena. Bereizgarri horiek auzoaren izaera indartzen duten arren, egunerokoan kalean jarduera sortzeko hain garrantzitsua den erabilera nahasketarik ez dago apenas. Komertzio bakarra dago auzoan, eta ekipamenduak ere urriak dira.

Etxebizitzaren ezaugarriak erreparatzen badiegu alderdi interesgarriak ikus ditzakegu, hala nola: atari bakoitzeko etxebizitza kopurua txikia da, auzokideen elkar-erabatzea errazten duena; etxebizitza gehienek balkoia daukate; barne banaketan ezaugarriek moldagarritasun aukerak ematen dituzte; eta gela kopuruari dagokionez, 3 edo 4 gelako<sup>177</sup> etxebizitzak topa ditzakegu, gutxieneko tipologia-aniztasun bat bermatuz. Irisgarritasuna, aldiz, oztopo handia da Alabergako etxebizitzetan, atarietara heltzeko eta atari barrualde gehienetan eskailerak baitaude.



136. irudia. Alabergako etxebizitzetako atarietara sartzeko, sarri, eskailerak dau-  
de, eta ondoren, etxebizitzetara igotzeko ere eskailerak igotzea da aukera bakarra.  
Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.


177 Gelez ari garenean ez gara soilik logeaz ari, funtzio ezberdinak jaso ditzaketen gelez baizik (sukaldea, komuna eta sarrera ez diren gainontzeko espazioez).

Orain arte aipatutakoek segurtasun pertzepzioan eragina dute, eta Alabergaren kasuan esan dezakegu segurtasun pertzepzioa areagotzen duten baldintzak badaudela. Eraikinetako behe-solairuak zabalik daude kalera, eta ondorioz, zaintza informala ahalbidetzen da; argiztapena egokia da; eta hiri-paisaia zaindua dago. Hala ere, badaude emakumeek ez-seguru bezala hautematen dituzten guneak auzoan.

Espazio publikoari dagokionez, auzoko harreman espazioen kopuru eta kokapena egokia den arren, irisgarritasuna ez da beti bermatzen, kalean oztopo arkitektoniko ugari baitaude harreman espazioetara heltzea zaildu dezaketena. Espazio publikoaren diseinuari eta ezaugarri konkretuei erreparatzen badiegu, badaude aspektu interesgarriak, hala nola: kaleek leku batetik bestera joateko funtzioa betetzeaz gain, egotea eta harremantzea ahalbidetzen dute; begetazioa presente dago paisaian; eta harreman gune nagusiek perimetroa zabalik dutenez, inguruan jarduera sortzeko eta inguruko jarduerak hartzeko gaitasuna dute.

Azkenik, mugikortasunaren gaiari helduz, oinez, bizikletan, garraio publikoan edo autoz mugitzeko baldintzak egokiak dira auzoan, kaleen diseinuak mugitzeko hainbat modu ahalbidetzen baititu eta garraio publikoko geroak hurbil baitaude. Oinezkoen autonomia sustatzeko, aldiz, zenbait kale eta eremutan eserlekuak falta dira. Izan ere, mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonentzat, kaleetako eserlekuak ezinbestekoak dira leku batetik besterako ibilbideetan deskantsua hartzeko eta oinez jarraitu ahal izateko.

#### 4.2.2 Galtzaraborda



137. irudia. Galtzaraborda auzoaren azterketatik eratorritako puntuazioa gaika. Iturria: egileek egin.

Hiri-konfigurazioa aztertzeko hautatu ditugun adierazleen arabera, Galtzarabordak ere ezaugarri interesgarriak azaldu ditu. Auzoan bloke lineal baxuak dorre ertain eta altuekin konbinatzen diren arren, lau solairuko bloke linealak dira kopuruz handienak. Ondorioz, zehaztutako adierazleak neurtzean, zera ikusi dugu: eraikin gehienen altuerak barrualdeen eta kalearen arteko harremana errazten duela, eta argiztapena eta eguzkiztapen egokia ziurtatzen duen hegal sakonera dutela. Harreman espazioen biztanleko proportzioa aldiz eskasa da, dauden guneek hainbat funtzio ahalbidetzen dituzten arren.



138. irudia. Dorreak, bloke linealak eta kota ezberdinetara dauden kalen arteko loturak ezartzen dituzten eskailerak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Bestalde, auzoak, zentralitateak sortzeko eta mugikortasunerako zailtasun handiak azaldu ditu. Bere tamaina zabalak, eraikinen heterogenetasunak, eta erabileran nahasketa urriak asko zailtzen dute jarduera fokua sortzea. Aldi berean, orografiak eta kale nagusietan dagoen eserleku kopuru urriak ez du oinezko mugikortasuna laguntzen. Horri lotuta, ka-

leetan zehar kotxeen aparkalekuek hartzen duten espazio handiaren ondorioz, espaloiak sarri estuak dira.

Ekipamenduei dagokienez, eguneroko bizitzarako ezinbesteko diren horiek ez daude distantziaz auzotik urrun, auzoaren izaera maldatsuak horietara iristea zaildu dezakeen arren. Aldi berean, 4.1 atalean ikusi dugun bezala, zaharkituta eta erabilerarik gabe dauden hainbat ekipamendu-eraikin daude auzoan, eta aldi berean, jarduera komunitarioak antolatzeko erabiltzen diren espazioak urriak dira.

Etxebizitzaren baldintzak aztertzean, aipatu dugu nola ezaugarri oso ezberdinak dituzten boke tipologiak konbinatzen diren auzoan: alde batetik bloke linealak, eta bestetik, dorreak. Auzoko etxebizitzaren ezaugarriak buruz orokortasunetik hitz egiteak, beraz, ez du errealitatea islatzen. Behe solairuetan dauden

etxebizitzek ez ezik, etxebizitza guztiek dute balkoia, eta baita moldagarritasuna errazten duten banaketak ere (azalera bertsuko gelak, gune hezeak pilatuta, eta gune komunitatik sarrera dute gelek eta komunek). Irisgarritasun baldintzak, aldiz, oso ezberdinak dira bloke altuago edo baxuagoetan: dorre altuenak baino ez dira jatorriz igogailua dutenak, eta gainera, auzoko gune lauetan kokatuta daudenak. Hala ere, lau solairuko bloke linealek duten onuretako bat zera da: atari bakoitzeko etxebizitza kopurua txikiagoa denez, errazagoa dela bizilagunak ezagutzea eta elkarren arteko harremanak sortzea.




Etxebizitzekin ikusi dugun bezala, espazio publikoaren ezaugarriek ere baldintza interesgarriak eta gabeziak konbinatzen dituzte. Ibilbide nagusietan zehar harremantzeko txoko eta zuhaitz ugari daude, eta parke eta plazak etxebizitzetatik hurbil daude; baina bestalde, maldak zera eragiten du: harremantzeko guneetara heltzeko zailtasunak izatea eta harreman espazioek beren perimetroak nolabait itxita edukitzea. Izan ere, harreman guneetako jarduera inguruko kaleetara zabaltzea zaildu egiten du kota aldaketak, eta nolabait, isolatu egiten du parke, plaza eta txokoetan ematen den jarduera.

*139. irudia.* Galtzarabordan zehar horrelako harreman-txoko asko daude, baina kota aldaketak sarri inguruko kale eta espazioekiko banaketa eragiten du, irisgarritasuna zailteaz gain. Ondorioz, auzoan zehar harremanetara koguneak egon arren, kalean bizitasuna sortzea zaila egiten da. Iturria: egileek egina.

Bukatzeko, aipatutako guztiak eragina du segurtasun pertzepzioan. Eguneroko sareko kaleetan behe solairuak zabalik dauden arren (horietariko askotan etxebizitzak baitaude), kaleko argiztapena aproposa den arren, eta ingurua zaindua dagoen arren, auzoaren bizitasun faltak eta kota aldaketek eragiten duten guneen arteko isolamenduaren ondorioz, hainbat leku daude emakumeek egunerokoan seguru bezala hautematen ez dituztenak.

### 4.2.3 Beraun



140. irudia. Beraun auzoaren azterketatik eratorritako puntuazioa gaika. Iturria: egileek egina.

Beraun da aztertu ditugun lau auzoen artean hiri-konfigurazioaren atalean puntuazio baxuena lortu duena. Eraikinak altuegiak ez diren arren, eta kaleak osatzen dituzten ardatzen arabera antolatuta egon arren, hautatutako adierazleek zera adierazten digute: 4 solairutik gorako altueradun eraikinetan kalearen eta barrualdearen arteko harremana lausotu egiten dela (eta Beraunen eraikin guztiek dituzte 5 solairu edo gehiago); eta hegal sakonerak 12-15 metro ingurukoak izan behar direla argiztapen eta eguzkiztapen aproposa izateko etxe barrualdeetan. Beraungo eraikinek hormarte bikoitza dutenez, 15-20 metroko zabalerak dituzte tarteko patio txikiekin. Hala ere, espazio publikoaren proportzio eta funtzioei dagokionez, esan dezakegu biztanleko azalera ratioa ona dela, eta gainera, lasai egoteko, jolasteko, kirolerako zein harremantzeko aukera ematen duela.

Bestalde, Beraunek gaitasun handia dauka jarduera foko propioak sortzeko. Auzoko komertzio eta ekipamendu ugari eta anitzek, eta elkartegintzarako eta jarduera komunitarioak antolatzeko dauden lokal kopuru handiak bizitasun handidun auzo egiten dute Beraun. Ezaugarri horiek eta Errenteriako zentroarekiko urruntasunak, herri txiki baten funtzionamendua indartzen dute auzoan, ezaugarri urbanistikoei dagokienez. Horrek, auzoan segurtasun pertzepzioa areagotzen du: behe-solairu guztiak kalera zabalik daude, argiztapena aproposa da, ingurua zaindua dago, eta jendearen presentziak zaintza informala ahalbidetzen du.

Etxebizitzen ezaugarriei dagokionez, tipologia aniztasunik ez dago, kasik etxebizitza guztiak berdina baitira, eta irisgarritasuna ez da kasu guztietan ber-



matzen, igogailura heltzeko sarri eskailerak baitaude. Hala ere, auzoan behin eta berriz errepikatzen diren etxebizitzaren banaketek moldagarritasuna ahalbidetzen dute (azalera bertsuko gelak, gune hezeak pilatuta, eta gune komunitatik sarrera dute gelek eta komunek), balkoia dute guztiek, eta atariak 24-30 etxebizitzari ematen dieten sarrera, auzokideen artean elkar ezagutzea errazten duen faktorea.



141. irudia. Beraungo etxebizitzek kale kotan lokalak dituzte eta gainean etxebizitzak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Espazio publikoaren ezaugarriak aztertzean ere, indargune zein ahulguneak identifikatu ditugu. Parke eta plazak etxebizitzetatik hurbil daude, ibilbide irisgarrien bitartez heldu daiteke horietara, eta zuhaitzak daude eguneroko sareko kale gehienetan. Konektibitatean eta mugikortasun baldintzetan aldiz, hainbat hobe-kuntza aukera daude: garraio publikoaren geralekuak etxebizitzetatik hurbil dauden arren, kalean kotxeen aparkale-

kuek hartzen duten azalera handiaren ondorioz, espaloiak sarri estuak dira eta eguneroko sareko kale askotan ez dago eserlekurik deskantsurako.



142. irudia. Kotxeak oso presente daude Beraungo kale paisaian, eta kalearen azalera handia hartzen dute beraientzako aurreikusitako aparkaleku eta errepedeek. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

## 4.2.4 Kaputxinoak



143. irudia. Kaputxinoak auzoaren azterketatik eratorritako puntuazioa gaika. Iturria: egileek egina.

Kaputxinoetako hiri-konfigurazioak balore onak lortu ditu adierazleen araberaz, Galtzarabordaren kasuan gertatu den bezala. Paradoxikoki, bi auzo horiek dira aztertutako lauretatik hiri-egitura sakabanatu eta heterogeneoenak dituztenak<sup>178</sup>. Hori horrela, Galtzarabordan gertatzen zen bezala, bloke lineal baxuak eta dorreak nahasten dira Kaputxinoetan, kasu honetan, dorreen altuera eta kopurua handiagoa delarik. Hala ere, eraikinen altuera balaratzean, adibidez, blokeen erdiak baino gehiagok lau solairu edo gutxiago ditu. Eguzkitztapen eta argiztapen egokia eduki ahal izateko hegal sakoneraren neurriak, ordea, zabalegiak dira bloke gehienetan.

Espazio publikoaren biztanleko azalera ratioa aldiz oso ona da, puntuazio maximoa lortzeko ezarritako 5m<sup>2</sup>ak bikoiztu egiten baitira. Horren kalitateari erreparatzen badiegu, aldiz, eskala handiegiak, kokapen sakabanatuak eta orografiak baldintzatutako konektibitate eskasak sare bezala funtzionatzea zailtzen du. Horrez gain, zail egiten du ere parke eta plazetako jarduerak inguruko kale eta eremuetan bizitasuna sortzea, jarduera gunek isolatu bezala funtzionatzen baitute gehienek. Hala ere, jolaserako, naturaz gozatzeko, harremantzeko eta kirola egiteko aukera ematen dute, besteak beste.

178 Sortutako adierazleek zenbait emaitza kontrajarri azaldu dituzte, eta horien inguruko hausnarketa bat egin dugu 4.2.6 atalean.



144. irudia. José Manuel Zamarreño parkeak naturaz gozatzeko, jarduera fisikoa egiteko eta elkartzeko aukerak ematen ditu. Auzokide asko, egunerokoan, paseoa ibiltzen dira hemen. Egilea: Maddi Texeiro Tarazaga.

Auzo-zentralitateak sortzeko baldintzei dagokienez, tamaina egokia du auzoak, puntarik punta 10 minututan zeharkatu daitekeelako oinez, baina eraikinen erabilera nahasketa eskasa da. Auzo mailan funtzio ezberdinak nahasten dira (ekipamenduak, harreman guneak, komertzioa, espazio komunitarioak etab.), baina erabilera mixtoak dituzten eraikinak urriak dira: batzuek komertzioak dituzte behe solairuetan, besteren batzuek bulegoak, eta gutxi batzuek lokal komunitarioak.

Aipatu bezala, etxebizitza eta eraikin tipologiak askotarikoak dira, baina orokorrean zera aipa dezakegu: etxebizitza gehienak irisgarriak direla barrualdeetan igogailua baitaukate, gehienek balkoia daukatela, eta bloke gehienek atariko 40 etxebizitza baino gutxiago dituztela. Dorreak salbuespena dira aipatutako azken baldintzan, 50-60 etxebizitza ingururi ematen baitiete sarrera, eta horrek anonimotasuna indartzen baitu.

Azkenik, emakumeen segurtasun pertzepzioari dagokionez, gainontzeko auzoetan lez, Kaputxinoetan ere badaude ez-seguru bezala hautematen diren lekuak. Argiztapena eta inguruaren zaintza, orokorrean, egokiak dira, baina hainbat behe solairu itxita daude (bai erabilerarik gabeko lokal komertzialak direlako, bai hesituta daudelako). Horrez gain, orografia maldatsuen eraginez ematen den kaleen eta espazio publikoaren sakabanaketak, eta hainbat kaletan dagoen jarduera eskasak, lotura bisualak eta “kale begiak” egotea oztopatzen dute.



145. irudia. Basanoaga kalearen fatxadetako bat eremu maldatsuan eraiki ahal izateko egin zen karga horma batek osatzen du, aipatutako fatxada itsuak sortuz. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

### 4.2.5 Lau auzoen azterketaren emaitzen laburpena

Auzo bakoitzaren azterketaren laburpena jaso ondoren, lau auzoetan adierazleen arabera egindako azterketaren konparazio eta laburpen txiki bat egingo dugu. Horretarako, auzokako eta gaikako puntuazioak biltzen dituen taularen emaitzetan oinarrituko gara.

	Alberga	Galtzara-borda	Beraun	Kaputxi-noak	Gaikako emaitza
1. Hiri-egituraren konfigurazioa	5	4,2	3,4	4,2	4,2
2. Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak	3,25	2,2	3,75	3	3,05
3. Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura	4	3	3,75	4,5	3,81
4. Etxebizitzak	3,4	3,6	3,2	3,6	3,4
5. Segurtasun pertzepzioa	3,8	3,2	4	3,2	3,55
6. Espazio publikoa	3,43	3,57	3,57	4,14	3,68
7. Mugikortasuna eta konektibitatea	2,4	2	2,6	1,8	2,2
Auzokako emaitza	3,61	3,11	3,47	3,49	

9. taula. Lau auzoen adierazleen arabera azterketaren emaitza kuantitatiboak. Baloreen kategorizazioa hurrengoa da: Oso altua 5 puntu; Altua 4,99 - 3,67 puntu; Bitartekoa 3,66 - 2,34 puntu; Baxua 2,33-1,01 puntu; Oso baxua puntu 1. Iturria: egileek egin.

**Hiri egituraren konfigurazioari dagokionez**, nabarmentzekoa da nola Alberga auzoaren egiturazko ezaugarriak diren eguneroko bizitzari eta harreman komunitarioen indartzeari hobeto erantzuten diotenak. Eraikinen eskalak,

ardatz argien araberako antolamenduak, eta espazio publikoaren eskalak eta ezaugarriek kalitate handia ematen diote auzoko hiri-inguruari. Gainontzeko hiru auzoen puntuazioak erreparatzean, aldiz, paradoxikoa da lortutako emaitza. Auzoak sakonean aztertu ondoren, adierazleei begiratu gabe, esango genuke Beraunen hiri-egitura Kaputxinoetakoa eta Galtzarabordakoa baino interesgarriagoa dela arrazoi ezberdinengatik: ardatzen arabera antolatzen dira eraikinak kale jarraituak sortuz, plazak eta harreman txokoak auzoan zehar sakabanatzen dira eta eskala eta erabilera ezberdinak tartekatzen dituzte, eta etxebizitza eraikinen dentsitatea nahiko altua bada ere, orokorrean altuerak ez dira gehiegizkoak. Esan dezakegu Beraunek hiri-egitura homogeenagoa eta egituratuagoa duela Kaputxinoek edo Galtzarabordak baino. Hala ere, adierazleak aplikatzean, auzoaren osotasunaren puntuazioak batezbesteko baloreak agertzen ditu, eta batezbesteko horien baloreak hobeak dira Galtzarabordan eta Kaputxinoetan. Horren arrazoia zera da: proportzionalki lau solairuko bloke lineal asko daudela ezaugarri interesgarriak dituztenak eta eraikin altuagoek puntuazioan duten inpaktua lausotzen dutenak.


**Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak biltzeko gaitasunari erreparatuz,** Beraun da balore altuenak lortu dituena. Batasun estetiko eta tipologikoak, eraikinek duten erabilera nahasketa altuak, eta auzoan eguneroko komertzio nahikoa edukitzeak zentralitate propioa sortzeko gaitasuna ematen dio Berauni. Egoera oso bestelakoa da gainontzeko hiru auzoetan. Alabergan ez dago eguneroko komertziorik eta eraikinetan apenas dago bizitegia ez den bestelako erabilerarik. Kaputxinoetan eguneroko komertzioa badagoen arren, erabilera nahasketa ere txikia da, eta gainera, etxebizitza-blokeen heterogeneotasunak auzoaren batasun izaera zailtzen du. Hala ere, Galtzaraborda da gai honetan balorerik baxuenak lortu dituena. Auzoaren tamainak, orografiak, eta etxebizitza blokeen tipologia heterogeneoak batasuna indartu baino, zonaldekako banaketa sustatzen du. Erabilera nahasketa urria da, eta eguneroko komertzio oso gutxi dago. Horrez gain, jendearen eguneroko joan etorria eragiten duten kiroldegia eta tren geltokia auzoaren muga daude kokatuta, eta ondorioz, ez daukate apenas inpakturik zentralitate propioak sortzeko auzoak duen gaitasunean.

Hala ere, gai hau ezin dugu ulertu auzoek batak bestearengan duten inpaktuari erreparatu gabe, eta Errenteriako zentroarekiko duten kokapena aintzat hartu gabe. Beraun Errenteriako zentrotik nahiko aldentuta dago, eta eraikin tipologiak behe solairuetan etxebizitzak ez diren bestelako erabilerak txertatzea ahalbidetzen du. Herriko gune komertzial nagusitik aldentuta egoteak

eta auzoan bertan erabilera ezberdinak txertatzeko aukera edukitzeak potentzial handia ematen diote auzoari zentralitate propioak osatzeko. Alabergaren kasuan, atal honetako puntuazioa bitartekoa bada ere, Errenteriako zentrotik oso hurbil dago eta lotura-ibilbideak nahiko erosoak dira. Ondorioz, auzoak zentzu honetan dituen gabeziak erraz osatzen dituzte oinez 10 minutuko erradioan dauden komertzio eta zerbitzuek. Kaputxinoen eta Galtzarabordaren kasuak bestelakoak dira. Galtzaraborda Beraunen eta Zentroaren artean kokatuta dago, herriko bi gune komertzial nagusiak direnak; eta Kaputxinoak Beraunen parean eta Errenteriaren periferian eraiki diren merkataritza-gune handien artean. Bi auzo horiek, beraz, oso baldintzatuta daude beren izaera eta kokapenagatik jarduera foko propioak sortzeko orduan

**Ekipamenduen eta zerbitzu sozialen azpiegituraren atalean** balore altuak lortu dituzte auzoek, Galtzarabordak ez ezik. Eguneroko ekipamenduekiko hurbiltasunari dagokionez, orokorrean hurbiltasun baldintza onak dituzte auzoek. Kultur etxea, liburutegia edo udaletxea adibidez, zentroan kokatuta daudenez, auzo ia guztiak daude oinez 10 minutu baino gehiagora. Baina orokorrean, eskolak, osasun zentroa edo nagusien zentroa eskura daude aztertutako lau auzoetatik. Azken horiei erreparatuta, Beraun da hurbiltasun baldintza eskasena dituen, haurreskola eta nagusien eguneko zentroa oinez 10 minutura baino gehiagora daudelako bertatik. Neurtutako beste parametro bat auzoko ekipamenduen sarreretan tarte espaziorik dagoen edo ez izan da, eta azpimarratzekoa da oso ekipamendu gutxik betetzen dutela baldintza hau. Kasu gutxi batzuetan bakarrik ematen da ekipamenduetarako sarrera plaza edo espaloi zabal batetik, baina gehienetan, ekipamenduen eta kalearen arteko trantsizio eremuak ez daude landuta.

**Etxebizitzen ezaugarrien azterketa** izan da landu dugun laugarren aspektua, eta kasu honetan, lau auzoek bitarteko baloreak lortu dituzte. Lau auzoetan, orotara ikertutako etxebizitza tipologia gehienek balkoia dute jatorrizko diseinuan, eta moldagarritasun baldintzak betetzen dituzte hein handi batean. Irigarritasunari dagokionez, ezberdintasun handiak nabaritzen dira blokeen eraikuntza garaiaren arabera. 50eko hamarkadako eta 60ko hamarkada hasierako bloke askeek 4 eta 5 solairu artean dituzte. Ondorioz, igogailurik gabe diseinatu ziren jatorriz, altuerak ez zirelako oso handiak eta eraikuntzaren prezioa merkatzen zuelako.




146. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako erabilera nahasketa adierazten duen planoak. Gorriz erabilera bat baino gehiago nahasten dituzten blokeak eta urdinez ekipamenduak. Tren geltokiaren eragin erradioa ere adierazi da. Iturria: egileek egina.



147. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako eguneroko ekipamenduen planoak. Urdinez ekipamenduak, eta horiz ekipamenduen sarreretako tarte espazioak (badauden kasuetan). Iturria: egileek egina.



Alabergako etxe guztiak dira mota horretakoak, eta baita Galtzarabordako eta Kaputxinoetako zenbait. 6 solairu eta gehiagoko blokeak aldiz, igogailuarekin diseinatu ziren, baina kasu batzuetan eskailerak igo behar dira igogailura heldu ahal izateko (Beraungo blokeetan kasu). Halako blokeak topa ditzakegu Galtzarabordan, Kaputxinoetan eta Beraun osoan. Aniztasun tipologikoari dagokionez, Beraun da banaketa-tipologia bakarra behin eta berriz errepikatzen duen auzoa. Beste hiru auzoetan, gutxienez, bi aldaera tipologiko topa ditzakegu, etxebizitzaren banaketetan aniztasun gutxieneko bat bermatzen duena. Azkenik, atariko etxebizitza kopuruari erreparatu diogu, eta kasu honetan ere, eraikuntzen garaiak baldintzatzen du zenbakia. Bloke lineal baxuetan, eta hormarte bikoitza eta tarteko patioa duten blokeetan, etxebizitza kopuruak bizilagunen elkar-ezagutza errazten du. 60ko hamarkadako dorre altuetan aldiz (Galtzarabordako Parke kalekoak edo Kaputxinoetako Sorgintxulokoak kasu) elkar ezagutza zailagoa da sarrera bakoitzeko dagoen etxebizitza kopuru altuagatik.



148. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako eremuak hamarkada ezberdinetako tipologia orokorraren arabera adieraziak. Berdez 50eko hamarkadako bloke askeak, laranja 60ko hamarkada hasierako bloke askeak, marroiz 60ko hamarkada bukaerako patio-dun blokeak, eta urdinez 60ko hamarkadako patiodun dorreak. Iturria: egileek egina.

Segurtasun pertzepzioaren afera bukaerarako utziko dugu, eta **espazio publikoaren ezaugarrien** inguruko irakurketarekin jarraituko dugu. Kasu honetan nabarmentzekoa da Kaputxinoek lortu dutela balorerik altuena eta Alabergak aldiz baxuena. Kaputxinoetako eguneroko kaleetan zuhaitzak egotea, ibilbideak irisgarriak izatea, edo José Manuel Zamarreño parkeak politikari eta auzokide ohi baten izena edukitzea positiboki baloratu ditugu. Alabergan aldiz, irisgarritasuna eta memoria kolektiboaren adierazpena izan dira hutsune nagusiak. Azpimarratzekoa da emaitza hau, espazio publikoaren egiturazko ezaugarriak a priori interesgarriagoak direlako Alabergan, bai eskalagatik, eta bai parke eta plazek etxebizitzekin eta eguneroko ibilbideekin sortzen duten sare interesgarriagatik. Galtzarabordan eta Beraunen ere antzerako paradoxa erakusten digute emaitzek, bi auzoetan puntuazio bera lortu baitute espazio publikoaren nolakotasunek. Kasu honetan ere, egiturazko baldintzak interesgarriagoak dira Beraunen, oinezkotasunak, begetazioaren presentziak edo memoria kolektiboaren adierazpenak hutsuneak dituen arren.


**Mugikortasuna eta konektibitatea** dira azken aurreko gaia, eta landutakoen artean balore baxuenak lortu dituen lau auzoetan. Jasotako datuak begirada orokor batetik irakurtzen baditugu, badaude lau auzoetan jeneralizatutako zenbait gabezia, hala nola: eguneroko sareko kaleetan deskantsurako banku nahikoa ez egotea, bidegorriaren konektibitate falta, eta batez ere, malda handiek eragindako irisgarritasun arazoak. Garraio publikoaren geralekuen kokapena, aldiz, positiboki balora dezakegu lau auzoetan, etxebizitza guztiek baitaukate 300 metro baino gutxiagora autobus edo tren geralekua. Gainera, ez dago disuasio-aparkalekurik bere horretan Errenteriako mendebaldeko eremu honetan, eta horren ordez, galtzadek kaleen azaleraren zati handiena hartzen dute oinezkoen kalterako.

Orain arte azaldutako gai guztiek eragina dute nola edo hala auzokideen, eta bereziki, **emakumeen, nagusien edo umeen segurtasun pertzepzioan**. Auzoetako ibilbide nagusietan hiri-paisaia orokorrean zainduta dago eta baita egokia da. Alabergaren eta Beraunen kasuetan behe solairuak kalera irekita egoteak segurtasun pertzepzioa areagotzen du, eta baita kaleen arteko hierarkizazioak ere. Hala ere, lau auzoetan identifikatzen dira hobetu beharreko eremu eta txokoak, bai bakartiak direlako, bai ikusgarritasun oztopoak dituztelako, bai ilunak direlako, edo bai mantenu handiagoa behar dutelako.


Honenbestez, hurrengo irudian adierazleen araberrako azterketa egin ondoren lortutako emaitzen laburpena ikusi daiteke, kasu honetan emaitzak grafiko bitartez adieraziak.



149. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako harreman espazioak berdez adieraziak. Iturria: egileek egina.



150. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoetako eguneroko sarearen planoak. Arrosaz eguneroko sarea osatzen duten kaleak, urdinez eguneroko ekipamenduak eta berdez harreman espazioak. Iturria: egileek egina.



151. irudia. Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoen azterketatik eratorritako puntuazioen laburpen grafikoak. Iturria: egileek egin.

#### 4.2.6 Sortutako adierazleen inguruko hausnarketa

Atal honetan egindako azterketaren ondoren, hausnarketa txiki bat egin nahi izan dugu sortutako adierazleen inguruan. Emaitzen irakurketan zehar ikusi dugun bezala, kasu batzuetan errealitatea islatzen ez duten emaitzak eman ditu adierazleen araberako neurketak. Paradoxa deigarrienak “1. Hiri-egituraren konfigurazioa” eta “6. Espazio publikoa” ataletan identifikatu ditugu.

Hiri-egituraren konfigurazioaren balorazio parametroei dagokienez, eraikinen altueraren neurketan eta espazio publikoaren egiturazko ezaugarrien balorazioan sumatu ditugu hutsuneak. Eraikinek oinezkoekiko duten eskala, eta horien altuerak barrualdearen eta kanpoaldearen artean ahalbidetzen duen harremana neurtzean, auzo osoaren batezbesteko balorea hartu dugu aintzat. Bloke mota eta altuera oso ezberdineko hiri-egitura heterogeneoa duten auzoetan, batazbesteko balore horrek ez du errealitatea islatzen. Eraikin baxuagoz osatutako eremuetan puntuazioa altuagoa izango litzateke, eta eraikin altuagoak dituzten eremuetan, al-diz, baxuagoa. Bestalde, 5 solairu edo gehiagoko altuera duten eraikinei puntuazio bera egotzi diegu, eta ezberdintasun nabarmenak daude 6 solairuko eraikinez edo 15 solairukoez osatutako hiri eremuetan ibiltzearen artean. Beraz, komenigarria litzateke atal honetan zehaztutako balorazio parametroak berrikustea.

Horrez gain, uste dugu komenigarria litzatekeela espazio publikoaren egiturazko ezaugarri kualitatiboak baloratzea ahalbidetzen duen adierazleren bat txertatzea. Espazio publikoen funtzio aniztasuna eta biztanleko azalera ratioa neurtu ditugu, baina harreman-espazioen eskala eta inguruarekiko harremana funtsezko ezaugarriak dira hiri-egiturari egiten dioten ekarpena baloratzeko.

Emaitza deigarriak eman dituen beste atala espazio publikoarena izan da. Atal honetan baloratu ditugun aspektuak erreparatzen baditugu, ikusiko dugu nola bi mailatako ezaugarriak nahasten diren: egiturazkoak eta ondorioz, hobekuntza tarte txikiagoa dutenak; eta azalekoagoak direnak, esku-hartze errazagoak ahalbidetzen dituztenak. Adibidez, espazio publikoen kokapena eta auzoan zehar duten distribuzioa egiturazko ezaugarri horien adibide izango litzateke, eta eserlekuen kokapena edo zuhaitzen presentzia modu errazagoan hobetu daitekeen aspektuaren adibide. Honenbestez, balorazio parametro horiek berrikusi eta atalaren gutzitiko puntuazioan duten eragina berrikustea komeniko litzateke.

Ezusteko handiena eragin duten emaitzak aipatutako bi atal horietan identifikatu ditugun arren, aurrera begira, komenigarria litzateke adierazle sorta hau lagin zabalagoekin frogatzea eta balorazio parametroak fintzea, errealitatea modu fide-lagoan islatu dezaten.

## 5. Auzoen hiri-ezaugarrien ebaluazioa eguneroko bizitzaren eta harreman komunitarioen ikuspegitik: ahulguneak eta indarguneak

Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta Kaputxinoak auzoak aurreko atalean azaldutako adierazleen arabera aztertu ondoren, ikusitakoaren balorazio orokor bat egingo dugu atal honetan, auzo bakoitzaren ahulgune eta indargune nagusiak azpimarratuz, eta aurrera begirako zenbait lan ildo proposatuz.

Ahulguneez ari garenean, auzoen izaera urbanistikoak azaltzen dituen aspektu negatiboez ari gara, harreman komunitarioen sorrera eta auzokideen eguneroko bizitza zailtzen dutenak. Indarguneak aldiz, auzo bakoitzaren ezaugarri urbanistikoaren aspektu positiboak lirategi, auzokideen artean harremanak eragiteko eta eguneroko bizitza errazteko gaitasuna dutenak. Ondoren jasotako lan ildoek hirigintzatik auzokideen egunerokotasunean positiboki eragiteko helburua dute.

### 5.1 Alaberga

#### Ahulguneak

Alabergaren ahulgune nagusia **irisgarritasun oztopoak dira, espazio publikoan zein etxebizitza-blokeetako espazio-komunetan aurki daitezkeenak**. Auzoa orografia irregularrean ezartzean, hautatutako etxebizitza-blokeen tipologiak espazio publikoaren diseinua baldintzatu du.

Lursail irregularrean ezartzeko estrategia zera izan zen: zorua lautu beharrean, zoru irregularraren gainean blokeak ezarri ziren, atarietara heltzeko altuera ezberdinetara dauden espaloi-plataformak eginez. Ondorioz, kota ezberdin horien arteko loturak eskailera bitartez egiten ziren jatorrizko diseinuan. Gaur egun, espazio publikoko irisgarritasunaren afera Udaletik landu den gaia da,

eta puntu askotan etxebizitzaren inguruko espazio publikoan zeuden mugikortasunaren irisgarritasunerako oztopoak ezabatu egin dira eskailerak arrapalengatik ordezkatur. Hala ere, badaude zenbait puntu, soluzio konplexuagoa izatearen ondorioz, konponduta ez daudenak.

Espazio publikoko irisgarritasun oztopoez gain, etxebizitza-blokeek mugikortasunerako mugak azaltzen dituzte. Kasu gehienetan, kalea eta ataria ez daude kota berean eta eskaileraren bitartez egiten da lotura. Gainera, ataritik etxebizitzetara heltzeko komunikazio nukleoetan, jatorriz, ez dago igogailurik.

## Indarguneak

Alabergaren indargune nagusia **auzoak duen herrixka izaera da: auzokideek elkar ezagutzen dute, auzo zaintza informala ematen da, eta identitate indartsua daukan auzunea da**. Herrixka-izate hori faktore ezberdinen uztartetaren ondorio da, eta hurrengo lerroetan nortasun hori indartzen duten aspektu urbanistikoak azalduko ditugu.

Alde batetik, **etxebizitza-blokeen zenbait ezaugarri daude, auzokideek elkar ezagutzea errazten dutenak eta auzoarekiko duten pertinentzia handitzen dutenak**. Eraikin gehienek hiru solairu dituzte behe solairuaren gainean (bi solairu dituzten kasu gutxi batzuk kenduta), eta atari bakoitzak sei eta zortzi etxebizitza arteri ematen die sarrera. Gainera, jatorriz eraikinek ez daukate igogailurik, eta sarrera eta irteerak eskaileratik egin izan dira, eta egun ere, kasu askotan egiten dira. Atari bakoitzeko etxebizitza gutxi egoteak eta eskaileretan zehar sartu eta irteteak bizilagunen arteko topaketa bultzatzen du, harremanak sortzeko aukera areagotuz. Horrez gain, auzoa proiektu bakar bezala diseinatu eta eraiki izanak, eta proiektuan eraikinen batasun formal eta estetikoa landu izanak, multzo izaera ematen dio auzoari. Inguruko auzoetatik bereizten du eta hasieran aipatutako herrixka izaera hori indartzen du<sup>179</sup>.

Aipatutako ezaugarriez gain, auzo harremanak bultzatzeko aspektu garrantzitsua da ere espazio komunitarioak edukitzea eta horiek auzokideen erabilerarako eskuragai egotea. Izan ere, erabilera nahasketa gutxi duen auzoa da Alaberga, eta aisialdi eta topaketarako jarduera gune garrantzitsua dira auzo elkartearen eta jubilatuen lokalak. Erabilera nahasketa urriari lotuta, aipatze-

---

179 2. tailerra (2023/01/11).



koa da ere nola auzoaren inguru hurbilean ekipamendu, komertzio eta jardue-  
ra gune esanguratsuak egoteak, auzoaren funtziobakartasuna modu egokian  
osatzen duen. Auzoak ez dituen zerbitzuekiko hurbiltasunak eta konektibitate  
erosoak auzoaren gabeziak asetzen ditu.



152. irudia. Alabergako Arditurri auzo elkartearen lokala. Egilea: Mikel Taboada.

Beste alde batetik, **eraikinek badituzte beste zenbait ezaugarri auzo mailako zaintza komunitario eta informala ahalbidetzen dutenak, eta kale-bizitasuna sortzen dutenak**. 4.1 atalean ikusi dugun bezala, auzoko behe solairu gehien-gehienetan etxebizitzak daude (zazpi lokal baino ez daude auzoko behe solairuetan). Hori horrela izanda ere, behe solairuak kalera begira daude, ez dute hesi itsurik, eta leihoak dituzte zabalik espazio publikora. Horrek dinamismoa sortzen du behe solairuetan eta eraikinen barrualdearen eta kalearen arteko harremana indartzen du. Gainera, etxebizitzaren orientazio bikoitzak alde bateko zein besteko kaleetan edo etxe irla barrualdeetan gertatzen dena ikusi eta horri erreakzionatzeko aukera ematen du. Auzoko etxe gehienek balkoia edukitzeak ere, eraikinen barrualdeen eta kalearen arteko bitarteko espazioak sortzen ditu. Erabilera pribatua duten espazioak dira balkoioak, baina espazio publikoan ikusgarriak direnak, kanpoalde-barrualde muga estankoa apurtzen dutenak, eta elkar-erasateko eta elkarren jardueraz elikatzeko aukera ematen dutenak.

Azkenik, **espazio publikoaren ezaugarriek ere hasieran aipatutako herri-ka izaera areagotzen dute.** Tamaina eta pribazitate maila ezberdinak dituzten plaza, parke eta txokoez osatuta dago Alabergako espazio publikoaren sarea; kaleen diseinuaren egiturazko elementua da begetazioa; bi-hiru eserlekuz osatutako harreman gune txiki ugari daude atarien parean, eta aldi berean, auzotarrentzat bilkura gune erreferente diren plazak daude auzoan. Egitura konplexu hori kale-ardatz eta hierarkia argien pean antolatuta dago, eta horrek oinezkoen orientazioa errazten du eta espazioen publikotasuna ere graduatzen du. Mugikortasun baldintzak aztertuz, kaleen izaerak ere, auzo mailako erabilerara ahalbidetzen du. Kaleetako espaloiak eraikinen perimetroari itsasita daude, eta autoentzako errepideek eta aparkalekuek kalearen zati handi bat hartzen duten arren, trafikoa gutxidun kaleak dira. Trafiko handiagoa daramaten kale nagusien eta bigarren mailako kaleen arteko hierarkia horrek mugitzeko modu ezberdinen arteko elkarbizitza errazten duela esan dezakegu.



153. irudia. Alabergako harreman gune nagusia, auzotarrek “auzo bihotz” bezala identifikatzen dutena. Egilea: Mikel Taboada.

## Hobekuntza proposamenak

Ikusi dugunez, irisgarritasunaren afera da auzoak duen gabezia nagusia, bai espazio publikoaren zenbait puntutan, baina bereziki, etxebizitza barrualdeen eta kalearen arteko loturan.

Lehendabizi, interesgarria litzateke baloratzea etxebizitzaren komunikazio nukleoetan **igogailua txertatzeko espazio nahikorik dagoen.** Hala ez izateko-

tan, atariaren parean eta espazio publikoa okupatuz ezarri beharko lirateke igogailuak. Kasu horretan, auzoaren azterketa eta esku-hartze integral bat egi-tea komeniko litzateke. Izan ere, kasu batzuetan, etxebizitza-blokeak 1,6 me-tro inguruko espaloiaz inguratuta daude; ondoren, 2,5 eta 3,5 metro inguruko lorategia daukate; eta hortik eta errepidera 3 metrora artekoa ere baden kota diferentzia dago. Beste kasu batzuetan, atarietara sartzeko eskailerak igo edo jaitsi behar dira, espaloiarene eta atariaren artean kota aldaketa dagoelako. On-dorioz, igogailuak eraikinei eransteak espazio publikoaren birdiseinu integrala suposatuko luke.

Birdiseinu horretan, aintzat hartzekoa litzateke begetazioak kalitatea ematen diola espazio publikoari, eta auzotarren partetik espazio publikoan esku-har-tzeko eremua ere izan dela eta kasu batzuetan oraindik badela, landara pro-pioak landatuz eta zainduz. Honenbestez, garrantzitsua litzateke ezaugarri hori mantentzea, eta auzotarren parte-hartzea birdinseinu prozesuan bermatzea.

Modu berean, etxebizitzaren bolumenei igogailua bezalako elementu gehigarria atxikiko balitzaie, garrantzitsua litzateke auzoaren batasun estetikoa zaintzea eta elementu berriek osotasun izaera mantendu eta indartzea.



154. irudia. Goiko Alabergako kalea, non atarien, espaloien, lorategien eta galtzada-ren arteko kota aldaketa ikusi daitekeen. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.



155. irudia. Behe Alabergako hainbat blokeetako atarietara heltzeko eskailerak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

## 5.2 Galtzaraborda

### Ahulguneak

Galtzarabordan identifikatu dugun **ahulgune nagusia kalearen existentzia eza da**, Mugimendu Modernoaren premisen isla argia. Kalearen apurketa baldintzatuta dago auzoa ezarrita dagoen eremuaren orografiatik, eta baita ezarpenerako hautatutako hiri-morfologia eta eraikin tipologiagatik ere. Auzoaren ardatz nagusietako fatxadak osatzen dituzten eraikin tipologiek eta horien kokapenak, hots, Parke kaleko eta Galtzaraborda etorbideko eraikinek, ez dute oinezkoen eskalara pentsatutako fatxada jarraiturik osatzen.

Parke kalearen kasuan, lau solairuko bloke linealek osatzen dute kalearen tarte txiki bat. Tarte horretan fatxaden jarraikortasuna badago, baina espazio publikoak oinezkoentzako kale izaera baino errepide izaera dauka. Urdaburu parkerantz jarraituz, iparraldeko fatxadan eraikin tipologia aldatu egiten da eta dorreak agertzen dira. 12-14 solairuko dorreak ez dira oinezkoen eskalara egokitzen, eta dorreen arteko tarte espazioetan kalitate oso eskaseko espazio publikoa dago: zementu-esplanada baino ez dira, bi eserleku isolaturekin. Tarte horretan espaloiak zabalagoak diren arren eta zenbait eserleku badauden arren, galtzada ere zabalagoa da, eta aparkalekuek oinezkoen ikusgarritasuna oztokatzen dute. Hortik Urdaburu parkera arteko zatian, fatxadak desagertu egiten dira eta alboetara dauden bide, eskailera eta arrapalez ordezkatuak dira.



156. irudia. Galtzarabordako Parke kaleko bi dorrearen arteko espazioa. Egilea: Carlos Bayón.

Galtzaraborda etorbidea aldiz, lau solairuko bloke linealez inguratuta dago. Kasu honetan, horien kalearekiko kokapena da kalearen jarraikortasuna apurtzen duena. Aiako harria kaletik Aizkorri plazara doan tartean, eraikinak maldari elkarzut daude kokatuta, kalean fatxada jarrai bat sortu beharrean sartu-irtenez osatutako fatxada irregularra osatuz. Horrez gain, espazio publikoa guztiz fragmentatuta dago: espaloia kalearen pareko egoteko txokoetatik banatuta dago, eta espaloietako bat galtzadaren kota berean dagoen bitartean, bestea, galtzada baino altuago dago.

Ardatz nagusi horiez harago, blokeen arteko gainontzeko kaleak maldaren kotara egokitutako plataforma terrazatuak dira, eskailera sare konplexuez konektatuak, eta jarraikortasunik ez dutenak.

Laburbilduz, esan dezakegu: bai eraikinek duten izaerak eta kalearekiko kokapenak, eta bai espazio publikoaren diseinuak, ez dituztela baldintzak sortzen oinezkoentzako “paseagarria” den eta egoteko atsegina den kale-sarea sortzeko.

Orografiarekin zuzenean lotutako bigarren ahulgune bat **auzoan zehar mugitzeko zailtasuna da**. Aldapa eta eskailera oztupo dira oinez eta bizikletan eroso mugitzeko, eta igogailu publikoen bitartez gune ezberdinen arteko konektibitatea erraztu den arren, ibilbide konkretu batzuk egiteko soilik baliatu daitezke. Auzoa erosotasunez zeharkatzea eta auzoko puntu batzuetatik besteetara modu irisgarrian mugitzea ahalbidetzen dute, baina etxebizitzaren al-

dirietan dauden eskailerak traba-arkitektoniko handia izaten jarraitzen dute joan-etorrietarako.



157. irudia. Galtzarabordako espazio publikoan ohikoak diren eskailerak. Egilea: Carlos Bayón.

Hirugarren ahulgune bat **auzo-ko gune erreferentzialesk auzo-zentralitateak<sup>180</sup> sortzeko duten gaitasun eskasa da.** Aspektu hau lotuta dago aurretik azalduetako diseinu urbanistikoak ezartzen dituen baldintzekin, baina baita auzoak duen zerbitzu eta jarduerara falta orokortuarekin ere. Parke kalea edo Urdaburu parkea auzoko erreferentziazko leku badira ere, jarduera traktore gutxi biltzen

dira leku horietan auzoaren tamaina eta populazioa<sup>181</sup> aintzat hartzen baditugu. Parke kalearen kasuan lokal komertzial itxi asko daude komertzio irekiekin tartekatuta, eta Urdaburu parkearen inguruan ere, lokal komertzial itxiak egoteaz gain, jarduera oso gutxi duten ekipamendu eraikinak daude. Aipatzekoa da ere, auzoko tren geltokia eta kirolgunearen kokapenak ez dutela modu indartsuan eragiten Galtzarabordarako auzo-zentralitate bat sortzen. Horrelako dotazioek badute potentziala beraien inguruan zentroak sortzeko, herritarren joan-etorri asko eragiten baitituzte. Baina kasu honetan, auzoaren mugan kokatuta daude, ipar-ekialdeko puntan, eta auzoaren behealdean, eta horrek ez dio ahalko lukeen beste eragiten Galtzarabordako auzo-bizitza handitzeari.

Aipatuko dugun laugarren eta azken ahulguneak **auzoko espazio publikoen sarearekin du harremana.** Auzoan zehar dauden plaza, parke eta egoteko txokoi erreparatuta, ikusi daiteke nola bi eskala eta izaera oso ezberdineko espa-

180 Auzo zentralitateak sortzeko erraztu egiten du tokiko erosketak eta zerbitzuak distantzia txikian egiten ahal izatea, eta, horregatik, tokiko biztanleen eguneroko bizitzari mesede egiten dio. Prozesu horren euskarri dira garraio publikoko guneak, saltokiak, zirkulazio-bideen kontzentrazioa eta hiri-diseinu eraginkorra. Hainbat egile (2013), 37.orr.

181 Galtzarabordak 4.627 biztanle ditu eta Beraunek 5.537. Auzokideen kopuruen arteko diferentzia ez da handia aztergai ditugun beste bi auzoen biztanleriarekin alderatuta (Alaberga 1.262 eta Kaputxinoak 2.997). Galtzarabordak eta Beraunek duten auzo bizitza aldiz, guztiz bestelakoak dira. Eustat, 2022.

zio publikoak dauden: alde batetik, Urdaburu parkea edo Ion Arretxe parkea bezalako gunehandiak, erabilera ezberdinak uztartzen dituztenak eta auzo mailan erreferentzialak direnak; eta beste aldetik, etxebizitzaren parean dauden espazio txiki eta isolatuak, kasu batzuetan jolaserako prestatuta daudenak, eta besteetan intentsitate baxuko kirol jarduerak egiteko edo atsedenerako. **Egitura horretan espazio publiko ezberdinen arteko kalitatezko loturak falta dira, eta horrez gain, bitarteko eskala duten topalekuak, hots, bloke ezberdinetako bizikideen artean topaleku funtzioa bete dezaketenak.** Etxebizitzaren pareko espazio publiko txikiek egunerokoan kalean egoteko beharra asetzeko aukera ematen dute, baina ez dituzte elkargune bilakatzeko ezaugarriak ezta tamaina. Izan ere, egunerokoan oso gutxi erabiltzen dira inguruan dituzten jarduera urriek ez dutelako auzo bizitza sortzeko gaitasunik, eta ondorioz, espazio publikoan egon nahi duten bizilagunek, sarri, Urdaburu parkera arte jotzen dute jendearekin topo egin eta gunehandi biziago batean egoteko. Hala azaltzen du auzokide batek:

*“Jendeak ia ez ditu erabiltzen [auzoan zehar dauden egoteko txokoak]. Jendeak igogailua hartzen du eta parkera igotzen da. Etxeen azpian ere ez da jenderik egoten, ez korridoretan eta ezta petriletan”<sup>182</sup>.*



158. irudia. Galtzarabordako bloke linealen pean daude korridore eta petrilak. Egilea: Carlos Bayón.

182 7. elkarrizketa (2022/10/27).

## Indarguneak

Galtzarabordaren **indargune nagusia bere azpiegiturek eskaintzen dituzten aukera espazioak dira**. Alde batetik, erabilerarik gabeko edo erabilera oso urria duten ekipamenduak daude auzoan. Pio Baroja eraikinean, egun, hiru elkartek antolatzen dituzte beraien jarduerak, baina eraikinaren zati handiena hutsik dago; eta Galtzarabordako eta Alabergako haur eskola zaharrak (biak Galtzarabordaren mugen barruan kokatuak) hutsik daude, erabilerarik gabe. Bestetik, hainbat lokal komertzial huts eta itxi daude auzoko eraikinetako behe solairuetan. Jada eraikita dauden eta erabilerarik ez duten espazioek aukera eskaintzen dute horietan jarduera berriak sortu eta ezartzeko.

Aipagarria den beste indargune bat **lau solairuko bloke linealez osatutako eremuek duten tamaina eta eskala** izango litzateke. Atari bakoitzeko zortzi etxebizitza izateak, eta etxebizitza eraikinen pean tarteko pribatutasun maila eskaintzen duten espazio publikoak edukitzeak, auzoaren barruan auzune edo komunitate txikiak sortzeko baldintzak eskaintzen ditu.

## Hobekuntza proposamenak

Galtzarabordan hainbat gabezi identifikatu ditugu auzo bizitza eta egunero-kotasuna zailtzen dituztenak, eta gabeziak, kasu askotan, auzoaren morfologia eta egiturazko ezaugarriekin daude lotuta. Hala ere, badaude egungo egoera hobetzeko egin zitezkeen zenbait hobekuntza, beti ere Galtzaraborda inguruko auzoekin batera funtzionatzen duen sistema urbano bezala ulertuz.

Ikusi dugu nola “kalearen apurketa” adierazpenak hainbat gabezia biltzen dituen: fatxaden jarraikortasun eza, oinezkoen eskala galtzea, oinezkoentzako kaleen arteko hierarkizazio falta, kotxeek kalean duten okupazio gehiegizkoa, espazio publikoaren fragmentazioa, edo eserlekuen falta, besteak beste. Errealitate hori hobetzeko, hurrengo lerroetan zenbait esku hartze posible proposatzen ditugu.

Lehenik eta behin, **oinez mugitzeko kaleak hierarkizatzea espazio publikoa birkonfiguratzu**. Hierarkizazio horretan lehentasuna eman beharko litzateke ekipamenduen, igogailu publikoen, zerbitzuen, harreman espazioen, eta jarduera zentroen arteko loturak ezartzen dituzten kaleei. Galtzarabordaren kasuan kale horiek zeintzuk liratekeen 4.1 atalean zehaztu dugu, eta “egunero-ko sarea” deitu dugun kaleek osatuko lukete (ikus 154. irudia). Kale horietan, oinezkoentzako espazioen kalitatea hobetzea komeniko litzateke, hots: espa-



loiak gutxienez 3,5 metrora arte zabaltzea<sup>183</sup>, ikusgarritasuna oztopatzen duten elementuak kentzea, zebrabideak espaloien kota berean jartzea, 50 metroko eserlekuak jartzea, edo eguzki babeska emango duten zuhaitzak ipintzea, besteak beste<sup>184</sup>. Bereziki, Parke kalea eta Galtzaraborda etorbidea dira esku-hartze horiek egiteko lehentasuna edukiko luketen kaleak.



159. irudia. Galtzarabordako eguneroko espazioak: harreman-guneak, ekipamenduak, komertzioa eta garraio publikoko geroalekuak. Iturria: egileek egin.

Lotura ardatzak lantzeaz gain, interesgarria litzateke auzoan **jarduera foku berriak sustatzea**. Komertzio txikia kaleak dinamizatzeko elementu funtsezkoa den arren, egoera zaila bizi du egunotan, eta Galtzarabordan bereziki, Errenteriako bi gune komertzial garrantzitsuren artean kokatuta baitago auzoa (Beraun eta Zentroa). Hala ere, hainbat lokal komertzial huts daude auzoan. Interesgarria litzateke aztertzea ze beste erabilera jaso lezaketen itxita dauden espazio horiek, kalea dinamizatzeko potentzial handidun espazioak baitira.

Horrez gain, espazio publikoko elementu eta altzarien bitartez ere sortu litezke jarduera foku berriak, Beraungo Sarriegi plazan egin den bezala. Herriko plaza eta parkeen izaera bereizgarriak eta horien arteko osagarritasunak espazio

183 HAINBAT EGILE (2013), 47. orr.

184 CIOCOLETTO (2014a), 107. orr.

publiko ezberdinek sare-bezala funtzionatzea eragin dezake, jarduera espezi-fiko baten bila auzoko edo inguruko auzoetako bizilagunak mugiaraziz. Horretarako, ezinbestekoa da espazio publikoak sare bezala lantzea eta ondorioz, aurretik aipatutako lotura-kaleen lanketa egoki bat egitea, batetik besterako mugikortasuna eroso eta atsegina izan dadin.

Jarduera fokoak sortzeko beste aukera espazio bat auzoko ekipamendu hutsak dira. Urdaburu parkearen parean elkarte ezberdinen espazioak biltzen dira jada: Jubilatuen elkartearen lokala Urdaburu 23 blokearen behe solairuan dago, eta Pio Baroja eraikinean Aljarafe elkartearen, Kamelamos Adiquerar elkartearen eta Team Látigo boxeo klubaren egoitza dago. Pio Baroja eraikinean hainbat espazio dago erabilera berriak jasotzeko aukera ematen duena, eta horrez gain, Galtzarabordako Haurreskola zaharraren eraikina dago Urdaburu kalearen 23A zenbakian. Interesgarria litzateke espazio horien aktibazioa parkearen erabilera eta diseinuarekin batera birpentsatzea, elkarren jardueran eragin dezaketen espazio osagarri bezala.

## 5.3 Beraun

### Ahulguneak

Beraun auzoaren **ahulgune nagusia kotxeek kalean duten presentzia handia da**. Auzoko kale guztiak daude autoentzako errepideengatik zeharkatuta, eta zirkulatzeko espazioaz gain, aparkalekuek galtzaden zati handi bat hartzen dute. Kasu batzuetan, zirkulazio eremuaren eta espaloiaeren artean pilatzen dira kotxeak; besteetan, aparkaleku poltsak daude irteerarik gabeko kaleetan (Isidro Ansorena kalean adibidez), edo eraikinik gabeko espazio zabaletan (Norberto Almandoz kalean adibidez). Aldi berean, puntu askotan espaloiak estuak dira, eta etenak dituzte kale nagusiak ez diren horietan, hots: Koldo Mitxelena institutuaren inguruan edo Jesus Guridi kalean, besteak beste. Espaloien estutasuna eraikinek behe solairuetan dituzten arkupeek leuntzen dute, 4,3 metroko oinezko eremu estalia bermatuz. Hala ere, arkupeetako oinezko guneek maila txikiak dituzte, eta horiek ekiditeko arrapalak kaleen maldara moldatzeko. Ez dira beraz guztiz irisgarriak. Aipatzekoa da baita ere bidegorriak ez duela auzoa zeharkatzen, mugetan eten egiten baita: ekialdean Pontikako parkean, eta mendebaldean San Marko kalean. Finean, auzoko mugikortasuna ibilgailuen zentraltasunetik diseinatuta dago, eta ez oinezkoen erosotasuna eta beharrak abiapuntutzat hartuz, eta ezta bizikletan modu seguruan ibiltzeko ere.



160. irudia. Beraungo kaleetan zehar dauden aparkaleku guzuen adibidea. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Aipatuko dugun bigarren ahulguneak etxebizitzekin du harremana. Beraungo etxebizitzek orientazio bakarra dute kanpoaldera, bigarren fatxadak patio batera ematen baitu (kasu batzuetan erdi irekia, besteetan itxia). Blokeen kopena orografiara moldatzen den heinean, kasu askotan, fatxadek iparralde-hegoalde orientazioa dute, zehazki, etxebizitza-blokeen %70ak<sup>185</sup>. Ondorioz, **auzoko etxebizitza askoren fatxada nagusiak iparraldera edo ipar-ekialdera begiratzen du soilik, egunean zehar eguzkiztapen oso ordu gutxi jasotzen dituztelarik**. Gainera, adierazleen azterketan ikusi dugun bezala, blokeen hegal sakonera 15 eta 20 metro artekoa da, hartu ditugun erreferentziazko kalitate parametroek gehienez 12 metro ezartzen dituzten bitartean<sup>186</sup>. Horrek zera esan nahi du: eguzkiztapen gutxi, eta ondorioz, argiztapen gutxi jasotzen dutela auzoko etxebizitzaren zati handi batek egunean zehar, eta gainera, sako-neraren ondorioz, fatxadara ematen ez duten gelek argiztapen urria dutela.

Hirugarren ahulgunea jarduera **oso gutxi duten zenbait espazioren existentzia da, duten diseinu urbanistikoagatik eta aktibitate faltagatik segurtasun eza transmititzen dutenak**. Maurice Ravel edo Aita Donostia kaleetan inguru biziak sortzen dituen eraikin tipologia berak, Juan Crisostomo kalean

185 Tipologia honetako 33 bloke daude auzoan: 10 blokek ekialde-mendebalde orientazioa daukate eta 23 blokek iparralde-hegoalde orientazioa.

186 Hegalaren 12 m-ko sakonerak argitasun natural nahikoa bermatzen du etxebizitzaren erdiko guzuetan ere. Ekialde-mendebalde orientazioan, 16 m-ko hegal-sakonera ere egokia da, eguzki-argia eraikinera ekialdetik eta mendebaldetik sar baitaiteke intzidentzia-angelu txikiagoa dela eta. Hainbat egile (2013), 35.orr.

eta bere inguruetan ez seguru bezala pertzibitzen diren lekuak sortzen ditu. Horrek harremana dauka, alde batetik, espazio portikatueta dagoen jardue-  
ra faltarekin. Bestetik, blokeak malda nabarmenean ezartzen direnean, kaleen  
artean 3 metro inguruko kota aldaketa gertatzen da eta euste-hormek osatzen  
dute kalearen fatxada zati bat. Kaleen diseinuan kotxeen aparkalekuek hartzen  
duten espazio handiak ere segurtasun pertzepzioa gutxitzen du, etengabeko  
oztopo bisualak sortzen baitituzte oinezkoentzat.

Aipatutakoez gain, badaude beste bi aspektu atal honetan aipatu nahi ditugu-  
nak baina bigarren mailako ahulgune bezala hartzen ditugunak. Alde batetik,  
ordezkagarritasunaren afera legoke. Beraun elkartegintza mugimendu handia  
duen auzoa da, identitate indartsua duena eta azterketan ikusi dugun bezala,  
herri txiki batek bezala funtzionatzen duena. Zentzu horretan, adierazgarria  
da **espazio-urbanoan ez dagoela auzo komunitatearen memoria aitortzen  
duten ez espazio eta ez elementurik**. Eta berdina aipa dezakegun kale izende-  
giaz, ez baitauka identitate kolektibo horren zantzurik. Bestetik, **etxebizitza-  
tipologiaren aniztasun urria** legoke. 3.3 atalean ikusi dugun bezala, kasik etxe-  
bizitza-tipologia bakarra dago auzoan. Horrek, bizikidetzaren ereduaren aniztasuna  
zailtzen du, bizikidetzaren e-  
struktura uniformeagoen mesedetan.

## Indarguneak

Beraunen indargune nagusia bere **espazio publikoaren sarearen kalitatea da**.  
Beraungo plazak auzoaren bizitza espazio nagusiak dira, eta auzotarren ha-  
rrotasunerako arrazoi. 3. atalean egin dugun azterketan ikusi dugun bezala,  
biztanleko espazio publikoaren ratioa ona da auzoan<sup>187</sup>. Horrez gain, plaze-  
tan, herritar anitzen behar ezberdinak asetzen dituzten dotazioak daude, eta  
hainbat jarduera egitea ahalbidetzen duten elementuak. Jolaserako elementu  
espezifikoa daude, adin ezberdinetako ume eta gaztetxoei bideratuak; jolas  
librerako eremu zabalak ere badaude; eserlekuak daude bai jolaseguneen ingu-  
runean zaintza ahalbidetzen dutenak, baina baita beste jardueretatik banatuta  
daudenak ere eta deskantsurako edo lasai egoteko baliatu daitezkeenak; eta  
kirolerako elementuak daude, besteak beste, kantxak, nagusientzako ariketa  
fisikoa egiteko elementuak, edo ping-pong mahaiak. Auzoko plazen artean ai-  
pagarriena eta auzokideek “auzo-bihotz” bezala izendatu dutena Pablo Soroza-  
bal plaza da<sup>188</sup>. Bereziki azpimarragarria da nola plaza honetan adin oso ezber-

187 6,19 m2/biztanleko, baldintzetan zehaztutako 5m2etatik gora.

188 Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

dinetako auzokideak biltzen diren, nola jarduera daukan goizetik eta gauera arte, eta nola topagune garrantzitsua den Beraungo auzo-bizitzan.



161. irudia. Pablo Sorozabal plaza. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Bigarren indargune oso esanguratsu bat **auzoan horrenbeste errepikatzen den eraikin tipologiak ahalbidetzen duen erabilera nahasketa da**. Etxebizitzaren behe solairu guztietan lokal komertzialak daude jatorriz, horietariko batzuk etxebizitza bilakatu diren arren “*Bizitegitarako Hiri Lurreko Hainbat Esparru Finkatuetan Kokatzen Diren Lokaletan Hirugarren Sektoreko Erabileratik Bizitegi Erabilerarako Aldaketa Egiteko Jardunak Arautzen Dituen Ordenantza*”ren aplikazioaren ondorioz. Gainera, lokal komertzialak 4,3 metroko zabalera duen eremu portikatuz inguratuta daude. Horrek, euri babesba bermatzen du, eta komertzioaren presentzia azpimarratzen duela ere esan dezakegu: komertzioari atari antzeko bat eskaintzen dio, eta horren jarraikotasuna ere ahalbidetzen du. Izan ere, Beraungo komertzioaren ezaugarrietako bat bada ardatz-komertzialen jarraikotasunarena, eta aspektu hori, eraikin tipologiak ahalbidetzen duela esan dezakegu. Komertzio txikiez gain, tailerrak, kontzesionarioak edo osasun-establezimenduak ere badaude behe solairu horietan, jarduera ekonomikoa sortzen duten aktibitateak, eta jendearen joan etorriak eragiten dituztenak. Baina jarduera ekonomikoaz gain, lokal komunitario ugari eta zenbait dotazio ere badaude behe solairu horietan. Elkartegintzarako eskuragarri zeuden lokalak edukitzea baldintza garrantzitsua izan da auzoko elkartegintza bultzatu eta indartzeko. Izan ere, 3. atalean ikusi dugun bezala, auzoan lan egiten duten edo auzoarekin harreman estua duten elkarteak egoteaz gain, Errenteriako beste elkarte batzuek ere egoitza dute Beraunen, beraien jarduera eremua auzora mugatzen ez den arren. Laburbilduz, eraikin tipologiak barne hartzen dituen behe solairuetako lokalen existentziak auzoko kale gehienetan kalera zabalik dauden behe solairuak egotea eragiten du, espazio publikoaren bizitasunean positiboki eragiten duena, eta segurtasun pertzepzioan eta eguneroko zereginak egiteko erosotasunean ere.

Aipagarria den hirugarren indargune bat da **auzoan eguneroko ekipamendu ia guztiak aurki daitezkeela**. Beraunen bertan anbulatorioa dago, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako zentroak, Ludoteka eta Gaztelekua, eta baita jarduera fisikorako espazio den Estadioa ere. Egun auzoan kultur ekipamendurik eta Udalaren arreta zerbitzurik ez dagoen arren, haurreskola zaharraren eraikina berritzen ari da Udala auzo-etxe bilakatzeko eta bi zerbitzu horiek bertan eskaintzeko.

Azkenik, **auzoko etxebizitzek dituzten balkoiak** indargune aipagarria dira. Etxe guztiak daukate balkoia, eta gehienek, etxebizitzaren fatxada alderik-alde gurutzatzen duena. Kanpo espazio pribatu horiek edukitzeak, izugarrizko aberastasuna ematen die bai etxebizitzeari, eta bai kaleari. Etxebizitzari dagokionez, kanpo espazio propio bat edukitzea bereziki onuragarria da umeen zaintzarako eta nagusien, edo mugikortasun urria duten pertsonen egunerokorako, kalera irteteko zailtasunak izan baititzakete. Kaleari dagokionez, balkoiek fatxada dinamikoak sortzen dituzte, eta auzo begiak zabaltzen dituzte kalera, eraikinen barrualdeetan eta kalean gertatzen dena harremantzeko trantsizio espazio oso interesgarriak baitira.



162. irudia. Balkoiz osatutako Beraun kaleko etxebizitzaren fatxadak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

## Hobekuntza proposamenak

Beraunen identifikatu ditugun hobekuntza esparruek oinez eta bizikletaz mugitzeko baldintzak hobetzearekin, eta zenbait gunetan segurtasun pertzepzioa areagotzearekin dute harremana.

Analisi atalean eguneroko sarearen parte bezala identifikatu ditugu zenbait kale, eguneroko harreman espazioak, ekipamenduak, gune komertzialak eta garraio publikoaren geralekuak lotzen dituztenak. **Auzoko plaza eta parkeen kalitatea osatzeko eta konexioak lantzeko, kale horietan oinezko mugikortasunerako baldintzak hobetzea komeniko litzateke**, hots: espaloien zabalera gutxienez hiru pertsona aldi berean igarotzeko modukoa izatea (2 metro gutxienez); zebra-bide eta semaforoak oinezko ibilbideen arabera kokatzea; zebra-bideen eta espaloien arteko kota aldaketa leuntzea; zebra-bideen pareko espaloian ikusgarritasuna bermatzea kotxeen etorrera ikusi ahal izateko, eta autotik ere, gurutzatzen duten pertsonak ikusteko; eta abiadura baxuko ibilgailuen zirkulazioa sustatzea, besteak beste<sup>189</sup>. Kaleen berrantolaketa onduz, kotxeen hainbat aparkaleku birkokatu edo desagerrarazi egin beharko lirateke, lotura-kale nagusietan kotxeek kalean duten presentzia eta okupazioa murriztuz eta oztopo bisualak desagerraraziz. Horrez gain, kale horietan zehar eserlekuak kokatu beharko lirateke 50 metrora, Beraungo eguneroko sarea osatzen duten kale gehienetan ez baitaude.



163. irudia. Norberto Almandoz kalea, Bizarain Ikastolara eta Kiroldegira joateko eguneroko kalea. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

Kotxeen kale-okupazioa murriztearekin eta horien zirkulazioa geldotzearekin batera, **bidegorria konektatzea** komeniko litzateke. Ekialdetik Pontikara heltzen da eta mendebaldetik San Marko kalean mozten da inguruko auzoetatik datorren bizikleta-bidea.

189 CIOCOLETTO (2014a), 108. orr.

Azkenik, ekipamenduen sarrerak aztertzean, ikusi dugu auzoko ekipamendu gehien sarreretan ez dagoela tarte-espaziorik. Ludoteka eta Auzo Elkartearen lokalak dira kalearen eta barrualdearen artean trantsizio-espazioak dituzten bakarrak. Ekipamenduetan ematen den jarduerak kalean ere inpaktua izan dezan, interesgarria da **dotazioen atariaren pareko espazio publikoak itxarotea eta biltzea ahalbidetzen duten ezaugarriak edukitzea**, hots: espaloiak gutxienez 3,5 metroko zabalera duen espaloia<sup>190</sup>, eremu irisgarria, eserlekuak, eta eguzki babes emango duten zuhaitzak, besteak beste<sup>191</sup>.



164. irudia. Bizarain Ikastolako sarreretako bat. Espaloia estua da eta ez dago trantsizio espaziorik. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

## 5.4 Kaputxinoak

### Ahulguneak

Kaputxinoen ahulgune nagusia **orografia malkartsuak baldintzatutako konektibitate eskasa** da. Auzoa Kaputxino-gainean hasi eta Pasaiaiko Badiara begiratzen duen malda nabarmenean dago ezarrita, eta hainbat zerbitzu eta komertziotara heltzeko Beraunera edo Errenteriako zentrorra mugitu beharra

190 HAINBAT EGILE (2013), 47. orr.

191 CIOCOLETTO (2014a), 107. orr.



dago. Sorgintxulotik, hots, auzoaren behealdetik, inguruko auzoetara heltzeko igogailu publikoak badauden arren, egin behar diren ibilbideak konplexuak dira autonomiaz eta bizkortasunez mugitzen ez diren pertsonentzako. Autobusean zentrorra hurbiltzea asteko erosketa egitera, edo erosketa-gurdiarekin Beraunera hurbiltzea, lan handia da pertsona nagusientzat, umeeekin doazen helduentzat, eta mugikortasun bizia ez duen pertsona ororentzat.

Aipatuko dugun bigarren ahulguneak **Sorgintxulo kaleak duen diseinu eta izaerarekin** du harremana. Auzotarren ahotan, auzo-sarreratik Sorgintxulo 1 zenbakitik 19rainoko eremuari deritzo “Sorgintxulo”. Ikusi dugun bezala, eremu hori, auzoko zentroetariko bat da egun, baina **eraikinen eskala eta kalearen diseinua ez dira ondo egokitzen oinezkoen beharretara, eta ez dituzte baldintzak ezartzen kale-bizitza bultzatzeko**. Eremu honetan biltzen dira auzoko dorre gehienak, 13 eta 15 solairu artean dituztenak. Azterketa egiteko baliatu dugun 1.1 adierazleak zihoen bezala<sup>192</sup>, bigarren solairutik gora eraikinetik kalera hitz egiteko ulermen ahalmena galtzen da, eta bosgarren solairutik gora pertsonak bistaz errekonozitzeko gaitasuna. Kasu honetan, eraikinen solairu kopuruak kalearen eta eraikin barrualdeen arteko hurbileko harremana guztiz eragozten du. Eta dorreen behe solairuak elkarri lotuta dauden arren plataforma bakar bat osatuz, daukaten lokal huts kopuru handia eta kalearekiko sortzen dituzten sartu irtenak eragozpena dira kale dinamika bizi bat sortzeko. Eraikinen izaerarekin batera, kalearen diseinuak kalea zehar ibiltzea eragozten du eta ez du bertan egotea errazten. Galtzadaren zabalera espaloien bikoitza da ia: galtzadak 10,5 metro inguru dituen bitartean, iparraldeko espaloiak (non lokal komertzialak dauden) zabalera irregularra du, 4,8 metrotik 1,2 metrora doana; hegoaldeko espaloiak aldiz 1,7 eta 2 metro artean ditu. Hori horrela, errepideak kalea bitan banatzen du eta asko zailtzen du jarduerak gertatzea eta baita oinez mugitzea ere. Gainera, trafiko handia duen kalea da hau, Errenteriarako sarreretako bat baita, eta kotxe eta autobusen igarotzea etengabea da. Aipagarria da ere nola espaloien izaerak ez duen apenas lekurik uzten eserlekuak kokatzeko, eta gutxi batzuk badauden arren, oso puntu isolatuetan daude kokatuta eta inolako jarraikortasunik gabe.

Hirugarren aspektua auzoko espazio publikoen izaerari lotuta dago. Adierazlearen azterketan ikusi dugun bezala, biztanle bakoitzeko espazio publikoaren azalera ratioa oso ona da Kaputxinoetan, aztertu ditugun lau auzoen artean

onena<sup>193</sup>. Eta dentsitatearen datuei erreparatuta ere, lau auzoen artean Kaputxinoak da dentsitate baxuena duen auzoa<sup>194</sup>. Baina auzoaren hiri konfigurazioa dela eta, **espazio publikoaren izaerak ez du bizitza komunitarioa sustatzen**. Espazio publikoaren guztizko azalera tamaina eta izaera ezberdineko guneetan banatuta egon beharrean, berdegune eta espazio publiko handiak konbinatzen dira dentsitate altuko eraikinekin. Ondorioz, Alabergaren pareko dentsitatea eta biztanleko espazio publiko azalera eduki arren, hiri bilbearen ezaugarriek ez dituzte oinezkoentzako espazio hurbil eta kalitatezkoak sortzen: ez dago espazio publikoaren arteko jarraikortasunik, eta bitarteko eskala duten harreman-guneak falta dira, eserleku isolatuen eta auzo mailako parke edo plazen arteko eskala duten bestelako txokoak.

Laugarren eta azken ahulgunea **dorreen eraikin tipologiak sustatutako anonimotasuna eta segurtasun pertzepzio baxua dira**. Dorre tipologia duten eraikinetan, atari bakoitzak etxebizitza askori ematen die sarrera: 45 eta 75 etxebizitza bitarte daude atari bakarrean. Etxebizitza kopuru horietara atari bakarretik sartzeak auzokideen arteko elkar-ezagutza zailtzen du, oso zaila baita auzokide berdinekin topo egitea. Viennako hiriak hiri plangintzan genero ikuspegia txertatzeko osatutako gidak dioen bezala, eskala txikiko sarbide-egiturek ahalbidetzen duten gizarte-kontrol-mailak segurtasuna areagotzen du, nahi ez den anonimotasuna saihesten du eta harreman komunitarioak indartzen ditu<sup>195</sup>. Hori eman dadin, muga bloke-sarrera bakoitzeko 30 eta 40 etxebizitza artean ezartzen du. Horrez gain, dorreen behe solairuek segurtasun ezaren pertzepzioa areagotzen duten ezaugarriak dituzte: behe solairu gurutzarriak dira, hainbat zoko eta bazter itsuekin; ilunak dira; eta kasu askotan ez dute jarduera publikorik eta bizirik.

## Indarguneak

Tamaina handiko eraikin eta espazio publikoak konbinatzen dituen hiri konfigurazioa duen auzoa bada ere, Kaputxinoek badituzte zenbait indargune, testuinguru horretan bizitza komunitarioa sustatzen dutenak eta eguneroko bizitza garatzen laguntzen dutenak.

193 Galtzarabordak 3,47 m<sup>2</sup>/biztanleko, Beraunek 6,19m<sup>2</sup>/biztanleko, Alabergak 9,43m<sup>2</sup>/biztanleko eta Kaputxinoek 10,5m<sup>2</sup>/biztanleko.

194 Alabergak 13571,67 pertsona/km<sup>2</sup>ko dentsitatea dauka.

195 Hainbat egile (2013), 42.orr.



165. irudia. Kaputxinoetako dorreak. Egilea: Itsaso Larramendi Elexgaray.

**Indarguneen artean aipagarriena, auzoan eskola edukitzea da.** Kaputxi-noetan oso komertzio gutxi dago, eta orokorrean, egunean zehar jendearen joan-etorriak egiten dituzten jarduera traktore gutxi daude. Ingurune horretan, Cristobal Gamón eskola auzo harremanak sortzeko eta kale-bizitasuna sortzeko eragile gakoa da. Goizetan, auzotik bertatik eta inguruko auzoetatik ume eta gurasoak hurbiltzen dira eskolara; eta arratsaldeetan, eskola pareko Fuentepelayo plazatxoa jendez gainezka egon ohi da, ume zein helduak kantxetan jolasean, plazan korrika, edo terrazetan berbetan.



166. irudia. Cristobal Gamón eskola. Egilea: Pilar Burguera.

Azpimarratu beharreko bigarren indargunea aipatu berri dugun **Fuentepelayo Plazatxoaren diseinu egokia da.** Auzo bizitza handia duen plaza da, eguneroko bizitzarako eta harreman komunitarioak sustatzeko baldintza ezberdinak biltzen dituelako: gune estali zabala dauka, auzoan bakarra dena eta hainbat jarduera jasotzeko ahalmena duena (ez dago kirol kantxez okupatua, ezta umeentzako jolasez beteta); kirol-kantxa

dago multikirolak egiteko aukera ematen duena; umeentzako jolaserako elementuak dituen txokoa dago; espazio zabala dago jolas librean, bizikletan edo korrika aritzeko; eserlekuak ditu lasai egon ahal izateko; eta taberna eta Alaitasuna elkartearen lokala ere plazan bertan daude, jarduera traktore bezala funtzionatzen dutenak. Plazaren kokapena ere aipatzekoa da: auzoaren goialdean dago, bista zabalak ditu behealderantz, eta eguzkiak ematen dio ia egun osoan zehar. Aipatutako ezaugarri guzti horiek, erabilera eta egoteko modu anitzak ahalbidetzen dituen plaza egiten du Fuentepelayo Plazatxoa, horretarako txoko ezberdinak espazio beraren inguruan egituratuz.



167. irudia. Fuentepelayo plazatxoaren ondoan dagoen gune estalia. Egilea: Pilar Burguera.

Azkenik, hirugarren indargunea **auzoan dau-den naturguneak** dira. Orografiagatik eta eraikin tipologiarengatik, itxiera sentazioa ematen duen auzoa den arren, baditu itxitasun hori nolabait konpentsatzen duten naturgune zabalak. Aipagarriena José Manuel Zamarreño parkea da, Pasaiaiko Badiara bista zabalak dituena, eta berdegune, zuhaitz eta bidekaz osatua.

Parke horrez gain, Don Bosco Lanbide Heziketa zentroaren ingurua ere berdegunez inguratuta dago, bertatik paseatzeko ondo prestatuta ez dagoen arren.

## Hobekuntza proposamenak

**Sorgintxulo kalearen izaeraren berkonfigurazioa** da auzoan egitea komeniko litzatekeen hobekuntza nabariena. Auzoaren goialdean Fuentepelayo plazatxoa erreferentziazko bilgune den bitartean, behealdean, etxebizitzien parean dagoen gune zabal eta lauena da Sorgintxulo. Bertan daude auzoko komertzio eta taberna apurrak, autobus geltokiak, eta auzoko bizilagun gehienek etxeak. Baina ikusi dugu nola, arrazoi ezberdinengatik, kaleak gabeziak dituela oinezkoentzat atsegina eta eroso izateko. Auzoaren behealdean kale honek sortzen duen zentralitatea indartzeko, hurrengoak egitea komeniko litzateke: espaloiak zabaltzea; kotxeen aparkalekuek hartzen duten espazioa murriztea; kalearen luzeran zehar deskantsurako eserlekuak jartzea, eta aurrez aurre kokatutako bankudun harreman-txokoak ere; eta oinezkoen bideen jarraikortasuna lantzea. Horrez gain, kale honetako lokal komertzial hutsen berraktibazioa lan-

tzea ere interesgarria litzateke, komertzio txikiaren ezarpenaren bidez ez bada, jaso zitzaketen bestelako erabilerak aztertuz eta froga-pilotuak eginez.

Horrez gain, auzoaren behealdearen eta goialdearen arteko lotura errazten duten igogailuek egunerokotasunean oinezkoek sarri erabiltzen dituzten konezioak sortzen dituzte. Bide horietan irisgarritasuna bermatuta dagoen arren, kale bakartiak eta paisaia zaindua ez dutenak zeharkatzen dira (Basanoaga kalea kasu). **Ibilbide horietako espazio publikoaren ezaugarriak lantzea** komenigarria litzateke, hala-nola: igogailuen arteko loturak hobeto seinalez-tatzea; espaloiak zabaltzea; ikusgarritasun oztupoak ekiditea (kotxeen aparkalekuak adibidez); edo begetazioaren mantenua zaintzea eta bere kalitateak lantzea.

Bukatzeko, Beraunen eta Galtzarabordaren kasuan aipatu dugun bezala, eguneroko sarearen parte diren kaleen ezaugarriak hobetzea komeniko litzateke, anbulatorioa eta eskola lotzen dituen Galtzaraborda hiribidean bereziki. Bi ekipamendu horiek joan-etorri asko eragiten dituzte egunerokoan auzokideen eta inguruko auzoetako bizilagunen artean, eta umeak eta pertsona nagusiak dira horien erabiltzaile nagusiak. Kolektibo horien autonomia handitzeko izateko kaleen diseinua baldintza garrantzitsua da, hots: trafikoa baretua, espaloia zabalak, eserlekuak kaleetan zehar, espaloien argiztapen jarraia, eta ikusgarritasun zabala, besteak beste.

## 5.5 Laburpena

Aipatutako ahulgune eta indarguneak hurrengo laburpen taulan jasotzen dira:

10. taula. Lau auzoen indarguneen, ahulguneen eta hobekuntza proposamenen laburpen taula. Iturria: egileek egina.

Alaberga		
Ahulguneak	Indarguneak	Hobekuntza proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Espazio publikoko eta etxebizitza blokeetako irisgarritasun oztupoak.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Auzoaren herrixka izaera.</li><li>• Kale-bizitasuna eta auzo mailan ematen den zaintza komunitario eta informala.</li><li>• Kalitatezko espazio publiko sarea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Atariak irisgarri egiteko espazio publikoa moldatzea.</li><li>• Etxebizitzetan igogailua jartzea.</li></ul>

<b>Galtzaraborda</b>		
<b>Ahulguneak</b>	<b>Indarguneak</b>	<b>Hobekuntza proposamenak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalearen existentzia eza.</li> <li>• Auzoan zehar oinez eta bizikletaz mugitzeko zailtasuna.</li> <li>• Gune erreferentzialesk auzo-zentralitateak sortzeko duten gaitasun eskasa.</li> <li>• Espazio publikoen arteko lotura falta.</li> <li>• Bitarteko eskala duten harreman espazioen falta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilerarik gabeko azpiegiturek eskaintzen dituzten aukera espazioak.</li> <li>• Lau solairuko bloke linealen eremuaren eskala hurbila.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinezkoentzako kaleak hierarkizatzea espazio publikoren diseinua landuz.</li> <li>• Jarduera foku berriak sustatzea lokal komertzial eta ekipamendu-erakin hutsak baliatuz, eta/edo plaza eta parkeen jarduera eskaintzaren bitartez.</li> </ul>
<b>Beraun</b>		
<b>Ahulguneak</b>	<b>Indarguneak</b>	<b>Hobekuntza proposamenak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kotxeen presentzia eta okupatze-maila altua kalean.</li> <li>• Etxebizitza askoren iparralderako orientazio bakarra.</li> <li>• Ez-seguru hautematen diren jarduerarik gabeko guneen existentzia.</li> <li>• Auzo-komunitatearen memoria aitortzen duen elementuen falta espazio urbanoan.</li> <li>• Etxebizitza-tipologia aniztasun urria.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espazio publikoen sarearen kalitatea.</li> <li>• Eraikin tipologia orokortuak ahalbidetzen duen erabilera nahasketa.</li> <li>• Eguneroko ekipamendu gehien kokapena auzoan.</li> <li>• Etxebizitza guztiek dituzten balkoiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plaza eta parkeen arteko lotura kaleen oinezkotasun baldintzak hobetzea.</li> <li>• Bidegorria konektatzea.</li> <li>• Ekipamendu atarrietan tarte espazioak txertatzea.</li> </ul>
<b>Kaputxinoak</b>		
<b>Ahulguneak</b>	<b>Indarguneak</b>	<b>Hobekuntza proposamenak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orografia malkartsuak baldintzatutako konektibitate eskasa.</li> <li>• Kale bizitza sortzea zailtzen duten Sorgintzulo kalearen diseinu eta izaera ezaugarriak.</li> <li>• Hiri-bilbearen konfigurazioak espazio publikoan bizitza komunitarioa sustatzeko ezartzen dituen zailtasunak.</li> <li>• Dorreen eraikin tipologiak sustatutako anonimotasuna eta segurtasun pertzepzio baxua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Auzoan eskola edukitzea.</li> <li>• Fuentepelayo Plazatxoak ahalbidetzen dituen erabilera eta egoteko modu anitzak.</li> <li>• Auzoko naturguneak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sorgintzulo kalearen oinezkotasun baldintzak hobetzea.</li> <li>• Auzoaren behealde eta goialdearen arteko ibilbideetako espazio publikoaren ezaugarriak hobetzea.</li> </ul>

## 6. Eranskinak

### 6.1 Parte-hartu duten auzokideen zerrenda

Amaia Sabina (1956)  
Andone Errazkin (1953)  
Arantza Navarro (1950)  
Arantza Serrano ( 1975)  
Beñat Irasuegi Ibarra (1978)  
Bernar Lemos (1966)  
Carlos Bayón (1958)  
David Regodon (1974)  
Enara Maíz Gonzáles (1977)  
Fadwa El Machhour (2002)  
Gemma Mariezkurrena Ezkurra (1965)  
Gurutze Hoyos (1945)  
Itsaso Garcia Oyanguren (1994)  
Javi Rufo (1961)  
Josean Vidal Rosas (1963)  
Karmele Fernandez Boga (1961)  
Lourdes Almorza Madariaga (1955)  
Lourdes Merino Plaza ( 1978)  
Luisa Lorenzo (1930)  
Madalen Albertina  
Manolo Pereira (1944)  
Maribel Gonzalez Peña (1941)  
Marijose Hortigüela Ramos (1975)  
Marimar Lasa (1952)  
Mikel Taboada (1980)  
Naiara Rodríguez Garayar (1995)  
Pedro Beltrán  
Pilar Burguera (1966)

## 6.2 Lau auzoen hiri-ezaugarrien azterketa-etaulak hirigintza feministaren ikuspegitik

### 6.2.1 Alaberga

11. taula. Alabergan egindako azterketan gai eta azpigi bakoitzari egotzitako puntuazio taula. Iturria: egileek egina.

	Gaia eta adierazleari emandako puntuazioaren justifikazioa	Punt
1	Hiri-egituraren konfigurazioa	5
1.1	Alabergako etxebizitzek behe solairuaren gainean, gehienez, 3 solairu dituzte.	5
1.2	Goiko Alabergan blokeen orientazioa ipar-mendebalde - hego-ekialde da, eta sakonera 8 metrokoa. Beheko Alabergan orientazio ezberdinak daude, baina etxebizitzetako sakonera 7,5 eta 8 metro artekoa da.	5
1.3	Baldintza betetzen da. Auzoko bloke luzeenak 123 metro ditu.	5
1.4	Alabergako biztanleak: 3100 (Eustat, 2021); harreman espazioen azalera: 29.235 m <sup>2</sup> . Auzokide bakoitzeko harreman espazioen azalera: 9,43 m <sup>2</sup> /pertsonako.	5
1.5	Auzoko harreman espazio ezberdinek funtzio ugari jasotzeko aukera ematen dute. Jolaserako elementu espezifikoak dituzten 4 espazio daude. Jarduera fisikorako elementuak dituen espazio bakarra dago, Alabergako Plaza deritzonean dauden kirol kantzak. Gainontzekoak deskantsurako eta lasai egoteko guneak dira.	5
2	Zentru lokalak, dendak eta zerbitzuak	3,25
2.1	Oinez 10 minututan auzoa puntarik punta zeharkatu daiteke. Iparraldetik hegoaldera 500 metro inguru ditu auzoak, eta ekialdetik mendebaldera 300 metro inguru.	5
2.2	Alaberga proiektu bateratu bezala landutako auzoa da, estetika eta diseinu parametro propioekin eraikia.	5
2.3	Auzoan ez dago herri-mailako garraio publikoko geralekurik. Hau ez da puntuatu.	-
2.4	Guztira 21 etxebizitza multzo daude: hiru etxe irla forma dutenak, etxebizitza isolatu bat, eta gainontzekoak bloke linealak dira. Horietariko hirutan ematen da erabilera nahasketa, etxe irla konfigurazioa dutenetan.	2
2.5	Ez dago egunerokotasunerako komertziorik.	1
3	Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura	4
3.1	Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude, baina ekipamendu ia guztiak auzotik kanpo daude. Uztargi haurreskola eta Galtzaraborda kiroldegia auzoaren mugaren parean daude.	5
3.2	Baldintza betetzen dutenak 9 dira: anbulatorioa, adinekoen eguneko zentroa, haurreskola, Haur Hezkuntza zentroa, LH zentroa, DBH zentroa, ludoteka, Niessen Kulturunea eta Galtzaraborda kiroldegia. Baldintza betetzen ez dutenak 3 dira: administrazio-izapideak jendaurrean egiteko leihatila Udaletxean; Beraungo gazteleku eta Lekuona Fabrika.	4



3.3	Baldintza betetzen duena bat da: auzo elkartearen lokala. Baldintza betetzen ez dutenak 3 dira: auzo etxea, Deikagest FP, Jai toki lokal komunitarioa.	2
3.4	Auzo elkartearen lokalak daude, eta baita jubilatuen elkartea auzo etxean ere.	5
4	Etxebizitzak	3,4
4.1	Etxebizitza gehienetara heltzeko eskailerak daude espazio publikoan. Horrez gain, guztiak jatorriz, igogailurik gabe diseinatu dira. Gaur egun batzuetan igogailuak daude, besteetan ez.	1
4.2	Espazio ireki pribatua etxebizitzaren erdiak baino gehiagok dauka.	4
4.3	Hiru baldintza betetzen dira aztertutako tipologia guztietan: gelek tamaina berdintsua dute, gune hezeak elkarrengandik hurbil daude eta komunetara gune komunitatik sartu daiteke. Aztertutako tipologia guztietan betetzen ez den baldintza: logela bakoitzak sarrera indibiduala dauka.	4
4.4	4 eta 3 gelako etxebizitza tipologiak daude aztertutako artean, bi tipologia ezberdin beraz.	3
4.5	Auzoko etxebizitza bloke guztiek betetzen dute baldintza hau. Etxebizitza gehien biltzen dituen atariak 16 etxebizitzetara ematen die sarrera.	5
5	Segurtasun pertzepzioa	3,8
5.1	Eguneroko sareko bloke gehienetan etxebizitzak daude behe solairuetan. Lokal bakarrik Behe Alabergako plaza zirkularrean daude. Hala ere, behe solairuak kalearekin harremanetan daude: behe solairuetako etxebizitzak kale altueran edo solairu erdiko altueran kokatuta daude, eta ez daukate ezkutatzeko hesi edo antzerakorik. Behe solairuak dinamikoak dira eta kalera begiratzen dute.	5
5.2	Badaude emakumeek ez-seguru bezala hautematen dituzten guneak: parkea, Goiko Alabergara igotzeko parkea gurutzatzen duen laburbidea, eta baita auzoa inguratzen duten Galtzaraborda kalea ere, Nafarroa pasealekua edo Aiako harria kalea, besteak beste.	1
5.3	Kale guztiek dute oinezkoentzako argiztapen jarraitua.	5
5.4	Hiri paisaia zaindua dago kale guztietan.	5
5.5	Harreman espazioetan badaude emakumeak bakarrik, baita umeak eta nagusiak ere.	3
6	Espazio publikoa	3,43
6.1	Eguneroko sareko kale guztietan daude eserlekuak, harreman txokoak edo parkeak.	5
6.2	Eguneroko sareko kale gehienetan badaude zuhaitzak, auzoaren diseinuan aintzat hartu baita begetazioa txertatzea.	4
6.3	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
6.4	Espazio publiko nagusia auzoaren sarreran dagoen plaza da, Nafarroa etorbidean. Bidegorria bertatik igarotzen da baina autobus geltokia 150 metrora dago.	3
6.5	Espazio publiko gehienek perimetro irekia dute. Ez duen bakarra Goi Alabergako jolas parkea da, 75 zenbakiaren ondoan, etxeekin inguratuta baitago.	4

6.6	Etxebizitza bloke guztiek dute harreman espazioen bat 300 metro baino gutxiagora, baina kasu gehienetan ibilbideak ez dira irisgarriak. Irisgarritasun arazo nagusiak etxebizitzaren sarreretan eta barrualdeetan ematen dira. Izan ere, kaleko ibilbideak kasu askotan irisgarriak dira peatonalizazio edo irisgarritasun lanak egin direlako, baina atarietara heltzeko bloke gehienek eskailerak dituzte, eta ondoren, etxebizitza barruetan blokeek ez dute igogailurik. Ondorioz baldintza hau oso kasu gutxitan betetzen da.	2
6.7	Ez dago komunitatearen memoriaren islarik espazioan.	1
7	Mugikortasuna eta konektibitatea	2,4
7.1	Kale gehienetan mugitzeko aukera ezberdinak daude edo oinezkotuta daude. Deikagest FP zentrora igotzen den kalea da ez daukan bakarra.	4
7.2	Kale guztietan daude bankuak, baina Alabergako plazaren eta Galtzarabordako polikiroldegiko plazaren arteko tartean ez, eta tramo horrek 135 metro inguru ditu. Ezta Bittor Idiazabal kalean biribilgunearen eta 2. zenbakiaren artean, eta tarte horrek 160 metro inguru ditu. Beraz, ez da baldintza betetzen.	1
7.3	Ez dago bizikletak alokatzeko zerbitzu publikorik.	1
7.4	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
7.5	Auzoan ez dago aparkaleku poltsa publikorik, lurpeko parkinga dago Alaberga plazan baina pribatua da.	1

## 6.2.2 Galtzaraborda

12. taula. Galtzarabordan egindako azterketan gai eta azpigai bakoitzari egotzitako puntuazio taula. Iturria: egileek egina.

	Gaia eta adierazleari emandako puntuazioaren justifikazioa	Punt
1	Hiri-egituraren konfigurazioa	4,2
1.1	Etxebizitzaren erdiak baino gehiago dauzka 4 solairu. Etxebizitza gehienek 3 edo 4 solairu dituzte, baina badaude 8 eta 14 solairu arteko eraikinak ere.	4
1.2	Etxebizitzaren erdiak baino gehiagok betetzen du orientazioaren baldintza. Bloke baxu gehienek ipar-hego orientazioa dute, baina batzuek ekialde mendebalde daukate ere. Hala ere, 9 m-ko hormartea dute, beraz, betetzen dute. Lau orientazio dituztenen artean: Parke kaleko dorreek ez dute betetzen 18 eta 20 m arteko hormartea dutelako; Mandoegi 6 eta 9 zenbakiak ipar-hego 11 m dituzte baina mendebalde-ekialde 17,7 m; T formadun oinplanta duten dorreek 13,3 eta 13,8 m-ko hegoak dituzte (batzuek betetzen dute, besteek ez, orientazioaren arabera).	4
1.3	Eraikin bolumen guztiek dute 150 m baino gutxiagoko luzera.	5
1.4	Galtzarabordako biztanleak: 4.523 (Eustat, 2021); harreman espazioen azalera: 16.517 m <sup>2</sup> . Auzokide bakoitzeko harreman espazioen azalera: 3,65 m <sup>2</sup> /personako.	3

1.5	Auzoko harreman espazio ezberdinek funtzio ugari jasotzeko aukera ematen dute. Jolaserako elementu espezifikokoak dituzten hainbat gune daude. Lasai egoteko hainbat txoko daude, asko auzoaren orografiaren ondorioz eraikinen parean dauden txokoak terrazatuak. Kirolerako 2 kantxa gune daude, bata auzoaren ekialdean Euskaltegiaren ondoan, eta bestea mendebaldean Urdaburu parkean. Nagusientzako kirol makinak ere badaude Urdaburu parkean eta Parke kalean.	5
2	Zentru lokalak, dendak eta zerbitzuak	2,21
2.1	Ekialdetik mendebaldera, hots, euskaltegitik Alabergaren mugara, 1,1 km daude. 15 minutu behar dira auzoa alderik alde gurutzatzeko. Ez da baldintza betetzen.	1
2.2	Etxebizitza tipologia bat nagusi da, maldara moldatzen diren 4 solairuko luzerako blokeak; baina beste eraikin tipologia batzuekin nahasten dira, eraikin altuagoak eta dorreak. Nahasketa horrek batasun irudia apurtzen dute.	1
2.3	Galtzarabordan badago herri mailako garraio publikoaren geralekua, topoaren geralekua hain zuzen ere. Geralekutik 300 m-ko erradioan hurrengo ekipamenduak daude: Uztargi haurreskola, Corazonistas ikastetxea, eguneko zentroa, Galtzattipi haurreskola pribatua, Koldo Mitxelena BHI eta kirol kantxak. Komertzioa ere bada- go baina nahiko sakabanatuta: nukleo bakarra Parke kalean (Galtzarabordan). Hain- bat espazio publiko ireki daude: Alabergako parkea eta plazak, Ion Arretxe parkea. Baldintza betetzen da, baina auzoarekiko duen kokapenaren ondorioz inguru hau ez da Galtzarabordako auzo zentro, hiru auzoren muga baitago geralekua (Gatzara- borda, Alaberga eta Zentroaren artean).	5
2.4	Oso nahasketa gutxi ematen da auzoan, etxebizitza bloke erdian baino gutxiagoan. Etxebizitza askok baxu komertzialak zituzten jatorrian baina etxebizitza bilakatu dira. Eta egun baxu komertzialak dituztenen artean oso gutxi daude aktibo. Gehie- nak Parke kalean eta Urdaburu plaza inguruan kokatzen dira.	2
2.5	Auzoan badago egunerokotasuneko komertzioa, mota bakoitzeko bana: 3 harate- gi-urdaitegi, supermerkatu 1, 4 okindegi-gozotegi, farmazia 1, eta frutadendarik ez dago baina supermerkatuak ordezkatu dezake bere funtzioa.	2
3	Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura	3
3.1	Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude, baina ekipamendu asko auzotik kanpo daude.	5
3.2	Baldintza betetzen dutenak 7 dira: anbulatorioa, adinekoren eguneko zentroa, hau- rreskoa, Haur Hezkuntza zentroa, LH zentroa, DBH zentroa eta Galtzaraborda kiroldegia. Baldintza betetzen ez dutenak 5 dira: administrazio-izapideak jendaurrean egiteko leihatila Udaletxean, ludoteka, Beraungo gaztelekua, Lekuona Fabrika eta Niessen Kulturgunea	4
3.3	Baldintza betetzen dutenak 2 dira: kiroldegia eta Galtzattipi haurreskola. Baldintza betetzen ez dutenak 3 dira: euskaltegia, Koldo Mitxelena HH+H zentroa eta Pio Baroja eraikina.	2
3.4	Biltzeko eta komunitatearekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko gela badago, baina ez da erreza komunitate osoak erabiltzea.	1

4	Etxebizitzak	3,6
4.1	Etxebizitza erdia baino gutxiago diseinatu da oztopo arkitektonikorik gabe. Etxebizitza tipologia gehienek oztopoak dituzte: bloke linealek ez dute igogailurik jatorriz, T oinplantadunek ezta, eta Urdaburu inguruko dorreek eskailerak dituzte behe solairuan igogailura heltzeko. Parke kaleko dorreak dira oztopo arkitektonikorik gabe diseinatutako bakarrak.	2
4.2	Espazio ireki pribatua etxebizitzaren erdiak baino gehiagok dauka. Tipologia guztiak dute balkoia, baina bloke linealen behe solairuetan egin diren etxebizitzek (jatorriz lokal komertzialak ziren horietan) ez daukate balkoirik.	4
4.3	Aztertutako 4 tipologiek betetzen dituzte ezarritako 4 moldagarritasun baldintzak.	5
4.4	4 eta 5 gelako etxebizitzak dituzte aztertutako tipologiek, ondorioz, bi etxebizitza tipologia daude gela kopuruari dagokionez.	3
4.5	Etxebizitza bloke gehienek atariko 40 etxebizitza edo gutxiago dituzte. Betetzen ez dutenak dira: Parke kaleko 24, 26, 28 eta 30 zenbakiak, eta Urdaburu kaleko 29 zenbakia.	4
5	Segurutasun pertzepzioa	3,2
5.1	Eguneroko sareko bloke gehienetan behe solairuak kalera zabalik daude. Oso kale gutxitan daude baxu aktiboak, komertzio puntuala dutenetan soilik. Baina behe solairu askotan etxebizitzak daude kalera begirako leihoekin, beraz, jarduera publikorik ez dute baina ez daude kalera itxiak. Hala ere eguneroko sareko puntu batzuetan badaude baxu itxiak, lokal komertzioak hutsak daudelako.	4
5.2	Badaude emakumeek ez-seguru bezala hautematen dituzten guneak: Galtzaraborda hiribidea, tren geltokiaren eta geltoki kalearen arteko lotura egiten duen kalea, euskaltegirako bidea, eta Igantzira igotzen diren etxeen arteko eskailerak, besteak beste.	1
5.3	Eguneroko sareko kale gehienek dute oinezkoentzako argiztapen jarraia. Ez daukatenak: Geltokiko kalea eta Galtzaraborda hiribidea, bereziki Monroy eta Aizkorri plazen artean. Euskaltegi inguruan ere argi gutxiago, baina ez dago eguneroko sarean.	4
5.4	Kale gehienetan hiri paisaia zaindua dago. Ez dagoen puntuak: Urdaburu parkean Pio Baroja eraikinaren inguruan eta Parke kalearen eta Geltokiko kalea lotzen dituzten eskailera guneetan.	4
5.5	Harreman espazioetan badaude emakumeak bakarrik, baita umeak eta nagusiak ere.	3
6	Espazio publikoa	3,57
6.1	Eguneroko sareko kale ia guztiak dituzte harremantzeko txoko edo altzariak. Ez dituzten bakarrentarikoak Galtzaraborda etorbidearen zenbait gune dira.	4
6.2	Eguneroko sareko kale gehienetan daude zuhaitzak. Ez daude Galtzaraborda etorbidean Beraungo anbulatorioa inguruan, ezta Parke kalean.	4
6.3	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
6.4	Espazio publiko nagusia Urdaburu parkea da. Autobusa bertan dago, eta bidegorria polikiroldegiko plazara edo Beraunera heltzen da, eta bi aukerak 300 metro baino gehiagora daude.	1

6.5	Auzoko harreman espazioen erdietan dago perimetro irekia. Kota aldaketak askotan perimetro ez permeableak sortzen ditu, adibidez: Urdaburu parkearen perimetro erdian (ekialde), Ion Arretxe parkean, edo auzoaren ekialdean dauden etxeen arteko plazetan.	3
6.6	Etxebizitza bloke guztiak dute harreman espazioen bat 300 metro baino gutxiagora, baina kasu askotan ibilbidea ez da irisgarria kalea eta etxebizitzaren arteko loturan (atarira heltzeko) eskailerak daudelako. Auzoa maldan ezarrita egoteak guztiz baldintzatzen du mugikortasuna.	3
6.7	Ion Arretxe izena duen parkea komunitatearen memoria auzoaren gizarte- eta kultura-ondare gisa mantentzen duten espazio bezala hartu dezakegu. Ion Arretxe auzoko idazlea zen eta bere liburuetan auzoaren memoria presente dago. Bere izena daraman parkeak, gainera, "la guarre" bezala ezagutzen zen auzokideen artean, eta horrela azaltzen da bere liburuetan.	5
7	Mugikortasuna eta konektibitatea	2
7.1	Eguneroko sareko kaleen erdian baino gutxiagoan dago mugitzeko aukera ezberdinen arteko elkarbizitza edo oinezkotasuna. Baldintza betetzen duten bakarrak igogailuen igoera tramoak eta topoaren pareko Trenbide kalea dira. Bidegorriak gutxitan kointziditzen du eguneroko sarearekin, eta auzoko kale nagusiak ez daude oinezkotuta.	2
7.2	Auzoan bankuak dauden arren eguneroko kale gehienetan ez daude. Bereziki azpi-marragarria da Galtzaraborda etorbidean Beraunetik zentrorra jaisteko tarte guztian ia kilometro oso bat egiten dela bankurik gabe.	1
7.3	Ez dago bizikletak alokatzeko zerbitzu publikorik.	1
7.4	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
7.5	Auzoan ez dago aparkaleku poltsa publikorik, aparkatzeko lekuak ordea bai kaleetan zehar eta etxeen arteko kaleetan.	1

## 6.2.3 Beraun

13. taula. Beraunen egindako azterketan gai eta azpigai bakoitzari egotzitako puntuazio taula.  
Iturria: egileek eginak.

	Gaia eta adierazleari emandako puntuazioaren justifikazioa	Punt
1	Hiri-egituraren konfigurazioa	3,4
1.1	Auzoko bi etxebizitza eraikinek ez ezik, denek dituzte 5 solairu edo gehiago. Altuenek 11 solairu dituzte, eta askok 6 eta 7 solairu. Baldintza betetzen duten bakarrak auzoko eraikin zaharrenak dira, auzoko tipologia orokorra ez dutenak.	1
1.2	Auzoko bi etxebizitza eraikinek baino ez dute baldintza betetzen, berriro ere, auzoko eraikin zaharrenak, auzoko tipologia orokorra ez dutenak. Auzoan bi orientaziotan daude etxebizitza blokeak: ipar-hego eta ipar-ekialde - hego-mendebalde. Ipar-hego zabalerak 15-20 metro bitartekoak dira; ekialde-mendebalde zabalerak 20 metro ingurukoak.	1

1.3	Baldintza betetzen da. Auzoko bloke guztiek dituzte 150m baino gutxiago.	2
1.4	Beraungo biztanleak: 5.596 (Eustat, 2021); harreman espazioen azalera: 34.639 m <sup>2</sup> . Auzokide bakoitzeko harreman espazioen azalera: 6,19 m <sup>2</sup> /pertsonako.	5
1.5	Auzoko harreman espazio ezberdinek funtzio ugari jasotzeko aukera ematen dute. Jolaserako elementu espezifikoak dituzten 5 espazio daude. Jarduera fisikorako elementuak hainbat azpiegitura daude: skate parkea, esplanada zabala korrika egiteko, kantxa Sarriegi plazan. Lasai egoteko Pontika pareko parkea eta Beraun kaleko parkea daude, eserlekudun hainbat tokiz gain.	5
2	Zentro lokalak, dendak eta zerbitzuak	3,75
2.1	Ez da baldintza betetzen. Auzoa ekialdetik mendebaldera 10 minutu baino gehiago behar dira.	1
2.2	Beraunen etxebizitza tipologia bakarra egoteak batasun estetiko eman dio auzoari. Blokeak oso berdinak dira beraien artean eta inguruko auzoekiko ezberdinak.	5
2.3	Auzoan ez dago herri-mailako garraio publikoko geralekurik. Hau ez da puntuatu.	-
2.4	Auzoko ia bloke gehienetan ematen da erabilera nahasketa. Ia eraikin gehienetan komertzioa dago behe solairuetan, eta bestela ekipamenduak edo auzo elkarteen lokalak. Bloke gutxi batzuetan ez da ematen nahasketa lokalak itxita daudelako edo behe solairuetan zeuden lokalak etxebizitza bilakatu direlako.	4
2.5	Auzoan mota guztietako egunerokotasunerako komertzioa dago, mota guztietakoak eta bat baino gehiago: 2 harategi-urdaitegi, 2 frutadenda, 6 okindegi-gozotegi, 2 janari-denda txiki eta supermerkatu bat eta 2 farmazia.	5
3	Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura	3,75
3.1	Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude, eta horietariko asko auzoan bertan daude: Bizarain Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, Koldo Mitxelena DBH, Beraungo ludoteka eta gaztelekua, kirolgunea, eta Udal tramiteak egiteko bulegoa zabalduko dute laster haurreskola zaharrean.	5
3.2	Baldintza betetzen dutenak 7 dira: anbulatorioa, Haur Hezkuntza zentroa, LH zentroa, DBH zentroa, ludoteka, gaztelekua eta kiroldegia. Baldintza betetzen ez dutenak 5 dira: adinekoen eguneko zentrua, administrazio-izapideak jendaurrean egiteko leihatila Udaletxean, haurreskoa, Lekuona Fabrika eta Niessen Kulturgunea Erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza, baina nagusien eguneko zentroa eta haurreskola ez daude barne.	3
3.3	Auzoko ekipamenduen erdiek baino gutxiagok betetzen dute baldintza. Baldintza betetzen dutenak 2 dira: ludoteka eta auzo elkarrearen lokalak. Baldintza betetzen ez dutenak 3 dira: kirolgunea, Bizarain ikastola, Koldo Mitxelena DBH eraikina, Monfragüe elkartea eta Ostarte elkartea.	2
3.4	Biltzeko eta komunitatearekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko hainbat espazio daude. Esan daiteke auzoaren ezaugarri bereizgarrietako bat dela.	5
4	Etxebizitzak	3,2
4.1	Jatorrizko tipologiaren etxebizitza guztiek dituzte oztopo arkitektonikoak, eskailerak baitituzte igogailura heltzeko.	1

4.2	Espazio ireki pribatua etxebizitza guztiek daukate.	5
4.3	Aztertutako etxebizitza tipologia guztiek dira moldagarriak ezarritako 4 baldintzen arabera.	5
4.4	Aztertutako etxebizitza tipologiek 4 gela dituzte, ondorioz, ez dago tipologia aniztasunik gela kopuruari dagokionez.	1
4.5	Auzoko etxebizitza bloke gehienek betetzen dute baldintza hau. 3 bloke bakarrik daude 40 atari berean etxebizitza baino gehiago dituztenak. Gehienek 24 eta 30 etxebizitza inguru dituzte atari bakoitzeko.	4
5	Segurtasun pertzepzioa	4
5.1	Eguneroko sareko kale gehienetan ez dago baxu itxirik. Kale gehienetan komertzioa dago leku puntualetan ez ezik.	4
5.2	Badaude emakumeek ez-seguru bezala hautematen dituzten guneak bakartiak direlako, ireerarik gabeko kaleak direlako edo ikusgarritasun eskasa dagoelako: Juan Cristostomo Arriaga, Beraungo tunela, Pontikarako bidegorria, eta San Marko kalea 13-25 zenbakiak, besteak beste.	1
5.3	Eguneroko sareko kale guztiek dute oinezkoentzako argiztapen jarraitua.	5
5.4	Eguneroko sareko kale guztietan paisaia zaindua dago.	5
5.5	Pertsona anitzen presentzia dago auzoko harreman espazioetan.	5
6	Espazio publikoa	3,57
6.1	Kale gehienetan daude eserlekuak, harreman txokoak edo parkeak. Ez dauden lekuak: Galtzaraborda etorbidean Koldo Mitxelena institutuaren inguruan, Bizarain ikastolaren HH eta LH eraikinaren kurbaren perimetroan eta Jesus Guridi kalean.	4
6.2	Eguneroko sareko kale gehienetan daude zuhaitzak. Ez daude Aita Donostia kalean, egungo diseinuak ezinezko egiten baitu espazio faltagatik.	4
6.3	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
6.4	Espazio publiko nagusia Pablo Sorozabal plaza da. Bertara ez dira ez bidegorria eta ez autobusa heltzen, baina hurbil daude: bidegorria 70 metrora eta autobusa 75 metrora.	3
6.5	Espazio publiko erdiek dute perimetro irekia. Perimetro itxia dutenak dira: Sarriegi plaza, kota aldaketagatik kalearengandik bananduta baitago; Aldakonea plaza etxez eta begetazioz inguratua baitago; eta Luis Mariano plaza, kota aldaketagatik kalearengandik banatuta baitago.	3
6.6	Etxebizitza bloke guztiek dute harreman espazioren bat 300 metro baino gutxiagora espazio publiko irigarria.	5
6.7	Ez dago komunitatearen memoriaren islarik espazioan.	1
7	Mugikortasuna eta konektibitatea	2,6

7.1	Ez dago mugitzeko aukera ezberdinak eskaintzen duen kalerik eguneroko sarean.	1
7.2	Eguneroko sareko kale gehienetan ez dago bankurik. 4 kaletan baino ez daude: San Marko kalean, Aita Donostia kalean eta Jubilatuen elkartearen inguruan, eta Beraun kaleko igogailuaren goiko geralekuan.	1
7.3	Ez dago bizikletak alokatzeko zerbitzu publikorik.	1
7.4	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
7.5	Auzoan badaude aparkaleku poltsa publikoak, batez ere Beraun kalearen inguruan. Izan ere, aparkalekuak non-nahi daude auzoan.	5

## 6.2.4 Kaputxinoak

14. taula. Kaputxinoetan egindako azterketan gai eta azpigai bakoitzari egotzitako puntuazio taula. Iturria: egileek egina.

	Gaia eta adierazladerazleari emandako puntuazioaren justifikazioa	Punt
1	Hiri-egituraren konfigurazioa	4,2
1.1	Eraikinen erdiak baino gehiagok dute behe solairua + 4 solairu edo gutxiago.	4
1.2	Blokeen erdiek baino gutxiagok betetzen dute baldintza. Guztira 29 bloke zenbatu dira, 12k betetzen dute baldintza eta 17k ez.	2
1.3	Baldintza betetzen da. Auzoko bloke luzeenak 75 metro ditu.	5
1.4	Alabergako biztanleak: 3.048 (Eustat, 2021); harreman espazioen azalera: 32.008 m <sup>2</sup> . Auzokide bakoitzeko harreman espazioen azalera: 10,5 m <sup>2</sup> /pertsonako.	5
1.5	Auzoko harreman espazio ezberdinek funtzio ugari jasotzeko aukera ematen dute. Jolaserako elementu espezifikokoak dituzten 3 espazio daude: parkean, terrazetan eta Galtzaraborda etorbide pareko plazan. Jarduera fisikorako elementuak dituen 3 espazio daude: kantzak anbulatorio alboan, terrazetan, eta nagusien kirol elementuak parkean. Lasai egoteko miradorea, parkea, terrazak eta bloke berrien inguruko txokoak daude.	5
2	Zentru lokalak, dendak eta zerbitzuak	3
2.1	Iparraldetik hegoaldera 850 metro inguru ditu auzoak. Ekialdetik mendebaldera 700 metro inguru. Oinez 10 minututan justu zeharkatu daiteke auzoa puntarik punta.	5



2.2	Auzoak ez du diseinu ezaugarri bereizgarri komunik. Bi bloke mota nagusi daude: 70eko hamarkadako luzerako bloke linealak, dorreak eta 90eko hamarkadako bloke linealak. Imajinario kolektiboan dorreekin irudiarekin harremantzen da auzoa presentzia handia baitute. Baina tipologiak aztertzen baditugu ezaugarri estetiko ezberdinak nahasten dira: adreilu akaberadun dorreak, hormigoio akaberako dorre kurbatua, berritu diren dorreak non ez den adreilua mantendu, bloke linealak adreiluzko akabera eta zelosiekin, bloke berrien adreilu gorria... Ez dago unitate estetikorik auzoan eta nahasketa da nagusi.	1
2.3	Auzoan ez dago herri-mailako garraio publikoko geralekurik. Hau ez da puntuatu.	-
2.4	Blokeen erdian baino gutxiagoan ematen da erabilera nahasketa. Guztira 29 etxebizitza multzo daude eta 11tan betetzen da baldintza.	2
2.5	Eguneroko komertzioa badago, eta gutxienez bat eguneroko sarean:harategi-urdaitegi bat, supermerkatu handi bat, hiru okindegi-gozotegi, lau janari denda txiki eta farmazia bat.	4
3	Ekipamenduak eta zerbitzu sozialen azpiegitura	4,5
3.1	Eguneroko sarean eguneroko ekipamenduak daude, gehienak auzotik kanpo. Auzoan daudenak dira: anbulategia, Cristobal Gamónen Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH, eta ludoteka.	5
3.2	Baldintza betetzen dutenak 8 dira: anbulatorioa, adinekoen eguneko zentroa, haurreskoa, Haur Hezkuntza zentroa, LH zentroa, DBH zentroa, ludoteka eta Galtzaraborda kiroldegia. Baldintza betetzen ez dutenak 4 dira: administrazio-izapideak jendaurrean egiteko leihatila Udaletxean; Beraungo gaztelekua, Niessen Kulturgunea eta Lekuona Fabrika.	4
3.3	Gehienek baldintza betetzen dute. Baldintza betetzen dutenak 6 dira: anbulategia, Cristobal Gamónen HH eta LH, ludoteka, igerilekuak eta parrokia. Baldintza betetzen ez dutenak 3 dira: DBH Cristobal Gamón, Don bosco lanbide heziketa, Osasun metaleko zentrua.	4
3.4	Biltzeko eta komunitatearekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko espazioak badaude: Alaitasunaren lokalak, auzo elkarteak eta jubilatuen espazioak.	5
4	Etxebizitzak	3,6
4.1	Etxebizitza erdia baino gehiago diseinatu dira oztopo arkitektonikorik gabe. Aztertu diren tipologiaren artean 652k ez du oztoporik eta 120k bai.	4
4.2	Espazio ireki pribatua etxebizitzaren erdiak baino gehiagok dauka.	4
4.3	Bi baldintza betetzen dira aztertutako tipologia guztietan: gune hezeak elkarrengandik hurbil daude eta komunitate gune komunitatetik sartu daitezke. Gehienek hiru baldintza betetzen dituzte (aipatutakoez gain gelek sarrera indibiduala dute). Aztertutako tipologia guztietan betetzen ez den baldintza: gelek azalera berdintsua dute.	3
4.4	4 eta 5 gelako etxebizitza tipologiak daude aztertutakoen artean, bi tipologia ezberdin bez.	3

4.5	Auzoko etxebizitza bloke erdiak baino gehiagok betetzen du baldintza hau. Guztira 57 atari daude eta baldintza betetzen dutenak 40 dira. 70eko hamarkadako eta 90eko hamarkadako bloke linealetan betetzen da, dorreetan aldiz ez.	4
5	Segurtasun pertzepzioa	3,2
5.1	Auzoko bloke edietan daude kalera zabalik dauden behe-solairuak. Irekita daudenetan dendak edo etxebizitzak daude, eta itxita daudenetan lokal komertzial itxiak edo dorreen behe solairuak hesiekin itxiak.	3
5.2	Badaude emakumeek ez-seguru bezala hautematen dituzten guneak: telefonika eraikinaren ingurua, Galtzaraborda etorbidea, rotonda ingurua, Sorgintxulo kaleko arkupeak, tunel ingurua, Basanoaga kalea eta Sorgintxulo dorreen atzealdea besteak beste.	1
5.3	Eguneroko sareko kale guztiek dute oinezkoentzako argiztapen jarraitua.	5
5.4	Hiri paisaia zaindua dago kale gehienetan. Ez dago terrazetatik Sorgintxulo kalera jaisten diren eskaileretan, Sorgintxulo kaleko lorategietan eta Basanoaga kalean.	4
5.5	Harreman espazioetan badaude emakumeak bakarrik, baita umeak eta nagusiak ere.	3
6	Espazio publikoa	4,14
6.1	Eguneroko sareko kaleen erdian daude eserlekuak, harreman txokoak edo parkeak. Falta dira Don Boskorako igoeran, Sorgintxuloko goiko aldean, eta Sorgintxulotik igotzen den igogailuaren igoeran.	3
6.2	Eguneroko sareko kale guztietan badaude zuhaitzak.	5
6.3	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
6.4	Espazio publiko nagusia Fuentepelayo plazatxo da, "terrazak" bezala ezagutzen dena. Bidegorria 150 metrora dago eta autobus geltokia 85 metrora.	3
6.5	Espazio publiko erdiek perimetro irekia dute. Ez dutenak dira: Antonio Valverde plaza, kota aldaketa baitu eta etxez inguratuta baitago; Fuentepelayo plazatxo, etxeak eta kota aldaketa baititu; eta José Manuel Zamarreño parkearen perimetro zati handiena kota aldaketarengatik.	3
6.6	Etxebizitza bloke guztiek dute harreman espazioren bat 300 metro baino gutxiagora espazio publiko irisgarria. Izan ere, etxebizitza guztiek dute bloke azpian harreman espazioa eserlekuekin.	5
6.7	José Manuel Zamarreño parkearen izena komunitatearen memoriaren isla dela esan dezakegu. Kaputxinoetako auzokidea zen eta Udaleko zinegotzia, 1998ean ETAk erail zuena auzoan bertan.	5
7	Mugikortasuna eta konektibitatea	1,8
7.1	Ez dago mugitzeko aukera anitzik eguneroko sareko kaleetan. Bidegorria ez da eguneroko saretik igarotzen, eta ez dago peatonalizatutako gunerik auzoan.	1
7.2	Eguneroko sareko kaleen erdian baino gutxiagoan daude bankuak, eta beraien artean 100m baino gehiagora daude. Banko jarraiak dituen tarte bakarra Sorgintxulo kalea parrokia ingurua da.	1
7.3	Ez dago bizikletak alokatzeko zerbitzu publikorik.	1
7.4	Auzo osoan betetzen da baldintza.	5
7.5	Auzoan ez dago aparkaleku poltsa publikorik.	1

## 6.3 Bibliografia

### Iturri bibliografikoak

Amalatz Talde Feminista (2003), *Emakumeak eta hiria. Gure hiri espazioari buruzko gogoetak. Auzo Elkarteetako emakume taldeen diagnostikoa*, Errenteria, Errenteriako Udala.

ARRIETA, Anselmo (1964), «Rentería necesita nuevas Parroquias», *Oarso* 1964, Errenteria, Errenteriako Udala, 13-15 orr.

AZCONA URIBE, Leire (2016), *Aspectos tipológicos de la vivienda protegida de posguerra (1939-1959). Ejemplificación en el territorio guipuzcoano*, UPV/EHU.

AZCONA URIBE, Leire (2016), «Repercusión del movimiento moderno en la producción de vivienda protegida en Gipuzkoa (1939-1959)», *Movimiento moderno: patrimonio cultural y sociedad*, Delegación Gipuzkoa COAVN, 188-194 orr.

BOX, Zira (2012), «El cuerpo de la nación. Arquitectura, urbanismo y capitalidad en el primer franquismo», *Revista de estudios políticos* 155 zb., Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 51-181 orr.

CIOCOLETTO, Adriana (2014a), *Urbanismo para la vida cotidiana. Herramientas de análisis y evaluación urbana a escala de barrio desde la perspectiva de género*, Bartzelona, Universidad Politécnica de Cataluña.

CIOCOLETTO, Adriana (2014b), *Espacios para la vida cotidiana. Auditoría de calidad urbana con perspectiva de género*, Bartzelona, Comanegra.

Col·lectiu Punt 6 (2019), *Urbanismo feminista*, Bartzelona, Virus.

COLOMINA, Beatriz (2019), *Arquitectura de rayos X*, Bartzelona, Puente editores.

DELPHY, Christine (2023), *Por un feminismo materialista*, Bartzelona, Verso.

ETXEPARE IGIÑIZ, Lauren eta GARCÍA NIETO, Fernando (2012), «Contexto y arquitectura de Luis Tolosa entre 1937 y 1950», *La arquitectura de Luis Tolosa*, Donostia, Nerea, 248-293 orr.

FEDERICI, Silvia (2017), *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak*, Iruñea, Katakarak.

FERNÁNDEZ DE BETOÑO SÁENZ DE LACUESTA, Unai (2014), *Hirigintzaren oinarriak*, Bilbo, UEU-UPV/EHU.

Hainbat egile (1950), *La carta de Atenas. El urbanismo de los CIAM*, Buenos Aires, Editorial Contémpera.

Hainbat egile (1996), *Errenteriako Historia*, Errenteria, Errenteriako Udala.

Hainbat egile (2013), *Gender Mainstreaming in urban planning and urban development*, City of Vienna.

Hainbat egile (2018), *Inseguridad real y percibida en el municipio de Errenteria. Estudio-diagnóstico de la inseguridad en el municipio de Errenteria*, Donostia, UPV/EHU.

Hainbat egile (2022), *Guía de buenas prácticas en materia de paisaje. Desarrollos residenciales 1950-75*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU.

Hirigintz Koordinadora (1978): «Gure Errenderi-Informe urbanístico», *Hirigintza aldizkaria 7. zb.*, Errenteria, Errenteriako Auzoetako Hirigintza Batzordeen Koordinadora.

Ikertalde (2016), *Estudio de la movilidad de la Comunidad Autónoma Vasca*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

JACOBS, Jane (2013), *Muerte y vida de las grandes ciudades*, Madril, Capitán Swing.

LABAYEN, Joaquín eta AIZPURUA, José Manuel (1930), «Real Club Náutico de San Sebastián», *Revista Arquitectura 130 zb.*, Madril, Colegio Oficial de Arquitectos de Madrid, 24-27 orr.

LIZUNDIA URANGA, Iñigo (2012), *La construcción de la arquitectura residencial en Gipuzkoa durante la época del desarrollismo*, UPV/EHU.

LÓPEZ DE LUCIO, Ramón (2012), *Vivienda colectiva, espacio público y ciudad. Evolución y crisis en el diseño de tejidos residenciales 1860-2010*, Madril, NOBUKO.

LÓPEZ SIMÓN, Iñigo (2018), LOS OLVIDADOS. *Marginalidad urbana y delincuencia juvenil en los extrarradios de las ciudades industriales: Otxarkoaga y San Blas [1959-1986]*, UPV/EHU.

MARIA MONTANER, Josep, MUXÍ MARTÍNEZ, Zaida eta H. FALAGÁN, David (2011), *Herramientas para habitar el presente. La vivienda del siglo XXI*, Bartzelona, Universidad Politécnica de Cataluña.

MARTICORENA, José Ramón eta AYERZA, Ramón (2014), «Arquitectura de Falange en Rentería El poblado de Alaberga», *Oarso 2014*, Errenteria, Errenteriako Udala, 65-73 orr.

MAYORAL VALLÉS, Isabel (2021), *Espacio colectivo en la vivienda de los 70. Redes soporte de espacios intermedios que permiten los encuentros sociales entre los residentes en grandes complejos de vivienda brutalista*, Universidad Politécnica de Madrid.

MIRALLES-GUASCH, Carme eta DELCLÒS ALIÓ, Xavi (2018), «Looking at Barcelona through Jane Jacobs's eyes: Mapping the basic conditions for urban vitality in a Mediterranean conurbation», *Land Use Policy 75 zb.*, web, 505–517 orr.

MONCLÚS, Javier eta DÍEZ, Carmen (2015), «El legado del Movimiento Moderno. Conjuntos de vivienda masiva en ciudades europeas del Oeste y del Este. No tan diferentes...», *Rita aldizkaria 3 zb.*, Madril, redfundamentos S.L., 88-97 orr.

MUMFORD, Eric (2007), «El discurso del CIAM sobre el urbanismo», *Bitácora Urbano Territorial aldizkaria*, Bogotá, Universidad Nacional de Colombia, 96-115 orr.

MUXÍ MARTÍNEZ, Zaida (2009), *Recomanacions per a un habitatge no jeràrquic ni androcèntric*, Bartzelona, Generalitat de Catalunya.

MUXÍ MARTÍNEZ, Zaida (2018), *Mujeres Casas y Ciudades. Más allá del umbral*, Bartzelona, dpr-barcelona.

NOVAS, María (2021), *Arquitectura y género*, Santa Cruz de Tenerife, Melusina.

PÉREZ-MORENO, Lucía C. ed. (2018), *Perspectivas de género en la arquitectura*, Madril, Abada editores.

PONTE ORDOQUI, Enrique (2016), *La construcción de la ciudad. Gipuzkoa 1940-1976*, Gipuzkoako Foru Aldundia.

RAMÍREZ GOICOECHEA, Eugenia (2000), «El estigma de Beraun: conflicto, espacio y alteridad», *Inguruak 6 zb.*, web, 125-150 orr.

SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés (2004), *Urbanismo con perspectiva de género*, web, Junta de Andalucía.

VARELA ALONSO, Miriam (2017), *Ocharcoaga. El polígono de las flores amarillas*, UPV/EHU.

## **Artxiboak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (EAE-HAAN)

Errenteriako Udal Artxiboa (EUA)

Errenteriako Hirgintza Artxiboa (EHA)

## **Iturri ofizialak**

Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra

Gipuzkoako Hiri-Katastroa

Eustat

## 6.4 Resumen / Résumé / Summary

### Resumen

A principios del siglo XX surgió una corriente innovadora en el ámbito de la arquitectura y el urbanismo denominada Movimiento Moderno. Ante las precarias condiciones de salud urbana provocadas por la ciudad industrial, los arquitectos modernos propusieron una nueva arquitectura basada en el higienismo. En 1933 se sentaron las bases del Urbanismo Funcionalista y se definieron una serie de criterios a seguir para el diseño de las ciudades, que se recogieron en la Carta de Atenas. Estas ideas influyeron enormemente en la formalización de los núcleos urbanos que se construyeron en las décadas posteriores y, en consecuencia, en las características de los barrios que se construyeron en Erreterria durante el Franquismo.

Los barrios de la época eran esencialmente polígonos de viviendas, creados como zonas residenciales para la clase trabajadora de los núcleos industriales de la comarca. En este trabajo analizamos cuatro barrios que surgieron en esos años en Erreterria, con el objetivo de identificar sus fortalezas y debilidades a la hora de facilitar la vida cotidiana de sus vecinas y vecinos, y para facilitar relaciones comunitarias. El estudio se centra en los barrios que abarcan el área occidental del municipio: Alaberga, Galtzaraborda, Beraun y Capuchinos. Hemos analizado estos cuatro barrios, surgidos entre las décadas de los 50 y los 80, desde la mirada del urbanismo feminista, para conocer los condicionantes del entorno edificado a la hora de desarrollar la esfera reproductiva de la vida cotidiana, así como las relaciones vecinales y comunitarias.

En este trabajo hemos querido explicar la influencia que tuvieron las ideas del Movimiento Moderno en la morfología urbana de muchas barriadas de los pueblos y ciudades de nuestro entorno, para, a continuación, analizarlas desde la mirada de sus vecinas y vecinos, y extraer aprendizajes sobre sus características urbanas. Porque en nuestro entorno, son muchos los barrios que se crearon en esas décadas, a menudo infravalorados y despreciados, y que pueden darnos interesantes lecciones para aplicar en el urbanismo que estamos haciendo hoy en día.

### Palabras clave

Urbanismo funcionalista, urbanismo feminista, Erreterria, desarrollismo, vida cotidiana.

## Résumé

Au début du XXe siècle, un courant innovant émerge dans le domaine de l'architecture et de l'urbanisme appelé le Mouvement Moderne. Face aux conditions sanitaires urbaines précaires provoquées par la ville industrielle, les architectes modernes ont proposé une nouvelle architecture basée sur l'hygiène. En 1933, les bases de l'urbanisme fonctionnaliste furent posées et une série de critères à suivre pour la conception des villes furent définis, qui furent inclus dans la Charte d'Athènes. Ces idées ont grandement influencé la formalisation des centres urbains construits au cours des décennies suivantes et, par conséquent, les caractéristiques des quartiers construits à Errenteria à l'époque franquiste.

Les quartiers de l'époque étaient essentiellement des lotissements, créés comme zones résidentielles pour la classe ouvrière des centres industriels de la région. Dans ce travail, nous analysons quatre quartiers apparus au cours de ces années à Errenteria, dans le but d'identifier leurs forces et leurs faiblesses lorsqu'il s'agit de faciliter la vie quotidienne de leurs voisins et de faciliter les relations communautaires. L'étude se concentre sur les quartiers qui couvrent la zone ouest de la commune : Alaberga, Galtzaraborda, Beraun et Kaputxinoak. Nous avons analysé ces quatre quartiers, apparus entre les années 1950 et 1980, dans la perspective de l'urbanisme féministe, pour comprendre les conditions de l'environnement bâti lors du développement de la sphère reproductive de la vie quotidienne, ainsi que des relations de quartier et de communauté.

Dans ce travail, nous avons voulu expliquer l'influence que les idées du Mouvement Moderne ont eu sur la morphologie urbaine de nombreux quartiers des villes qui nous entourent, pour ensuite les analyser du point de vue de leurs voisins et en tirer des leçons sur leur impact urbain. caractéristiques. Parce que dans notre environnement, il existe de nombreux quartiers qui ont été créés au cours de ces décennies, souvent sous-estimés et méprisés, et qui peuvent nous donner des leçons intéressantes à appliquer dans la planification urbaine que nous faisons aujourd'hui.

## Mots-clés

Urbanisme fonctionnaliste, urbanisme féministe, Errenteria, développementalisme, vie quotidienne.



## Summary

The early 20th century saw the emergence of an innovative trend in architecture and urban planning known as the Modern Movement. Faced with the precarious urban health conditions caused by the industrial city, modern architects proposed a new architecture based on hygienism. In 1933, the foundations of Functionalist Urbanism were laid and a series of criteria were defined for the design of cities, which were set out in the Athens Charter. These ideas had an enormous influence on the formalisation of the urban centres that were built in the following decades and, consequently, on the characteristics of the neighbourhoods that were built in Erreterria during Franco's regime.

The neighbourhoods of the time were essentially housing estates, created as residential areas for the working class in the industrial centres of the region. In this paper we analyse four neighbourhoods that emerged in those years in Erreterria, with the aim of identifying their strengths and weaknesses when it came to facilitating the daily life of their neighbours, and to facilitating community relations. The study focuses on the neighbourhoods in the western part of the municipality: Alaberga, Galtzaraborda, Beraun and Capuchinos. We have analysed these four neighbourhoods, which emerged between the 1950s and 1980s, from the perspective of feminist urban planning, in order to find out about the conditioning factors of the built environment when it comes to developing the reproductive sphere of everyday life, as well as neighbourhood and community relations.


In this work we have tried to explain the influence that the ideas of the Modern Movement had on the urban morphology of many neighbourhoods in the towns and cities around us, in order to analyse them from the point of view of their neighbours, and to learn lessons about their urban characteristics. Because in our environment, there are many neighbourhoods that were created in those decades, often undervalued and despised, and that can give us interesting lessons to apply in the urban planning that we are doing today.

### Key words:

Functionalist urbanism, feminist urbanism, Erreterria, developmentalism, daily life.







**ERRETERIA**  
UDALA



ISSN: 0214-624x

